

# AHOZ AHO

ARANTZAZUKO KANTA ZAHARRAK

ISBN: 978-84-7240-307-9

L.G.: SS-795-2018

© Arantzazuko Frantziskotar Probintzia

---

**ARANTZAZU E. F.**

Arantzazuko Santutegia – 20567 Oñati  
Tfn. 943780951 / Tfx. 943783370

---

Ategorrieta Hirib. 23, 1 esk. – 20013 Donostia  
Tel. 943271713  
abaltzategi@jakin.eus

---

*Banaketa / Distribución*

Castillo de Villamonte, 2. – 01007 Vitoria-Gasteiz  
Tfn./Tfx. 945147224  
P.E.: info@edicionesfranciscanasarantzazu.com

---

Graf. Astarriaga – 31178 Abartzuza

**ADK – ARANTZAZU DUT KANTAGAI**

**— IX —**

**SALBATORE MITXELENA**

**AHOZ AHO**  
**ARANTZAZUKO KANTA ZAHARRAK**

*Edizio kritikoa*

PAULO AGIRREBALTZATEGI

**efarantzazu**  
edizio frantziskotarrak – ediciones franciscanas

**Oñati, 2018**

**ADK**  
**“ARANTZAZU DUT KANTAGAI”**  
liburu saileko liburukiak:

ADK-I. ARANTZAZU: BOST MENDE TAKO POEMAGINTZA

ADK-II. ARANTZAZUKO BALADAK ETA KOPLA ZAHARRAK

ADK-III. ARANTZAZUKO KONDAIRA BERTSOTAN

ADK-IV. ARANTZAZUKO BERTSO BERRITAN

ADK-V. ARANTZAZUKO OLERKIAK ETA OLERKARIAK

ADK-VI. ARANTZAZUKO KANTA BERRIAK

ADK-VII. GANDIAGA: ARANTZAZU DUT KANTAGAI

ADK-VIII. ARANTZAZU CANTADO POR SUS POETAS

**ADK-IX. AHOZ AHO. ARANTZAZUKO KANTA ZAHARRAK**

ADK-X. ARANTZAZUKO ARTXIBOKO BERTSOPAPERAK

## AURKIBIDEA

Lexikoa .....	7
Siglak eta laburdurak .....	9
Editorearen prologoa ( <i>Paulo Agirrebaltzategi</i> ) .....	13
Bibliografia .....	37
Hitzaurrea.....	43
<b>I. Andre Maria agertu zenekoa: “Errodrigotxo Baltzategiko” .....</b>	<b>67</b>
Doinuak.....	86
<b>II. Serora bat erromes: “Abuztuaren hamabosgarren” .....</b>	<b>91</b>
Doinuak.....	103
<b>III. Arantzazura bidean: “Arantzazura egin dut promes”.....</b>	<b>105</b>
Doinuak.....	142
Gehigarriak .....	151
Editorearen epilogoia ( <i>Paulo Agirrebaltzategi</i> ).....	159
Salbatore Mitxelenaren heriotzako bertso sorta bi ( <i>Iñaki Eizmendi “Basarri” eta Jesus Lete “Ibai-ertz”</i> ).....	181

## S. MITXELENAREN TERMINOLOGIA

*Mitxelenak bere obran darabiltzan hitz bereziren batzuk ekarri ditut hona, bakoitzaren testuinguruan, irakurleak ulertzeko lagungarri. Hasteko, edizio honen Prologo-Epilogoetan eta oharretan sarri agertuko den terminoetako bat, Mitxelenak maiz erabilia, argitu behar: **Txukundu** (Kanta Zaharrak txukuntzea).*

**txukundu (txukuntze-lana):** Erromantze baten aldaerak ordenatu eta bateratu, herriaren ahotan bertso puska nahasitan dabilen gaiari literatur forma jasoagoa emate aldera –‘hobekuntza-lana’ ere deitzen du–... “Hona hemen, maiteki-maiteki txortatuta, Arantzazuri buruzko gure herriaren kanta zaharrak. Ez dira guziak. Jaso ahal izan ditugunak bakarrik. Gehienak hemen dituzu. Ia denak, esango nizuke. 6 erromantze gizalditsu, osorik bezala; eta zenbait bakarrezko kopla apurño: horixe da azkeneko gizaldi honetan Euskal Herriari jaso ahal izan zaiona, eta nik txukunduta eskaintzen dizudana” (1. or.). // “Honi [I. Omaetxebarriari, "Aritzondori"] zegokion, neri baino, [Arantzazuko Kanta zaharren] txukuntze-lana; berak aspalditik hasia zuenez, eta horretan hainbeste dakienez” (11. or.). // “Kalte penagarria derizkiot, [Arantzazuko Kanta Zaharren] Bilduma hauxe, hogei urte honetan argitara-gabe ezkutuan alferrik egondu izanari. Kalte penagarria, beste zenbait euskal kanta eder-aukeratuenak ertilarri on batek, sorta apainean txukunduta, oraindik aurkeztu ezari” (12. or.). // “Nik liburu honetan, txukundu eta iruzkinak jarri baizik ez dizut egin” (22. or.).

Neure aldetik “**Kanta Zahar txukundua**” edo “**Erromantze txukundua**” deitu dut, beraz, Mitxelenak berak liburu honetan, handiko eta hemendiko aldaera eta puskak bateratu eta lotuz, eskaintzen digun hiru kanta osatu eta eraikietako bakoitza.

**albo-herri:** inguruko herria...“Albo-herrietako hizkuntzetan hauxe dugu, beraz, poesi-keraz zaharrena” (21. or.).

**asele:** tradizioa... “Gaiak etena duenean, hitz gutxienez eta herrikoienez eta egiatasunez, herri-aseletik (tradiziotik) hornitu, iruzkinean agertuz” (22. or.). // “Hala eta guztiz ere, maitagarria hauxe ere. Asele polit baten arabera jaioa baita; ipuin politaren ilargi pean nafar arbasoek kantatua” (33. or.). // “Hau pena! –zioen Lizarralde bihotz-minduak– herri-aselea bera, euskal tradizio edo jakintza bera, hilko zaigu, badoakigu, bere esanahia eta muina guk atzeman gabe” (7. or.).

- enderri:** nazioa...“Orduko beste enderrietako balada eta erromantzerik ez dago, honek haiekin duen antza eta izan-giroa ikusteko” (32. or.).
- ezotu:** hezetu (umotu?)... “Inork ezotu eta txukuntzen ez dituenean, teknika-distira gabeko herri-kanta jaberik gabeak...” (8. or.).
- gurutze-bide.** Hirugarren kapituluan sarritan ageri den hitz hau ‘gurutz-bide’ idatzi izan du Mitxelenak; batzuetan zuzeneko esanahi errealista –gurutze-bidea = Kalbariora bidea– dela dirudi; bestetan Eliz otoitz-ariketa adierazi nahi du nonbait.
- hizki:** testua, hitza (doinuarena, adibidez)... “Azkuek dioen euskal kantetan sarri gertatzen den metempsikosia: doinu bat, alegia, jatorrizkotik beste hizkietara aldatua dugula” (18. or.).
- hoxkil:** erkina, makala... “Hil-zaharren ‘uste’ honetaz konturatu gabe, ezin sinistuko luke gure gaurko hoxkilak honenbestearainoko oinaze-zalea Euskal Herriak izan zezakeenik” (76. or.). // “Eta han, horma zahar gizalditsuen barne iluntsuan taupaka sumatzen dugu, kanpoan hoxkil aurkitzen den euskal arima ondradua, euskaltasunarekin santutasuna dariola” (2. or.).
- itatoka:** hika (hitz egin)... “Zuri [sic] edo huragatik, zuka edo itatoka jardun beharrak ez dio bildurrik” (36. or.).
- lerren:** ahalegin handia (lerrenak agortu = lehertu)... “...azkenik gurutzea zutik tinkatuta, haren parean besoak zabalik, lerrenak agortzera arte...” (78. or.).
- leinargi:** jatorrasuna...“Zer ikusirik gutxi dute, gero, elkarrekin bertsoek eta kanta zaharrek joskeran eta leinargiz” (27. or.).
- liparño:** zatitxoa... “Azkuek ere beste lau tokitan badakartza “honako honen zenbait liparño” (55. or.). // “Haiek jendearen gogamenean erdizkatu zirenean, puska-puska egin zirenean, orduan eta haiengandik sortu ziren erromantzeak, oinordeko poema luze haien liparño bailiran “ (21. or.).
- tai gabe:** etenik gabe... “Ama Birjina agertu arte tai gabe euskal fedea ermitagintzan ikusi beharra dauka” (81. or.).
- txamar (txamarka):** puska... [Erromantzeak] “Herriak kantatzen dituen bezalaxe daude, txamarka hemen ere, nahasian eta lardaski” (10. or.). // “Lehendabizi, albiste-txamar bat baizik ez zenuen, estrofa bat edo beste. Gerora, pixkaka-pixkaka, rapsodia batua osatuko zaizu estrofa haiekin: horra erromantzea” (22. or.).
- xerbeldu:** zoramenak hartu (norbait)... “Arantzazu izena mintza diozun orduko, elorri-arantzen zuriz jantzitako “zapatu egun bat” hura gogoratzen jarriko (xerbelduko) zaizu, beste dena utzita” (67. or.).

## BIBLIOGRAFI SIGLAK ETA BESTELAKO LABURDURAK

*Txosten honetan erabilitako bibliografi siglaren azalpena doa hemen.  
Prologo honen azkenean doa, bestalde,  
liburuan aipaturiko bestelako bibliografiaren berri.*

- ABA – S. Mitxelenaren *Aboz Abo* liburuaren eskuizkribua (AranLitArtx, ABKZ: ABA, 07-002) (lehen Zarauzko San Frantzisko komentuko Artxi-boa: Caj. 144 D 11).
- ABB – SALBATORE MITXELENA, *Aboz abo. Arantzazuko Kanta zaarrak*, in: *Idazlan guztiak* (Ed.: Karmelo Iturria eta Jose A. Gandarias), Arantzazu-Oñati: E.F.A., 1984, 613-671 or.
- AHH – *Ahoz Aho* tituluaren laburdura: *Aboz abo. Arantzazuko Kanta zahar-rrak* liburuaren edizio kritikoa, AKD saileko liburuki honetan doana. Prologoan eta Epilogoan hainbat bider dago aipatuta.
- ADK – PAULO AGIRREBALTZATEGI, *Arantzazu Dut Kantagai*. Arantzazu kantatzen duten balada, olerki, bertso eta bestelako testu poetikoen edizio kritikoa, liburukitan sailkatua. Honako hauxe da horietan IX.a.
- AEP-1 – SALBATORE MITXELENA, *Arantzazu. Euskal-poema*, Oñate: Editorial Aránzazu, 1949.
- AEP-2 – SALBATORE MITXELENA, *Arantzazu. Euskal Poema* (1984, 2. ed.), in: *Idazlan guztiak*, (Ed.: Karmelo Iturria eta Jose A. Gandarias), Oñati: Editorial Franciscana Aránzazu, 1-300 or.
- AKDB – “Arantzazu Kantagai. Datu-Basea” (Arantzazuri buruzko balada, koplak, kanta, bertso sorta eta olerkien eta *Arantzazu* aldizkariko bertso eta olerkien datu-base digitala). Edizio kritikoa (P. Agirrebaltzategi).
- BN – SALBATORE MITXELENA, *Bizi nai*, in: *Idazlan guztiak-II*, Oñati: E.F.A., 253-300 or.
- CPV – RESURRECCIÓN M. DE AZKUE, *Cancionero popular vasco*, I-II tomo, Bilbao: Biblioteca de La Gran Enciclopedia Vasca, 1968 (2. edizio fak-simila).



EERV – ANTONIO ZAVALA, *Euskal Erromantzeak. Romancero Vasco* [Auspoa Liburutegia], Oiartzun: Sendoa arg., 1998.

GAK – *Romances Euskéricos de Aránzazu* tituluko koadernotxo. REA/JK-ko 31 doinuen eskuzko kopia, bakoitza ahapaldi banarekin (Jose A. Gandariasen artxiboan aurkitua). (Badirudi S. Mitxelenak baliatu zuela, horko bi doinu, beste inon ez daudenak, aztertu baitzituen bere MDO txostenean).

MDO – S. Mitxelenaren hiru orrialdeko eskuizkribua, “Romancero Popular Vasco de Aránzazu” izenekoa, non REA/JK-ko “Abuztuaren hamabosgarren” baladaren doinu ezberdinen eta beste pare baten azterketa kritikoa egin baitzuen (Arantzazuko Balada eta Kanta Zaharren Bildumaren barruan dago).

MIG – SALBATORE MITXELENA, *Idazlan guztiak*, Oñati: E.F.A (I. tomoa, MIG-I, 1977; II tomoa, MIG-II, 1984).

OEA – “Omaetxebarriaren Eskuizkribuen Artxiboa”: Arantzazuko Balada eta Kanta Zaharren Bildumako sortetako bat, Ignazio Omaetxebarria fraide frantziskotarrak bildu eta eskuz transkribatutakoena, P. Agirrebaltzategik moldatua: 35 dok. (ik. ADK liburu-sorta, I. lib. 2. atala).

OKA-1984 – SALBATORE MITXELENA, *Ogei kanta Arantzazuko*, in: *Idazlan Guztiak-II*, Oñati: Editorial Franciscana Aránzazu, 1984, 585-611 or. (3. edizioa da hori; 1. ed., 1952; 2. ed., 1969).

REA/JK – *Romances Euskéricos de Aránzazu*. (u. g.), Arantzazuko Balada eta Kanta Zaharren Bildumako Koaderno (liburu) nagusia, 200 or. Horren berri eta deskripzio zabalerako ik. ADK-I, 2. atala: “REA/JK-ren familia ugaria”.

### **Bestelako laburdurak**

A.t.a.: autorearen testu-aldiera (Mitxelenak ABA eskuizkribuan –jatorrizkoaren gainean edo parentesi artean– iradokitako hitz edo testu-aukera, baina jatorrizkoa ezabatu gabe).

Bibl. erref.: Bibliografi erreferentzia.

dok.: Artxiboko dokumentua

erg.: AKDB-ko erregistroaren (edo fitxaren) zenbakia.

## EDITOREAREN PROLOGOA

### 1. Salvatore Mitxelenaren literatur obra

Gazterik hil zen Salvatore Mitxelena, Zarautzen jaioa (1919) eta Suitzako La Chaux-de-Fond herrian zendua (1965): 47 urte besterik ez; baina ondare garrantzizkoa utzi zion euskal literaturari: poesia, saiakera, antzerkia. Ikerketaren generoan sartu beharko genuke agian Arantzazuko “Kanta Zaharrei” (Erromantze edo Baladei) buruzko hemengo liburu hau.

1949an argitaratu zuen bere lehen obra handia Mitxelenak: *Arantzazu. Euskal-poema* edo *Arantzazu. Euskal-sinismenaren poema*; edizio honetan AEP siglaz nahiz *Poema* izenez aipatuko dut sarritan. Espainiako gerra zibilaren ondoren Hego Euskal Herrian argitaraturiko lehen obra literarioa izan zen. Horren hirugarren partea, “Bizi nai” izeneko, orduko giro politikoagatik publikatzerik ez eta, beranduago argitaratu behar izan zuen atzerrian, *Euzko-gogoa* aldizkarian. 1949. urte hartan euskaltzain urgazle izendatu zuten Mitxelena.

Ondorengo urteetan beste zenbait obra argitaratu zuen: *Ama-semeak Arantzazuko kondairan* (saiakera historikoa, 1951), *Hogei kanta Arantzazuko* (abestiak, 1952), *Arraun eta Amets* (olerkiak, 1955), *Unamunota Abendats* (saiakera, 1958). Hiltzean, argitaratu gabe utzi zituen beste lau obra labur: a) *Aberrriak min dit, ta miñak olerki...* (poesia eta prosa laburra), antzerki moduan eraturako b) *Confixus* eta c) *Erri bat gurutz-bidean*, d) *Aboz abo. Arantzazuko Kanta-zarrak* ikerlana.

1977-1984 urteetan haren idazlan guztiak argitaratu zituzten bi tomo marduletan: Salvatore Mitxelena, *Idazlan guztiak*, EFA, 1977 (I. t.), 1984 (II. t.). Editoreak: Karmelo Iturria eta Jose A. Gandarias. Bigarren tomoaren azkenean aurki daiteke *Aboz abo* (613-671 or.).

Edizio horretan aurkitu ahal ditu, beraz, irakurleak lehendik argitaratuak eta artean argitaratu gabeak, denak batean argitalpen txukunean. Horixe erabiliko dut Mitxelenaren testuen aipamenak egiteko: MIG sigla erabiliz (MIG-I, lehen tomoa; eta MIG-2, bigarren tomoa).

Tomo bietan irakur daitezke, era berean, Mitxelenari eta beraren obrari buruzko idazlan lagungarri oso baliozkoak, hemen izendaturik doazenak:

### **I. tomoan:**

- Mitxelenaren bizitzaren kronologia (XIII-XVII or.).
- Edizioaren hitzaurre orokorra: “S. Mitxelenaren bila” (Jose Antonio Gandarias, XIX-XXV or.).
- Mitxelenaren obraren irakurketa kritikoa: “Salvatore Mitxelena bere lekuratzeko” (Joxe Azurmendi, XXVII-LVII or.).
- “Mitxelenarekin pentsaketan” (Eujenio Agirretxeren lekukotza pertsonala, LIX-LXVI or.).
- Atal edo obra bakoitzari Karmelo Iturriak idatzitako sarrera laburrak (3-4, 172-176, 299-301 or.).
- Karmelo Iturriak berak Salvatore bere adiskidearen heriotzakoan idatzitako lekukotza: “Agur, Salvatore” (451-456 or.).

### **II. tomoan:**

- Mitxelenaren biografiaren azalpen laburra: “Salvatore Mitxelenaren pertsona” (Luis Villasante, XI-XV or.).
- “Salvatore Mitxelena bere lekuratzeko”, Joxe Azurmendiren idazlan kritikoaren bigarren atala (XVII-XCVI or.).
- Salvatore Mitxelenari buruzko bibliografia (673-682 or.).

Harrigarria bada ere, bibliografia horretan ez da ageri Jakin taldeak argitaraturiko liburu monografiko bereziaren berririk: *Salvatore Mitxelena* ([Jakin sorta, 2], Oñati: EFA, 1970, 139 or.). Ageri da, ordea, Karmelo Iturriak berak idatzitako *Salvatore Mitxelena. Bizitza eta idazlanak* liburuxka (Donostia: CAP, 1979).

Aski dut hemen idatzi horietara bidaltzea, Salvatore Mitxelenaren bizitzari eta obrari buruz gehiago ezagutzeko jakinminez dagoen

irakurlea. Edizioko lankideak, Azurmendi izan ezik beste guztiak, Salbatoreren ikaskide eta adiskide eta Arantzazuko Teologi ikasketa urteetan harekin batera BAI-kide –bertako euskara-taldekoak<sup>1</sup>– izateak testigutza-balio berezia ematen dio horri.

Eta besterik gabe, neure aldetik haren obra jakin bat erakustera joko dut: Arantzazuko “Kanta Zaharrei” (Balada edo Erromantzeei) buruzko *Aboz abo* izeneko azterlana –“folklore-lana” deitu zuen berak–.

## 2. Eskuizkribuaren deskripzioa

Mitxelenearen *Idazlan guztiak* (MIG) edizioan argitaratu zuten, beraz, lehenbizikoz liburu hau (II, 613-671 or.), *Aboz abo. Arantzazuko Kanta Zarrak* tituluarekin –ABB siglaz izendatuko dut hemen–. Mitxelena berak utzitako eskuizkribua eta 1970ean Joan Mari Torrealdaik egindako horren transkripzio daktilografiatua baliatu zituzten zuzenean ediziorako.

Alde bietatik idatzitako koartila tamainako paper sorta da eskuizkribua oro har; baina tartean bestelako formato eta itxurako orriak ere badaude; batzuk handiagoak, bitan tolestatuta. Paragrafo, lerro eta hitz ezabatu, aldatu eta gehitu asko du eskuizkribuak. Horietako hainbat, jatorrizko testua idaztean bertan dago ezabatuta, ordekoa eskainiz jarraian; baina jatorrizko hitz edo esaldien aldaera asko geroago idatziak (zuzenduak, gaineratuak) dira. Batzuetan jatorrizko hitza ezabatu gabe, bi hitzen aukera utzi zuen –horrelakoak parentesi artean eman zituen ABB edizioak; hemen nahiago izan dut oin-oharretara eraman horrelakoak, testu nagusiaren irakurketa errazte aldera–.

Inoren aipuak sarritan testuaren tartean daude sartuta eskuizkribuan, baina nahikoa ondo adierazita oin-oharretara joatekoak direla edo; erreferentzia bibliografiko soilak ere bere testuaren barruan eman zituen gehienetan; horrelako aipu eta bibliografi erreferentzia guztiak oin-oharretara eraman ditut edizio honetan.

Lau atal garbi ditu eskuizkribuak: Hitzaurrea eta hiru kapitulu –atal bakoitzak bere orrialde-zenbakiak markatuak ditu, 1-etik hasita, dirudenez autoreak berak hasieratik idatziak–. Atal bakoitzak bere titulu

<sup>1</sup> BAI taldeari buruz, ik. Eujenio Agirretxe, *Aldi hartan eta Arantzazuren inguruan*, Arantzazu-Oñati: EFA, 1995, 39-40 or.





hen orriko forma eman ziola “Arantzazura bidean” erromantze txukunduari; eta geroago osatu egin zuela hori, bigarreneko “Izar eder bat ateratzen da” aurretik ipiniz. c) Paper mota guztiz ezberdinetan dago idatzita kapitulu honen bigarren partea (14-19 zenbakituriko orrialdeetan), “III. kantaren aldakuntzak” tituluarekin. Txukundu eta osaturiko erromantzeko ahapaldien aldaeren, Arantzazuko Kanta Zaharren Bilduman ageri direnen, erreferentziak jaso zituen hor, ahapaldiz ahapaldi edo ataltxo ataltxo. Ekinaldi ezberdinetan idatziaren itxura du atal honek, paperagatik eta idazkeragatik. d) Aparteko orri soltea, orrialde-zenbakirik gabea, eta alde bakarrean idatzia, “Doñuak: III. Kanta-zarrarenak” tituluarekin; hori kantatzeko hainbat doinu iradokitzen du bertan.

Badaude beste lau orri solte, guztiz heterogenoak eta inolako orrialde-zenbakirik gabe: autore ezberdinen zenbait aipu eta erreferentzia bibliografiko dago horietan idatzita, liburuaren gaiarekin zerikusia duena, eta partez behintzat horretan erabili zuena.

Honako xehetasun oso berezi hau gertatu zaigu deigarria eskuizkribuan: Hitzaurrearen eta kapituluetakoko titulu guztien gainean edo alboan ageri den hitz sinbolikoren baten laburdura modukoa, irakurri ezina. (Aurreko bi orrialdeetako kopien gainaldean ikus daiteke).

### 3. Eskuizkribuaren historia

1984an ezagutu ahal izan genuen lehenbizikoz Mitxelenaren obra hau, argitaratuta, nahiz eta horren berri aspalditik zuten haren adiskide eta lagunek, eta “ahoz aho” zebilen horren aipua haien artean. 40 urte igaroak ziren Mitxelenak bere jatorrizko eskuizkribua idatzia zuenetik.

Salbatorek berak emana zigun bere obraren berri 1954. urtean, Euskal Herria utzi eta Ameriketarako bidea hartzear zegoela, bere adiskide Karmelo Iturria fraideari idatzitako gutunean.

*“ABOZ-ABO edo erromantzeeri buruzko prosa-liburu ori, berriz, ezin diat oraindik igorri, Kubatik Montevideo-ratu arte ez bait-zeukat astirik azken-kapitulu falta dan ori osatzeko. Urtebetetsu, agian, ordurako”.*<sup>2</sup>

Ameriketara abiatzean adiskidearen eskuetan utziak zituen, hain zuzen ere, bere olerki bilduma argitaragabeak: *Arraun ta amets* eta *Abe-*

<sup>2</sup> 1954ko urriaren 23koa da gutuna, Arantzazura bidalia (ik. *Elezarrak. Arraun ta Amets*, Zarautz: Itxaropena, 1955, 90. or.).

*rriak min dit*. Artean utzi ezin zion “prosa-liburua”, berriz, hemen ABA izenez deitu dudan eskuizkribua da. Partez behintzat hamar urte lehenago (1944) Burgosko La Aguilera-ko komentuan emandako urtean zuen idatzia; hirugarren kapituluaren lehen atala ere bai (La Aguilera, 14-XII-1944). Ondorengo urteetan berrikusi eta zuzentzen saiatu zen seguruenik, baina “osatu” ezinik, 3. kapitulua behintzat.

Liburuaren sarreran kontatzen digu Mitxelenak nola hurbildu zen Arantzazuko Santutegiko artxiboko Kanta Zaharren “Bildumara”, eta nola zaletu zen horiekin (doinu eta testu), batez ere Manuel Lekuonaren *Literatura popular euskérica* liburua irakurri ondoren. Teologiako ikaslea zen orduan Arantzazun; hogeita bi urte edo.

Bazen, izan ere, artxibo hartan liburu edo koaderno bat, 200 orrialdekoa, 1922an Jose Adrian Lizarralde fraideak irekia zuena, Arantzazuren inguruan herrietako amona eta aitonek artean kantatzen zituzten Kanta Zaharrak (erromantzeak eta beste) jaso eta bertara biltzeko asmoz. Mitxelenaren eskuetara iritsi zenerako erdi betea zegoen liburua, eskuz idatzitako testu eta partiturekin eta bertso-paperekin. Erromantzeak edo baladak dira nagusi horretan, baina badira koplaren batzuk ere eta bertso sorta askotxo –bestelako eliz kanta herritarren batzuk ere bai, geroago sartutakoak–. Koaderno-liburuan kopiatu edo itsatsi gabeko beste antzeko dokumenturik ere bazen haren barruan edo ondoan, paper bakanetan nahiz diptiko, triptiko edo liburuxkatan eraturik: kantak, bertso sortak, etab. Izenik gabe zegoen hori dena, eta Mitxelenak Arantzazuko Kanta Zaharren Bilduma, edo “Bilduma” soilik, deitu zuen bere idatzian. Gerora “Romances euskéricos de Aránzazu” izena jarriko zioten Koadernoari; ADK liburu sail honetan REA/JK siglaz izendatu dut (ik. horren deskripzio xehea ADK-ko I. liburukiaren bigarren atalean).

Esan dudanez, tartean bazeuden ez erromantze, ez koplak eta ez bertso (zahar edo berriago) zirenak, eliz kanta herritarrak baizik. Baina Arantzazuko ‘Kanta-zarrak’ aipatzen dituen aurrenekoek ari da Mitxelena oro har: erromantzeak, koplak eta bertso zaharrak (inoren ahotatik jaso eta transkribatuak nahiz bertso-paperekin inprimatuak). –Kanta zahar, erromantze ala balada? Utz dezagun oraingoz bere horretan; geroago itzuliko naiz terminologiaren kontu horri buruz–.

Kanta horien balioaz jabetu zen orduko, hemengo azterlan hau egi-tea erabaki omen zuen, liburuaren sarreran bertan aitortzen duenez:



“Kondairetatik herri-‘dokumentu’ hauetara jaitsi orduko berehalaxe asmotan hartu nizun, orain eskaintzen dizudan hobekuntza, folklorelana” –hemen ‘hobekuntza-lana’ deitzen duena, beste nonbait ‘txukuntze-lana’ esaten du–. Liburu hau idazteko asmoa behintzat Arantzazuko Teologiako urteetan hartutakoa zuen, beraz.

Asmoak asmo, Arantzazuko ikasle-urteak utzi ondoren hasi zuen, K. Iturriak dioenez (MIG-I, XV. or.): “Burgos-ko La Aguilera-n, 1944ean, asi zen *Aboz abo: Arantzazuko kanta zaharrak* liburua idazten. Arantzazun bertan zegoela ere, bazuen horren asmorik. Baina urteetan zehar lan egin ondoren (Donostian eta), bukatu gabe utzi zuen”. Gauza garbia eta segurua da Burgosko La Aguilera herriko komentuan eta 1944ko azken hilabeteetan idatzi zituela Mitxelenak funtsean eskuizkribu hone-tako lehen bi kapituluak eta hirugarrenaren lehen zatia, handiena, auto-reak berak azpian idatzitako leku eta datak ziurtatzen dutenez.<sup>3</sup> –Beste-rik da, aurretik zirriborrorik idatzia ote zuen Arantzazun; ondo aztertua eta buruan landua behintzat bazuen gaia, La Aguilera joan zenerako–.<sup>4</sup>

Hogei urtez, beraz, eskuartean erabili zuen Mitxelenak bere eskuiz-kribua. Bederatzi urte eman zituen Euskal Herrian (Donostian biziz), La Aguileratik itzuli eta Ameriketara joan aurretik (1945-1954): predikutan eta herri-misiotan batez ere. Tarte horretan argitaratu zituen bere bi obra nagusietakoak: *Arantzazu. Euskal Poema* eta *Ama-semeak Arantzazuko kondairan*. Baita *Ogei Kanta Arantzazuko* liburuxka ere. Hirurak daude guztiz loturik gure liburu honen gaiari; batez ere aurrena, geroago iku-siko dugunez. Ezer aurreratu ote zuen eta zertan bere eskuizkribuaren zuzentze-osatze lanean Donostiako bederatzi urteetan? Horko testuaren zuzenketa askotxo izan daiteke, izan, garai hartakoa; hiru “erromantze txukunduei” azken forma ematea ere bai agian. Dena dela, ez zeukan baztertuta, aipaturiko bigarren liburu horretan gogorarazten digunez, Arantzazuko “Kanta Zaharrei” buruz diharduela, hain zuzen: “Beste li-buruxka batean pillatuko dizkizut danak, Jainkoa lagun, geroko batean” (MIG-II, 403. or.). Alderantziz, esku artean zerabilen nolabait Aran-

---

<sup>3</sup> Arantzazun Teologiako ikasketak burutu eta apaiztu ondoren, Burgosko La Aguilera-ko San Pedro Regaladoren komentura bidali zuten 1944ko udazkenerako, Pastoraltzako ikastaroa egitera. Ia urtebete eman zuen bertan.

<sup>4</sup> K. Iturriak berak elkarrizketa batean dioenak –Mitxelenak Arantzazun idatzitako azken obra izan zela *Aboz abo* (ik. *Argia*, 1984-12-23, 1041. zenb.)– bestelako interpretazioren bat behar du.

tzazuko Erromantzeen azterketa kritikoaren arazoa; adierazgarria da, adibidez, 1954an horiei buruz Donostian emandako hitzaldiak.<sup>5</sup>

Ameriketara alde egitean, ordea, osatzeko zeukan artean, bereziki hirugarren kapitulua. Zer falta zitzaion? ABA-ko “III. Kantaren alda-kuntzak” titulua daraman zatia? (ik. AHH, 130-141 or.). Hori osatzeko asmoz aldean eraman zuen, beraz, Ameriketara eskuizkribua.

Baina eta liburuaren hitzaurre luzea idatzita ote zeukan ordurako? Horri buruzko hitzik ez dago Mitxelenak Iturriari bidalitako gutunean. Alde horretatik uste izatekoa da, idatzia zuela; areago, honako esaldi hauxe ikus daiteke hitzaurrean bertan: “Filosofiako urteak eginda Teologiakoak hastera Arantzazura orain lau urte itzuli nintzenezan”... Horren arabera, 1944an (Arantzazun edo Aguileran) idatzia litzateke sarrera, hiru kapituluekin bateratsu, alegia. Baina, bestalde, esaldi hori idatzita dagoen paper berbera aurretik erabilia zuen Mitxelenak, eta testu bat dago tartekatuta bertan, hitzaurrearekin zerikusirik ez duena, eta “Mixio santuari ondorenak” titulua duena, euskaraz –Salbatorek herri-misioak ematen zituen garaikoa, itxuraz, Donostian bizi zenekoa edo–. “Orain dela lau urte” delakoa zer litzateke orduan? Baliabide erretoriko hutsa, besterik gabe? Bada bestelako misteriorik ere: Goian “Hitzaurrea-0” izendatu dudan orri-papera ere aurretik erabilia zen, eta idazpuru gisa edo, honako hau irakur daiteke, daktilografiatua: “Comisaría de Tierra Santa –Aven. 8 de Octubre, [zenbakia]”. Horixe zuen, hain zuzen, Mitxelenak bere egoitza ofiziala Hegoamerikako herrialdeetan misio-lanetan ibili izan zen garaian. Horrek iradokitzen digunez, han bizi zelarik idatzi zuen “Hitzaurrea-0, benetako hitzaurrearen oinarrian dagoen eta horren aurrekoa litzatekeen orri hori: hitzaurrearen gidoiarekin batera, bertan erabiltzeko zenbait aipu jasotzen duena, alegia. Zaila dugu, beraz, liburuaren hitzaurrea noiz idatzi zuen erabakitzea. Dena dela, esan ahal dugu, ekinaldi askotxotan idatzita dagoela, erabilitako luma, tinta eta letra-moduari begiratuz. Azkenik, Hitzaurrearen beraren azken aldean dioenari erreparatzen badiogu, liburua –horren gorputz nagusia behintzat– landuta zeukalarik idatzi zuen hori –“Nik liburu honetan, txukundu eta iruzkinak jarri baizik ez dizut egin”... Idatzia bide du, beraz, liburua–; baina, bestalde, ez dirudi liburua bera baino askoz beranduagokoa denik hitzaurrea, ez baitu nahi euskaldunen ohiko

<sup>5</sup> Ik. Villasantek horri buru *Arantzazu* aldizkarian idatzitako artikulua: “Dos conferencias sobre la nueva basílica de Aránzazu” (XXXIV, 1954, 353. zenb., 252-255 or.).

akatsean erori –J. M. Barandiaran aipatuz–: ez omen zuen eta, perfekzionismoarengatik edo, luzamendutan ibili nahi obra argitaratzeko “oso-osorik eta ezin hobeto” landuta eduki arte. Uste izatekoa da, beraz, La Aguilera-n idatzi zuela Hitzaurrearen lehen zatia behintzat (1945), eta agian gero Donostian zegoelarik amaitu zuela, bestelako eginkizunek oso hartuta zebilenean.

Hirugarren kapitulua burutzearena noiz eta non egin ote zuen? Ameriketara joatean idazteko omen zeukana horren bigarren zatia zela uste izatekoa da, gorago esan dudanez. Atal hori, berriz, Erromantzeen aipuz eta erreferentzia bibliografiko zehatzez beterik dago; ez dirudi erraza horrelakoak eman ahal izana, hainbat iturri esku-eskura eduki gabe. Dena dela, eta bestelako daturik ezean, bere horretan utzi beharreko litzateke kontua: 1954-1962 urteen epe luzean burutu zuela ABA-ko hirugarren kapitulu hori ere...

Baina tartean beste auzi bat daukagu. L. Villasantek dioenez –eta hari jarraituz edo, Joan Mari Torrealdai eta Joxe Azurmendik ere bai– liburuaren erredakzio berri landuagoren bat eginga omen zuen Mitxelenak, Kuban geratu omen zitzaiona, autoreak arrapaladan handik alde egitean. “Zer egin da liburu hortaz [erromantzei buruzkoaz]? –galdeztzen du Villasantek modu erretorikoz– Ez dakit. Zirriborro batzuk emen utzi zituen. Baiña liburu orraztua eta amaitua, seguru asko Cuban dago. Bahía de Cochinosko ondamena gertatu zenean, Aita Mitxelena Cuban zan. Etxe partikular batean omen zan gordea. Andik gutxi irten zan Cubatik, ainbeste gauza bertan utzita, eta geroago bihurtuko zelakoan, baiña ez zan gehiago ara joan”<sup>6</sup>... Mitxelenak berak ez du eskuizkribu honen aipamenik egiten, bere *Confixus* liburuaren erdarazko itzulpena eta euskarazko zenbait zati Kubako adiskideren baten etxean utziak zituela aitortzen duenean (ik. MIG-I, 256. or.). Hala ere, zuzen zebilen nonbait Villasante liburuaren bertsio “amaituaz” hitz egitean; izan ere, REA/JK koadernoaren 81. orrialdean badago Mitxelenak idatzitako ohar bat: “Cfr. III Kanta-zarra: Arantzazura bidekoa. pg. 122. Estrofas

---

<sup>6</sup> “Ama-Semeak”, in: *Salvatore Mitxelena* (Jakin sorta, 2), Editorial Franciscana Arantzazu, 1970, 72. or.; ik. J. M. Torrealdai, “Mitxelenaren argiratugabeko lanak”, ibid. 85. or.; J. Azurmendi, “Arantzazuko kanta zahar zaharrenaz ohar historiko batzuk”, in: Igone Etxebarria, *Arantzazuko Baladak edo Kanta zaharrak*, Oñati: Arantzazu E.F., 2003, 148. or. Mitxelenaren idazlan guztien edizioaren arduradunetako batek, Jose Antonio Gandariasek, ez zekien ezer Kuban geratua omen zen erredakzio horri buruz, berak aitortu zidanez.

10, 11, 12”. Bere liburuko hirugarren kanta “berreraikiaz” ari da seguru-  
 enik hor; baina eskura daukagun ABA eskuizkribuan ez dago 122.  
 orrialderik; geroko bertsiokoa izan behar du horrek.

Noiz idatzi zuen, ordea, Arantzazuko liburutegian zegoean REA/JK-  
 ko ohar hori Mitxelenak? Liburuaren bertsio “amaitua” eskuetan zuela  
 behar zuen idatzi; gerta zitekeen, oporrez-edo Ameriketatik Arantzazu-  
 ra etorri zenen batean –liburu burutua eskuetan zuela– delako ohar hori  
 idaztea; eta gero berriro liburuarekin Kubara itzultzea. Gerta zitekeen  
 hori, gertatu; baina horrelakoren berririk ere ez daukagu. Eta Kubatik  
 erabat irtetera behartzean, liburua han utzi izana nahiz ondorengo bi-  
 daia eta bizileku-aldaketa ugarietan galdu izana ere gertatagarria zen,  
 gertatzekoa ez bazen. Harritzekoa zera da: Mitxelenak berak galeraren  
 testigutza edo aitorten argirik inon ez utzi izana, hainbat urtetan grina-  
 tsu eta temati esku artean erabili eta landutako bere obra izanik.

Kontua da, azken batez, Kubatik Euskal Herriratu, Suitzara aldatu eta  
 lau urte geroago bertan hil, eta haren artxiboko idatziak biltzean, aurreko  
 bertsioaren eskuizkribua agertu zela, baina ez burutua, 122 orrialde bai-  
 no gehiago bide zituena. Noizbait agertuko den itxaropenik?

Egia da iritsi zaigun ABA testua ez dagoela nahikoa landu eta buru-  
 tuta; bibliografi erreferentziak ere erdizka eta zehaztu gabe daude sarri-  
 tan; hutsuneren bat edo beste ere badago, bete beharreko. Ezingo zuen  
 autoreak bere horretan bidali idazlana inprimategira. Baina ez da ziri-  
 borro hutsa; osorik egituratua dago liburua, itxuraz, eskuizkribu hone-  
 tan, bere sarrera eta hiru kapituluekin; eta nolabait orraztuta ere badago,  
 beraren gain hainbeste zuzenketa eta osaketa egin ondoren autoreak.  
 Azken batez, eta bertsio burutua noiz eta non agertuko zain (!?), eskura  
 daukagun honetaz baliatu behar.

Argitaragarritzat jo zuten *Aboz abo* eskuizkribua Mitxelenaren *Idaz-  
 lan Guztiak* obraren editoreek; irizpide onez, nire ustez. Dena dela,  
 transkribatzaileak eta editoreek egindako irakurketa eta interpretazio lan  
 eskergaren ondoren ere geratu zen hutsunerik, osatu edo argitu beha-  
 rrekorik. Areago, bada lehen edizio horretan eskuizkribuaren irakurketa  
 edo interpretazio okerrik ere, zuzendu beharrekorik, nire iritziz –oin-  
 oharretan adierazita doaz horrelakoak–. Bestalde, Arantzazuko balada  
 edo Kanta Zaharren orduko “Bildumako” aldaeren eta gerora gehituriko  
 beste ugarien datu-base bateratua eta digitalizatua eskura edukiz, hobe-

to argitu eta ulertu ahal dugu Mitxelenak egindako lana. Gainera haren burutu gabeko obra hau Arantzazuri buruz berak idatzitako beste obra burutuen testuinguruan ipintzeak hainbat iradokizun eskaintzen digu.

Hori dena kontuan izanik, egokia eta baliozkoa iruditu izan zait edizio berria paratzea, Mitxelenaren eskuizkribua hobeto irakurri eta ordenatuz eta ohar kritikoen bidez argibideak eskainiz. Horixe egin nahi izan dut, bada edizio honen bidez, abiapuntu eta oinarritzat eskuizkribua bera hartuz, eta testigu eta erreferentzia oso baliagarritzat 1984ko *Aboz abo* (ABB) edizioa erabiliz.

#### 4. Liburuaren tituluaz zerbait... 'Erromantzeak', 'Kanta Zaharrak' eta 'Bertso zaharrak'

Mitxelenaren eskuizkribuak ez du titulu orokorrik. Hitzaurrea, berriz, honetara hasten da: “Hona hemen, maiteki-maiteki txortatuta, *Arantzazuri buruzko gure herriaren kanta zaharrak*”. 1954an K. Iturriari idatzizion gutunean, “ABOZ-ABO edo erromantzeeri buruzko prosa-liburu ori” zioen Mitxelenak berak. Badirudi emana ziola titulua bere obrari, eta horrela zela ezaguna: “Aboz abo”. Mitxelenaren beraren adiskide hurbilekoak, haren idazlan guztien editoreak tarteko, ohituta zeuden agian horrela deitzen hark esku artean zerabilen liburugaia.<sup>7</sup>

Joan Mari Torrealdaik daktilografatu zuen eskuizkribuaren kopiak ere ez zuen titulurik, baina gainean honetara idatzi zuen eskuz: “Arantzazuko kanta-zarrak (folklore-lana)”. Hala ere, gorago aipaturiko *Salbatore Mitxelena* liburuan Torrealdaik berak idatzitako “Mitxelenaren argitaratugabeko lanak” artikuluan “Aboz-abo” jarri zion titulu nagusi-

<sup>7</sup> ‘Aboz-abo’ esamoldea maite zuen Mitxelenak ahozko herri-literaturaren transmisio modua adierazteko. Ikus, adibidez, honako bertso hau, *Bizi nai* poemakoa:

Sinisten ez dunak entzun, bestela,  
Errenderin Xenpelarri.  
Berak emango, zinki ta zorrotz,  
gure yokeraren berri.  
Aren bertsoak or yungo dira  
**aboz-abo**, erriz-erri.  
Euskalerrria duzu orrela  
zizuna senti ta aldarri!

(MIG-II, 271. or.; 1950ean argitaratu zuen arren lehenbizikoz *Bizi nai*, 1948an idatzita zeukan, *Arantzazu. Euskal Poema*-ren 3. partetzat.

tzat idazlan horri, eta azpitolutzat edo utzi zuen “Arantzazuko kantzarrak”. Hark emandako titulu-azpitoluak onartu besterik ez zuten egin nonbait, Mitxelenaren *Idazlan guztiak* edizioaren arduradunek. Neure aldetik ontzat eman ditut titulu-azpitolu horiek edizio kritiko honetan, idazkera euskara batura ekarrita, hala ere: *Ahoz aho. Arantzazuko Kanta Zaharrak*.

Mitxelenak aipatzen duen Arantzazuko artxiboko “Bildumako” koarderno nagusiak *Romances Euskérikos de Aránzazu* du orain titulua; eta horren aztertzaileek (J. A. Lizarralde, I. Omaetxebarriak, B. Gandiagak, A. Zabalak) gaztelaniaz ‘romance’ eta euskaraz ‘erromantze’ hitzak erabili izan dituzte gehienbat horko kantak izendatzeko –bertako bertso zahar edo berriagoak, eliz kantak eta antzekoak alde batera utziz, jakina–.

Erromantzeen generoari hain ederra, “poesikera xotila”, iritzi arren, hitza bera ez zuen nonbait atsegin Mitxelenak: “Izena du, bakarrik, itxusia, euskal belarrientzat” (AHH, 62. or.). Uko egiten dio, hala ere, gozoagoa izango den izendapena asmatzeari: “Izen berria nahi bada, dezakeenak eman diezaiola euskal bataioa. Ez nik. Ni ez naiz inor hartarako” (ibid.). Konturatu gabe zegoen nonbait, ordurako eta eskuizkribu berean, bataiatuta zeukala berak kanta-genero hori, eta ‘kanta-zarra’ izena ipinia ziola. Biak paretsu erabili zituen, hala ere, liburuan barna (37 aldiz ‘kanta-zarra’ eta 31 aldiz ‘erromantzea’).

Nondik asmatu ote zuen termino hori? Mitxelenak ezagutzen zuen agian *Euskalerriko kanta zarrak* liburua (bi tomo),<sup>8</sup> baina ez dirudi horrek iradoki zionik Arantzazuko erromantzeentzako euskal izena; seguruena J. K. Gerraren *Cantares antiguos del euskera* liburuaren<sup>9</sup> oihartzuna entzun dezakegu Mitxelenaren ‘kanta-zarrak’ izenean.

Gerraren liburuan, ordea, *Cantares banderizos*, *Cantares de Navidad* (Gabon kantak), *Cantinelas* (edo koplak), *Canciones cuneras* (sehaska-kantak), eta beste horrelako hainbat daude sartuta ‘Cantares antiguos’ termino zabalean. Mitxelenak ere erromantze (gaztelaniazko *romance*) baino adiera zabalagoan hartu zuen sarritan ‘kanta-zarrak’ terminoa, koplak eta bertso zaharrak (antzinako bertsopaperak) ere barne. Ondo jabetuta zegoen, ordea, Arantzazuri buruzko herri-kanta zaharretan bi fase historiko oso nabarmenak daudela: antzinako balada edo erroman-

<sup>8</sup> Imp. Macazaga, Rentería.

<sup>9</sup> Martín y Mena, San Sebastián, 1924.

tzeena (XVI-XIII mendeetakoak) eta geroagoko bertsoena (XIX-XX mendeak); eta bertsolarien kanta herrian zabaltzean, lehenagoko kanta zahar anonimoak ahaztuz joan zirela eta ixilduz herritarren ahotan. Oñatiko Uribarriko Zabaleta-beheko amonak kantaturiko 1854ko “Gure Ama Birjina” bertso sorta ‘kanta-zarrak’ deitu ondoren,<sup>10</sup> ‘kanta zaharren’ (erromantzeen) eta ‘bertso zaharren’ arteko bereizkuntza argitu eta nabarmendu beharrean gertatzen da jarraian Mitxelena, amonarekin berearekin izandako elkarrizketa hartuz hizpide:

— “Baina, amona –galdetu nion behin, denak amaitutakoan, Zabaleta-beheko laurogeita hiru urtekoari–. Utzi egin dituzu Ama-Birjinak Errodrigotxori esan zizkionak: ermitatxo bat egiteko eta; hiru lata-txo, zazpi teilatxo nahikoa zituela eta...

— *Horiek zaharrak dira –erantzun zidan–; ama zaharrak, bai, bazekizkien.* Bere denboran ez omen zen horiek besterik kantatzen. Beste hauek ez omen ziren artean ezagun. *Askotan berari entzun izan nizkion, baina nik ez dakizkit*” (AHH, 70 or.).

Ondoren “Errodrigotxo Baltzategiko” oina kantatu zion amonari Mitxelenak, eta baita jarraitu ere emakumeak. “Orratio, nik hasi eta lagunduz osatu zituen hauek ere”, idatzi zuen Mitxelena biltzaileak (ibid.).

Eta bere gogoetetan luzatzen da ondorioz: “Ez ziren, bada, berri-berriak lehenengo kantatu zizkidan hauek ere. Arantzazuko eliz-komentua hirugarren aldiz erre zeneko ondorengoak ziren, nahiko zaharrak, bertsoak izateko. Udarregi, nahiz Xenpelarrenak bertso zahartzat saltzen badira «kanta-paperetan» ondotxo zaharragotzat jo behar, 1853ko hauek. (...) Bertso zaharrak ziren haiek; baina ez kanta zaharrak. Zer ikusirik gutxi dute, gero, elkarrekin bertsoek eta kanta zaharrek joskeran eta leinargiz... Zer izen eman behar diogu, bestela, 1514tik datorkigun hitz neurtu goxo, garden, tolesgabeari?” (AHH, 70-71 or.).

Beraz, ondo zorroztu eta zehaztuz gero, Arantzazuko Kanta Zaharrak erromantzeak bakarrik dira, ez XIX. mendeko bertso zahar (edo bertso berriak). Hori argituta, lasaiago erabili ahal du Mitxelenak ‘kanta-zarra’ nahiz ‘erromantzea’, kanta-modu herritar berbera adierazteko. AEP liburuaren bidez zabaldu zuen berak euskarazko terminoa, guztiz ohiko

<sup>10</sup> “... Eta ari dela – ari dela 22 bertsoak erreskan airatzen, kanta zaharraren atzetik gogo-begiak urrutira doazela, antzina ederraren urrea egunsenti-leinurutan eralgiten, xehatzen ikusiko duzu atseginarene atseginez, geroaren argigarri...” (Hitzaurreko “Bertso berriak” epigrafean, 70. or.).

bihurtzeraino Arantzazuko erromantzeak behintzat euskaraz izendatze-koan; ez beti adiera aski zehatzez, ordea.

Berrikiago ‘balada’ hitza zabaldu da, Labayru Ikastegiko adituen eraginez. Hortik, hain zuzen, *Arantzazuko Balada edo Kanta Zaharrak* titulua, orain arteko horien edizio osatuen eta ordenatuenari, Igone Etxebarriak paraturiko edizio kritikoari, emandakoa.<sup>11</sup>

## 5. Liburuaren helburua eta eskema

Hitzaurrearen hasieratik bertatik agertu zuen autoreak liburuaren helburua, hau da, Arantzazuko Erromantzeen aldaera eta puska ugari eta nahasiak bildu eta sorta modukoak egitea eta “txukuntzea”, alegia: “Hona hemen, maiteki mateki txortatuta, Arantzazuri buruzko gure herriaren kanta zaharrak. Ez dira guztiak. Jaso al izan ditugunak bakarrik. Gehienak hemen dituzu. Ia denak, esango nizuke. *Sei erromantze gizalditsu, osorik bezela*; eta zenbait bakarrezko koplak apurño: horixe da azkeneko gizaldi honetan Euskal Herriari jaso ahal izan zaiona, eta nik txukunduta eskaintzen dizudana” (AHH, 43. or.).

Osoan hartu nahi izan zuen Arantzazuko “Bilduma”, beraz; baita han kopiaturik ez zeudenak ere, baina Azkuek bere *Cancionero popular vasco-n* (CPV-n) argitaratuak zituenak. “Sei erromantze gizalditsu, osorik bezala” aurkitu bide zituen aldaera guztien artean. Ez digu zehazten zeintzuk diren seiok. Eta azken batez hiru ardatzetara bildu zituen bere azterketan erromantzeok eta horien inguruko “koplak apurñoak”:

1. Andre Maria agertu zenekoa: “Errodrigotxo Baltzategiko”
2. Serora bat erromes: “Abuztuaren hamabosgarren”
3. Arantzazura bidean: “Arantzazura egin dut promes”

Horra Arantzazuko hiru Erromantzeak, Mitxelenaren arabera, txukunketa-lanaren ondoren: “Erromantzeak nahi badituzu, hona Arantzazuko hiru lehenengoak liburu honetan, zein baino zein jatorragoak” (AHH, 56. or.). Zer gertatzen zen beste hiru erromantze “osorik bezala” ageri zirenekin? Badirudi hiru ardatzen osagarritzat hartu eta erabili zituela. Eta hiru ardatzen inguruan “txortatu” nahi izan zituen bestelako aldaera partzialagoak eta kanta-puskak ere. Izan ere, bere laneko lehen

<sup>11</sup> Arantzazu E.F. - Labayru, 2003.



araua hauxe du: Ardatz-erromantze aldaera denak aintzat hartzea eta bateratzea: “bakarrera ekarri”. Bigarren araua: Aldaeren artean “era zaharrena eta ederrena, biak bat datozenean, [horixe] aukeratu; bestela ederrena, mamitsuena” (AHH, 64. or.). Badirudi ederren, mamitsuen jo zituela aukeraturiko hiru ardatz horiek; baina besteak ere baliatu nahi izan zituen, bidezko zenean, hirurak osatu eta txukuntzeko.

Izan ere, Arantzazuko erromantzeak kanta biziak izan dira Mitxelenaren iritziz; eta beraien historia osoan hartu nahi izan ditu, ez jatorrizkoari begiraturik bakarrik. Beraren ustez, erromantzeok ez dira hasieratik osorik eta borobil sortu: “Lehendabizi, albiste-txamar bat baizik ez zenuen, estrofa bat edo beste. Gerora pixkaka-pixkaka, rapsodia batua osatuko zaizu estrofa haiekin: horra erromantzea” (AAH, 63. or.).

Mitxelenaren helburua ez zen, beraz, hasierako erromantze osoa berreraikitzea edo jatorrizko aldaera soildua aurkitzea –eginkizun ezinezkoa, bestalde–. Ez zuen uste, aldaera horien artean bat guztiz osatua eta erabatekoa aurkitzerik zegoenik. Horregatik, erromantzeen testu-eta doinu-formen baso nahasia garbitu –“txukundu”–, eta nolabaiteko “entresaka” eginez, bertako arbola nagusi eta indartsuenak aurkitu eta identifikatu nahi izan zituen aurrenik, hori bai; eta arbolok nabarian jarrri eta babesteko, historian barna beraien inguruan sorturiko sastrakak –edo sasiak– moztu, eta enborrei itsasitako goroldioak edo ardagaiak kendu nahi izan zizkien, hori ere bai. Baina enbor nagusitik sortu eta garaturiko adarrak errespetatzekoak eta balioztatzeakoak ziren, kontuz kimaturik agian, historiak osaturiko kanta nagusi bakoitza arbola osoa zelako, eta ez enborra bakarrik.<sup>12</sup>

Areago, aukeraturiko aldaera nagusia beste aldaera eta puskekin osatu ondoren ere, hutsuneak bezala aurkitu zituen nonbait artean; eta horra

---

<sup>12</sup> Manuel Lekuonak bere meritutzat zuen Mitxelena kopla zaharren [eta kanta zaharren] teknika eta muina aztertzerantz lerratu izana, eta ez horietako aldaeretan zaharrena –“autentikoa”– zein den bilatzera, J. A. Lizarralderen eta Arantzazuko orduko joeraren kontra nonbait (ik. “Salbatore Mitxelena-ren “Arantzazu”, in: *Lekuona'tar Manuel. Idaz-lan guztiak. 11. Azken urratsak* [Kardaberaz bilduma, 32], Tolosa: Librería Técnica de Difusión, 1987, 339-340 or. AEP-n Arantzazuko Kanta Zaharren “muina”, teknikak eta estiloa lantzen jardun bazen, badirudi liburu honetan horien jatorrizko aldaera baino gehiago horien formarik ederrena bilatzen saiatu zela, eta aldaerak “txukundu” eta bateraturik, balada (erromantzea) osatzen. Jatorrizko forma “berreraikitzea” ez da seguruenik egokia Mitxelenaren helburua adierazteko.

hirugarren araua: “Gaiak etena duenean, hitz gutxienez eta herrikoie-  
nez eta egiatsuenez, herri aseletik (tradiziotik) hornitu, iruzkinean ager-  
tuz” (AHH, 64. or.). Beraz, bere aldetik ere sartu behar izan ditu hitz  
eta lerroren batzuk, hiru ardatz-erromantzeok osatu eta borobiltzeko.  
Prozesu hori argi ikusten da “Errodrigotxo Baltzategiko” erromantzea  
“txukuntzean”: aurrenik horren “eredu ideala” eskaini zigun, oso la-  
burra, –hori ere berak moldatua–, eta ondoren erromantzearen aldaera  
osatua proposatu zuen.

*Ahoz aho* eskuizkribuaren eskema argia eta garbia da oro har, aur-  
kibiderik ez baldin badu ere: Hitzaurrea eta hiru kapitulu, ardatz-erro-  
mantze bakoitzeko bana. Hiru kapituluaren azpian ere eskema teoriko  
argia dagoela dirudi:

- a) Erromantze txukundu-osatuaren testua.
- b) Erromantze bakoitzaren analisi tematikoa eta “iruzkin” kritiko-  
testual, literario eta historikoa, horren aldaerak baliatuz.
- c) Erromantzea txukundu-osatzean kanpoan geraturiko aldaera eta  
formen erreferentziak, ahapaldiz ahapaldi.
- d) Kantarentzako doinu egokiak.

Hala ere, eskema hori ez dago guztiz beteta hiru kapituluotan: be-  
harbada idazlana burutzerik izan ez zuelako, agian orriren batzuk galdu  
egin direlako eskuizkribuan.

Adibidez, lehen kapituluaren ez zuen c) atala bete. Erromantzearen al-  
daeren analisiaren ondoren letorke horren forma txukundua eta osatua;  
horrela egin zuen nonbait bere lana. Aparteko orritan idatzi zuen, idatzi  
ere, testu txukundu-osatua 1. eta 3. kapituluotan; 2. kapituluaren, berriz,  
analisiaren barruan idatzi zuen erromantze txukundua –“Abuztuaren ha-  
mabosgarren” izenekoa–, eta jarraian erreferentziazko oharra, ondoren  
kantaren analisiarekin jarraitzeko; baina kapituluaren buruan idatzita utzi  
zuen honako ohar hau: “(Hemen kanta zaharra txukunduta, nere orrietan  
dagoenez)”. Hauxe adierazi nahi du seguruenik horrek: azalpen-testuaren  
barruan dagoen kanta horixe dela 2. erromantze txukundua eta liburua ar-  
gitaratzean kapituluaren burura ekartzekoa; izan ere, kanta horrexen aha-  
paldiei dagozkie ondoren zenbakituta datozen erreferentziazko forma eta  
aldaerak; gainera kapitulu horretan ez dago aparteko orririk, erromantze  
txukunduaren bestelako formarik jasotzen duenik –agian galdua?–.

## 6. *Arantzazu. Euskal poema* eta *Ahoz aho*

Arantzazuko Kanta Zaharren gain idatzita dago neurri handi batez *Arantzazu. Euskal Poema* (AEP) liburua. Hemengo *Ahoz aho* liburua-  
ren hitzaurrean (“Erromantzeei buruz erabat zerbait” epigrafean),  
‘romances’ ala ‘cantares de gesta’, horietan historikoki lehenagoko  
zeintzuk diren eztabaidaren berri eman ondoren, hona Mitxelenak: “...  
agirian dago Arantzazuko kanta zaharro, poema idatzi oso batetik  
jaulkiak ez direla eta herri-herriarenak direla. (...) Poema idatzirik ez,  
baina bai poema bizirik ederrena. Arantzazuganako euskal fedearen  
poema bizirik ederrena dago ernari kanta zahar hauetan, izar hilezko-  
rrekin ameska, betiraunera jaso dezan esku gaizkatzaile-arnasemaile  
baten eske...” (AHH, 64. or.).

Nork hartuko eginkizun hori, eta Mitxelenak berak hartu zuen bere  
bizkar, eta *Arantzazu. Euskal Poema* eskaini zigun. *Poema* osoa da  
Arantzazuko Erromantze eta Kanta Zaharren iruzkina nolabait. Area-  
go, horien atal asko aipu moduan tartekatu zituen liburuan: batzuetan  
“Bildumatik” hitzez hitz jasorik, beste batzuetan *Poema*-ko bertsoen  
arabera moldaturik, beste batzuetan iradokita bakarrik. Erromantze eta  
Kanta Zahar horien 60 bat aipu aski esplizito aurkituak ditut, aurkitu  
ere, AEP-n, batzuk luzeak, erromantze-aldaera ia osoak, beste batzuk  
ahapaldi bateko, biko edo hirukoak.

Ondoren dakart horrelako aipurik luzeenetako bat *Poema*-n, M. Le-  
kuonak bildu eta argitaratutako “Ama Birjina eguna da ta” kantaren bi-  
garren parte (6 ahapaldi). Ignazio Omaetxebarriak kopiatu zuen hori  
bere eskuz REA/JK koaderno-liburuan (124. or.), *Argiaren Egutegia*-  
tik eta *El Día* egunkaritik hartuta; aldaeraren bi zatien artean  
utzi zuen, baina bietako ahapaldiak jarraian zenbakituz; S. Mitxelenak  
bere erara moldatu zuen bigarren zati hori bere *Poema*-n, alde batetik  
(AEP-2, 129. or.), eta *Ahoz aho* liburu honetan, bestetik –dena dela,  
gero behin baino gehiagotan itzuliko naiz neure ohar kritikoetan eta  
edizio kritiko honen Epilogoan Lekuonaren Erromantze-aldaera ho-  
rretara–.

REA/JK, 124. or.	AEP-2, 129. or.	AHOZ AHO, 108-110 or.
7/ Izar eder bat agertu zan da abantzu nitzan bidian; bere argitan jua izan nitzan Arantzazura bidian.	Izar eder bat ateratzen da urtian egun batian; urtian egun batian eta ura San Juan-goizian.	Izar eder bat ateratzen da urtean egun batean, urtean egun batean eta hura San Juan goizean...
8/ Ama Andria ta bere Semia topau nituzan bidian, kontseju onak eman zizkiden Ama-Semien artian.	Aren argitan ninjuanian Arantzazura-bidian, Birjiña Ama ta bere Semia topa nituan parian.	Haren argitan abia nintzan Arantzazura bidean (ustean), Arantzazura bidean ala Kalbariora bidean?
9/ On da umilde izan nedilla munduan naizen artian, gero ez nebala damu izango emendik nijuanian.	.....	Birjina Ama ta bere Semea topa nituen parean.
10/ Odola pranko ixuri zuen oiñutsetan da lurrian. –Ene Semia, eutsi zapatak jantzi eidazuz soiñian.	.....	Ama kupidaz, Semea minez, (Oinutsik, gurutze-lorrean:
11/ –Ama Andria largatu bedi onela noian artian, nik eriotza artu biar det Kalbarioko mendian.	Odola pranko ixuri zuen oiñutsetan da lurrian. –Ene Semia, eutsi zapatak jantzi eidazuz soiñian.	Odola franko bazerieten gure ongarriz lurrian (bekatarien onean).
12/ Kalbarioko mendian eta kurutze gogor batian, nik eriotza artu biar det kurutze gogor batian.	–Ez, Amandrea. Largatu bedi onela nuan artian. Nik eriotza artu biar det Kalbarioko mendian. Kalbarioko mendian eta Gurutze gogor batian. Nik eriotza artu biar det Gurutze gogor batian.	–Ez, Amandrea, largatu bedi, honela noan artean. Nik heriotza hartu behar dut gurutze gogor batean. Gurutze gogor batean eta Kalbarioko gainean. Nik heriotza artu behar dut Gurutze gogor batean

Dirudienez, AEP-ko eta *Ahoz aho*-ko lehen lerroak Azkueren beste aldaera batetik hartuta daude, eta ez REA/JK-tik –San Joan goizarena askotan ageri da–:

Izar eder bat ateratzen da  
urtean egun batean,  
urtean egun batean eta  
hura San Joan goizean.

Haren argitan ni joan nintzan  
Arantzazura ustean,  
Ama Birjina ta aren semea  
[t]opa nituan bidean.

Dena dela, bigarren ahapaldiko ‘ustean’ / ‘bidean’ hitzak ‘bidean’ / ‘parean’ bihurtu dira *Ahoz aho* liburuan. ‘Parean’ (‘parian’) hitza beste-lako testuinguruan ageri da bereziki Arantzazuko Erromantzeetan: “San Eliasen parean”.

AEP-n guztiz desagertu zen Ama-Semeek erromesari emandako aholkuarena, Arantzazuko Erromantzeen hainbat aldaeratan ageri dena; *Ahoz aho*-n, berriz, atzerago jarri zuen ahapaldi hori. Bere lekutik kenduta, ordea, eten handia gertatzen da hurrengo ahapaldira: “Odola pranko”. Horretaz konturatuta edo, galdera erretoriko modukoa sartu zuen *Ahoz aho*-n Mitxelenak: “Arantzazura bidean ala / Kalbario bidean?”; eta beheraxeago beste bi lerrook erantsi: “Ama kupidaz, Semea minez / (Oinutsik, gurutze-lorreatan)”.

Odol-isurtzearena jatorrizko erromantzean bezala utzi zuen AEP-n; *Ahoz aho*-n, berriz, moldaketa berria egiten saiatu zen, borobiltzea lortu gabe nonbait.

Garbi dago AEP-ko aldaera lehenagokoa dela, REA/JK-kotik hurbilagoa. Zuzenean jakin, ez dakigu zein idatzi zuen aurrenik Mitxelenak, *Ahoz aho* ala *Poema*. Azken hau argitaratu baino lau zapabost urte lehenago idatzita zeukan aurrenekoaren gorputz nagusia; baina litekeena da haren eskuizkribua idatzi baino lehenagotik asmatua eta gorpuztua edukitzea *Poema*. Seguruenik bi proiektuak bateratsu zerabiltzan bere buruan eta luman, Arantzazuko ikasle-urteetan hasita. Dena dela, nabaria da AEP-ko parteren batzuk behintzat *Ahoz aho* baino lehenago idatzi zituela.

Aipaturiko adibide nabarmenez gain, hona hemen beste bat, “Amaika amaren seme” hasten den ahapaldia; Eujenia Langarak kantaturiko “Egune zala, egune zala” erromantzearen barruan zazpigarrena da (ik. REA/JK, 25. or.); zortziko nagusian dago bertsoa –jatorrizko transkripzioan labur dago lehen puntua–:

Amaika amaren seme  
an izengo du ostatu  
San Franziskoren semeak bere  
antxe kalize altzadu.

Ignazio Omaetxebarriak, aurrekoaren gainean “zuzenketak” eginez, zerbait moldatu egin zuen ahapaldia, bertsoen neurriak egokitze aldera batez ere:

Amaika amaren seme *on askok*  
an izengo *dau* ostatu  
San Frantziskoren semeak bere  
antxe kalize altzadu.

AEP-n (MIG-II, 113. or.) askotxo moldatu zuen bertsoa Mitxelenak, batez ere bi kontzeptu garrantzizko sartuz ahapaldian –“euskal semeak” eta “euskal meza”–, baina Omaetxebarriak egindako “zuzenketa” errespetatuz –San Frantziskoren semeena galdu egin da bertso honetan–:

Nere *euskal-seme on askok emen*  
 izango dute ostatu,  
 izango dute ostatu eta  
*euskal-Meza* non opaldu.

*Ahoz aho*-n, azkenik, Omaetxebarriak sarturiko ‘askok’ hitzaren orde-  
 dez ‘danak’ (denek) idatzi zuen –aldaketa morfologikoak eta ortogra-  
 fikoak nireak dira–:

Nere euskal seme *on denek* hemen  
 izango dute ostatu,  
 izango dute ostatu eta  
 euskal Meza non opaldu.

Garbi dago ‘danak’ (denek) hori azken birmoldaketaren ondorio  
 dela. Horrela *Ahoz aho*-ko forma da aldaketen bidean azkena.

Zientzi metodologiaren logikaren arabera, Erromantzeen azterketa  
 –*Ahoz aho*– izan zitekean aurrenik lantzekoa, horretan tinko oinarri-  
 turik *Poema* (AEP) idatzi ahal izateko gero. Baina gertatzez *Poema* au-  
 rreratu zitzaioala dirudi azterlan kritikoari, biak bateratsu landu bazituen  
 ere. Erromantze eta Kanta Zaharretatik eta Arantzazuko tradizio osotik  
 –historia, legenda eta kondairetatik– edanez landu eta borobildu zuen  
 Mitxelenak bere *Poema*, “Eskaintza” epigrafean ondo adierazi zuenez,  
 liburuaren helburua agertzean: “Kanta zaar eta elezaar oriei darien poesil-  
 lurruna eta kristautasun sendoa bildu eta, kondaira lagun, itzez jantzi”.<sup>13</sup>

## 7. Edizio hau: Arrazoiak eta irizpideak

### 7.1. Edizio berria egiteko arrazoiak

1. Arantzazuko Erromantzeen lehen azterketa sistematiko eta oro-  
 korra da Mitxelenarena –eta bakarra, esango nuke, Joxe Azurmendik I.  
 Etxebarriaren *Arantzazuko Baladak edo Kanta Zaharrak* liburuan ida-

<sup>13</sup> AEP-2, “Eskeintza”, 5. or.

tzitako epilogoarekin batera agian–; kantok hiru ardatz-erromantzetara ekartzea, berriz, berari zor diogu –A. Zabalak bitara bildu zituen–. Bestalde, MIG bi tomo handietan galduxeu edo geratzen da gure *Aboz abo* (ABB) liburua, azken lekuan.

2. Igone Etxebarriak 2003an bere edizioa egin eta gero, gaurkotasun berria du Mitxelenaren aspalditxoko azterketak eta txukuntze-lanak.

3. 1984ko ABB edizioak akats askotxo ditu: a) hainbat hitz gaizki interpretatuta; b) eskuizkribuko testuren batzuk falta –Eujenia Langararen “Egune zala, egune zala” aldaera eta III. kantaren doinuak, adibidez–; c) III. kantaren barruko ordena okerra; d) Aipu bibliografikoak osatu gabe –Azkueren testuak, doinuak, etab.–. Bidezkoa da horiek zuzentzea.

4. Arantzazuko Erromantze eta Kanta Zaharren (eta Arantzazu kantagai duten bestelako testu poetikoen) datu-basea (AKDB) landua daukagularik, Mitxelenaren azterlana argitzeko eta aberasteko modua dugu, aldaera gehiagoren erreferentziak landuz eta hainbat ohar historiko eta kritiko gaineratuz.

5. Baliagarria da AHH edizio berri hau, autoreak aipatzen dituen doinuak partitura eta guzti eskaintzeko, ABB edizioak eman ez zituenak.

## 7.2. *Eskuizkribuko testu-aldakerak*

Mitxelenak bere eskuizkribua (ABA) burutu gabe utzi zuela esana dut, nahiz eta zuzenketa eta osaketa askotxo sartu zuen tartean, lehen erredakzioaren gain.

Testuan bertan hitzen edo espresioen aldaerak daude adierazita, le-roaren gainean edo parentesi artean, baina jatorrizko hitza edo forma ezabatu gabe: zalantzan utzita edo, beraz. Horrelakoetan, eta testuaren irakurketa erraztearren, autoreak iradokitako aldaerak oin-oharretara eraman ditut, jatorrizko hitza edo forma seinalatuz aurrenik, eta ondoren horren ordezkua.

## 7.3. *Transkripzio-irizpideak*

1. Mitxelenaren testua euskara batura ekarri dut oro har: ortografia, morfologia, aditz formak, etab.: egi > egia, jaube > jabe, il-erri > hilerri, Andra Mari > Andre Mari, esan-naya > esanahia. Baina berak jasotako inoren aipu edo testuak beren horretan utzi ditut.

2. Autoreari irrist egindako oker nabarmenak zuzendu egin ditut: argitaratuko aleok > argitaratutako aleok, xoragarria au > xoragarri hau...

3. Hiztegi batuari dagokionez, Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuak bigarren formatzat edo dialektaltzat onarturikoak bere horretan utzi ditut, aldatu gabe: guzi (guzti), atzenean (azkenean), etab.

4. Bi hitzen konposizio-marra eurrez erabili zuen Mitxelenak, lehen hitza deklinatua denean ere bai: horietako asko kentzera jo dut, Euskaltzaindiaren arau eta gomendioei jarraiki: len-landare > lehen landare, napar-variante > nafar bariante, betik-gora > behetik gora, erromeriari--buruz > erromeriari buruz, nere-baitan > nere baitan, ordura-arte > ordura arte, alde-bat utzi > alde bat utzi, ezin-ederragotan > ezin ederragotan, guzien-esku > guzien esku, gure-arteko > gure arteko, erromantzeei--buruz > erromantzeei buruz, begiz-galdua > begiz galdua, herritik-gora > herritik gora, jauberik-gabe > jaberik gabe, ortatik-gora > horretatik gora, len-aipatu > lehen aipatu, batekoz-beste > batekoz beste, batez-ere > batez ere, etab.

5. ‘euskal-’ eta ‘eusko-’ konposizio marrarekin idatzi zituen Mitxelenak; marrarik gabe doaz edizio honetan: eusko lur, euskal arima, etab.

6. ‘Euskalerrri’ idatzi zuen gehienetan: ‘Euskal Herri’ idatzi dut beti.

7. Liburuen tituluak letra etzanez eman ditut, berak kaxotxoan artean eman bazituen ere sarritan, ez beti.

8. Apokopea adierazteko bezala, atzizkia eransteke ere apostrofoa (') erabili zuen sarritan: honelakoetan marratxoa jarri dut, baina beharrezkoa denean bakarrik; gehienetan kendu egin dut, konposizioko hitzen idazkera-arau edo gomendioen arabera: Arantzazu'k > Arantzazuk, zer'i buruz > zeri buruz.

9. Bibliografi erreferentziak ematean, ‘página’ hitza erdaraz erabili zuen, laburtuta: ‘pg.’, ia beti; inoiz ‘pag.’ laburdura aurkitu dudanean ere ‘pg.’ idatzi dut, metodologi koherentziaren mesedetan.

#### *7.4. Mitxelenaren gramatika-berezitasunak*

Mitxelenak baditu forma gramatikal bereziak, askotxo baliatu zituenak. Zeudenetan utzi ditut oro har:

a) Aditz-sustraia izenarekin konposizioan: egon-ordu, jakin-axkurea, jarrai-minez, garbi-lanetan, etab.



- b) ‘Zale’ adjektiboa izen bezala: ‘oinaze-zale’ (‘oinaze-zaletasun’ adierazteko), “Arantzazu zalea banekarren”. Horrela geratu da.
- c) Aditzaren sustraia erabili zuen sarritan indikatiboetan eta konposizioetan: senti izan, gerta zan, zer gerta da, kanta zidan, (idatzi zionari) jarraiz, aipa-gabe, etab. Bere horretan utzi dut.
- d) ‘x’ (‘tx’) adierazkorra eurrez baliatu zuen Mitxelenak: motx (motz), hoxkil (hozkil), xirtoak (zirtoak), xuxpertzeko (suspertzeko), txortatuta (sortatuta), etab. Oro har bere horretan utzi dut.
- e) Estilo aldetik, hizkera kolokialaren zalea zen Mitxelena testu idatzian ere: dizut... Horren araberako hitz formak ere erabili ohi zituen: ‘ba’ (bada)... Zeudenetan utzi ditut horrelakoak.
- f) ‘-kera’ atzizkia – ‘poesi-kera’, ‘elerti-kera’ – bere horretan utzi dut.

### 7.5. Bibliografi erreferentziak

Aipuak eta bibliografi erreferentziak testuaren barruan idatzi zituen batzuetan; bestetan testutik aparte oin-oharretara bidaltzekotan edo. Edizio honetan bibliografi erreferentzia guztiak oin-oharretan doaz.

Gainera horietako askotxo osatu gabe utzi zituen; ABB-ren editoreek horietako batzuk osatu zituzten, ez denak, ordea; edizio honetan guztiak osatzen saiatu naiz, ahal izan dudana neurrian.

### 7.6. Bi motatako oin-oharrak

Bi sailetan bereizita doaz oin-oharrak:

a) *Superindize arruntaz adierazitakoak, eta orrialde osoko zutabeetan idatzita doazenak*: autorearenak dira oro har. Autoreak osatu gabe utzitako erreferentziak beren horretan doaz; baina horiek osatu edo argitzeko editoreak gaineraturiko elementuak edo oharrak, bertan azpian doaz kortxete artean, “Bibl. erref. osatuz” seinalearekin. Autoreak testuan adierazitako hitz edo testu-aldaerak ere kortxete artean doaz, ‘A.t.a.’ (Autorearen testu-aldaera) seinalearekin. Seinale berezirik gabe baina kortxete artean doaz, era berean, hitz, lerro edo testu jakin bati editore honek egindako oharrak.

b) *Kortxete arteko superindizez adieraziak, eta bi zutabetan idatziak*: Editore honek bere aldetik idatzitako ohar argigarri edo kritikoak dira.

## 8. Bukatze aldera

Euskal Herriak Arantzazuri eraikitako tenplutzat jo zuen Salbatore Mitxelena “Kanta Zaharrena”, bere *Ama-semeak Arantzazuko Kondairan* liburuan; honetara zioen azken kapituluan, basilika berria eraikitzearen aldeko arrazoiak ematean: “Bosteun urte onetan, bi tenplu darakuski Arantzazuk guziona arrandirako, biak zein baño ederrago, biak benetan paregabeak: bat, kanta-zarrezkoa; bestea, fedezkoa...” (MIG-II, 579. or.).

Eta prologo hau amaitzeko oso egoki datorkigu autorearen bertso hau, zuzenean eta bere horretan *Poema*-ren 3. zatitik *–Bizi nai–* hartua (MIG-II, 280. or.):

Elezar eta ipui,  
kopla naiz kanta-zar:  
aiton-amonen autan  
ziran zeru-izpar,  
ta illoben gogoetan  
ametsezko izar...  
Laratzak berak ere  
aiekin ze sugar!

## BIBLIOGRAFIA

*Salvatore Mitxelenaren bizitza eta obrari buruzko bibliografia ikus haren Idazlan guztiak edizioan, II. t. (Arantzazu-Oñati: E.F.A., 1984), 673-882 or.*

Ahoz aho-ren Eskuizkribuan autoreak aipaturiko tituluak daude bilduta, batetik, zerrenda honetan, eta editoreak Prologo-Epilogoetan nahiz oin-oharretan aipaturikoak, bestetik. 1. Aurrenik, autoreak aipaturikoak: horien datu bibliografikoak editoreak osatu edo zehaztu ditu sarritan. 2. Ondoren doaz editoreak aipaturiko idazlan batzuren erreferentziak.

AZKUE, RESURRECCIÓN MARÍA DE (1922-1925<sup>1</sup>), *Cancinero Popular Vasco*, Barcelona: Boileau & Bernasconi.

— (1930), “Conferencia de Don Resurrección María de Azkue” (kronikalariaren laburpena), in: *Crónica del IV Congreso Nacional de Música sagrada*, Vitoria: Imp. de Montepío Diocesano, 280-295 or. (1928an egin zuten kongresua).

— (1935), *Euskalerrriaren Yakintza. I. Oitura ta siñeskeriak*, Espasa-Calpe. Euskaltzandiak eta Espasa-Calpek faksimilez berrargitaratu zuten obra 1989. urtean.

— (1968<sup>2</sup>), *Cancinero Popular Vasco*, Bilbao: Biblioteca de la Gran Enciclopedia Vasca, (2 tomo). Euskaltzaindiak beste edizio bat egin zuen 1990ean.

BARANDIARAN, JOSE MIGEL (1928), “Mari o el jenio de las montañas”, in: *Zenbait, Homenaje a Carmelo Echeagaray*, San Sebastián: Diputación de Guipúzcoa, 245-268 or.

— (1930), “Cantares populares”, in: *Anuario de Eusko Folklore*, X, 3. or. Bi atal luzek osatzen dute urtekaria: I. Cantares populares, II. Toponimia. Urtekariaren aurkezpen txikia du Barandiaranek bertan, 3. orrialdean.

- CEJADOR, JULIO (1915), *Historia de la Lengua y Literatura Castellana*, Madrid.
- GALDOS, ROMUALDO (1919), “Un incendio feliz en Aránzazu”, in: Zenbait, *Primer Congreso de Estudios vascos*, Bilbao: Bilbaína de artes gráficas, 569-598 or.
- GARIBAY, ESTEBAN de (1628), *Compendio historial de las Crónicas y universal historia de todos los Reynos de España...*, Barcelona (t. II, l. XVII, cap. XXV: Arantzazuko Andre Mariaren “agerpenari” eta ondorengoei buruz).
- GUERRA, JUAN CARLOS DE (1919), “Lecciones de Genealogía y Heráldica”, in: Zenbait, *Primer Congreso de Estudios Vascos*, Bilbao: Bilbaína de artes gráficas, 689-714 or.
- (1924), *Los cantares antiguos del euskera*, San Sebastián.
- IGNAZIO, SAN, *Ejercicios*. 3ª semana: “La Pasión de Cristo” (Bestelako zehaztasunik gabe dator aipamena).
- LEKUONA, MANUEL (1935), *Literatura oral euskérica*, Donostia: Euskalzaleak (2. ed.: *Literatura oral vasca*, Auñamendi, Donostia, 1964; 3. ed.: *Literatura oral vasca*, in: *Idaz-lan guztiak*, 1 t. [Kardaberaz bilduma, 22], Tolosa: Librería Técnica de Difusión, 259-540 or.
- LETURIA, PEDRO, *Apuntes ignacianos, a propósito de una amigable polémica con Don José María Salaverría*, Madrid: Editorial de Razón y Fe, 1930 (1934<sup>2</sup>). (Hau ote Mitxelenak aipatzen duena, 126. or.?).
- LIZARRALDE, JOSÉ ADRIAN(O) DE (1919), “Orígenes de la vida claustral del País Vasco”, in: Zenbait, *Primer Congreso de Estudios Vascos*, Bilbao: Bilbaína de artes gráficas, 590-617 or.
- (1921), “Manifestación de la Madre de Dios de Aránzazu según la leyenda”, in: *Arantzazu*, I, 1921, 4. zenb., 88-90 or.
- (1926), *Semblanza religiosa de la Provincia de Guipúzcoa. Ensayo iconográfico, legendario e histórico*. Volumen I. *Andra Mari. Reseña histórica del culto de la Virgen santísima en la Provincia*, Bilbao: Imp. C. Dochao de Urigüen, 1926 (7. Atala: “La Virgen de Aránzazu, soberana patrona de Guipúzcoa”, 87-102 or.; 11. Atala: “La Virgen en la Pasión del Señor”, 199-219 or.). (Obraren titulu laburtua: *Andra Mari de Guipúzcoa*).
- (1932), “La Virgen de Aránzazu en el Romancero Vasco” in: *Arantzazu*, XII, 135. zenb., 235-238 or.
- (1934), *Andra Mari. Reseña histórica del culto de la Virgen santísima en la provincia de Vizcaya*, Bilbao: Imp. C. Dochao de Urigüen. (Obraren titulu laburtua: *Andra Mari de Vizcaya*).

- (1921), *Historia de la Purísima Concepción de Azpeitia*, Santiago.
- (1950), *Historia de la Virgen y del Santuario de Aránzazu*, Oñate: Editorial Aránzazu.
- LUZURIAGA, JUAN (1686), *Paraninpho Celeste. Historia de la Mystica zarza, Milagrosa Imagen y prodigioso Santuario de Aránzazu de N. Seraphico Padre San Francisco en la provincia de Guipúzcoa de la región de Cantabria*, México; (San Sebastián: Inpr. Pedro de Huartem, 1690).
- MENÉNDEZ PIDAL, RAMÓN (Ed.) (1913), *Poema de Mio Cid*, (Edición y notas de Ramón Menéndez Pidal), Madrid: Espasa-Calpe. (1908-1911 urteetan *Cantar del Mio Cid* izenpean zuen argitaratua. Obrak edizio berri asko izan du gaur arte).
- (1920), “La primitiva poesía lírica española. Discurso leído en la inauguración del curso de 1919-1920 por Menéndez Pidal en el Ateneo de Madrid”, in: *Estudios literarios*, Madrid: Atenea, 251-344 or. 1951ean *De primitiva lírica española y antigua épica* izeneko liburuaren barruan argitaratu zuen Espasa-Calpe editorialak, Buenos Aires.
- (1928), *Flor nueva de romances viejos* (1. ed.). (Geroko edizio asko, Madrilgo Espasa Calpe argitaletxearen eskutik: 1938, 1939, 1941, 1943, 1944...). (Jakin ez, zein edizio erabili zuen Mitxelenak; une honetan 1955eko edizioko alea dago Arantzazuko liburutegian).
- OLHAGARAY, J. (1933), *Arantzeko Ama Birjina eta Ainhoko Kapera*, Bayonne: Imprimerie de La Presse.
- OZANAM, ANTOINE F. (1852), *Les Poètes Franciscains en Italie au treizième siècle*, Paris. (Chapitre premier, “De la poésie populaire en Italie avant et après Saint François”).
- (1949), *Los Poetas Franciscanos en Italia en el siglo XIII* (Trad.: Duque de Maqueda), Buenos Aires: Espasa-Calpe. (1. kap.: “De la poesía popular en Italia antes y después de San Francisco”, 17-41 or.).
- PAPINI, GIOVANNI (1942), *Los operarios de la viña* (Trad.: Balbino Santos Oliveira), Madrid: Ed. Fax. (Gaztelaniazko 1. edizioa, Madrid: Ed. Voluntad, 1930). (Papiniren liburuko kapituluetakoa bat da “San Ignacio de Loyola” izeneko).
- SALAVERRÍA, JOSÉ MARÍA (1920), *Alma vasca*, Madrid: Ed. Enciclopedia. (Arantzazuko santutegiko liburutegian dagoen edizioa: Inpr. de los sucesores de Rivadeneyra (Madrid), urterik gabe; edizio hau erabili zuen nonbait Mitxelenak).

- MITXELENA, SALBATORE [*Aboz abo*] (Eskuizkribua. (AranLitArtx, ABKZ: ABA, 07 – 002) (lehen Zarauzko San Frantzisko komentuko Artxiboan: Caj. 144 D 11). (Titulu orokorrik ez du eskuizkribuak). Sigla: ABA.
- *Aboz abo* (Salbatore Mitxelenaren eskuizkribuaren kopia daktilografiatua, J. M. Torrealdaik egina) (AranLitArtx, ABKZ: ABT, 07 – 003).
- (1949), *Arantzazu. Euskal-poema* (1. ed.), Oñate: Edit. Aránzazu. (Mitxelenaren lehen obra argitaratua). 2. edizioa: 1984 (Sigla: AEP-2).
- (1951), *Ama-semeak Arantzazuko Kondairan* (1. ed.), Oñate: Editorial Aránzazu.
- (1952), *Ogei kanta Arantzazuko*, a.g. (1969<sup>2</sup>).
- MITXELENA, SALBATORE, *Idazlan guztiak* (Ed.: Karmelo Iturria, Jose Antonio Gandarias), Oñati: E.F.A (I. tomoa, MIG-I, 1977; II tomoa, MIG-II, 1984).
- (1977a), *Erri bat guruzbidean*, in: *Idazlan Guztiak-I*, Arantzazu-Oñati: EFA, 171-254 or.
- (1977b), *Confixus*, in: *Idazlan Guztiak-I*, a.l., 255-296 or.
- (1977c), *Unamuno eta abendats*, in: *Idazlan Guztiak-I*, a.l., 297-449 or.
- (1984a), *Arantzazu. Euskal Poema* (2. ed.), in: *Idazlan Guztiak-II*, a.l., 1-300 or.
- (1984b), *Bizi nai*, in: *Idazlan Guztiak-II*, a.l., 253-300 or. (Lehen edizioa: *Euzko-Gogoa* aldizkarian, 1955).
- (1984c), *Ama-semeak Arantzazuko Kondairan* (2. ed.), in: *Idazlan Guztiak-II*, a. l., 301-583 or.
- (1984d), *Aboz abo. Arantzazuko Kanta zaarrak*, in: *Idazlan guztiak-II*, a. l., 613-671 or. Sigla: ABB.
- ETXEBARRIA, IGONE (2003), *Arantzazuko baladak edo Kanta zaharrak*, Oñati: Arantzazu E.F. (Epilogo: Joxe Azurmendi, 144-197 or.). Sigla: ABK.
- OMAETXEBARRIA, IGNAZIO (1944), “Rodrigo, el hijo del carpintero”, in: *Arantzazu*, XXIX, 249. zenb., 260-264 or.
- (2001), *Arantzazu izena. Evocación Franciscana y Proyección Misionera* (Ed.: P. Agirrebaltzategi), Oñati: Arantzazu E.F. (Artikulu bilduma).
- VILLASANTE, LUIS (1970), “Ama-Semeak”, in: *Salbatore Mitxelena* (Jakin sorta, 2), Oñati: Editorial Franciscana Aránzazu.
- ZABALA, ANTONIO (1998), “Arantzazuko erromantze zaarrak”, in: *Euskal Erromantzeak. Romancero Vasco* [Auspoa liburutegia], Oiartzun: Sendoa argitaletaria, 671-722 or. Sigla: EERV.

**Azken ohar laburra,  
Arantzazuko REA/JK koadernoaren  
kopiaz, S. Mitxelenak daktilografiatuaz**

Arantzazun Teologia ikasten ari zela nonbait, REA/JK liburu edo koadernoko Erromantzeen, bereziki Arantzazuri buruzkoen, kopia daktilografiatua egin zuen Mitxelenak, bere azterlan eta idazlanetan eskura edukitzeko edo. –MSJ siglaz dago izendatuta Arantzazuko Balada eta Kanta Zaharren Bilduman–. Badirudi bi kopia egin zituela (kalko-paperez edo); horietako baten fotokopia (M4S) Arantzazuko Balada eta Kanta Zaharren Bildumaren barruan dago; bestea –orain galdua– berak eramango zuen. Ezagutzekoa litzateke hori, Mitxelenaren hainbat oharrez beteta beharko lukeelako.

M4S 17 orrialdeko sorta da (DIN-A-4). Arantzazuko Bildumako 35 auke-ratu zituen, kopiatzeko –horietako hiru R. M. Azkueren CPV-tik jasoak–. Ia denak Arantzazuri buruzkoak dira. Arantzazuri buruzko beste bost kanta ere jaso zituen Mitxelenak zuzenean CPV-tik, bere sorta osatzeko.

Harrigarria da bere sortan ez jaso izana *Ahoz aho* idazlanean eta bestetan eurrez baliatu zituen “Jaiotzen danak” (REA/JK, 123. or.) eta batez ere “Ama Birjina eguna da ta” (REA/JK, 124. or.) kantik. Beharbada artean Koadernoan jaso gabe zeudelako?

MSJ kopiari eta berorren ondorengo fotokopiei buruzko azalpen xeheago-rako, ik. ADK liburu sail honetako I. liburukiko 2. atala.

## HITZAURREA

*“Esan diteke: mintzozko erri-literaturak egia gei-ago eskeintzen digu Edestirako, eta obeto adierazten digu erri baten bizitza, kronika eta jakin-paperetatik ateratako monografi askok baño”.*

(J. M. Barandiaranen hitzak)<sup>1</sup>

Hona hemen, maiteki-maiteki txortatuta, Arantzazuri buruzko gure herriaren kanta zaharrak. Ez dira guziak. Jaso ahal izan ditugunak bakarrik. Gehienak hemen dituzu. Ia denak, esango nizuke. 6 erromantze gizalditsu, osorik bezala;<sup>[1]</sup> eta zenbait bakarrezko koplak apurño: horixe da azkeneko gizaldi honetan Euskal Herriari jaso ahal izan zaiona, eta nik txukunduta eskaintzen dizudana.<sup>[2]</sup>

---

<sup>1</sup> Joxe Miel Barandiaran, *Anuario de Eusko-Folklore*, X. t., 1930, 3. or.  
[Bibliografi erreferentzia ABB-ren editoreena da].

---

[<sup>1</sup>] ‘6’ zenbakia irakurri behar dela dirudi eskuizkribuan. Hala ikusi zuten ABB-ren editoreek ere. Baina liburu honetan hirutara bildu zituen Mitxele-nak Arantzazuko Erromantzeak: “Erromantzeak nahi badituzu, hona Arantzazuko hiru lehenengoak liburu honetan, zein baino zein jatorragoak.” Hiru horietan sartuta daude nonbait seiak “osorik bezala”. Honako hauek agian:

I. *Andre Maria agertu zenekoa*

1. Errodrigotxo Baltategiko
2. O artzaintxoa, o artzaintxoa

II. *Serore erromesarena*

3. Abuztuaren hamabosgarren

III. *Arantzazura bidean*

4. Arantzazura egin dut promes
5. Eguna zela, eguna zela
6. Mundu honetan gura duenak

[<sup>2</sup>] Tartean esaldi hau idatzi zuen, bukatu gabe utzia, eta ondoren ezabatu: “Ez dut uste, garrantzikorik ezer jendeak Arantzazuri kantatzen dionik, han eta hemen liburuetan apaleratu gaberik...”. Ez dakigu kanta horietatik zehazki zer ezagutzen zuen Mitxele-



Lan maitagarria, baina gehiegia, izerditsua, neretzat; loreontzi baliotsua, aintzagarria, Arantzazurentzat ezezik euskal fedearentzat. Arrandiz kutxatuko duzun gordailu begikoa, euskal ertizale uste zaitudan irakurle maite horrentzat.

### Zenbait eliza euskal arimadun

Baditugu Euskal Herrian, asaba zaharrak bezain maite ditugun Eliza edo mendi santu ohoregarriak: Urkiola, Aralar, Hernio, Lezo, Itziar, Arrate... Antzina ederraren sinesmenaz indartu nahi dugunean,<sup>2</sup> haien babesera joaten gara,<sup>3</sup> erromeriaz edo oroiminez, aurrekoen arnasa eske. Eta han, horma zahar gizalditsuen barne iluntsuan taupaka sumatzen dugu, kanpoan hoxkil aurkitzen den euskal arima ondradua, euskaltasunarekin santutasuna dariola.

Kanpoan gaurko erromeria-modu lasaiaren iskanbila ariko da beharbada, mendi santuak lizuntzen. Beheko uritik harainoxe iritsitako erdalkeria, zabarkeria, dabilke nagusi eliz atari bertako dantza-zelaian, soinu lohiak jario. Kanpoan ez da, aspaldi bateko “erromeria” santuen aztarrenik... Goazen eliza barrura:<sup>[3]</sup> han oraindik dena da kristau legezko eta jainkotiar, dena aspaldiko. Euriak eta haizeak bai, han badute sarrera zirrituetan barrena, baina oraindik erdalkeriak ez. Oraindik han dena da gurea.

<sup>2</sup> [A.t.a.: *degunean – geranean...* Geure buruak indartu nahi ditugunean, alegia].

<sup>3</sup> [A.t.a.: *joaten gera – jotzen degu*].

nak: Arantzazuko orduko “Bilduma” eta Azkueren *Cancionero Popular Vasco* ondo aztertuak zituela, hori badakigu. Horiexek aipatzen ditu, aipatu ere, bere idazlanean eta bibliografian. Seguru Jose Adrian Lizarralde, Joan Karlos Gerrak, Ignazio Omaetxebarriak eta Manuel Lekuonak argitaraturikoak ere ezagutzen zituela. Zuzen zebilen uste izatean, beste dokumentu *berri-berri* garrantzikorik nekez agertuko zela aurrerantzean. Baina Mitxelenak seguruenik ezagutzen ez zu-

en Arantzazuko Erromantzeen bestelako aldaera eta puskarik askotxo ezagutu ahal izan dugu gerora ere hainbat biltzailereren eskuetatik edo artxiboetatik (Resurrección M. Azkue, Ignazio Omaetxebarria, Aita Donostia, Aitzolen Bilduma, Mikel Zarate Mintegia, Labayru Ikastetxea, etab.). Horiek denak bateratuz eratutako datu-basean (AKDB) 150etik gora dira Arantzazuri buruzko erromantze eta koplen aldaera eta puska ezberdinak.

<sup>[3]</sup> Eskuizkribuan: ‘eliza-barruna’.

Eta zuk eta nik, han garen denok, harlosa argizaritsutan belaunikatuz osatzen<sup>4</sup> dugun errezo-marmarra, aitonen aitonena berbera da, aitonen aitonek ikasi eta jarraitu zuten errezo zaharraren luzapena da, euskal arimak gizaldiz gizaldi etengabe ari duen sinesmen-urruma eliza-betekoa, Edesti-betekoa. Orduan bai geure buruak sentitzen ditugula arbasoen oinordeko, aurrekoen jarraitzaile. Haien gogapenak, haien sinesmena, haien bihozkadak nahi genituzke jakin, xurgatu eta hausnartu, haietakoxe bat izateko, haien ondradutasunari jarraitzeko... Nola ordea jakin? A zer zorigaitza, euskal kristautasunaren mugari eta lekuko gorengoak ditugun eliza gurgarriok beren handitasunaren oroi-garririk herri kantari ez izatea!

Nork ukatu, gure Arantzazu menditarrari ere baserri-kutsu jatorra, euskaltasun lausogabea? Hamaika erromes hara igoa da Espainia eta Frantziatik; Erregerik bat bakarra: Espainiako Felipe IV.a.

Euskaldun izatea bat da; euskal elizetan euskaldunena izatea, beste bat. Arantzazuk euskaltasun orokorra eta zabala zizun. Ez lurralde bat edo besteko euskaltasun estua, baizik zazpi probintziena. Zazpiak bat, beren fedearen hargailu eta ispilu Arantzazu zuten.<sup>[4]</sup> “Sortaldeko herrientzat, Montserrat; Sartaldekoentzat, Guadalupe; Euskal Herrikoentzat..., Arantzazu” – dio Aita Galdos-ek, P. Antonio Gon jesulagunak S. Ignaziori Erromara (1554) idatzi zionari jarraiz.<sup>[5]</sup> <sup>5</sup>

<sup>4</sup> [A.t.a.: *osetzen – elkartzen*].

<sup>5</sup> “Es una casa de muy gran devoción y van a ella la gente de aquella tierra, como a Ntra. Sra. de Monserrate, o de Guadalupe: por ser cosa tan señalada...” (*Crónica del primer Congreso de Estudios vascos*. “Incendio feliz en Aránzazu” por el P. Romualdo Galdos, pg. 569. 3ª carta, la del P. Antonio Gon, S.J.).

[Liburuaren titulua zehazki: *Primer Congreso de Estudios Vascos* (Bilbao, 1919); hitzaldiaren orrialdeak: 569-589; euskaraz eta gaztelaniaz dago hori; aipuaren orrialdeak: 584 (gazt.) eta 575 (eusk.); dena dela, hemen eta ondorengo aipuetan euska-

[<sup>4</sup>] ‘Arantzazun zuten’: oker irakurrita ABB-ren editoreek.

[<sup>5</sup>] ABB-k ‘idatzi ziona’ besterik gabe utzi zuen testua; baina ‘idatzi zionari jarraiz’ irakurtzekoa da. Izan ere hasieran ‘idatzi zuena gogoratzu’ jarri zuen, baina gero ‘gogoratu’ ezabatu eta ‘-ri jarraiz’ –*zionari jarraiz*– gaineratu zu-

en alboan; zalantzarik nabari da.

Bestalde, paragrafo honetan nabarmentzen duen Arantzazuren tradizio historikoa, Euskal Herri osoari zabaldua, behin baino gehiagotan errebendikatzen du Salvatore Mitxelenak: liburu honetan eta bereziki bere *Arantzazu. Euskal Poema* liburuan.

“Onako lur *guziak ainbeste* jaiera dion Arantzazu”–dio, aldiz, Don Juan de Borja-k.<sup>6</sup>

“Españian dan etxerik fedetsuenetakoa da” –ziotsaten beste eskutitz batean S. Ignaziori berari.<sup>7</sup>

“Ainbeste jaierez hara joaten zan *euskera guziarentzat* da kalte aundia” Arantzazuko (1554ko) etxe-erretzea, berriz, beste batean.<sup>8</sup>

Kantauriko frantziskotarren Nagusiak, aldi berean, gutxienez bi obispadurako jubileua iristeko eskaria honela hasten dio: “... Lagunak eta aberriak eragin didate Berorren errukitasunaren eske, Berori Jaungoikoaren otseina, bere Ordezkoaren adiskidea, gure Euskal Herriaren Aita delako”, eta abar...<sup>9</sup>

“Bi irakaspen ateratzen dira eskutitz hauetatik –dio Aita Galdosek idazlanaren ondoretan–: 1) orain laurehun urte Arantzazuk zeukan handitasuna; 2) euskaldunen Arantzazu-zaletasuna”.<sup>[6]</sup>

---

razko testua ez da liburutik jasotako Galdosen testua, Mitxelenak berak egindako itzulpen libre samarra baino].

<sup>6</sup> “Arançazu, en el cual toda esta tierra tiene tanta devoción” (Id. Ibid. 4<sup>a</sup> Carta). [Bibl. erref. osatuz: 584. or. (gazt.), 575. or. (eusk.)].

<sup>7</sup> “Unas de las más debotas cassas que ay en España y donde Dios es muy servido, es el monesterio de Nuestra Señora de Arançazu” (Id. ibid. Carta 1<sup>a</sup> del Ayuntamiento de Oñate). [Bibl. erref. osatuz: 580. or., 7. zenb. (gazt.), 571. or. (eusk.)]. [A.t.a.: *fedetsuenetakoa – debotoenetakoa*].

<sup>8</sup> Del incendio “ha resultado un daño eçesibo y grande para todo el bascuence, que allí acudía con mucha deboçión” (Id. ibid. Carta 1<sup>a</sup>). [Bibl. erref. osatuz: 580. or., 8. zenb. (gazt.), 571. or. (eusk.)].

<sup>9</sup> “... he sido aconsejado... por mis amigos y patria..., a la clemencia de V. P. Rma., como a siervo de Dios y privado de su teniente y vicario general y padre de la patria...” (Id. Ibid., 2<sup>a</sup> Carta). [Bibl. erref. osatuz: 582 or., 14. zenb. (gazt.), 573. or. 13. zenb. (eusk.)].

---

[<sup>6</sup>] Erreferentzia bibliografikoa: Ik. R. Galdos, ibid., 579. or. Hitzez hitz galdera hau formulatu zuen Galdosek: “Bai al dakizute ba zeintzuek diran eskutitz

oiek dakarkiten irakaspenak?” Eta ondoren ataltxo banatan azaldu zituen bi irakaspenok. Ataltxo horien titulu edo epigrafeak jaso zituen Mitxelenak.

## Arantzazu zenaren ilunabarra

Horrelako esanetatik badakigu norainokoa zen Arantzazuko handitasunaren luzea eta azken muga. Arantzazuk, Euskal Herriarekiko harremanetan, sustrai sakonak behar zituen izan nolanahi, iritsi zuen gailurra jotzeko. Nondik jakin<sup>10</sup>, ordea, Arantzazuko herritasunaren sakona, bertako edeslariak gai honetaz diotena ezer gutxi delarik? Arantzazuko artxibo-paperak behin eta berriko errealditan kixkali eta erraustu ziren. Isiltasunak erdi-estali digu, ezjakinaren elurpean, gure herriaren Arantzazurako jaiera-harbidea, frantsesen etorreraz antzinako ohituren leinargia eteten hasi zitzaiguneko gizalditik hona bitartean.

1834ko errealdiarekin Arantzazuko handitasunaren gomuta ere galdu zen. Urrutiko mendi-atzera erortzen zihoan Edesti-eguzkia gainbehera. Andre Maria Oñatira jaitsi zen. Harri kiskalitan gora, dorrea bakarrik gelditu zen zutik, talai-dorre bezala, eguzki hiltzoriaren<sup>11</sup> azken printzak edaten... Harrezkero Arantzazun iluntasuna da nagusi, baita Euskal Herrian ere, ezjakina, erdalkeria, herio-arra... Tokitan dago gure Arantzazuren aspaldi bateko handitasun Euskal Herria-betekoa! Tokitan, euskal sinesmenaren beste bateko kristautasun arantzazu-zalea! Gaur, izenez Gipuzkoarena besterik ez da Euskal Herri osoaren zaindaria izandako Ama Arantzazukoa! Zer txorakeria irudituko ez litzaioke, Arantzazuko berri bertako etxe-mordo koxkor gauzeza<sup>12</sup> besterik ez dakienari, Euskal Herri guztiko zaindari izendatu behar litzatekeela esango bagenio?<sup>[7]</sup>

## Kanta zaharrak

Baina Arantzazuk, bere zorigaitzean, badu gaur bertan ere Edestia osatzeko, handitasunari jarraitzeko, piztu-bide bat. Oraindik Arantzazuk maitasun sutsu ezinitzalia du euskal bihotzetan; eta gorazarrezko

<sup>10</sup> [A.t.a.: *jakin* – *igerri*].

<sup>11</sup> [*hiltzoriaren*: Adjektibotzat darabil nonbait hitz hori hemen].

<sup>12</sup> [A.t.a.: *gauzeza* – *eskasa*. ABB-k ‘gauzeza’ dakar; oker, nire ustez].

[7] 1918an izendatu zuen Aita santuak Arantzazuko Andre Maria Gipuzkoako zaindari, bertako Diputazioak eskatu-

ta. Mitxelenaren eta beste askoren ustez haren jaiera- eta erakarpen-eremua murriztea izan zen hori.

euskal poemarik biziena euskaldunen ahoan. Andre Maria Bidaurretara jaitsita ere, Arantzazuko bakardade erre, –hondatu–, tristera igotzen omen ziren urtero zegamarrak erromerian, Sindika etxean beren apai-zarekin Meza ematera. Zenbat eta zenbat kanta eder ez ziren igotzen, zegamarrak bezalaxe, Arantzazura, euskal bihotz-ahoetatik, eliza-komentua desegin eta gerora ere!<sup>[8]</sup>

### Bi gizon: Azkue, bat

Gure Azkue handiaren kanta-liburuak irakurri besterik ez duzu, han eta hemen lau probintzietatik Arantzazura uso-hegadaz airatzen diren kanta-zahar maitetsu-ugariak miresteko.<sup>[9]</sup> Hamaika zor dio Euskal Herriak gizon honi, eta baita Arantzazuk ere. Alderen alde igaro zuen eusko lur osoa “Euskal Herriaren jakintza” bila, euskal gogozko kanta zahar eske... Eta hantxe, euskal arimaren barne-mu-  
nik barneenean, ageri zen Arantzazuren gorazarrerik beroena, Edesti mamitsuena, herri-poema xamurra<sup>13</sup> artean itzali ezinda.<sup>[10]</sup> “Mintzoz-

<sup>13</sup> [*xamurra*... Hasieran ‘paregabea’ idatzi zuen; ondoren, hori ezabatu eta ‘xamurra’ ganean. ABB-k ‘paregabea’ utzi zuen, hala ere.]

<sup>[8]</sup> 1834ko erreketari buruz ari da hemen, Rodil jeneral liberalak eraginda-koaz. Ondorioz Andre Mariaren irudia Bidaurretako monasteriora eraman zuten, eta fraiderik gabe geratu zen Arantzazu. Hamabi urte geroago, 1846an itzuli zuten irudia Arantzazura, hango eliza berreraiki ondoren.

Honetara kantatu zuen Mitxelenak Zegamarrena *Bizi nai* idatzian (*Idazlan guztiak-II*, 1984, 268. or.):

Zegamarrak bakarrik  
urteroko legez  
jarraiko zuten ara  
igotzen erromes.  
Naiz eta Ama Birjiña  
An bertan egon ez,  
Fede eman oi zioten:  
Eliza altxa baietz...

<sup>[9]</sup> Hamabi faszikulutan argitaratu zuen Resurrección Maria Azkuek bere bilketan erraldoiaren fruitua: *Cancionero Popular Vasco* (Barcelona, Boileau & Bernasconi, 1922-1925). Liburu hone-tan sarritan aipatuko du Mitxelenak Azkueren obra hori. Biblioteca de la Gran Enciclopedia Vasca argitaletxeak bi tomo handitan kaleratu zuen obra osoa 1968an, faksimil edizioan. Neure aldetik bigarren edizio hau baliatuko dut, CPV sigla erabiliz, eta faszikulua, kantaren bi zenbakiak –faszikuluari eta obra osokoari dagozkionak– eta orrialdea zehaztuz: CPV, X, 1/806, 924. or.

<sup>[10]</sup> Arantzazuri buruzko 27 kanta jaso zituen R. M. Azkuek aipaturiko bere obran. Gainera horrelako beste bost

ko literaturak egia gehiago eskaintzen baitigu Edestirako eta hobeto adierazten baitigu Herri baten bizitza, kronika eta jakin-paperetatik ateratako monografia askok baino”, esango dizut berriz Barandiaran jakintsuarekin.<sup>14</sup>

## Lizarralde

Beste gizon prestu bati zor dio gehiago Arantzazuk: Lizarralde zenari.<sup>[11]</sup> Min zuen harexek Arantzazuren etzauntza eta hondamendia, min euskal fedearen ilunabarra. Beste bateko leinargiaren kondaira-apurrak pipiak jota umezurtz zetzaten liburutegietan, irakurlerik gabe. Eliza-komentua berriz eraiki zen, baina ez lehengo handitasunez.<sup>[12]</sup> Herriaren gomuta ere itzaltzen zihoan, ahitzen... “Hau pena! –zioen Lizarralde bihotz-minduak– herri-aselea bera, euskal tradizio edo jakintza bera, hilko zaigu, badoakigu, bere esanahia eta muina guk atzeman gabe”.<sup>15</sup>

<sup>14</sup> “Es este aspecto de la vida colectiva de los que más contribuyen a dar una idea clara y cabal de la cultura de un pueblo, y aún puede decirse que la literatura oral contiene más verdad histórica y nos hace sentir la realidad mejor que muchas monografías extraídas de crónicas y documentos escritos” (*Anuario de Eusko-folklore* 1930. *Cantares populares*. J. M. Barandiaran, prólogo de, [pg. 3]). [Orrialdea ABB-k zehaztu zuen. Ik. 43. orrialdeko [1] oin-oharra eta Bibliografia]. [A.t.a.: *jakintsuarekin – argiarekin*].

<sup>15</sup> “...y oh dolor! Va a desaparecer la tradición oral sin habernos apoderado de su sentido” (*Andra Mari de Guipúzcoa*. “Aparición de la Virgen de Aránzazu”, [Bilbao, Dochoa de Urigüen, 1926, pg. 94]). [Ohar bibliografikoa ABB-ren editoreek osatu zuten; aipuan hitzen batzuk jan egin zituen autoreak: “... y ¡oh dolor! *en día no lejano* va a desaparecer *esa* tradición oral...” Li-buruaren titulu osoa honetara da: *Semblanza de la provincia de Guipúzcoa. Ensayo iconográfico, legendario e histórico*. Volumen I. *Andra Mari. Reseña histórica del*

bat behintzat argitaratu gabe geratu ziren haren artxiboan, gerora argitaratu dituztenak.

<sup>[11]</sup> Jose Adrian Lizarralde (Zaldibia, 1884-1935), Arantzazuko fraide historialariaz ari da. Izan ere, Lizarralde hasi zen Arantzazuri buruzko “Kanta Zaharrak” –testu eta doinu– artxibora sistematikoki biltzen, horretarako koaderno-

liburu apartekoa ireki eta betetzen hasiz. Hasieran titulurik gabe, gerora *Romances euskéricos de Aránzazu* izena emango zioten koaderno-liburuari. Hainbat eratako kopiak eta birkopiak izan ditu horrek (ik. ADK-ko I. liburukia). Jatorrizkoa REA/JK siglaz deituko dut hemen.

<sup>[12]</sup> ABB: ‘aunditasuna’... Oker irakurrita, uste dudanez.

Arantzazu lehengo mailara goratzeko, zer bide hoberik herri xumearen kolkoan ezkututzen zen lau-bost gizaldien jakinduria eta sinestea baino? Herriak, Arantzazurekiko zer pentsa, nola senti izan duen,<sup>16</sup> huraxe zen kondaira-egiarik egiena, Arantzazu begiz galduaren sakona eta goratasun luzea zedarritzeko. Paperetako kondairak herri-folklorearen behar zuen uztarri-lagun, berez ez baitzen gauza Arantzazu-mendiko “erromerua” xuxpertzeko<sup>17</sup>.

Mendi altuan aurten ez ei da  
erromerurik loratu.  
Nik iminita igartu izan zan  
zuk iminita berdatu.  
Ama gure alde jarri badaigu  
alkarregaz behar dogu.<sup>[13]</sup>

“Herriagan, golde-zuloan ogia bezala dago poesia. Ertiz eta lanaren lanez marduldu behar. Herritik gora eraikitzen ez bada, poesi hori tentelkeria bihurtuko da. Inork ezotu eta txukuntzen ez dituenean, teknika-distira gabeko herri-kanta jaberik gabeak, igarotzen den gizaldi bakoitzeko estrofa eta gertari-atalak pixkaka galtzen doaz, eskaleen (nodriza) lelo totel biurtzeraino. Baina, poeta batek edo batzuek erti-gai horiek eskuartean artuz metatu, alkartu eta taxutzen dituztenean, orduan betirauna jo dizu elertiak, orduan ezilkortzen da.<sup>[14]</sup> Baldin apaindura

---

*culto de la Virgen Santísima en la provincia.* Bestalde, Arantzazuko Andre Mariari buruzko kapituluaren titulua honela da: “La Virgen de Aránzazu, soberana patrona de Guipúzcoa” (87-102 or.); agian aurreko kapituluaren tituluekin nahastu zen Mitxelena: “El culto de la Virgen desde principios del siglo XV hasta la prodigiosa aparición de la Virgen de Aránzazu”; ik. Bibliografía, 39. or.].

<sup>16</sup> [A.t.a.: *zer pentsa, nola senti izan duen – zer uste, senti izan duena*].

<sup>17</sup> [A.t.a.: *xuxpertzeko – piztuazteko*].

---

[13] Bizkaierazko koplaren erreferentzia bibliografikorik ez zigun eman Mitxelenak; ezin jakin, beraz, nondik hartu zuen. ABB-ren editoreek ‘erromeria’ eta ‘erromeririk’ irakurri zuten,

‘erromerua’ eta ‘erromerurik’ irakurri beharrean.

[14] ABB-k ‘ezilkortzen’ dakar; eskuizkribuan, berriz, ‘ezilkortzen’ dago idatzita.

gehiegiak berezko<sup>18</sup> xortiltasuna kentzen ez badio, behintzat. Lehenengo frantziskotarren poesiak ditugu maixu eta eredu, horretan, herriaren go-targia ertiz jasotzeko”.<sup>19</sup>

Ozanam-en hitzok Lizarralderen helburura moldaratuz, esan genezake: Herriagan dago, ildoan ogia bezala, Historiaren egia eta poesia ere, gertariak atzetik utzitako aztarna eta ugeriak (estela) batera. Poesia hau gabe eta herri-usarioen gantzu piztugarri hau gabe, zer litzateke kondaira –galdetzen du Lizarraldek–, “gertaera aienduen museo hilotz hilerri legezko bat baizik”? “Herriak mistiko haundienenak bezain bizkorra eta aparta du sentimena”.<sup>20</sup>

Eta hala, herriaren “kontzientzi” bila jo zuen zuzen, Arantzazuko Edestia den bezain handi zehazteko, euskal fedea ezagutzeko. Inora zihoan bakoitzean, ardura guziz jaso zizkigun, serore ta aiton-amonen ezpainetatik, ermitatxotako Andra Mari bakoitzari buruzkoekin batera Arantzazuri buruzko aseleak, esanak, kantak...

Badizu idazlan bat izenburu honetaz: “La Virgen de Aránzazu en el Romancero Vasco”.<sup>21</sup> Bertan ondorenez hauxe dio: “Herri-kantariei zor die Arantzazuk, bere izena eta ospearen puska ez txikia, agidanez”.<sup>22</sup>

<sup>18</sup> [A.t.a.: *berezko – jatorrizko*].

<sup>19</sup> A. F. Ozanam, *De la poesía popular en Italia antes y después de S. Francisco*. Bukaeran.

[ABB-k osatu egin zuen bibliografi erreferentzia, liburuaren jatorrizko edizioa, frantsesa, aipatuz: “Ozanam, A. F. *Les Poètes Franciscains en Italie au treizième siècle*, Paris, 1882. Chapitre premier: «De la poésie populaire en Italie avant et après Saint François», pg. 48”. Lehen edizioa 1852koa da, ordea. Aparteko apunteetan gaztelaniaz dauka jasota Mitxelenak testuaren zati bat, “osorik aldagarria” dela gaineratuz, hau da, osorik aipatzeko modukoa; baina horren euskarazko itzulpena berak emana duenez, ez dut hona ekarri jatorrizkoa ez den gaztelaniazko testua].

<sup>20</sup> “En él –pueblo– la exaltación de la sensibilidad es tan privilegiada como en los mayores místicos” (*Andra Mari de Guipúzcoa*. “La Pasión”, [pg. 209]).

[Orrialdearen erreferentzia ABB-k gaineratu zuen, autoreak zehaztu gabe utzitakoa; hor aipatzen duen kapituluaren titulu osoa honetara da: “La Virgen en la Pasión del Señor” (199-219 or.); ik. BIBLIOGRAFIA].

<sup>21</sup> Revista *Aránzazu*. 1932, pg. 235.

[235-238 orrialdeak hartzen ditu artikulu osoak; ik. BIBLIOGRAFIA].

<sup>22</sup> “Una buena parte de la celebridad del nombre de Aránzazu en el País Vasco, quizás sea debida a la obra de los bardos populares” (*Aránzazu*. 1932. pg. 235).



Aseleak eta esanak bere liburuetan haragitu eta gihartu ziren, galbidetik gordeta, betirako. Arantzazuko kantikak, aldiz, pilo batean bildu zituen, non eta nori eta zeinetako doinuz jasoak ziren agertuz.

Hau eta hori dela, ez da oraindik argitaratu ia bukatuta utzi zigun Arantzazuko Edestia (*Historia de Aránzazu*). Kapitulu bakoitzak herri-bertso horietako bat edo beste dizu izenburu; oinarri horretatik gora, kondaira zaharretatik jakin-ahala lagun, Edestia osatzen eta mamitzen balihoa bezala.<sup>[15]</sup>

### Arantzazuko kanta zaharren Bilduma bat bertako artxiboan

Lizarraldeak metatzen hasitako kanta-pilo lehen aipatu hori gabe, ezin osatu ahal izango nizkizun gaur nik Arantzazuko kanta zaharrak, Azkuek-eta argitara emanak dituzten apurñoakin bakarrik. Herriak kantatzen dituen bezalaxe daude, txamarka hemen ere, nahasian eta lardaski; zenbat bertso osatu gabe, hitz asko batekoz beste, ulertzerik gabe. Baina, “variante” ugariak bertan dituzularik, ez da etsitze-koa beren esanahia eta osaketa, herri aho eta besteko [*sic*, aho bateko eta besteko?] “aldeak” elkarren ondo jarriz gero. Umetxoak asteroko txanponak altxorreen bezala, pilo horretantxe herrietan entzundako liperrak sartzen jarraitu baitute, gerora, sermoiak egitetik etorri ohi diren frantziskotar guziak, Mendia kopiatzaile dutela: Arruek, Garmendiak, Lamarainek... Nork ez?<sup>[16]</sup> Aritzondok batez ere. Honi zegokion,

<sup>[15]</sup> Lizarralderen *Historia de la Virgen y del Santuario de Aránzazu* liburuaz ari da (Oñati: Ed. Aránzazu, 1950). Horko kapitulu gehienen buruan Arantzazuko erromantzeren baten testu-zatiren bat ipini zuen autoreak: “Armallatan altuan dago” (1. kap.), “Rodrigo Baltategi” (2. kap.), “Errodrigotxu Baltategiko” (3. Kap.), “Birjiña Arantzazukoa” (4. kap.), “Oñatiarrak, oñatiarrak” (5. kap.), “Birjiña Ama Arantzazukoa” (7. kap.), “Eguna zala, eguna zala” (8. kap.).

<sup>[16]</sup> Benito Mendia Filosofiako ikaslea

zen Arantzazun 1921-1924 bitartean; haren kaligrafia ageri dute Arantzazuko Artxiboko REA/JK-ko kanta zahar hainbatek; Lizarralderen agindupean jardun zen seguruenik. Mitxelenak aipatzen dituen fraideen beste izenak: Jose Martin Arrue (1884-1960), Demetrio Garmendia (1908-1999), Kosme Lamarain (1872-1956). Beste zenbait fraidek ere egin zuen Arantzazuko Kanta Zaharren bilketa-lanik herrietan, batez ere Julian Alustizak, eta Mitxelenak berak, jakina.

neri baino, txukuntze-lana; berak aspalditik hasia zuenez, eta horretan hainbeste dakienez.<sup>[17]</sup>

### Kanta zaharretan gure elertiak duen kera eta gaia

Filosofiako urteak eginda Teologiakoak hastera Arantzazura orain lau urte itzuli nintzenean, banekarren Arantzazu zalea; baina ez gorputz betekoa, baserriko umetarotik nuena zertxobait hazia. Banekarren euskaraz idatzi nahia; baina zeri buruz idatzi ez nekiela bezala. Koristaduan inork ezertzat ez zeukan pilo hori nere eskutara uste gabe (?) aurrenekoz<sup>23</sup> heldu zenean, ez nion ezer axolagarririk (?) “letra zentzubako” hari aurkitu, doinuen liraintasuna baizik, eta baztertu egin nuen mahai-apalean.<sup>[18]</sup>

Gerora, Imanol Lekuonaren *Literatura oral euskérica*-k piztuta, maitasuna eta begikoa hartu nien herri-kopla txepelenei ere.<sup>[19]</sup> Eta orduan, apal-bazterreko “piloaz” oroitu nintzenean eta bigarren begiratu eman nionean, irribarre goxoarekin maitasun-harrera beroena para nion nere baitan. Begitan bezala bihotz-labeen nerabiltzala, herri-poesia baliotsuak iruditu zitzaizkidan, ordura arte nik egin nituenen aldeak [*sic*, aldean?] esanahi luzekoak, zoragarriak. Lastima, kantak osorik eta txukunduta ez egotea!

<sup>23</sup> [A.t.a.: *aurrenekoz* – *bat-batez*].

<sup>[17]</sup> Ignazio Omaetxebarria fraide gernikarraren idazle-ezizenetako bat da Ariztondo (1909-1995). Gazte-gaztetatik sartu zen Arantzazuko (eta Arrateko) erromantzeen munduan, biltzaile eta aztertzaile. Hitzaldiak eman zituen horiei buruz, eta zenbait artikulu ere argitaratu zuen. Aditu handizat zeukaten fraide guztiak, baita Mitxelenak ere. Horien azterketa sistematikoa lantzeko proiektua izan zuen bere bizitzan, eta hainbat eskema zirriboraturik ere utzi zuen hiltzean bere eskuizkribuen artean; baina ez zen proiektu hura burutzera iritsi. Arantzazuko Erromantzeen eta Kanta Zaharren ezagutzan hark egindako

ekarpenari buruz, ik. Paulo Agirrebalzategi, “Arantzazuko Kanta Zaharrak. Ignazio Omaetxebarriaren ekarpena” artikulua, in: *Cantabria Franciscana*, LX, 177. zenb., 2009, 31-46 or.

<sup>[18]</sup> Galdera-zeinuak eskuizkribukoak dira. ‘Koristak’ –korukoak– deitzen zieten apaizetarako filosofia-teologiak ikasten ari ziren fraidegaiei; horien ikastetxeari, berriz, ‘koristadua’.

<sup>[19]</sup> 1935ean argitaratu zuen M. Lekuonak bere *Literatura oral euskérica* liburua (Donostia: Euskaltzaleak). ‘Literatura euskerika’ zer den azalduz hasten da liburua. Gerora bi edizio eduki ditu, *Literatura oral vasca* titulua-

“Astoak on dik oloa, –idiak arto-lastoa...”; guk hau, guk hau diagu gere ertia, ezer onik egiteko behar dugun elerti-kerak! sortu zen nere kasa.

Arantzazuko kanta zahar haiek behin eta berriz nere kasa abestuz eta hausnartuz, orduan bai gizondu zela ni baitan Arantzazu-zale gorputzarima betekoa! Kanta zaharrei zor! Orduan bai nekiela euskaraz idaztekotan zertaz idatzi! Artean gauza ez ni kanta zaharron aldeak eta ertzak zehazteko.<sup>[20]</sup> “Itsasoan urak handi...” eta Edestietara jo nizun, haien berri ohartu nahi biziz.

Mertxikaren loriaren ederra!;  
Barnean dun hexurraren gogorra!...

Kondairetatik herri-“dokumentu” hauetara jaitsi orduko berehalaxe asmotan hartu nizun, orain eskaintzen dizudan hobekuntza, folklore-lana. Euskal elertiaren aintzarako eta Arantzazuren ezagungarritzarako!

Pilo hari nolabait deitu behar eta, Arantzazu artxiboko kanta-bilduma deitzen diot. “*Bilduma*”, bestegabe, deituko diot liburu honetan, aipa beharreko bakoitzean.<sup>[21]</sup> Kalte penagarria derizkiot, Bilduma hauxe, hogeitau urte honetan argitara-gabe ezkutuan alferrik egondu izanari. Kalte penagarria, beste zenbait euskal kanta eder-aukeratuenak ertilari on batek, sorta apainean txukunduta, oraindik aurkeztu ezari.<sup>[22]</sup>

rekin (1964an ‘Añamendi’ bilduman; 1978an, autorearen beste idatziekin batera: *Idaz-Lan Guztiak*-I, [Kardaberaz bilduma, 22], Tolosa: Librería Técnica de Difusión, 259-540 or.

<sup>[20]</sup> ABB-k ‘dastatzeko’ irakurri zuen hitza; ‘zehaztatzeko’ (= zehazteko) irakurtzekoa dela uste dut eskuizkribuan.

<sup>[21]</sup> Gorago esan dudanez, J. A. Lizarralde-ek irekitako koaderno-liburuak ez zuten hasieran titulurik; ezta Mitxelenaren eskuetara iritsi zen garaian ere. Seguruenik, Kandido Zubizarreta, Arantzazuko liburuzain eta artxibozainak ipini zion *Romances euskéricos de Arantzazu* titulua. Horrela ezagutu dute gerora aztertzaileek. Bestelako izenik ez, Kanta Zaharren ‘Bilduma’ deitu zuen Mitxe-

lenak. Hor kopiaurikoez gain, ordea, beste kanta-paper mordoska ere bildu zuten, Koadernoan integratu gabe geratu zena, eta haren gehigarri. Gaur egun Arantzazuko Balada eta Kanta Zaharren Bildumak, Koaderno nagusiaz gain, beste sorta hori ere adierazi nahi du. Dena izendatzeko erabili zuen Antonio Zabalak ‘Arantzazuko Bilduma’ esamoldea (ik. *Euskal Erromantzeak. Romancero Vasco* [Auspoa liburutegia], Oiartzun, 1998: “Arantzazuko erromantze zaarrak”, 690. eta 691. or.).

<sup>[22]</sup> Artean beste 50 urte baino gehiago itxaron beharko zuen argitalpen horrek. Arestian aipaturiko liburu mardulean bildu zituen Antonio Zabalak kapitulu berezian Arantzazuko Kanta

## Erromantzerik ez omen dugula?

“Gezurra diok” bikainena izango zen<sup>24</sup>, etxeko eta kanpoko zenbait “sasi-letradun”en esamesak isilarazteko. Baroja eta Unamunoren atariko txakur-zaunkak utz ditzagun alde bat. Zerbait badirala agertzeko zaunkatu behar eta zaunka, “tripa-minak” eraginda: beste ziorik ez baitute. Goazen Salaberriarengana. Ez begi zuzenez, baina bai uste onez, honek maite gintuela uste dut. Horregatik min gehiago ematen didate donostiar zaldun aipatuaren esakun borobilek: “Gauza askotarako gaitasuna bai, eta literaturik [*sic*, literaturarik] ez: harritzekoa da horixe Herri batean. Enderri jakintsuenak alboan dituelarik, eta “zibilizazio” indartsuenek eraso diotelarik, bakarra izan da, uharte bat izan da horretan Euskal Herria”.

“Horra, erromantzeak berak: Espainiako lurralde guzietan dituzte; Euskal Herrian ez. Eta erromantzerik ezagatik, Euskal Herriak ezin betikotu (?) izan ditu bere gertakari epikoak, Ahaide Nagusien aldiko guduak, eta bere maitasunezko joranak. Bide hoberik ez denean, erromantzeak dituzu lurralde askotan Historiaren iturri eta argitzaile, ‘inapreciables’. Arrazoa eman diezaigun, bada, harako esanari: Euskal Herri, herri mutu”.<sup>25</sup>

<sup>24</sup> [A.t.a.: *izango zen – zitzaken*].

<sup>25</sup> Un pueblo que carece de literatura, estando por otra parte lleno de diversas aptitudes, es un fenómeno bien extraordinario... Rodeado de núcleos culturales, asediado por las más fuertes civilizaciones, el país vasco ha sido en esto una verdadera isla”.

“Los mismos romances, comunes a todas las comarcas de la Península, no han penetrado en el País. Y el País se ha visto, al cabo, por esa exclusión del romancero, privado de perpetuar sus episodios épicos, las luchas dramáticas de sus banderizos y las emociones de sus afanes amorosos. A falta de mejores medios, los romances son en muchas regiones las fuentes inapreciables de la historia. Con razón se ha dicho, pues, que el vasco es un pueblo mudo”. (J. M. Salaberria. *Alma vasca*. Pg. 102).

[192]ean argitaratu zuen Salaverriak bere liburua (Madrid: Enciclopedia). Arantzazuko liburutegian horren 2. edizioa dago: Madrid: Librería y Editorial Rivadeneyra, urterik gabe. Aipatzen dituen orrialdea eta testua kontuan izanik, edizio horixe erabili zuen seguruenik Mitxelenak. Unamunori dagokionez, enpatia handiagoz idatziko zuen Mitxelenak geroago bere *Unamuno eta abendats* saiakera kritikoa].

Zaharrak ere, beraien aldaera nagusietan: 55 kanta; sailkapen eta ordena jakinik gabe, ordea. Duela urte gutxi egin zuen Igone Etxebarriak REA/JK-

ko Arantzazuko erromantzeen edizio osotua eta sailkatua: *Arantzazuko Balada edo Kanta Zaharrak*, Oñati: Arantzazu E. F., 2003. Liburuaren epilogo

Egia! —esango luke gaur bertan euskaltzale bat baino gehiagok ere, Salaberriaren hitzok irakurrita. Hain ezezagunak ditugu gerok Euskal Herriaren zenbait antzinako kanta bikain. Jauntxoen aldiko gudukantak nahi badituzu, horra “Bereterretxe”rena Orixeren *Euskalduna*-n [*sic*, *Euskaldunak*-en], horra bertan “Alostorra”, horra bestea, Martín Báñez de Artazubiaga ganboatarra Aramaioko oinaztarrak (1494an) hil zutenean, Dña Sancha Ochoa de Ozaeta alargunak, senar hilaren hiletan aira zituen erostak:

Oñetako lur au jabilt ikara,  
Lau aragiok beran bezala...  
Martin Bañez Ibarretan il dala...  
Artuko dot esku batean geziya,  
Bestean zuzi iratx egurra,  
Erreko dot Aramayo guziya.<sup>26</sup>

Gudu-kanta ederragorik, hiru hauek baino...

### Arantzazuko erromantzeak

Erromantzeak nahi badituzu, hona Arantzazuko hiru lehenengoak liburu honetan, zein baino zein jatorragoak.<sup>[23]</sup> Bigarren kapituluko “Agorrilaren [Abuztuaren] hamabosgarren...” erromantzeak ez dio ezer ere zor *Flor nueva de Romances viejos*-ko ederrenari, ondo ederrak badirelarik. *Mío Cid*-eko 1603tik 1620rako bertsoak irakurrita, Espainiako poesia epikoaren gailurrik gorena jo dugula irudituko omen zaigu —dio Menéndez-Pidal-ek.<sup>27</sup>

<sup>26</sup> Begira, nai badezu, Carlos de Guerra-ren “Lecciones de Genealogía y Heráldica”. *Primer Congreso de Estudios Vascos*).

[Bibl. erref. osatuz: Juan Carlos de Guerra, “Lecciones de Genealogía y Heráldica”, in: Zenbait, *Primer Congreso de Estudios Vascos*, Bilbao 1919, 714. or. Mitxelenak zerbait aldatu egin zuen Gerraren ortografia: Bañes > Bañez, gustiya > guzia].

<sup>27</sup> *Poema de Mío Cid*. Edición y notas de Ramón Menéndez Pidal. Introducción, pg. 66: “Y cuando subamos con el Cid a la torre de Valencia, desde donde muestra a los

gisa aurki daiteke Joxe Azurmendiren idazlan luzea ere (50 orrialde), Arantzazuko Erromantzeen interpretazio historiko-kritikorako iradokizun baliotsurik asko eskaintzen diguna.

<sup>[23]</sup> Zer adierazi nahi du ‘hiru lehenengoak’ idaztean? Hiru zaharrenak? Hiru nagusienak edo behinenak? Zalantza hauei buruz gorago ere jarduna nauzu 43 or.ko 1. oin-oharrean. Hemen berak “txukundutako” hirurak dira nonbait.

Irakur dezagun, aldiz, honako III. erromantzearen 8tik 16garrenera-koa. Herri baten kristautasunak, gurutzbideko aldapan gora doala, iritsi dezakeen goitasunik erpinena, ideiarik egokiena, hor dugu bertso erraz ezin ederragotan:

(San Joan goizeko izar...)  
haren argitan ninjoazula  
Arantzazura ustean,  
Arantzazura ustean eta  
Kalbariora bidean,  
Birjina Ama ta bere Semea  
Topa nituen parean...<sup>[24]</sup>

“*Florilejio*” ondo erakusgarria osatuko litzateke bai, Euskal poesia herrikoiak, gipuzkeraz edo behintzat hizkuntza adigarritz,<sup>28</sup> liburutxo polit batean txortatuta. Gutxik uste bezalakoa. Osagileak, jakitea baino ere, herri-sena behar hartarako, eta esku atsegina... Gehiegi orrazteak maxkaldu egingo lieke beren jatorrizko larre-giroa, eta bihurritu beren tolesgabea.<sup>29</sup> Apaingarriz, txertoren bat itsasten bazaio, herriarena behar du, zahar-kutsukoa, ez norbere aho-zapaiari derizkiona.

---

atónitos ojos de su mujer y de sus hijas la rica heredad que para ellas había ganado (v. 1103-1620), nos parecerá que hemos tocado la cumbre más alta de nuestra poesía épica, y que después de tan solemne grandeza solo era posible el descenso”.

[Bibl. erref. osatuz: 1928an argitaratu zuen Menéndez Pidalék *Flor nueva de romances viejos* liburua, Espainiako literaturaren historian klasiko bihurtua. Gerora edizio asko izan zituen. Madrilgo Espasa Calpe argitaletxearen eskutik (1938, 1939, 1941, 1943, 1944...); jakin ez, zein edizio erabili zuen Mitxelenak; une honetan 1955eko edizioko alea dago Arantzazuko liburutegian. *Poema del Mío Cid* liburua 1908 eta 1911 artean argitaratu zuen].

<sup>28</sup> [A.t.a.: *adigarriz - ulergarriz*].

<sup>29</sup> Lizarraldeko Erdi Aroko Andre-Mari irudiengatik esandako hauxe ongarri izango zaizu herri-poesiketarako ere gogoratzea: “que no está en la madurez técnica ni la belleza de la obra de arte, ni su poder sobre nuestra sensibilidad; nada nos subyuga tanto como la victoria del espíritu sobre la materia.”

---

<sup>[24]</sup> Testu hau 10-11 ahapaldietan dator, erromantze txukunduan. Testua ez da guztiz berdina han eta hemen. Bietan dago Kalbarioaren erreferentzia, hone-lako testuingurutan beste inolako aldaeratan aurkitzen ez dena. Mitxelenak berak sartu nahi izan zuen. Hemen baieztat-

pen gisa dago –Kalbariora bidean–, 3. erromantze txukunduan, ordea, galdera gisa: “Arantzazura bidean ala / Kalbariora bidean?”. Honetaz luzeago, Epilogoan. Bestalde, bigarren lerroko ‘nindoazula’ (ninjoazula) forma oso bitxia da, Arantzazuko Erromantzeetan ez dagoena.

Ez duzu zeurea landarea. Gogoan hartu: Landare barne[an]<sup>[25]</sup> bizi den gunak eta zorneak jantzi eta apaindu behar du(te) [sic] lorea, ez zure edergailuak. Ezer kimatzekoan, ezertxo eratzikitzeoan, hitz baten ordeztu bestea aldatu behar denean, zuzeneko irizpideak du horretan lanik gehiena, folklore-arauak legearen erdi-erditik eramateak.

### Aldapa-gora gaitza, baina ez ezinezkoa

Txukuntzeak baino lan gehiago du orratio kanta zaharren eraskinak (*circunstancias*) arakatzek. Noizkoak diren, zeinek eginak, zertarako atereak, non eta noiz eta nola kantatuak, antzekorik ote duen, ote duen semerik... Horrek eraman dit neri betarik gehiena. Olerki-ondorengo azalpenak, galdera horien erabakizunak.

Neri bezala, nonbait, Azkue berari. Bihozgatzetik [sic, Bihozgabetzetik?] gorde eta indartu egin nau halako gizonaren honako aitortzak: “Hain luzea bizitza eta hain kondaira motza duten gurea bezalako Herriekin, zail da beren kantuetako ia bat bakarrari hasiera ez ezik gerorako aldakerak ere asmatzen”.<sup>30</sup>

Zailaz gainera ezinezkoa, bai noski, hasiera bila paleolitiko-denboretaraino joan nahi baduzu gaurko kanta zaharretik zein edo zer puxka orduan lardasten ziren asmatzea. Baina, azken(eko) bost gizaldiotako aldakerak eta bitarte hartako zenbait kanta-hasierak ez ditugu erabaki-ezinak, etxe barneko [eta] kanpoko “usarioak” eta Edestia lagun direla. Gaitzak bai, halere. Hori Azkuek berak daki eta lezake, nik baino hobeto.

Guazen mixiora  
yendiak gogotik,

<sup>30</sup> “Tratándose de pueblos como el nuestro, de vida tan larga y de tan corta historia, difícil es averiguar no solo el origen, sino hasta la evolución de casi ninguna de sus canciones” (*Crónica del IV Congreso Nacional de Música sagrada*. Conferencia de Azkue, pg. 282).

[Bibl. erref. osatuz: *Crónica del IV Congreso Nacional de Música sagrada* (Vitoria, 19-22 noviembre de 1928), Vitoria: Impr. de Montepío Diocesano, 1930. Aipuko ‘evolución’ hitzaren ordeztu ‘conclusión’ idatzi zuten ABB-n].

[25] Testua zerbait zuzentzen (¿?) ausartu naiz hemen. “Landarea barne” dakar eskuizkribuak; ABB-k “Landarean barne”

interpretatu zuen; testuinguruak “Landare barnean” edo “Landarearen barnean” eskatzen duela uste dut.

Aitak etorri zaizku  
 Baztana Zarauztik...  
 Frai Daniel Bartel ta<sup>[26]</sup>  
 Frai Andres bestia...

Noizkoak ote dira bertsook? Ordukoak direla pentsa behar.

“Alostorrea, bai, Alostorrea” noizkoa ote da? Gertari hura jazo zen aldikoa dela pentsatzen *hasi* behar. Horrekin ez dugu esan nahi Jesu Kristori edo Santa Agedaren bizitzari jarritako bertsoak eta koplak zaharrak, ondo zaharrak izanagatik, ordukoak direnik. Polita litzateke! Baina bai, ordea, “Bereterretxe”-ren kanta noizkoa den galdetuta, beranduenez beranduenez gertaera haren oroitzapena herrian galdu baino lehenagokotzat jo dezakegula, aurkako arrazoirik ez dugun artean.

Aurkako arrazoirik ez dugun artean. Eta badugunean? Esango didazu. Horixe bera esaten dizut nik ere. Baina, hor zagok, ba, koxka. Adixkidea! koxkarik gabe ez litzateke izango Azkuekin diodan bezain zaila asmakizuna. Eragozpenik gabe, guzien esku legoke asmakizuna. Oztopo gabeko baietak izerdi gutxi liguke, baina oniritzi gutxiago irakurleetan. Bestela esan: dendari merkeak konfiantza garesti erostunetan.

Euskal kanta zaharrak noiz erneak diren ziur zedarritzea, erabakizunetan zailena dugu, gainera. Argaiztoak (?),<sup>[27]</sup> ukoak, ezezkoak nonahitik aurki lezake hemen zirritua. Kako-makoak zuhurkeriaz jarri nahi dituenak, noiznahi eta nonahi du ehiza. Gaurkoz azken epaia ematerik ez baitago; geroaren esku azken epaia.

### Bi iturburu jakinarazle

Etxe-barneko kondairak eta bertako “herri-jakintzak” argibiderik ematen ez digutenean ere, baditugu oraindik beste bi iturbegi. [Aurreneko] iturri(a) bata [?] (doinuak berak)<sup>[28]</sup> oraindik ez dugu hain ziurra. Baina bigarrena bai: hots, albo-herrietako Edestiak eta folklorea.

<sup>[26]</sup> Baertel zuen abizena frantziskotar sermolari ospetsuak (1854-1922); Euskal Lore-Jokotan hizlari ofizial ere bai.

<sup>[27]</sup> Irakurtzen zaila da hitza eskuizkribuan. ABB-k ‘ahogaiztoak’ irakurri zuen; hemengo irakurketari hobeto deritzot.

<sup>[28]</sup> ‘Aurreneko’ hitza ezabatuta dago eskuizkribuan, eta badirudi zerbait gaineratuta dagoela ‘iturri’ hitzaren eta parentesiaren artean. Hori kontuan izanik, ABB-k ‘Iturri bata’ irakurri zuen. Argitasunaren aldera, ‘Aurreneko’



Doinuak izan behar lukete laguntzaile ona. Baina, gaurkoz, argibiderik gutxi eman liezagukete. Oraindio ez baita gure musikologotan bat bakarrik ere legeak jartzera ausartu. Ez da nahikoa, “tono mayor y menor”-ik ez duela eta, zahar tankera ematea aire bati: zein antzina-aldi ingurukoa den jakin nahi litzateke... Eta gainera traba-langa bat, ez txikia, topatzen dugu, argibide honetatik: Azkuek dioen euskal kantetan sarri gertatzen den metenpsikosia: doinu bat, alegia, jatorrizkotik beste hizkietara<sup>[29]</sup> aldatua dugula. Tradizioa, bizidunik oro bezala, egongabe aldatzen baitoa; bizitzea aldatzea da.<sup>[30]</sup>

### Atzeritako folklore-kronologia laguntzaile ona

Bigarren argibidea dugu zehatzagoa, eta batez ere, aberatsagoa: albo-erritako folklorearen nahiz literaturaren ibiltza, etorkia.

Behin baino gehiagotan entzun eta irakurri izan dut gure arteko bertsolari-guduak orainenekoak direla, eta holakoak bost. Adibidez, begira Menendez Pidal-en *La primitiva poesía lírica española* liburuiko 23garren orrialdean, luzerik, gaurko bertsolarien xirtoak eta miztoak, zirrikadak eta norgehiagokak berak jarduera berdin-berdinez Xgarren gizaldian ere: “Enrique III.aren poeta artean ariketarik gogokoena bi trobalariren elkarren aurkako eztabaida (lelo-gudua) ohi zen; aurre-

---

hitza berreskuratu nahi izan dut, kakoen artean bederen, ondorengo ‘bigarrena’-ren kontraposizioan. Bestalde, parentesi artekoa ‘(doñuak, betak)’ irakurri zuen ABB-k; ‘doinuak berak’ irakurri eta ulertzekoa dela uste dut. Beraz: “Aurreneko iturria (doinuak berak) oraindik ez dugu hain ziurra”.

<sup>[29]</sup> *Hitzak, testua*, esan nahi du hemen ‘hizkiak’ berbak.

<sup>[30]</sup> Azkueren aipaturiko Kongresuko hitzaldian honako epigrafe hau da-

go, oso deigarria gertatzen zaidana: “La metempsícosis de muchas canciones” (282-283 or.). Bukaerako kaxoek ezabatuta ematen duten arren, badirudi beste norbaiten aipua dagoela hemen. Hitzaurrerako apunteen papelean gaztelaniaz dakar esaldi hori, komatxoan artean jasota: “La tradición como todo lo que vive, se transforma de continuo; vivir es variar”. Badirudi lehenago aipaturiko Menéndez Pidal-en *Flor nueva de romances viejos* liburutik hartuta dagoela (212. or.).

nekoak hasitako erriman eta era berean bigarrenak erantzun behar zuela...”, eta abar.<sup>31</sup>

81eko orrialdean, aldiz: “XVIgarrenaren lehenengo gizaldi erdian, herriaren antzera konpondu ohi zituzten zenbait olerkarien kantak kanta-paperetan zabaltzen ziren”, eta abar.<sup>32</sup> Horra gaurko “Bertso berriak” eta “Bertso zaharrak” zabaltzeko hamar xentimoz saldu ohi diren “kanta-paperen” antzinatasuna.

Denok dakigu Santa Ageda egunez nola koplatu ohi den gure base-  
rri-ateetan, koplariaren ahapaldi berri bakoitzari eskeko lagunak kopla jakinarekin erantzunez. Txandatzeko era hori txit ezaguna omen zen albo-herrietan, Xgarren gizaldia bera baino lehenagotik. Gutxi gorabehera, hala irakurtzen dugu 55eko orrialdean.<sup>33</sup>

<sup>31</sup> *La primitiva poesía lírica...* etc. pg. 23.

[Bibl. erref. osatuz: Ramón Menéndez Pidal, “La primitiva poesía lírica española” (Discurso leído en la inauguración del curso de 1919-1920 por Menéndez Pidal en al Ateneo de Madrid). *Estudios literarios*, Madrid: Atenea, 1920, 251-344 or. 1951ean *De primitiva lírica española y antigua épica* izeneko liburua barruan argitaratu zuen Espasa-Calpe editorialak, Buenos Aires].

<sup>32</sup> “[En esta tarea] colectora ayudaron a los músicos y a los poetas doctos otros poetas más modestos de la primera mitad del siglo XVI, como Rodrigo de Reinosa y Abuso de Alcaudete, glosadores a porfía de la lírica y de los romances populares. La imprenta divulgaba sus obras por medio de una especie de cancionerillos, en pliegos sueltos de muy poco coste... Estas publicaciones populares no fueron desdeñadas por los bibliófilos como Fernando Colón y gracias a ellos se salvó una considerable parte de la poesía medieval” (Ibid.).

[Ohar honetako kortxeteen arteko lehen hitz horiek ezabatuta daude eskuizkribuan, baina ordezkorik idatzi gabe].

<sup>33</sup> El que fiaba el canto, después de enunciado este tema, seguía con la 1ª estrofa o cuarteta, compuesta de tres consonantes iguales y de un cuarto verso que, elevando el consonante del estribillo, está destinado a sugerir el recuerdo del tema inicial y hacer que los oyentes cantasen a coro dicho estribillo. Luego el cantor entonaba otra estrofa, y el coro entraba a cantar cada vez que escuchaba el consonante indicador del estribillo. Este simple artificio estrófico fue usado en las otras literaturas románicas; pero en la española arraigó más y fué aquí viejísimo, tanto, que en un remoto período preliterario, entre los siglos X y XI, parece haber sido imitado del inculto romance por los españoles islamizados para componer poesías en un árabe popular, salpicado de voces románicas”... etc., pg. 56).

## Erdi Aroz hizkuntzen harremana

Atzeneko “olerkariak” sortu arte, euskarak izan dituen poesi-kera denak dira zaharrak, antzinatikoak. Kopla zaharrak bezala erroman-tzeak, nahiz gainontzeko mota herrikoiak. Nola sinetsi gurea bezalako Herri kantariak, hizkirik gabe airatuko zituela bere doinuak, XVgarren gizaldira arteko albo-hizkuntza jaio berriak adina eta gehiago trebeta-sun neurtitzetarako zuenean?

Handia zen Erdi Aroz<sup>[31]</sup> Europako enderrien alkarrenganako harremana elerti-gaietan, nahiz musikan nahiz poesietan, ipuinetan... Polonian eta eslabo-herrietan oraindik ere abesten den melodia berbera dugu, ezer kendu gabe, Euskal Herriko “Uxo xuria, esazu”-rena. Erdi Aroz zenbait “pastorela”-en gai Europako hizkuntza guziak erabat kantatzen zituzten, baita euskarak ere (Cfr. Azkue...).[32]

Donosti Abak euskal musikaz duen hitzaldi ahozuri batean: Euskal Herriak –dio, hitzak gorabehera–, bere geografian ere, bihotz baten tankera dizu, itsasora, iparraldera begira. Euskal musikak handik du harremana (zorra, odol-harrera)”. Euskal literatura zaharrak, berriz, goitik eta behetik, Eder-eguzkiak distiratzen<sup>34</sup> duen alde bakoitzetik.

## Erromantzeei buruz erabat zerbait

Ez dizut kopla zaharraz hemen ezer hitz egingo, Arantzazuko kantuotan ederrenak eta gehienak erromantzeak direlako, hitz bi zor dizkizut erromantzeei buruz Hitzaurre honetan.

Izena du, bakarrik, itxusia euskal belarrientzat, poesi-kera xotil honen. Izen berria nahi bada, dezakeenak eman dezala euskal bataioa. Ez nik. Ni ez naiz inor hartarako. Eta gainera, erdal hitz horrek, bere itxusian kantu-mota horren jatorria adierazten digu. Latina galdu zuten herrien hizkuntzei “lenguas romances” esaten zitzaaien bezala, latinezko

<sup>34</sup> [A.t.a.: *distiratzen – epel jotzen*].

[31] Hasieran ‘Erdi Aroko’ idatzi zuen nonbait; baina gero ‘Erdi Aroz’ zuzendu zuen, epigrafean bezala. ABB-ren editoreek ‘Erdi Aroko’ irakurri zuten.

[32] Autoreak ez du zehazten Azkueren iturria. Neure aldetik, *Cancionero Popular Vasco* obrako sarrerara bidal de-

zaket irakurlea. “Música popular vasca. Su existencia” titulupean, Francisco Gascue-rekin polemikan, eta “Uxo xuria, esazu” kantatik abiatuz, hain zuzen ere, S. Mitxelenak hemen aipatu duen gaia darabil Azkuek (ik. CPV, I t., 5. or. eta ond.).

kantak handiki eskolatuentzat utzita, “jende arruntak” bere kasa sortu zituen olerti berriei ere “cantos romances” deitu zitzairen, edo “romances” beste gabe. Ordudanik du, diogun “erromantzeak” izena eta jatorria.<sup>[33]</sup>

Albo-herrietako hizkuntzetan hauxe dugu, beraz, poesi-kera zaharrena; lirikarik eta ez bestelako kantarik artean albo-herriok ez zuten aldikoa. Baina honetan ere ez dira maxialari guziak iritzi bereko. Menéndez y Pelayo, Menéndez Pidal, Jacobo Grimm... eta beste askok uste dutenez, erromantzeak baino lehenagokoak ditugu “cantares de gesta” aipatuak: *El Cid*-en bi poemak, eta *Fernán González*-ena... eta abar. Haiiek jendearen gogamenean erdizkatu zirenean, puska-puska egin zirenean, orduan eta haiengandik sortu ziren erromantzeak, oinordeko poema luze haien liparño bailiran.

Aitzitik, Cejador-en [eta] gehientsuen<sup>[34]</sup> iritzia ere itxurazkoa da eta gure Arantzazuko kanta zaharroi adi gagozkiela, egitsuagoa: “Egunero ikusten gaude –dio honek– erromantzeak nola asmatzen eta osatzen diren. Zerbait handi gerta dela eta, han doa ahoz aho, herriz herri, albistea edo kanta, gero eta handiagotzen, gero eta biziagotzen, azkenik herri-amesmenaren<sup>[35]</sup> gailurra jotzeraino”.<sup>35</sup>

Lehendabizi, albiste-txamar bat baizik ez zenuen, estrofa bat edo beste. Gerora, pixkaka-pixkaka, rapsodia batua<sup>[36]</sup> osatuko zaizu estrofa haiekin: horra erromantzea. Azkenik, erromantze horiek herri-ahon

<sup>35</sup> *Historia de lengua y literatura castellana*

[Bibl. erref. osatuz: Julio Cejador, *Historia de la Lengua y Literatura Castellana*, Madrid, 1915].

<sup>[33]</sup> ‘Erromantze’ hitza belarrietan atsegin ez zuelako edo, ‘Kanta-zarra’ hitza erabili zuen eurrez Mitxelenak; baita liburu honetan ere; bereziki liburu honetan. Horrelako kanten argitalpenetan eta azterketan gogoz diharduen Labayru Ikastetxeak nahiago du ‘balada’ hitza euskarazko horrelako kanta zaharrak adierazteko. Hain zuzen ere, Arantzazuko azken argitalpen sistematikoak, Igone Etxebarriak eginak, honako titulua darama: *Arantzazuko Baladak edo Kanta Zaharrak* (2003).

<sup>[34]</sup> Paragrafoaren lehen lerroaren ertzean ‘geientzuen’ hitza idatzi zuen autoreak; ABB-k ‘Cejador'en *eta* geyentzuen’ interpretatu zuen, ‘eta’ hori non ipintzekoa den garbi ageri ez den arren. Interpretazio egokia deritzot, hala ere.

<sup>[35]</sup> Mitxelenaren eskuizkribuan ‘amesmena’ dago idatzita, argi eta garbi; ez ‘asmamena’, ABB-ren editoreek irakurri zuten bezala.

<sup>[36]</sup> Badirudi horrela irakurtzekoa dela hitza. ABB-k “rapsodi bat” irakurri zuen, besterik gabe.

ugaldu direnean, Homero batek denak bildu eta mamituz, *Iliada* ederra josiko dizu zati (*fragmento*) horiekin. Erromantzeak, beraz, *Cantares de gesta*-en sortzaile dira, eta ez belauneko. Homero-rik ez denean, herri-puxka haiek puzka umezurtz gelditzen dira, poema osatu gabe, baten-batek jaso edo bestela galdu (-zorian).

Lehenengo iritzira, herria baino poemagileak ditukegu erromantzeen jabe eta guraso; bigarren iritzira, herria bera. Dena dela, agirian dago Arantzazuko kanta zaharrok, poema idatzi oso batetik jaulkiak ez direla eta herri-herriarenak direla. Poemarik izatez gero, eliza hartako kronikalari zaharrak esango ziguten, bai horixe, eta bestela ere jakingo genuen. Poema idatzirik ez, baina bai poema bizirik ederrena. Arantzazuganako euskal fedearen poema bizirik ederrena dago ernari kanta zahar hauetan, izar hilezkorrekin ameska, betiraunera jaso dezan esku gaizkatzaille-arnasemaile baten eske...

Nik liburu honetan, txukundu eta iruzkinak jarri baizik ez dizut egin. Erdarazko erromantzeekin Menéndez Pidal-ek egin zuena bera egin nahi izan dizut Arantzazukuokin.<sup>36</sup> Han aipatzen diren txukun-arauak berak erantsi dizkiet euskarazkooi. Eta, gainera, Menéndez Pidal ohartu ez diodana: Herriaren ahoan izan ez denik ezer, hitzen bat edo beste, tartean osagarri sartu nahi izan badut,<sup>[37]</sup> txintxo-txintxo orpoan aitortuko dizut. Eskubidezko ez derizkionak ken dezan. Hona hemen nire arauak:

- 1) “Versión” edo era denak bakarrera ekarri.
- 2) Era zaharrena eta ederrena, biak bat datozenean, aukeratu; bestela ederrena, mamitsuena.
- 3) Gaiak etena duenean, hitz gutxienez eta herrikoienez eta egiatsunez, herri-aseletik (tradiziotik) hornitu, iruzkinean agertuz.
- 4) Erdal hitzen batzuk, garbitu, aldatu.
- 5) Iruzkinetan epai zurririk ezin denean, aieruz aztertu, galderaz adierazi. Eta esan dizudanez: Azken epaia geroaren esku utzi.

---

<sup>36</sup> Begira *Flor nueva de Romances viejos* (Proemio-ko *procedimiento*).

---

[37] “sartu nai izan ba'dek” dago idatzita eskuizkribuan; garbi dago ‘ba'det’ | izan beharko lukeela (= badut).

Mertxikaren loriaren ederra!  
Barnean dun hexurraren gogorra.

Bihotzak poz, baina buruak lan.

Eginkizun luzeegia nire indar motxentzat. Arantzazuko amak eta zuk, irakurle, barka iezazkidazue hutseginak. Asti gehiagoz eta patxada nahikoarekin eginda ere, honelako “laneukiak”<sup>[38]</sup> akatsik gabe egiterik ez. “Geroko gero”ak ere, berriz, bere galerak ditu. Barandiaranekin hasi bezala bukatuko dizut. Euskaldunen jatorrizko gaitza (endemia) omen da gauzak oso-osorik eta ezin hobeto egin arte, argitara gabe isilik gordetzea. Eta hori oso kaltegarri zaigu, dio Barandiaranek bere idazlan batean.<sup>37</sup>

Tori, bada, irakurle maite, euskal kristautasunaren gain-gaineko elerti-eztia. Milizka ezazu, txuka ahalegina, ez duzu agortuko eta. Euskal fedea sortuak dituzunez, bertan sumatuko duzu taupaka eta bestela ezin jo dugun euskal bihotz aspaldikoa, Arantzazurekin sekulako taupada berdinean.

Eta kanta zaharrotan gora, berehala helduko zara, S. Ignaziori idatzitako eskutitzetan gora Aita Galdos iritsi zen bi ondoretara:

- 1) antzina Arantzazuk zuen handitasuna;
- 2) euskaldunen betiko Arantzazu-zaletasuna.

Eta gainera:

- 3) euskal elertiaren bitxitasuna.

---

<sup>37</sup> (Homenaje a Carmelo Echegaray liburuko bere idazlanean uste det).  
[Bibl. erref. osatuz: Jose Miguel Barandiaran, “Mari o el jenio de las montañas”, in: *Zenbait, Homenaje a Carmelo Echegaray*, San Sebastián: Imp. de la Diputación de Guipúzcoa, 1928, 245-268 or.].

---

<sup>[38]</sup> Hasieran ‘lanak’ zuen idatzi autore-ak; hura ezabatu eta ‘laneukiak’ idatzi- ta dagoela dirudi (‘lanenkiak’ agian?). ABB-k ‘lan eukiak’ irakurri zuen.

# I

## ANDRE MARIA AGERTU ZENEKOA “ERRODRIGOTXO BALTZATEGIKO”

### Agerkundearen garrantzia

Arantzazuko mirarrietan mirari, Andre Maria agertu zenekoa da herriarentzat. Arantzazu izena mintza diozun orduko, elorri-arantzen zuriz jantzitako “zapatu egun bat” hura gogoratzen jarriko<sup>38</sup> zaizu, beste dena utzita: gogoratzen eta kantatzen. Zapatuak igandea ondo: Errodrigotxo axkarraren<sup>[39]</sup> larunbata zorioneko hura, huraxe baita<sup>39</sup> atzetik zetorkion (igande-) jaiaren etorkia eta sorburua. Jostorratz-begian behin hari-punta sartuz gero, han doakizu ondoren gainontzekoa, den guzia. Arantzazuko zapatu-arratsaldea ongi dakienak, asma omen lezake ondorena: herri xumearentzat han dago Arantzazu dena. Hasiera jakin behar ondo, zer eta nola gerta zen, izpirik galdu gabe. Lotsagarri bezala litzateke, kontatzen hasi eta zertxobat esateke<sup>[40]</sup> ahaztutzea. Hartara ezker<sup>40</sup>, lagunak irten behar izaten dute orduan osatzen laguntzera,<sup>[41]</sup> haren hutsa betetzera edo okerra zuzentzera... Ez dadila hitz erdirik galdu. Ez de-

---

<sup>38</sup> [A.t.a.: *jarriko* – *xerbelduko*].

<sup>39</sup> [‘Bai-da’ idatzi zuen aurrenik; gero ‘da’ hitzaren gainean ‘duzu’ idatzi zuen, aurrekoa ezabatu gabe; beraz, ‘baituzu’ ere irakurri ahal dugu testuan].

<sup>40</sup> [*Hartara ezker* – *Orduan*].

---

<sup>[39]</sup> ‘Erodrigotxo axkarraren’ dago idatzita eskuizkribuan, ez ‘Erodrigotxo artzaiaren’, ABB-k irakurri duen bezala.

<sup>[40]</sup> ‘esateke’ irakurri behar dela uste

dut, ez ‘esateko’ (ABB).

<sup>[41]</sup> ‘osatzen laguntzera’ irakurtzekoa da eskuizkribuan, eta ez ‘osatzer, laguntzera’ (ABB).

zatela okerrekorik ikasi belaunekoek, umetxoak zen bezelaxe ikasi eta jaulki behar baitu<sup>[42]</sup> gerora ere.

### “Bertso berriak”

Zoaz amonatxogana jakin-eske. Zoragarria duzu haien kontatzea eta kantatzea. Bertsotan gehiena, ia dena, jaulkiko dizu.<sup>[43]</sup> Bai, ba; hitz neurtuak, erreskan doazela, berak dira lagun onak gauza osorik eta behar bezala eramateko.

Ezezkorik gabe, berehalaxe jarriko zaizu kontari eta kantari, bietara nahasian. Doinua gorabehera handi gabekoa du, laua, apala; orain entzuten ez den bezalako aire-xaharra, sotila, bular-eztarriarentzat nekerik gabea. Bertsoak kantatzen baino kantuz esaten ari dela ematen du; eta gauzak esaten baino adierazten...<sup>[44]</sup>

Sarrerako aurkezpena egin du, lehenengo apaldian, baita Ama Birjinari laguntza eskatu ere “... para ditzadan – zenbait bertso berri”. Orain, bigarrenean, gertarira doa zuzen. Hartarako, begi (ilunduak)<sup>41</sup> goratuz, urrutira eramanez... Begiak urruti; baina, gogoa, urrutiago. Andre Mariaren agerkunderainoxe doa gogoa. Gogo-begiak hantxe tinkatuz, bada...

Irureun larogeita  
lau urte badira

<sup>41</sup> [Hasieran “begi lausoak” idatzi zuen; gero adjektiboa ezabatu eta parentesi artean ‘(ilunduak)’ idatzi zuen, eta horrela utzi].

<sup>[42]</sup> ABA eskuizkribuan “bear bai-*da*” irakurtzekoa dela dirudi, baina esaldiak “bear bai-*du*” (behar baitu) eskatzen.

<sup>[43]</sup> Eskuizkribuan, hasieran honetara zegoen esaldia: “Bertsotan, alare, geyena; ia dana”; gero ‘alare’ ezabatu egin zuen, eta ‘jaulkiko dizu’ erantsi zion. Ondorioz, ‘Bertsotan, geiena; ia dana jaulkiko dizu’, transkribatu zuen ABB-k. Aditza gaineratzean, ordea, puntuazioa ere aldatzekoa dela uste dut, auto-

reari ahaztu bazitzaion ere; horregatik, puntu-komen (;) ordez koma (,) idatzi behar dela uste dut, esaldiaren esanahia egoki jasotzeko: “...gehiena, ia dena...”

<sup>[44]</sup> Salvatore Mitxelenak horrelako kanta-biltzearen esperientzia bat baino gehiagoren berri ematen digu: Arantzazu auzoan bertan (inoiz Luis Villasante eta Eujenio Agirretxe adiskideekin batera), Oñatiko Uribarriko Zabaleta etxean, Bidaurretako Klaratarren komentuan...



Birjiña jetxi zala  
Aloña mendira...<sup>[45]</sup>

Bertsoa bukatzekoan, eztarria pitin bat estutuz, azkeneko hitzak gero eta geldiago; azkeneko notan, berriz, egon luxe bat... arnasa eten gabe. Egon horrekin hobeto hausnartzen omen da-eta emandako bertsoaren goxoa...; baita hobeto pentsatzen ere hurrengoa!

Rodrigo Baltzategi  
artzaitxo bat zan,  
Sapatu egun batean  
auntzen-billa joan tzan...

—*Batzuk ardi bila esaten dute. Baina ez; nola ibiliko ziren, bada, ardiak halako basarte malkarrean?...*<sup>[46]</sup>

Tarteka, honela, zenbait oharkizun beharreko sartu behar, bada, gaizki ikasi ez daitezen... Ahuntzen bila joan zan.

Iduritu zitzayon  
kanpaya ote zan.<sup>[47]</sup>  
Au entzunaz bildurrez  
urreratu ere zan.  
Antxen billatu zuan  
Birjiña Arantzan.

---

<sup>[45]</sup> Bertso hau zalantzarik gabe, Telleriarteko Plazaolak asmatu eta lehenbizi kantaturiko “Gure Ama Birjiña” hasten den bertso sortakoa da. Sorta horren hogeiren bat aldaera ditugu bilduak ADK saileko III. liburukian, iturri ezberdinetatik jasota: batzuk luzeagoak, besteak laburragoak. Horietatik luzeenak 22 bertsoak dira (7 aldaera). Mitxelenaren aldaera hau ez dut ezagutzen bere osoan –2., 3. eta 4. bertsoen puskak jaso zituen hemen–, baina ezberdina da besteetatik: ‘jetxi zala’ (2/4) –besteetan, “gugana etorri da” –, ‘urreratu’ (3/8) –beste gehienetan, ‘arri-matu’, ‘makurtu’–. Beste aldaera nabarmena urteena da: “Iruereun larogeita lau urte badira” hemen; beste ia denetan,

berriz, “hirurehun eta laurogeita bost” dira urteak. –Beherago, honetaz–.

Mitxelenak berak dioenez, Oñatiko Uribarriko Zabaleta-behekoa baserriko amonak kantatu zion Arantzazuko kondaira, 22 bertsoetan.

<sup>[46]</sup> Horrelaxe, bertsoaren jarraian zuzenean dator amonaren iruzkina: kantariaren beraren ahotan ipinitako iruzkina, zalantzarik gabe. Ahuntzak behar zutela izan, defenditzen du amonak; bost bat aldaeratan, ordea, “ardien bila” ageri da, REA/JK koadernoko 22 bertso kokotan, adibidez (69. or.).

<sup>[47]</sup> Aldaera gehienetan ‘pertsonek ote zan’ dago idatzita.

Emakume eder bat,  
aurtxoa besoan;  
Kanpanilla txiki bat  
alboan bazuan:  
Iñork beartu gabe  
soñu jotzen zuan...

... Eta ari dela, ari dela 22 bertsoak erreskan airatzen, kanta zahar-  
ren atzetik gogo-begiak urrutira doazela, antzina ederraren urrea egun-  
senti-leinurutan eralgitzen, xehatzen ikusiko duzu atseginaren atsegi-  
nez, geroaren argigarri...

!Ez jakin kanta zaharra!

— Baina, amona –galdetu nion behin, denak amaitutakoan, Zabaleta-  
beheko laurogeita hiru urtekoari–, utzi egin dituzu Ama Birjinak Erro-  
drigotxori esan zizkionak: ermitatxo bat egiteko eta; hiru latatxo, zazpi  
teilatxo nahikoa zituela eta...

— *Horiek zaharrak dira –erantzun zidan–; ama zaharrak, bai, ba-  
zekizkien.* Bere denboran ez omen zen horiek besterik kantatzen. Beste  
hauek ez omen ziren artean ezagun. *Askotan berari entzun izan nizkion,  
baina nik ez dakizkit.*

“Errodrigotxo Baltzategiko:...”

Orratio, nik hasi eta lagunduz osatu zituen hauek ere.

Ez ziren, bada, berri-berriak lehenengo kantatu zizkidan hauek ere.  
Arantzazuko eliz-komentua hirugarren aldiz erre zeneko ondorengoak  
ziren, nahiko zaharrak, bertsoak izateko. Udarregi, nahiz Xenpelarrenak  
bertso zahartzat saltzen badira “kanta-paperetan” ondotoxo zaharragotzat  
jo behar, 1853eko hauek.<sup>[48]</sup>

---

[48] Eskuizkribuan eta ABB edizioan 1835 dago idatzita; baina seguruenik 1853 idatzi nahi zuen, berehala ikusi-  
ko dugunez. Noizkoak dira jatorriz bertso hauek? REA/JK-ko 56. orrial-  
dean bertso sorta honen titulua dago idatzita eta azpian, autore-izenaren on-  
doan ‘(1854)’ urtea. REA/JK, 69. or.an, berriz, 1853 dago idatzita eskuz –Salba-

tore Mitxelenak berak idatzia, itxu-  
raz–. Beste paperek ez dakarte inolako  
datarik, ez sortaren jatorrikorik eta ez  
transkribatu edo inprimatu zireneko-  
rik ere. Aldaera luze denetan, ordea,  
beste datu interesgarri hau ageri da,  
bigarren bertsoan: zenbat urte diren  
Arantzazuko Andre Maria agertu ze-  
netik (honetaz ik. azalpen zabalagoa

Baina, ondo zioen amonak. Zer dira laurogei-ehun urte, lau-bost gizaldiren kutsua eta arnasa darion “erromantze” honen aldean? Bertso zaharrak ziren haiek; baina ez kanta zaharrak. Zer ikusirik gutxi dute, gero, elkarrekin bertsoek eta kanta zaharrek joskeran eta leinargiz... Zer izen eman behar diogu, bestela, 1514tik datorkigun hitz neurtu goxo, garden, tolesgabeari?

Noizkoa “Errodrigotxo Baltzategiko”?

1514tikoa<sup>[49]</sup> bai? Hitzek duten neurketa eta joskera hor nonbaitekoak dira. Zail da erabakitzen. Sarreran esan dugunagatik. Koroazioko

ADK sail honetako III. liburukian, 33-35 or.) Bertso sortaren aldaera gehien-gehienetan “hirureun laurogeita bost urte” dago idatzita (15 aldaeratan); Mitxelena-ren honetan, berriz, “Irureun laurogeita lau urte” dio. REA/JK, 69. or. ko aldaeraren azpian norbaitek hauxe idatzi zuen eskuz: “Hay otra edición que dice «Lau urte badira»” (Hirureun larogeita lau ure badira, alegia) –Mitxelena-ren honetaz ari ote da? Baliteke–.

Arantzazuko Andre Maria “agertu” zeneko urteari buruz zalantza dago historialarien artean: 1468 ala 1469. Mitxelena 1969aren tradizio herritar nagusiari jarraitzen dio; baina ontzat-edo ematen du Lizarralderen arrazoiketa, 1468aren aldekoa (ik. *Ama-semeak Arantzazuko kondairan*, in: *Idazlan guztiak*-II, Arantzazu, EFA, 1984, 318. or.).

1468+385 urte 1853 dira: urte horretakoak lirateke bertso hauek, REA/JK-ko 69. or. bertso-paperean goian eskuz idatzita bide dagoen datakoak, hain zuzen ere. Baina hor bertan azpian idatzitako oharra eta Zabaleta-beheko amonaren kalkulua (?): “larogeita lau urte”– kontuan hartzen baditugu, orduan 1852 litzateke bertsoen idazte-data. Bestetik, REA/JK-ko 56. orrialdean

emandako data daukagu: 1854. Horren arabera, I. Omaetxebarriak –eta berekin batera beste batzuek– 1854kotzat jotzen ditu bertso hauek (ik. “Sobre el poema viejo de Arrate”, in: *Eibar*, 1963, n. 6, 7. or.). Hiruretatik zein aukeratu?

Gehiago nahasteko, J. A. Lizarraldek, Ignazio Omaetxebarriak eta S. Mitxelena-k zehazturiko datak genituzke: Izan ere, Lizarralderen HVSA liburuan (22. or.) 1864ko data dago idatzita baina seguru-erik nahasi egin zen autorea –edo editorea?–, --64, --54 idatzi ordez. Bestalde, Mitxelena-ren 1935ko urtea daukagu, ohar honen hasieran aipatutakoa; baina bertan adierazitakoaren erabera, eta orain artekoak gogoan edukita, zalantzarik gabe idazte-okerra izan behar du: 1835, 1853 idatzi beharrean.

Beraz, bertso 385 urteena aintzakotzat hartuz gero: Andre Mariaren irudiaren aurkikuntza 1468. urtean ipinita, 1853koak lirateke bertso hauek, baina aurkikuntza 1469an ipinita, 1854koak.

[49] Ez dago garbi ‘1514tikoa’ ala ‘1514tik’ ala ‘1514koa’ irakurri behar den eskuizkribuan. ABB-k ‘1514koa’ irakurri zuen; baina testuinguruan zentzu egokiagoa duela uste dut hemengo irakurketak.

(1886)<sup>[50]</sup> urtera arte ez baitu inork idatziz jaso. Berandu da hori laubost gizaldien azkeneraino aztarnak zedarritzeko.

Nere iritzia eman aurretik, hona hemen lehen eredua, Eujenia Langarak (Villaro. 69 urte) kantatu zuenez<sup>[51]</sup>:

Errodrigochu Baltzategiko  
 Erdu ona ta entzuizu  
 Aita zuria arotza da ta  
 Arren esan bat eidezu.  
 Egin deiela ermitatxo bat  
 Deritxona Arantzazu  
 Iru latatxo, zazpi tellatxo  
 Nunbaisten askoko ditu.  
 Amaika amaren seme  
 An izengo dau ostatu  
 San Franziskoren semeak bere  
 Antxe kalize altzadu.  
 Oñatiorrak, oñatiorrak  
 Gaskiro –kazkiro– penatzen nozu  
 Aite san Miguel Oñatikora  
 Birriten eroan nozu.  
 Irugarrenez banaroazu  
 Gomuten eukiko nozu.

Gero agertuko ditugun hitz hauek bide direla: “ermita kurioso eta komentu poderosoa”,<sup>[52]</sup> Aritzondok, baiezkorik epaitu gabe, galdetu

<sup>[50]</sup> Autoreak osatu gabe utzi zuen data; ABB-ren editoreek osatu zuten.

<sup>[51]</sup> Esaldi hau paperaren oinean dago, ohar moduan edo, eta letra oso xeheaz idatzita. ABB-ren editoreak ez ziren horretaz konturatu nonbait, eta ez zuten sartu, ezta transkribatu Mitxele-  
 nak bertan eskatzen duen erromantzea ere, Areatzako Eujenia Langarak kantatua, eta Arantzazuko REA/JK-ko 25. orrialdean Benito Mendiak kopiatuta dagoena. “Egune zala, egune zala” has-

ten da erromantzea, eta zazpi (zortzi) ahapaldikoa da iturri horretan. Hemen horren bigarren partea bakarrik dakargu –azken lau ahapaldiak–, tes-  
 tuinguruak horixe eskatzen duelakoan.

<sup>[52]</sup> “ermita kurioso eta komentu poderoso” esaldia “Ai artzaitxoa, ai artzaitxoa: nere esana egizu,” kantaren azkenean ageri da. Etxarri-Aranazko Josefa Auzmendik kantatua da, eta, dirudienez, S. Mitxeleak berak jaso. Beraren hemengo oharra ulertzeko egokia

bakarrik egiten du: “San Frantziskoren semeak Arantzazun jarri ziren ordukoa (1514) ote?: hots, komentu hazi berriak<sup>[53]</sup> lehenengo ermita-  
txoaren oroimena artean itzali ez zuen aldikoa?”<sup>42</sup>. Nik nerez, galdetzen  
jarrita, oraindik ere zaharragoa ez ote galdetuko nuke. Eta ez eskubide  
gabe. Zuzen derizkiot galderari. Baina ez Aritzondok dioenagatik.<sup>[54]</sup>

1) Ama Birjinaren ermita, giza oroimenean ez ezik, eliza-barneko  
erdi-erdian egon izan zen, Arantzazu guziaren bihotz eta begi-nini; ha-  
rik eta aldare nagusira Aita Zerainek irudia aldatu zuen arte (1621).  
<sup>[55]</sup> Aurreneko oholez eginaren<sup>[56]</sup> aldean, geroko eliza erdiko hura bai,  
zinez “ermita kurioa”: hantxe baitzeuden kokatuta Andre Mariaren  
edergailu guziak, argiontziak, eliz kriseilu dotoreenak (?); han Ameri-  
ketatik etorritako urre zilar gehiena...

2) Ahapaldi hori ordukoa izanda ere, ez dut uste kanta zahar honen  
zahartasuna noraino<sup>[57]</sup> den esaten duenik. Nafarroako era (*variantea*)  
Gipuzkoa eta Bizkaikoaren seme ondorengo izanik, ahapaldi hori es-  
trofa harixe<sup>[58]</sup> bakarrik, eta geroztik, eratxikia baita. Nafarroan kan-

<sup>42</sup> Cfr. *Arantzazu* sept. 1944 pg. 264.

zitekeen hemen bertan hura osorik  
ematea; baina beherago dator. Irakur-  
leak begi aurrean beharko du hemen  
Nafarroako aldaera hori, gorago dato-  
rren Bizkaiko aldaerarekin batera.

<sup>[53]</sup> ABB-k ‘asiberriak’ irakurri zuen non-  
bait eskuizkribuan; baina ‘aziberriak’  
irakurtzekoa dela uste dut; testuingu-  
ruak ere horixe eskatzen du.

<sup>[54]</sup> Esana dudanez, Ignazio Omaetxe-  
barria da Aritzondo. Honetara amaitu  
zuen hark bere “Rodrigo, el hijo del car-  
pintero” artikulua (*Arantzazu*, XXIX,  
1944, 249. zenb., 260-264 or.): “Supon-  
dremos que se trata de los primeros  
tiempos de la habitación del convento  
por los hijos de San Francisco (1514),  
cuando tuvieron lugar los pleitos entre  
Dominicos y Franciscanos por su pose-

sión, cuando ya era *convento respetable*,  
pero no se había borrado aún el recuer-  
do de la primitiva *pequeña ermita*, por lo  
cual era tanto mayor el entusiasmo que  
entre los fieles producía el contraste, no  
tan fácilmente explicable más tarde, al  
acostumbrarse a considerar el convento  
como cosa normal?” (264. or.).

<sup>[55]</sup> Autoreak osatu gabe utzi zuen data;  
ABB-ren editoreek osatu zuten.

<sup>[56]</sup> ‘olez’ (oholez) irakurtzekoa dela us-  
te dut; ez ‘olaz’, ABB-k bezala.

<sup>[57]</sup> ABB-k ‘norañoko’ idatzi zuen; eta  
badirudi horrela zegoela hasieran es-  
kuizkribuan, baina gero ezabatu egin  
zuen hitzaren ‘-ko’ atzizkia.

<sup>[58]</sup> ABB-k: “apaldi estrofa ori arixe...”;  
hemengo irakurketak zuzenagoa dirudi.

ta zaharrak ‘ean, ean’ du bukaera; horrek ‘oa, oa’. Gipuzkoa eta Bizkaikoarekin, berriz, ez du batere zer ikusirik; Nafarroaz kanpo ez baita egundo kantatu izan, ezta ezagutu ere. Argi denez, gure “...izango dute ostatu” hitzik itz gogoratzen ez eta, ordez asmatua da. Gainera, ez adiale hori bakarrik. Nafar era osoa doa gure jatorrizkoaren atzetik (jatorrizko giputz-bizkaitarraren atzetik), ideia berberak errima berrian esanez: hangoa gogoratzen duenean, berriztuz (“nere esana egizu...”); ez duenean, zertxobait aberastuz...

### Nere iritzia

Ni nerez, bost gizaldi, 470en bat urte, kanta honek badituelakoan nago. Honexegatik diot: 1) bertako ideiatatik eta 2) kanta zaharraren joskeragatik.

1) Ama Birjina agertu zenekoxe badakigu nola eztabaida sortu zen Oñati inguruko herrien artean. Murgiarrek batetik; Garibaitarrak bestetik. Murgiarrek Arantzazun bertan ermita eraiki behar zela. Garibaitarren buru izan nahi zuen Oñatiko Jaunkoteak, berriz: ezetz, irudia Oñatira jaitsi eta San Migeleko parrokiari aldare bat eman [*sic*, ematea?] zela egokiena. Ladrón de Guevararen ezin-ikusia eta zemaiak alde bat utzita, Arantzazuko bide-urratzeari eta ermitagintzari, alkar bat artuta auzolanean, ekin zioten mondragoitar eta oñatiarren artean asmatua, edo orduntsu behintzat asmatua, derizkiot nik kanta honi. Zer hoberik, jendea beren alde ekartzeko, Ama Birjinak berak nahi zuela esatea baino?: Ama Birjinak berak esan ziola, alegia, Errodrigori ermitatxo hantxe egiteko, Arantzazu izena ipintzeko, hantxe euskaldunak izan behar zutela-eta ostatu, gero elizaunditzen zenean...

2) Iritzi honi indar handia damaio gure jatorri-kanta beraren barnejoskerak, zahartasunak, zahar-kerak. Orduko beste enderrietako balada eta erromantzerik ez dago, honek haiekin duen antza eta izan-giroa ikusteko.<sup>43</sup> Nik esan baino hobeto igerriko du irakurleak, aztertzean, honen ordukotasuna, honen eta haien senidetasuna... Erromantze jator

<sup>43</sup> “Los romances españoles más viejos que conocemos datan por lo común del siglo XV; a todo lo más alguno remonta al XIV. La misma fecha alcanzan las baladas inglesas y las canciones narrativas francesas; parecen todas fruto de la misma época” (Pg. 8. *Flor nueva de romances viejos* por Menéndez Pidal).

[A.t.a.: *izan-giroa* - *anai-giroa*; ABB-k ‘anai-giroa’ aukeratu zuen].

honek Erdi Aro gaineko hartan eskatzen du, inolaz ere, bere izangoa eta jatorria. Atzerako epe handirik gabe, han nonbait bila behar zaio zilborra...

### Lehen ereduaren nafar “variantea”

Kanta pitxi, ama, honen gurgarria eta bost gizaldien itzala, beraz, sinestekoak dira, miresgarriak. Ikus ditzagun orain lehen landarearen altzuma berriak: lurralde bat eta bestean sortu izan zaizkion bat eta beste belauneko seme berezi. “Errodrigotxo Baltzategiko”-ren oinordeko nabarmena, Barranka eta Segura aldeko “Ai artzaitxoa, ai artzaitxoa” da. Amaren antza [*sic*, antz] berekoa. Ez du zeintasunik bere bakarrez jatorria ukatzeko. Hala eta guztiz ere, maitagarria hauxe ere. Asele polit baten arabera jaioa baita; ipuin politaren ilargi pean nafar abasoek [*sic*, arbasoek] kantatua.

Aloñan baino lehen, Aralarren agertu omen zen gure Andre Mari jentil artzain bati.<sup>44</sup> Jentil artzainaren kupida irabazteko, honela eskatu omen zion zeruko Amak:

Ai artzaitxoa, ai artzaitxoa:  
nere esana egizu,  
nere esana egizu eta  
nerea izanen zera zu.

Nik zainduko itut zure ardiak  
Santa Triako aitzean,  
Santa Triako aitzean eta  
belartxo garbi batean,  
belartxo garbi batean eta  
elorri-ondo batean.

Elorri orri para izkiozu  
bi pillaretxo aldean,  
bi pillaretxo aldean eta  
iru latatxo gañean.

---

<sup>44</sup> Begira: *Aránzazu*, Agosto de 1921, pg. 89. Lizarralde-ren “Manifestación de la Madre de Dios de Aránzazu según la leyenda”.  
[Aldizkariaren 4. zenbakian, hiru orrialde: 88-90 or. Ik. BIBLIOGRAFIA, 38. or.].

Denborarekin an izango  
da ermita kurioosa  
ermita kurioosa eta  
komentu poderosoa.

(*Josefa Auzmendi, Etxarri-Aranaz*).  
(non gehiago?...)<sup>[59]</sup>

Aralarko artzain gaiztoak esana egin nahi ez ziolako, orduan Aizkorriko maldara, Arantzazura, hegatu omen zen, Errodrigoren baietza bila...

Esana egingo ez ziola jakinda, nola agindu zion, bada, ermita kurioosa eta komentu poderosoa izango zala hura? Hortik ezagun da, lehen esanaz gainera, estrofa horren etxeko-eza, sasi-jatorria.

[59] Parentesi arteko galdera autoreak berak jarria da. AKDB datu-baseko “Santa Triako” istorioaren bost aldaerak Etxarri-Aranazkoak dira. Mitxelenak berak jasoaz gain: a) Lizarraldeko Josefa Auzmendiren ahotatik jaso eta partez argitaratua (“La Virgen de Aránzazu en el Romancero Vasco”, in: *Arantzazu*, XII, 1932, 237. or.; ik. REA/JK, 37-38 or.); b) Azkuek Juliana Etxarriren ahotatik jaso eta argitaratua (CPV, X, 24-829, 961-962 or.); c) Jose Mari San Sebastian “Latxagak” Josepa Auzmendi beraren ahotatik jaso (1973); d) Julian Alustizak Etxarrin bertan jaso, “Zure ardiak ongi dabilta” hasten dena. Segurako “San Adrian” aldaera ere badago, seguruenik Lizarraldeko berak jaso (ik. REA/JK, 24. or.). “Ermita kurioosa eta komentu poderosoa” bertsoa, berriz, beste zenbait aldaeratan ere ageri da: a) “Birjina Amaren bezpera da-ta” (Joxe Ariztimuño “Aitzolen” Bilduman, Ermenegildarengandik Lakuntzan jaso); b) Jokin Dorronsorok kantari berberari

jasotako beste aldaera bat; c) I. Omaetxebarriak Lakuntzan bertan Martina Sanz Ganboarengandik jaso; d) Azkuek Martina Lanz-en ahotatik (Lakuntza) eta Maria Aldasororenetik (Arbizu) jaso eta argitaratutakoa (ik. CPV, X, 15-820, 947-949 or.). Ikusten denez, aldaera guztiak nafarrak dira (Etxarri-Aranaz, Arbizu, Lakuntza).

Bestalde, Arantzazuko Balada eta Kanta Zaharren Bilduman daukagun Joseba Auzmendiren aldaera ez da Mitxelenak hemen dakarrenarekin berdina. Batetik “Arantzazura egin det promes” balada luzeagoaren (17 ahapaldikoaren) parte da hemen Mitxelenak idatzi duena. Mitxelenak berak jaso ote zuen aldaera hau, Josefa Auzmendi berarengandik? Honetara daude Arantzazuko artxiboko eskuizkribuan hemengo lau ahapaldiei dagozkienak: jatorrizko transkripzioak, batetik, eta Ignazio Omaetxebarriak egindako zuzenketen (??) ondorengoak, bestetik –badirudi Omaetxebarriaren aldaketak kontuan hartu zituela Mitxelenak bere aldetik–:



## Beste pusketa

Hara beste eredu bat: Bidaurretako Kaietanari jasoa (Oñatin).

Errodillochu juan zanian  
ardijakana mendira  
Birgiña Ama antxe zeguan  
arantzan berai begira!

Errodillochu laster juan zan  
bai Oñatiko kalera.  
Ango sazerdotiai  
zer kontu emotera.

Oñatiarrak laster jun ziran  
prozeziñuaz mendira...

Aurrera jarraitu zuenak ez du zerikusirik hemen. Azkeneko bi errealditan Oñatira irudia jaitsi zelako baita hurrengo ondo [*sic*] hau:

---

### Jatorrizkoa

Artzai ontxua, artzai ontxua,  
Nere esana egin zu,  
Aita ori ere arotza da  
Ermitatxo bat egin dazu.

Nik zaituko ditut zure ardiak  
Santa Triako aitzean,  
Santa Triako aitzean  
Ta belartxo garbian,  
Belartxo garbi batean  
Ta elorri oridotxo batean.

Elorri ori para dizkiozu  
Bi pilontxo aldean,  
Bi pilontxo aldean  
Eta iru latatxo gaiñean.

Iru latatxu, zazpi tellatxu,  
Deritzda Arantzazu.  
Denborakin au isanen do  
Ermita kurioosa,  
Ermita kurioosa  
Ta konbentu poderosoa.

### I. Omaetxebarria

–Artzai ontxua, artzai ontxua,  
Nere esana egizu,  
Aita zurea arotza da-ta  
Ermitatxo bat egidazu.

–Nik zaituko'itut zure ardiak  
Santa Triako aitzean,  
Santa Triako aitzean eta  
Belartxo garbi batean,  
Belartxo garbi batean eta  
Elorri ondotoxo batean.

–Elorri orri para izkiozu  
Bi pilaretxo aldean,  
Bi pilaretxo aldean eta  
Iru latatxo gaiñean.

Iru latatxu, zazpi teillatxu,  
Deritzala Arantzazu.  
Denborarekin au izanen da  
Ermita kurioosa,  
Ermita kurioosa eta  
Konbentu poderosoa.

Oñatiarrak, Oñatikoak...

Eta abar.<sup>[60]</sup>

Txairoa bezain polita. Eta zaharra, nolanahi. “Erromantze”-kutsu jatorra du bere baitan. Laburra, axkarra, errex... Zenbait erdarazko-ren tankera bera bilatzen diot nik esan-giro gorri. “Errodrigotxo Balatzategiko”-rekin gorputz bat ez ote da? Nik baietz uste, eta nik hala nahi. Bi-biak elkar[rekin] ederki osatzen baitira. Han Ama Birjinaren eskaini-eskaria besterik ez dago, noiz eta non esana denik adierazteke. Hemen, berriz, Errodrigoren joan-etorriak bakarrik azaltzen zaizkigu, zeinen esanera dabilen, mandatua duen, aipa gabe.

Alare, bestela dionari, bi dirala dionari ez diot muzinik egingo. Hontan norberak derizkiona.<sup>[61]</sup>

**Beste era bat**

Hurrengo aldakuntza, adibide bat gehiago dugu euskaldunaren bertsoarako erraztasuna erakusteko. Ezker-eskubi daki euskara, gauzak hitz nertuetan esaten. Zuri [*sic*] edo huragatik, zuka edo itatoka jardun beharrak ez dio bildurrik.

Maria de Azkoitiak (Koruetan) abestua:<sup>45</sup>

<sup>45</sup> Ikusi nai ba-dezu Kristoma [*sic*, Krisostoma] Bengoetxeak (Lekeiti) nola kantatu zion gure Azkue aundiari, begira Tomo VIII, pg. 763: “Errodillatxu, Errodillatxu,

<sup>[60]</sup> Hemengo kanta hau Arantzazuko REA/JKko 23-24 orrialdeetan eskuz idatzita dagoen eta “Agostubaren ama-bostgarren” hasten den testu luze baten parte da. Zatika edo dago idatzita bi zutabetan, eta ez dago garbi kopia-tzaileak erromantze bakartzat hartu zuen ala ez. Mitxelenak berak, bereztat egindako kopia daktilografiatuan (MSJ) dena batean kopiatu zuen. I. Omaetxebarriak (OSJ), ordea, zatikatu egin zuen horko testu luzea, eta bost kanta ezberdin aurkitu eta bereizi; horietako bat da, hain zuzen, hemen

Mitxelenak jasotako atala. Horren ondorengo “Oñatiarrak, Oñatikuak” aparteko kanta da Omaetxebarriaren zatiketant, ahapaldi bakarrekoa.

<sup>[61]</sup> Joxe Azurmendik bi direla uste du, hain zuzen. “Oñatiarrak, Oñatikuak” Andre Mariaren “agerpena” baino “lehentxeagokoa” litzateke; “Errodrigotxo Balatzategiko”, berriz, ondorengo edo aldi berekoa. (Ik. “Arantzazuko kanta zahar zaharrenaz ohar historiko batzuk”, in: I. Etxebarria, *Arantzazuko Baladak edo Kanta Zaharrak*, Oñati: Arantzazu E.F., 2003, 154. orrialdetik aurrera).

Errodrigotxo Baltzategiko,  
Birjina billazalia,  
Auntzaren-billa jua ziñian  
Arantzazuko mendira.  
Birjiña(i) Ama billatu zeben  
Arantzan zeuri begira.  
Laster ta arin etorri ziñan  
enbajadiaz errira.  
Oñatiarrak jua ziraden  
prozeziyuaz mendira.

Eta abar:

Oñatiarrak, Oñatikoak...<sup>[62]</sup>

## Bestea

Ez ditut hemen jarriko beste zenbait aldakuntza garrantzi gabeko. Honako hauxe ez dut utzi nahi ipini gabe. Ez dakit nori jaso den.<sup>[63]</sup>

---

Birjiña billa-zalia... Ez-ta arritzekoa ango itzulpena: “Errodillachu, Errodillatxu (que no sé lo que es), Virgen amante de villanos (sic)...”. Kantariak berak ez bai'zun jakingo, bearbada, Arantzazuko kanta zeriona.

---

<sup>[62]</sup> Arantzazuko REA/JK-n, 27. orrialdeko “Mundu onetan gura dabenak” kantaren zati bat da hemen Mitxelenak jasotakoa (2-4 ahapaldiak); eta “Oñatiarrak, Oñatikuak” ahapaldiarekin jarraitzen du. Aldaera horren informatzailea zein izan zen ez dakar iturri horrek. 26. orrialdeko aldaera, bai, Maria Azkoitiaren izenean dago; baina ezberdin samarra da. Uste dudanez, nahasi egin zen hemen S. Mitxelena, informatzailearen izena ematean.

<sup>[63]</sup> Ez dakiela nori jaso duen aldaera hori? Aurreraxeago emana duen “Errodillotxu jua zanian” kanta baino behe-

raxego dator REA/JK, 24. orrialdean; gorago aipatu MSJ-n Mitxelenak berak daktilografiaturiko “Agustubaren amabostgarren” izeneko erromantze luzearen barruan dago.

ABB-ren editoreek oin-ohar txikia erantsi zioten kanta honi: “Mitxelenaren paperetan, hau idatzi ondorengo ohar bat aurkitua dut: “hau ez da kanta-zarra, Zapirainen “Txanton Piperrri” euskal operaren zati bat baizik”. Euskaratu besterik ez zuten egin Omaetxebarriaren kopia daktilografiatuaren gainean Mitxelenak eskuz gaztelaniaz idatzitako oharra: “No es romance popular, sino un trozo

Txoragarritzko berri gozoa,  
 biyotz pozkidagarriya  
 Lasterka nator kantatutzera,  
 aitu bertatik egiya:  
 Baltzategiko Rodrigo artzaiya,  
 Antxo-Txapel deitzen dana,  
 Aloña mendi tontorrian zan  
 goiz-goizetikan juana.  
 An bat-batian agertu zayo  
 arantza zorrotz-gañian,  
 Zeruetako Ama Birjiña  
 Jesus dabela besuan...

### Kanta zaharraren herritasuna eta egia

Zenbat eta zabalduagoa kanta bat, orduan eta aldakuntza gehiago. Gure honek kontaezinak ditu. Izan ere, abesti gutxi ezagunagorik, lau probintzietara zabalduagorik, antzina zaharrean. Begira, orain arte argitaratutako aleok nondik jasoak dira: Larraun, Etxarri, Arbizu, Lakuntza (Nafarroan); Oñati, Korueta, Segura (Gipuzkoan); Lekeitio, Lumo, Villaro (Areatza, Bizkaian); Aramaio (Araban).<sup>[64]</sup>

del «Chanton Piperrin», la ópera vasca de Zapirain». Harrigarria da Mitxelenak hona ekartzea atal hau, beraren ustez erromantzea ez bazen; baina ABB-ren editoreek diotenez, kapitulu hau idatzi ondoren konturatu zen horretaz.

<sup>[64]</sup> “Argitaratutako aleak” dioenean ez du esan nahi publikatuta zeudenik; herritarren ahotatik jasota eta Arantzazuko Bilduman transkribatuta zeudela esan nahi du.

Errodrigoren izenak, berriz, hamaikatxo forma hartu izan du kantatzaileen ahotan; hona hemen mordoska bat –zenbakiak AKDB datu-baseko erregistroenak dira– : Artzai Rodrigo Baltzategiko (204), Bal-

tzategiko Rodrigo artzaia (010), Derrodrigotxu, Derrodrigotxu (282), Errodrigotxo Baltzategiko (017), Erradillatxo (039), Errodrigotxo Baltzeteriko (048), Errodillochu (008), Errodillochu Aloxategiko (011), Errodrigochu Baltzategiko (016, 023), Errodrigotxo (204, 210), Errodrigotxo Bal(t)zategiko (017, 018, 229, 190), Errodrigotxo Galtzategiko (260), Errodrigotxu Baltzategiko (202), Errodrigotxu, Errodrigotxu (047), Eurreriotxo Baltzategiko (017), Rodrigo Balzategiko (100), Rodrigo Balzategui (060, 056), Rodrigo Balzategi (064), Rodrigo Baltzategiko (185), Rodrigo Balsateico (187), Erolitetxu Altzetariko (281).

Edestia behetik gora, atzeraka egin behar dela diote batzuek. Kanta zahar honen mamia eta herritasuna neurtu nahi duenak bai behintzat, aurtengo bosgarren errealditik<sup>46</sup> hasita, lau, hiru, bigarrean, lehenengoan barrena Ama Birjina agertu arte tai gabe euskal fedea ermitagintzan ikusi beharra dauka, Arantzazu erre-ala behin eta berriz eregi eta eregi, jaso eta jaso, beti Amaren esanera. Orduan atzemango kanta zahar gurgarriaren egia, egia paregabea: “ermitatxo bat indazu eta nerea izango zera zu”. Sortaldetik sartaldera begira, ez dugu esango hitzok Irudi santuak mintzatuak direna; baina gaurtik atzora begira jarrita, bai euskal herriak Ama Birjinak esantzat hitzok sinetsi eta zertu dituen.

Lehen hasi gara esaten herriarentzat Arantzazu guzia, zapatu-arratsalde hartan dagoela. Egi-egia, noski: Arantzazu osoaren programa hitz horietantxe dago. Hitz horietantxe, ikusten ere dut nik, Euskal Fedearen Arantzazurekiko eta Jainkoarekiko eginkizuna eta kondaira. Euskal Eliza osatu!

### **Kanta zaharraren ilunabarra: zergatik?**

Penagarria da, noski, gure kondairaren arima eta gogoia den kanta zahar bedeinkatua bakantzen, isiltzen, ahitzen.... ikustea, noiz eta gaur, folkloreak balioa xurgatzen ari gareneko gizaldian. Penagarria, bai, Zabaletako amonaxoaren aitona: “Ama zanak, bai, bazekizkin; baina nik ez”...

Zer gerta da? Hauxe, Gipuzkoan batez ere: “Bertso berriak” jaio orduko, herri sukalde-zoko guziak bete ditu; eta kanta zaharrak aurretik uxatu, baztertu aiton-amona bakar batzuen ezpain dardaratsuetara... Zarautzen nire baserrian jaiera beroa zen Arantzazurako: jaiera guzia bertso berritan, ia otoitzetan adinaxe, airatzen zen. Han ikasita dakizkit nik lehen aipatutako lau lehenengoak. Umeok ez genuen ezagutu kanta zaharraren aztarrenik ere...

Datozela, bai, bertso berririk oro, ederrak badira! Baina hau pena neri ematen didana kanta zaharraren ilunabarrak!

Kanta dezala, o!, kanta euskaldunak euskaldun den arte. Euskarak, azkeneko euskaldunak, lurra utzita Jainko aurrean agertzerakoan, kanta

---

<sup>46</sup> [ABB edizioaren oharra: “Hau 1944an idatzita dagoenez, Mitxelenak, urte haretako irailean, komentuko sukaldea eta ingurukoak erre zireneko gogoratzen du. A.O.”].

zahar bedeinkatu hauxe amesten dut behar lukeela bihotzean mami, ezpainean lore...

### Eredu ideala

Honelaxe, motx-motx, honetara derizkiot nik eder-politena, gihaarrena, esanguratsuena.<sup>[65]</sup>

Errodrigotxo joan zenean  
ardiengana mendira,  
hantxe zegoen Birjina Arantzan  
artzaintxoari begira.

Errodrigotxo Baltategiko:  
ermitatxo bat eidazu,  
ermitatxo bat eidazu eta  
nerea izango zara zu.

Nere euskal seme on denek  
hemen izango dute ostatu,  
izango dute ostatu eta  
euskal Meza non opaldu...

La Aguilera 20. Nov. 44.

<sup>[65]</sup> Mitxelenak berak dioenez, *Arantzazu* “Poema osoaren muña ta nondik-norakoa adirazten zaizu... [erromantze honetan]” (AEP-2, 35. or.).

Erromantze labur, polit eta gihartsu hau, ordea, Mitxelenak berak moldatua da, aipaturiko aldaera guztien laburpen gisa; horrela beste inon ez da ageri iturrietan. Gainera, Mitxelenaren erromantze “txukundu” eta moldatu honetan dute nonbait jatorria bi ideia hauek: “nerea izango zera zu”, “euskal meza non opaldu”.

“Euskal mezarena” harrigarria gertatzen zaigu; ez da erromantzeen aldaeratan inon ageri. Bai, ordea, “kaliza goratu”

(8 aldaeretan edo). Izatez, Kanta Zahararren forma labur honen ondoren datorren forma “osotuan” parentesi artean utzi zuen euskal mezarena, eta “urrekaliza goratu” hobetsi bide zuen.

Dena dela, azken ahapaldi hori sartua zuen lehendik bere *Arantzazu*. *Euskal Poema*-n eta oin-oharrean aitor-tua zuen egindako aldaketa, zilegitzat emanez (ik. AEP-2, 37-38 or.).

*Poema*-ko erdiko ahapaldi hau, berriz, ez da “eredu ideal” honetan ageri:

Iru latatxo, zazpi tellatxo  
asteko asko dituzu.  
Elizaunditzen danean biar  
geiagorik bearko du.

AMA BIRJINA AGERTU ZENEKOA

*Denguzia (osorik)*<sup>[66]</sup>

Errodrigotxo joan zenean Ardiengana mendira Hantxe zegoen Birjina arantzan Artzaintxoari begira.	[Errodrigotxo joan zenean Ardiengana mendira Hantxe zegoen Birjina arantzan Artzaintxoari begira.]
Errodrigotxo Baltzategiko: Antxo-txapel deitzen dana, Aloña-mendi tontorrean zen goiz-goizetikan joana.	Errodrigotxo Baltzategiko: <del>Antxo-txapel deitzen dana,</del> Aloña-mendi tontorrean zen goiz-goizetikan joana.
Errodrigotxo urreratzean arranaren elorrira, Hantxe zegoen Birjina arantzan artzaintxoari begira:	Errodrigotxo urreratzean arranaren elorrira, <del>Hantxe zegoen Birjina arantzan</del> artzaintxoari begira:
– Errodrigotxo Baltzategiko: nere esana egizu, nere esana egizu eta nerea izango zara zu.	– Errodrigotxo Baltzategiko: nere esana egizu, nere esana egizu eta nerea izango zara zu.

[66] “Politena, giarrena, esanguratsuen” iruditu arren kapituluaren lehen erre-dakzioaren buruan emandako –mol-daturiko– forma “motx-motxa”, gerora ez zen nonbait lasai geratu Salvatore Mitxelena, Andre Maria agertu zeneko erromantzea –Errodrigotxo Baltzategi-ko” – laburregia eta soilduegia gelditzen zelako agian. Eta gerora honako beste forma luzeago hau idatzi zuen, ez zalantzarik gabe, ordea, parentesi arteko aldaeretan ikus daitekeenez, eta baita ahapaldien ordenari zegokionean ere.

Forma laburtuko lehen ahapaldia idatzi zuen Mitxelenak hasieran forma luzearen lehen ahapaldizat ere. Baina gero hori ezabatu eta “Antxo-Txapel”-en ahapaldia sartu zuen buruan, eta ho-

rren arabera, forma laburreko bigarren ahapaldia ere zerbait moldatu egin zuen luzean. Gorago esan dudanez, geroago konturatu zen Mitxelena, “Antxo-Txapel”-en ahapaldi hori nonbaitekoa zela, eta ez inolako erromantzeren atala. Baina horretan geratu zen eskuizkribua... Hori dena kontuan izanik, neure aldetik, ausartu egin naiz, “Antxo-Txapel”-en ahapaldia baztertu eta forma laburreko lehen bi ahapaldiak luzearen buruan ere jartzera, autorearen “borondateari” erantzuten diolakoan. Ondorengo guztia eskuizkribuan dagoen bezala errespetatuz, jakina.

Erromantze txukundua osatzeko atalak bildu ondoren, horko ahapaldiak hobeto ordenatu nahian edo, zenbaki-

1/ Aita zurea harotza da-ta  
etortzeko esaiozu.  
Egin deidala ermitatxo bat  
deritzona Arantzazu.

6/ Nere kontura utzi ardiak  
abisu eman artean.  
Nik zainduko 'itut zure ardiak  
elorri honen aldean,  
elorri honen aldean eta  
belar onezko (garbizko) larrean.

2/ Hiru latatxo zazpi teilatxo:  
hasteko nahikoa ditu.  
3/ Nere euskal seme on askok hemen  
izango dute ostatu  
4/ San Frantziskoren semeek ere  
urre-kaliza goratu.  
7/ Errodrigotxo laster joan zen  
Oñatiako kalera,  
agintariei, bertako denei  
berri ona ematera.

1/ Aita zurea harotza da-ta  
etortzeko esaiozu.  
Egin deidala ermitatxo bat  
deritzona Arantzazu.

2/ Hiru latatxo zazpi teilatxo:  
Hasteko nahikoa ditu  
3/ Nere euskal seme on askok hemen  
izango dute ostatu  
4/ San Frantziskoren semeek ere  
urre-kaliza goratu.

5/ Denborarekin han izango da  
ermita kurioa,  
ermita kurioa eta  
komentu poderoso.  
6/ Nere kontura utzi ardiak  
abisu eman artean.  
Nik zainduko 'itut zure ardiak  
elorri onen aldean,  
elorri onen aldean eta  
belar onezko (garbizko) larrean.

tu egin zituen horietako gehienak, baina hasierakoak ez. Horrela, bada, bi zutabetan eman dut erromantze txukundua: A) Eskuizkribuan dagoen bezala, lehen ahapaldia ezabatuta, bertan hala dagoenez; B) Lehen ahapaldi hura berreskuratu egin dut, eta bigarrena ezabatu, Mitxelenaren ustez lekuz kanpo legokeelako, erromantzekoa ez izatean; eta hirugarren ahapaldia ere ezabatu egin dut, lehenengoaren errepikapena delako, bigarren ezabatuaren jarraipen moduan eratua. Bestalde, ondorengo ahapaldi guztiak ordenatu egin ditut, Mitxelenak berak iradokitakoaren arabera.

Ikusten denez, 2-3-4 ahapaldiak osatu gabe daude. Bestalde, nabari da "Oñatiarrak, Oñatikoak" erromantzea ez duela

txukundu honetan integratu, nahiz eta gorago aitortua duen, biak batera ikusi nahiko lituzkeela: "Errodrigotxo Baltzategiko" eta "Oñatiarrak, Oñatikoak".

Garbi dago, bestalde, Mitxelenak bere elementuren batzuk sartu dituela, AK-DB-ko aldaeratan ageri ez direnak, erromantze txukundua hariltze aldera: 9. ahapaldiaren kontzeptuak – "ene herri", "euskal herria", "nerea izango zera zu" – oso Mitxelenarenak dira, jatorrizko erromantzeen aldaeratan ageri ez direnak. Irakurlea konturatuko denez, errepikapenik ere badago: "urre-kaliza goratu" (4 eta 10), etab.

Autorea ez zen seguruenik asebetarik geratu lorturikoarekin; baina hor dago ahaleginaren testigu.



8/ Oñatiarrak laster joan ziren  
prozezioan mendira:  
Hantxe zegoen Birjina Arantzan  
bere herriari begira:

9/ ene herri maite, ene euskal herri:  
ermitatxo bat eidazu,  
ermitatxo bat eidazu eta  
nerea izango zara zu.

5/ Denborarekin han izango da  
ermita kurioa,  
ermita kurioa eta  
komentu poderosa.

10/ Arantzazuko eliza honetan  
izan dezazun (izango dezu) ostatu,  
izan dezazun (izango dezu) ostatu gozo (eta)  
urre-kaliza goratu...  
(euskal Meza non opaldu...)

7/ Errodrigotxo laster joan zan  
Oñatiko kalera,  
agintariei, bertako denei  
berri ona ematera.

8/ Oñatiarrak laster joan ziren  
prozezioan mendira:<sup>[67]</sup>  
Hantxe zegoen Birjina Arantzan  
bere herriari begira:

9/ ene herri maite, ene euskal herri:  
ermitatxo bat eidazu,  
ermitatxo bat eidazu eta  
nerea izango zara zu.

10/ Arantzazuko eliza honetan  
izan dezazun (izango dezu) ostatu,  
izan dezazun (izango dezu) ostatu gozo (eta)  
urre-kaliza goratu...  
(euskal Meza non opaldu...)

---

<sup>[67]</sup> *Arantzazu. Euskal Poema*-n kantatzen duenez (AEP-2, 52. or.), Ergiñako Andre Mariarengana prozesioz zihoan Oñatiko herria, euri eske, Errodrigok Arantzazukoaren “agerpenaren” berri eramanean. –Lehorte eta eurien tradizioa ez da ageri Arantzazuko Erromantzeetan, bai, ordea, ugari, geroke bertsoetan–. Honetara dio han Errodrigotxok:

“Baña, oñatiarrak,  
zertan zabiltzate  
Ergiñara-bidean  
Euriaren eske?  
Andre-Mari berri bat  
ikustera atozte!  
Letariz ibiltzea  
Alperrik dezute,  
Ari dagon lekuan  
Aterpe eman arte.

DOINUAK:<sup>[68]</sup>

[Romances euskéricos de Aránzazu] pg. 35 [Arantzazuko artxiboan]

– Periak [?...] (lehen kantatzen zenez, eta orain).

– (mondraigotarrena, [pg. 68.]

Azkue, [*Cancionero Popular Vasco.*]

– (Tomo X. 35ean bi)

– Tomo VIII – nº 39. Pg. 762

– Tomo VIII – nº 25. Pg. 747

[68] Autoreak proposaturiko doinuen oharra osatu egin zuten ABB-ren editoreek: Kortxeteen artean eta azpimarratuta dauden testuak. Autorearen bigarren lerroa, ordea, interpretatzen zaila, baztertu egin zuten. Bi iturritan banatu zituzten, beraz, proposaturiko doinuak: a) Arantzazuko REA/JK-koak (lehenengo biak); b) R. M. Azkueren CPV-koak (beste hiru).

Neure aldetik, autorearen eta ABB-ren editoreen informazioa osatze aldera, eta interpretatzen zaila den bigarren lerroa bere horretan utziz, hona hemen hor aipatutako doinuak:

1. REA/JK, 35. or.: “Errodrigotxo Baltzategiko / nere esan bat eidazu /...”

2. *Mondraigotarrena* [sic]... ABB-ren editoreek REA/JK-ko 68. orrialdeko “Nere Ama Birjina” kantaren doinua adierazi zuten nonbait: seguruenik horren azkenean, “Mondraigotarrak” izeneko beste doinu bat iradoki zuelako Mitxelena, hain zuzen. Zera gertatzen da,

ordea, “Nere Ama Birjina” kanta horren bertsoaren neurriak eta hemengo “Errodrigotxo Baltzategiko” kantarenak ez direla berdinak, eta ezin zaiola egokitu honi besteren doinua.

3. *Azkue. Tomo X, 35-ean bi...* Badi-rudi CPV, X. liburukiko 35. orrialdea adierazi nahi duela –horko 2. doinua, Arbizuko Maria Aldasorok abesturikoa–, eta ez tomo horretako 35. kanta, horren bertsoak neurri ezberdinekoak baitira. “Arantzazura egin dut promes” hasten da kanta hori (CPV, X, 15/820-bis, 947-949 or.).

4. *Tomo VIII - n. 39. pg. 762.* Hau da: CPV, VIII, 39/634, 762 or.: “Ia dirade hirurogei urte” hasten da kanta hori; Lekeitioko Krisostoma Bengoetxeari entzundakoa da.

5. *Tomo VIII - n. 25. pg. 747.* Hau da: CPV, VIII, 25/620, 747 or.: “Birjina Amaren bezpera da ta” hasten den kanta. K. Bengoetxea beraren ahotatik jaso zuen Azkuek.

1.- Andre Maria agertu zenekoa: "Errodrigotxo Baltzategiko"

X

b-ro-dri-go-txo Balzate-gi-ko ne-re e-zanbat  
 ei-za-zu Ai-tazu-re-a A-rotza da ta  
 b-totze-ko e-za-yo-zu br-mita-txo bat.  
 e-ginde za dan de-ritxo-na A-rantzu J-ula  
 ta txo, sar-pite-hatxo bi-txeki as-ko-ko di-tu,  
 bi-txeki as-ko-ko di-tu A-ma-o-naren  
 semeak asko An-izan-go du esta-tu  
 An-izan-go du estatu eta Bai zari Ka-li  
 za altxatu Bai zari Ka-li-za altxa-tu.

"Errodrigotxo Baltzategiko / nere esan bat eidazu..."

(REA/JK, 35. or.)

*Stesso tempo*

A - ran - tza - zu - ra e - gin dut pro - mes e - do  
 gau e - do e - gun - ez, e - do gau e - do e - gun - ez  
 e - ta oin - uts - e - an ta do - lor - ez. I - zar  
 e - der bata - te - ra - tzenda ur - te - an egun bat - e - an, ur - te -  
 an egun bat - e - an e - ta hu - ra San Ju - angoiz - e - an.

“Arantzazura egin dut promes”  
 (CPV, X, 15/820bis, 947-949 or.)

corazon.

634.-IA DIRADE IRUROGEI URTE

*Andante mosso*


39.

I - a di - ra - de i - ru - ro - gei ur -  
 te ni ar - tzainsar - tu nin - tza - la  
 e - gu - no be - re ez - tot nik i - zan  
 otz - az on - en - bat min ta a - la.

“Ia dirade irurogei urte”  
 (CPV, VIII, 39/634, 762. or.)

## 620.-BIRJINA AMAREN BEZPERA

*Andante mosso*

25. 

Bir - ji - na A - ma - ren bez - pe -  
Bu - ru - bi - deon bat e - man

ra da ta go - az - en A - ran tza - zu - ra, San - ta  
zi - da - ten a - ma se - me - on ar - te - an on - a

Lu - zi - ren be - gi e - der - ak ar - gi e - gi - ten di - gu -  
ta a - pal - a iz - an nen - di - la mun - du - an nin - tzan ar - te -

la. A - ran - tza - zu - ra bi - de - a lu - ze, a - ra  
an. Ai ar - tzain - txo - a, ai ar - tzain - txo - a, ne - re

or - du - ko ne - ka - tu; Bir - ji - na A - ma ta be - re  
e - san bat e - gi - zu: Ait' o - ri e - re zur - gin -

se - me - a bi - de - an di - tut o - pa - tu.  
a da ta on - e - ra bi - dal e - za - zu.

*"Birjina Amaren bezpera da ta"*

(CPV, VIII, 25/620, 747. or.)

## II

### “ABUZTUAREN HAMABOSGARREN”...<sup>[69]</sup>

#### SERORA BAT, ERROMES

[Abuztuaren hamabosgarren  
Andre Maria goizean  
Birjina Amaren debotatxo bat  
Arantzazura zihoan...]<sup>[70]</sup>

<sup>[69]</sup> Autoreak “Agorrillaren amabosgarren” titulua eman zion kapitulu honi, baina aldaera guztietan “Agustuaren (agustubaren, agostuaren) amabos(t)garren” hasten da kanta. ABB-ren editoreak jatorrizko titulura itzuli ziren: “Agustubaren amabosgarren”. Ontzat ematekoa da.

<sup>[70]</sup> Autoreak tituluaren azpian, parentesi artean, honako ohar hau idatzi zuen: “Hemen Kanta-zarra txukunduta, nere orrietan dagoenez”... Ohar hori ez da bigarren kapitulu hau idatzi ondorengo, hasierakoa baino. Aurrenik, ordea, “nere orrietan daudenez” idatzi zuen, eta gero gainean aldatu zuen, eta “dagoenez” idatzi. Garbi dago kapituluaren buruan ipintzeko zela kanta zahar “txukundua”, hori idazten hasi zenean behintzat. –Hori hor ez aurkitzean edo, ABB-ren editoreek oharra ere baztertu egin zuten–.

Zer dira “nere orri” horiek? Prologoan argitua dagoenez, Arantzazuko artxiboko REA/JK-ren kopien artean, bada bat daktilografiatua, S. Mitxelenak egin, MSJ deitua dudana (ik. ADK sail honetako I. liburukiaren bigarren atala) –I. Omaetxebarriak jatorrizko Koadernoan bere “zuzenketak” egin aurretikoa da kopia–. Uste izatekoa da paper horiei buruz ari dela parentesi arteko ohar honetan. Kopia hartan, ordea, bost dira “Abuztuaren (Agustubaren, Agustuaren, Agostuaren) hamabosgarren” hasten diren aldaerak. Horietakoren bat ote zen, txukundua edo txukuntzekoa?

Gertatzen da, kapitulu honetan bertan geroago “Herriak nola kantatu izan duen” epigrafean berak “txukundutako” aldaera ematen digula, bere MSJ-ko bi aldaera erabiliz, geroago ikusiko dugunez. Horixe dela uste dut Mitxelenak

*Nor dugu*, zeinetakoa dugu “debotatxo bat” hau? Janzkeraz ez da “jende arrunta”; oin-ortozik,<sup>[71]</sup> abitu beltza soinean, San Frantziskoren kordoetxo gerrian (hiru?) bi tolesean...<sup>[72]</sup> Jakitez are gutxiago: San Agustinen liburutxo bat eskutxo biren erdian.

Jakingarria benetan; zein ote San Agustinen *Aitortzak* liburutxo harekin gogarketan dakien emakume hau? Zein daitekeen Hirugarren goen jantziz, moro herritik datorkigun bidazti apartekoa? Goazen liburu zaharretara galdezka, ia argibiderik ematen diguten. A. Luzuriagak badio: Oñati herria urtero, Arantzazurako erromeria zuenean, ermita denetako gurutzeekin igotzen omen zen; gurutzeak, ermita bakoitzeko *serorek*, *hirugarren frantziskotarrez jantzita*, ekartzen omen zituzten.<sup>47</sup>

<sup>47</sup> Begira *Paraninfo celeste*. Libro 2, cap. X.

[Bibli. erref. osatuz: Juan de Luzuriga, *Paraninfo Celeste. Historia de la Mystica zarza, Milagrosa Imagen y prodigioso Santuario de Aránzazu de N. Seraphico Padre San Francisco en la provincia de Guipúzcoa de la región de Cantabria*. Lehen aldikoz Mexikon argitaratu zuten liburu hau 1686an. 1690. urtean Donostian argitaratu zuen Pedro de Huarte inprimatzaileak; urte berean Madrilen argitaratu zuen Juan García. Jakin ez, zehazki zein ediziori buruz ari den Mitxelena].

“txukundutako” Serora erromesaren erromantzea, kapitulu honen buruan joatekoa zena, baina gero beherago idatzi zuena. Izan ere, horrexen gain dakartza ondoren, ahapaldiz ahapaldi kanta beraren bestelako aldaeren erreferentziak – III. kapitulu egin zuen antzera–. Dena dela, hori bera ez baldin bazen erromantze “txukundua”, horren oso hurbilekoa behar zuela uste dut.

Oharrak hasierara ekartzeko-edo eskatzen duena –“Kanta zahar txukundua”– ez dut osorik ekarri, baina ondorengo testua hobeto ulertzeko haren lehen ahapaldia jarri dut kortxeteen artean.

<sup>[71]</sup> Bere testu “txukunduan” “oinetan ere zapata gabe” idatzi zuen, zenbait aldaeratan datorren bezala; beste batzuetan,

ordea, “oinak ortozik zapata gabe”, “oinetan bere ordozik eta” dago.

<sup>[72]</sup> Mitxelenak berak bere paperetan zituena aldaera guztietan eta Arantzazuko Bildumako bestelako aldaeretan ere beti “iru doblían (doblean)” dago idatzita; eta horrela aukeratu zuen Mitxelenak berak ondorengo testu “txukunduan”. Jakin ez, zergatik hobetsi zuen hemen “bi tolesean”. Agian “hiru doblían” delakoak zer adierazi nahi duen hemen, ez dago argi. Gerrian emandako bueltak adierazi nahi ote du? Baina hiru buelta ematen ote zioten orduan? Ala bi, gerora bezala? Baina ez ote du, frantziskotarren kordioaren hiru korapiloak adierazi nahi, horiek gertatzen baitziren deigarriak jendearentzat?

Hortaz, seroren bat? Baina, honako hau ez doa Oñatitik, baizik urrutiko Santiagotik dator; ez gurutzez, bi eskutan liburua duela baino...<sup>[73]</sup>

Jo dezagun orain seroren ohitura zaharretara, ia haien usuario-arauetan<sup>[74]</sup> aztarrenik ba ote...

## Serorak

Aspaldi batean serorak gaur mojak bezala ziren: Euskal kristautasunaren zitu eta ohore! XVIgarren gizaldira arte ez baitzen mojarik gure lurraldean. Gaurko lekaimen izenak berak zituzten haiek ere herriaren ahoan: sorore, serora, freila, beata (debota?)... Grezi eta erromatarren diakonisak bezala, elizarako bizi ziren; elizen zaigoan eta garbi lanetan ematen zituzten egunak eta urteak...(!) Gure Erdi Aroko ermitatxoek zaindari eta kontu-hartzaile berak izaten ziren ia beti, hantxe ermitatxoetan beren bizitza agortuz<sup>48</sup>, bakarrik, lagunik ez bazen; baina ahal zela, mundua utzita lau-bost elkartzuz, lagunarte ederrean, otoitz eta lan... Jaungoikoarentzat.

Ermitatxoa eta serora: horra gai polita, gure Erdi Aroz idatzi edo margoztu edo musikatu nahi duenarentzat.<sup>49</sup>

Hamaika emakume leinargitsu eta andre goitu bizi izanak dira holaxe seroretzan. Goitarra behar zen jatorriz edo bizikeraz, serore izateko. Ez zen edozeinentzat, gizarte-maila hura. Horregatik, serore izan nahi zuenak gauza zela ageri behar zuen aurrena, haien bizitza latza

---

<sup>48</sup> [A.t.a.: *agortuz – ahituz, opalduz*].

<sup>49</sup> Arantzazu bera ere, komentu egin baino lehen, seroretegi bat izan zen, Juana de Arriaran goi-andere ospetsua buru zuela; igarmena bazuela eta (profezi dohaina, alegia), Isabel eta Fernando-k berengana deituta erregeen jauregian bizi izana; Arantzazu fraide-etxe egindakoan lehenengo zaindari izan zen Pedro de Arriaran-en ama... Gero, seroretegiok mojategi egin ziren, ahal zutenak, Gotzainen agindura; Arantzazukoa Oñatira jaitsi zen: Santa Anako komentua duzu!

---

<sup>[73]</sup> Bestelako interpretazioa dute Antonio Zabalak eta Joxe Azurmendik. Zabalarentzat moroetatik libratuta dator zuzenean erromes, Arantzazun eskerrak ematera; Azurmendirentzat, ez moroen herrialdetatik eta ez Santiagotik, Aran-

tzadura bidetik hurbil dagoen Araozko Sandaili ermitako Santiagori moroen gatibu zeudenen alde otoitz egitetik baino.

<sup>[74]</sup> ‘usuario-arauetan’ irakurtzekoa da eskuizkribuan; ez ‘usuario-arauek’, ABB edizioak irakurri zuena.



eramateko. Eta hala, agiria hauxe izaten zen: urruti bateko halako Eliza Nagusiren batera erromes joan, han serorez jantzi, eta sorterrira bihurtzean... eginda zegoen!<sup>50</sup>

Beraz, seroreen [*sic*, seroreren] bat dugu, inolaz ere, gure “debotatxoa”, Konpostelara erromerian joan, han frantziskotarrez jantzi eta orain Arantzazura bidean... Ez dator Galiziatik hona berriz hara itzultzeko; euskalduna da, odol garbikoa. Berak esaten digu poliki: “Moro-herritik banator ere – ni ez naiz moro-umia...”.

### Herriak nola kantatu izan duen

Lau herritatik jasota lau aldiz dator kanta zahar hau gure artxibo-bilduman: pgs. 21, 22, 24, 25. 23ko orrialdean luzeena honela:<sup>[75]</sup>

<sup>50</sup> Begira ohitura hau: “Crónica del Primer Congreso de Estudios vascos”, Lizarralderen hitzaldia, pg. 597.

Gure ermitatxoan eta seroreen poesia eta edestia jakiteko ez duzu honen liburu hau bezalakorik: *Historia del Convento de la Purísima Concepción de Azeitia* [Santiago, 1921].

[Neure aldetik zehaztu dut Lizarralderen lehen aipuaren orrialdea, autoreak hutsunea utzi zuenez. Honetara dator J. A. Lizarralderen testua: “... primero emprendía una peregrinación al sepulcro de Santiago Apóstol o a otro célebre santuario del país, y luego, al regreso de la peregrinación, vistiendo el hábito y ciñéndose con el distintivo de la Orden que abrazaba, se hacía beata” (“Orígenes de la Vida Claustal del País Vasco”, in: Zenbait, *Primer Congreso de Estudios Vascos*, Bilbao, 1919, 597. or.).]

<sup>[75]</sup> Lau ez, bost aldaera behintzat ezagutu zituen Mitxelenak REA/JK-n, berak bere MSJ sortan kopiatu zituenak. Bestalde, REA/JK-ko orrialdeak ez daude ondo emanda. Lau aldaeretako bi 20. orrialdean daude, CPV-tik jasota, doinua eta lehen ahapaldia bakarrik; baina Mitxelenak horien testu osoak kopiatu zituen (doinurik gabe) bere sortan (13. or.), seguruenik zuzenean CPV-tik hartuta; horien lekukoaren izenak eta herriak badakizkigu. Beste bi REA/JK-ko 21-22 orrialdeetan daude, zutabe banatan; bertatik kopiatu zituen seguruenik Mi-

txelenak (1. or.); horiek ez daude CPV-n; Lizarraldek bilduak izan daitezke; ez dugu informatzaile edo lekukoaren berririk. REA/JK-ko 23-24 or. an dago 5. aldaera (Mitxelenaren MSJ sortan 2. or.); horren lekukoa edo informatzailea badirudi Oñatiko Kaietana dela.

Badirudi 21-22 orrialdeetako ezkerreko zutabekoa aukeratu zuela hemen oinarritzat, baina ortografiatzeko aldatzekin, hitzen batzuk ere aldatuz, eta bertsoen banaketa ere bai zerbait, eta gainera 21-22 orrialdeetako eskumako zutabeko azken bi bertsoak erantsiz.

1  
Abuztuaren hamabosgarren  
Andra Maria goizian (1)  
Birjina Amaren debotatxo bat  
Arantzazura zihoan.

2  
Oinetan ere zapata gabe,  
abitu beltza soinian  
San Frantziskoren kordoetxo bat  
gerrian hiru doblan.  
San Agustinen liburutxo bat (2)  
eskutxo biren erdian,<sup>[76]</sup>

3  
Pausua baratz botatzen eban  
Urtiagako gainian;  
hala ta bere baratzagua  
San Eliasen parian.

4  
Aingerutxo bat irten zitzaion (3)  
San Eliasen parian:  
Salbetarako helduko zela  
Kurtzepizio-gainian,  
Kurtzepizio gainean eta  
Birjina Amaren etxian.

5  
Erregu eder egin ziozkan  
Birjina Amari aurrian,  
Birjina Amari aurean eta  
Santiagori oinian.

6  
Moro herriko katibu denak  
libra zitzala airian. (4)  
Moro herritik banator ere  
neu ez naiz moro-umia.

---

<sup>[76]</sup> AEP-2 liburuan (1984ko ed., 121-122. or.) erromes doazen emakume tal-

deari egokitzen dio ahapaldi hau, berez serora erromesari buruzkoa dena.

.....

.....

7

Behin bide baten bilatu neban  
 Aingerutxo bat bidian,  
 berriz ta ere bilatuko dot  
 bide hartatik banoa.<sup>[77]</sup>

<sup>[77]</sup> Honetara da jatorriz REA/JK-ko aldaeretatik oinarritzat-edo aukeratu bide zuena (21-22 or. ezkerreko zutabea):

1

Agustubaren Amabostgarren  
 Jesus Mariya goizian (1)  
 Birgiña Amaren debotatxo bat  
 Aranzazura zijoian.

2

Oñetan ere zapata gabe  
 habitu beltza soñian  
 San Franziscoren corduetxo bat  
 gerrissan iru doblían.

3

San Agustiñen liburutxo bat (2)  
 eskutxo bissen erdissan,  
 pausua baratz botatzen zeban  
 Urtiagako gañian.

4

Ala bere ta baratzagua  
 San Eliasen parian.  
 Aingeru batek irten zioskan (3)  
 San Eliasen parian.

5

Salvetarako elduko zala  
 Kurtzepizio gañian  
 Kurtzepizio gaiñian eta  
 Virgiña Amaren etxian.

6

Erregu eder egin ziozkan  
 Virgiña Amari aurrian  
 Virgiña Amari aurrian eta  
 Santiagori oñian.

7

Moro eriko katibu danak  
 libra zezala aidian. (4)  
 Moro erritik banator ere  
 neu ez naiz moro umia.

Erromantze “txukundua” eta oinarrian dagoen hau alderatuz, hona hemen egindako aldaketak: (1) ‘Andra Maria’ idatzi du, ‘Jesus Maria’ ordeztu... Horrela dago CPV-ko bi aldaeretan (Gabikako Dominga Aboitz eta Ibarruriko Eusebia Altamirarenak). (2) Eskuizkribuan ahapaldien banaketa-zenbakiak idaztean zalanztatan ibili zen nonbait, baina badirudi azkenean 2. eta 4. ahapaldiak sei lerrotan eratu zituela, horretarako hemengo 3. ahapaldiko lehen bi lerroak 2.ari erantsiz, eta laugarren ahapaldiko azken bi lerroak hurrengo ahapaldiaren buruan jarritz; horrela ahapaldi bakoitzaren batasun tematikoa lortu nahi izan zuen nonbait. (3) ‘Aingerutxo bat irten zitzaion’ idatzi zuen lerro hau (Omaetxebarriak REA/JK-n egindako “zuzenketa”); (4) Jatorrizkoan ‘zesala’ dago idatzita, eta ez ‘zitzala’, hemen bezala.

Sei ahapalditara ekarri zuen, beraz, aldaera. Baina REA/JK-n, horren ondoan (eskumako zutabea) dagoen aldaeraren azken bi ahapaldiekin osatu nahi izan zuen; hemengo azken aurreko ahapal-

## Liparñoak eta ohargarriak

Azkuek ere beste lau tokitan badakartza “honako honen zenbait liparño: Tomo IX, pg. 854; Tomo X, pgs 924, 925 y 326. Elkarren artean era hauek duten alderik handiena: bi luzeak, ia osoak izatea; eta gaintzekoak bi-hiru ahapaldi besterik ez...”<sup>[78]</sup>

Halere, hona hemen zenbaitxo berezitasun konturagarri:<sup>[79]</sup>

1. *ahapaldian*: Birjina Amaren debotatxo bat = San Frantziskoren debotatxo bat. Arantzazura zijoian = zijoian erromerian.<sup>[80]</sup>
2. *ahapaldian*: oinetan ere zapata gabe = oinak ortozik zapata bage; oinetan bere ordozik eta...; oinortozikan zapata gabe...<sup>[81]</sup>

dia, ordea, osatu gabe dago –Mitxelena berak, aurreko ahapaldiari erantsi zion aipaturiko bere MSJ kopia daktilografiatuan–. Azkenaurreko ahapaldiaren lehen lerroa kopiatu zuen eskuizkribuan; kopiatu bai, baina ezabatu egin zuen, eta horren ordez puntuzko bi lerro markatu zituen, hutsunea adierazi nahian edo. Eta hango azken ahapaldia erantsi zuen (hemengo zazpigarrena)... Baina horrela bi aldiz egiten du topo erromesak aingearuekin bidean...

<sup>[78]</sup> CPV-ko orrialdeak dira hor aipatzen dituenak –“tomok” lehen edizioko faszikulua dira–. a) IX, 854. or: “Bide batean topatu nuen” dago idatzita (Segurako Juliana Izagirrerengandik jaso), eta hiru ahapaldiko testua da. Ez du Arantzazurik aipatzen eta ez du zerikusirik handirik ondorengo hirurekin. b) Beste hirurak –X, 924, 325 eta 926. orrialdeetakoak– Mitxelena aukeratuaren hurbilekoak dira: Arantzazuri buruzkoak hirurak zalantzarik gabe. 924. eta 926. ekoak 4 ahapaldikoak dira, eta 925.ekoa, 3 ahapaldikoa.

<sup>[79]</sup> *Konturagarri*... Horrela zegoen idatzita; gero hitzaren lehen parte ezabatu egin zuen: konturagarri; ABB-k erabat kendu zuen hitza; osorik aukeratu dut edizio honetan.

<sup>[80]</sup> Arantzazuko erromantzeen aldaeretan ez dut inon aurkitu ‘San Frantziskoren debotatxo bat’... San Frantziskoren kordoia bai, baina debota, Andre Mariarena.

Bestalde, “Arantzazura zijoian (zijoan)” lerroaren ordez, “zijoian erromerian” edo “erromerian zijoian” CPV-ko bi aldaeretan behintzat ageri da.

<sup>[81]</sup> CPV-ko hiru aldaeretan eta REA/JK-ko 23. orrialdekoan, honako formak ikus daitezke: “oinak ortozik zapata bage” (CPV, X, 1/806, 924. or.), “oinetan bere ordozik eta” (CPV, X, 1/806, 925. or.), “oin ortozean zapata gabe” (CPV, X, 2/807, 925. or.), “oinetan bere ordozik eta” (REA/JK, 23. or.); bestelako formak ere badira: “Oinak ortozik zapata barik”, “Oñean zapatarik gabe”, “Oñetan ere zapata gabe”. Sal-

3. *ahapaldian*: Urtiagako gaina, Urrexola aldeari esaten zaio. Handik goraxeago dago San Eliasko ermita (Sandeli), Araozko harkaitz barrenean.<sup>[82]</sup>
4. *ahapaldian*: Bidaurretako Kaietanak (Oñati) hauxe tartean sartzen du gainez:<sup>[83]</sup>

Preguntatxo bat egin bear deusut  
 aingerutxoaren legian:  
 Salbetarako elduko ete naiz  
 Birjiña Amaren etxian.  
 Bai eta bere elduko zera  
 Krusifiku (*sic*) -gañean.

“Gurtzepizio-gaina”, Arantzazu begiz jotzen deneko tokian dagoen “*Humilladero*”ri, apalategiari (?) esaten zaio. Ermita bat duzu guzia; eta ermitan, “Aita Gurutzekoa”, Santo Kristo, neke-erromesaren lagun eta kideko... Gutxi al da, debotatxoak haretxen gogo-mina ez izateko bidaroz?

4. *ahapaldian*: aingerutxo bat irten zitzaien...: “Izar ederra” dio bategen.<sup>[84]</sup> “Pastoretxo bat topau neban – arbola baten gañean”: kantatzen du, aldiz, Eujenia Langarak Villaron: Ez al dago poliki?<sup>[85]</sup>

batorek dakarren “oinortozikan zapata gabe” ez dut inon aurkitu.

<sup>[82]</sup> Oñatiko Uribarri auzoan gora dago Urteaga baserria; eta horren gainaldeak Urtiagain du izena. Paraje horretatik Mendebal aldera Urrexola dago aurrez aurre, behe-beheko erreka-zulotik beste aldera. Araozko ermita Sandaili (Santa Ilija) da izan. Baina San Eliasekin nahasi izan dute. Arantzazuko bidetik hurbil samar geratzen da, erreka-zulo sakona gaudititu eta beste aldeko harkaitzean.

<sup>[83]</sup> Oñatiko Bidaurretan moja klaratarren monasterioa dago; mandataria zeukatzen, ondoan bizi zena, monasterioak berak jarritako etxean. Manda-

tari horietakoa zen nonbait Kaietana.

<sup>[84]</sup> “Izar ederra urten zioten” dio hain zuzen ere REA/JK-ko 21-22 orrialdeko B) zutabeko aldaerak, jatorriz.

<sup>[85]</sup> “Egune zala, egune zala” hasten da Langararen aldaera (REA/JK, 25. or., B zutabea); honetara dio laugarren ahapaldiak:

Juan giñean Arantzazure  
 baña beti bidean,  
 pastoretxo bat topau genduen  
 arbola baten gañean.

Antzekorik aurki dezakegu, berdin hasten den Ignazio Omaetxebarriaren artxi-boko eskuizkribuetako aldaera honetan (OEA, 21. dok.):

Aingerutxo mandataria nor den Juliana Izagirrek (Segura) hurrengo nahasketa honetan esango dizu (Azkué. Tomo IX, pg. 854):<sup>[86]</sup>

Bide batean topatu nuen Aingeru guardakoa,  
nik hura zer zan e'nekian ta largatu nion zijoan.  
Nik berriz ere billatuko det bide luzean ba-noa,  
bide luzean ba-noa eta bide onetik banoa (*sic*).  
Ordu artantxe emango diot anima gorputzarena,  
bera dijoan lekura eta Birjina Amaren etxera.

Azken estrofa hau beste kanta zahar batekoa da: “Kristiñau on bat il danian...”.<sup>[87]</sup> Kanta batetik bestera jauste hori beste askoren hutsa da. Adibidez, begira Azkueri Dominga Aboitzek (Gabika. Bizk.) harildu ziona (Tomo X, pg. 924):

... San Agustinen liburutxo  
eskutxu bien artean.  
(!) Birjiñea ta Semea bere  
topau nituan bidean:  
kontseju on bat eman zidaten... eta abar.<sup>[88]</sup>

Arantzazura joan giñean  
zazpi legua bidean,  
pastoretxu bat topatu gendun  
arbola baten gainean.

“Zenbait nahasketa” dago idatzita puntu honetan Mitxelenaren ABA eskuizkribuan. ABB-k azpтитulu edo epigrafetzat ulertu zuen hori; ez dut uste horrelakotzat hartzekoa denik, 4. ahapaldiaren inguruan jarraitzen baitu oharrak egiten autoreak luze samar, eta ondoren datoz 5. ahapaldiaren oharrak.

<sup>[86]</sup> CPV, IX, 21-736, 854-855 or. Dena dela, Arantzazuko erromantzea ote da hemengo hau? I. Omaetxebarriak sistematikoki bildu zituen Azkueren kantikak, Arantzazuri buruzkoak, eta hemengo hau ez zuen aintzat hartu.

<sup>[87]</sup> Delako “Kristiñau on bat ilten danian” I. Omaetxebarriak Maria Angeles Martitegirengandik jasotakoa da. Honela dio kantaren lehen ahapaldiak:

Kristiñau on bat ilten danien  
egiten dabe bi parte,  
gorputze lurrez estaldu eta  
arimie paradisure.

<sup>[88]</sup> CPV, X, 1/806, 924. or. Zehazki honetara dago hor:

.....  
San Agustinen liburutxo  
eskutxu bien artean.  
Birjiñea ta Semea bere  
topau nituan bidean:  
kontseju on bat eman zidaten  
Ama-Semeen artean.

Ondo hau –poliki josten delarik ere– ez baita hemengoa, gero datorren beste batekoa baizik.

5. *ahapaldian*: “... eta Santiagori oinian”: agerian dago horko esanahia: Konpostelatik datorrela, bide luzea dakarrela, Santiagori eskatutakoa bera erregutzen diola Andre Mariari: herrikoak libra zitzala. Agerian dago, ordea, amets-kimu polita duen arren,<sup>[89]</sup> adabegi hori ez dela hor txertatzekoa...

7. *ahapaldian*: gorde egiten dut beste kanta txanka [txanda?] baterako. Ari dugun poema hobeto dago hau gabe, nik bukatu dudana bezala.<sup>[90]</sup>

Inon ikusi ez ditudan bi bertso-pitxi oraindik erakutsi nahi dizkizut. Erostarbetar Iñaxiri (Arantzazun) neronek jasoak. Uribarrin 50 urte aldeko amonek berdin kantatzen omen dute, txikitan maisu batek (Pedro Migel Galarragak) eskolan erakutsita. Gantzu berri-gurgarria itsasten dio azkeneko puxka honek “debotatxoa”ren erromeriari:

... Orazio eder<sup>[91]</sup> egin ziozkan Birjiña Amari oñian.  
*Atiak aide iriki ziran gabeko amabixetan.*  
 Zidar-labraduz atia eta diamantezko giltzia.  
 Urre-silloian jarririk dago Birjiña (i) Andre Maria.

Gantzu berri-gurgarria... Ez diot azkeneko bi puntuongatik. Erri-ma berrian ezagun zaie ez direla hemengoak. Egoki kokatuak daudelarik ere, zubia dago beste kanta batera. Gau-ordu horrek, gabaroz eliza-aldi izate horrek hunkitzen dit pil-pil bihotzondoa, eta harrotzen

[89] ABB-ren eskuizkribuaren irakurketa okerra dela uste dut: “polita ameskimu”.

[90] Ez dago argi zein ahapaldiri buruz idatzi duen Mitxelenak ohar hau; izan ere, “Moro herriko katibu denak...” zen hasieran 7. ahapaldia; banaketa-zenbaketa berriaren arabera, ordea, “Behin bide baten bilatu neban” da zazpigarrena. Esaten duena kontuan edukita, azken ahapaldi honi buruz ari dela dirudi: “Behin bide baten bilatu

neban”. ABB-k baztertu –edo ahaztu– egin zuen ohar hau. Gorago esan dudanez, azken ahapaldia beste aldaera batek ekarri du Mitxelenak, eta nolabait goragoko ideietako bat errepikatzen du hemen: 4. ahapaldikoa.

[91] ABB-ren editoreek ‘orazio eder *bat*’ idatzi zuten; eskuizkribuan, ordea, ez dator horrelakorik. Zergatik sartu zuten ‘bat’ hori? Gramatikagatik? Bertsoaren neurriak ‘orazio eder’ soilik eskatzen duela dirudi.

amesmena... Ez gauerdia delako; gauerdiz ez baitziren irekitzen eliz ateak. “Salbea”, hau da, *Benedicta* zen egunetan zabalik egoten baitziren arratsetik goizera eta izarretik izarrera, nahi zutenak sartu... Gure “debotatxoa”ren erromeria aparteko honek beste inorenak baino gehiago galdatzen zuen eta eskatzen “Salbeta” ondoko gau-bijilia, serora sartu berriko hartan...<sup>[92]</sup>

Gerora (ondoren) moja eta fraide sartu nahi izango zuten euskal seme asko eta askok hemen Arantzazuko gau-jardun latzetan nabariko zuten santutasun-helburua egunabartzen, eliz barne iluntsuan argitzen bezala norbere bihozpean galdatzen, indartzen. Hala, Segurako mojetan Abade Andre hiru-lautan izango zen Urkizuar Ana Batista beneragarriak; hala Irala eta Aumategi,<sup>[93]</sup> Napoles bere onbidez harrituko zuen Bergarako semeak; hala Agustin de Balentziaga, Azkoitiko jesulagun anaia ospetsuak;<sup>[94]</sup> hala batez ere Ignaziok, eta San Ignaziorekin, euskal Fede osoak... Ez al datorkio ondo baino hobeto, Arantzazun gau-bijilia, geroko moja eta fraideen atari, eta sorburu dugun euskal serorari ere? Nik behintzat ezin isildu izan dut “gaueko amabixetan” hori nolabait kanta zaharraren hobekuntzan dastatu gabe:

Gaixoen alde, errukarri guzien alde bizitza opaldu behar zuenak erregu hauxe eskatzen zion gabeko bakardadean.<sup>[95]</sup>

*Libra zitzala...*

## Ermitak

Oraindik ere baditugu han eta hemen, ermitatxo xahar-txiki-apalak, bide bazterretan. Ermitatxo xaharrak, batzuk Erdi Arokoak: Santa Marina, San Pelaio, San Martin... Beste asko are xaharragoak,

<sup>[92]</sup> Nonbaiten aurkitu dut oharren bat, Salvatorek gaizki interpretatu zuela ‘salbeta’ hori, ‘salbetara iritsi’ esaldia ‘salbeta-ra’ irakurtzean, eta ez ‘salbe-tara’.

<sup>[93]</sup> ABB-k gaizki irakurri zuen izen hau: Amuategi.

<sup>[94]</sup> ABB-k ‘ospatuak’ irakurri zuen hitza; ‘ospatsuak’ irakurtzekoa dela uste dut eskuizkribuan (=ospetsuak).

<sup>[95]</sup> Kapitulu honen eskuizkribuko 4. orrialdearen atzealdean honako testu hau idatzi zuen beste zenbait oharren azpian: “Bide-ertzetako ermitetan sarritan, elizak ondoan gaixotegirik bazuen, haien ardura ere seroren egitekoa zen: elbarriak sendatu, legenardunak garbitu eta ukendu, errukarri guziei lagundu, denei on egin...”.



kristaudiaren lehen aldikoak: San Bartolome, San Bernabe, San Sebastian...

Ermitatxoak, harbide-ertzetako ermita kutunak, antzinako euskal sinesmenaren sukalde zahar oroimingarriak! Esker onekoak zaretenez, zuek badakizue seroretsoei zor diozutela [*sic*, diezuela] gaur arte bizirik eta zutik irautea. Zuen baitan ezagun da oraindik debotatxoaren eskua. Esker onekoak zaretenez, otoizka ari zarete beti eta otoizka ariko ere Ahalguztidunari, zareten arte: erruki ditzala, berekin har ditzala, zuen arlosa pean beharbada lurpetuta dauden gorputz-hezur gurgarrien arimak... Otoi bidaztiari ere: *Aita gure* bat zeruratu dezala serotsoen [*sic*, seroratsoen] alde...

Baina, alferrik! Behar gorriak deituta hara eta hona ermita albotik gaur igarotzen den bidaztiak ez du seroretsoentzat *Aita gurerik*, ez gomutarik ere.. Bakar-bakarrik kanta zahar bat inoiz, kantuz doanean: euskal debotatxoarena, “beatatxoarena”. Eta orduan a zer poza ermitatxoak, “Abuztuaren hamabosgarren” doinu santu-arimadunak bere baitan magaltzean!

Poz hori Euskal Herriko ermita guzietan dute, bada. Euskal Herri guzian airatzen baita oraindik ere poematxo xoragarri hau. Jasotakoak begira nondik diren: Oñati, Ibarri, Segura, Gabika, Olazagutia...<sup>[96]</sup>

### “Erromantze”, zahar-ederra

“Erromantze” jatorra. Zaharrez, seroreak, ermitatxoak bezain zaharra: honelako erromantze jatorrak orduantxe bakarrik egiten ziren aldikoa. Doinuak ere, gehienak, halako antzikoak [*sic*, antzinakoak] eta ederrak ditu; eta ugariak, kontaezinak... Erabat esateko: atzerritarrik balletor erromantzerik badugun galdez, bakar baten eske, hauxe erakutsiko nioke, “Errodrigotxo Baltzategiko” bera baino lehen beharbada. Hura giharragoa da, kiriotsuagoa, harrigarriagoa. Honek ere, ordea, badu bere alderdia..., hark ez duen zerbait.

<sup>[96]</sup> Erromantze honen Olazti edo Olaztagutiako aldaeraren berririk ez dago Arantzazuko Bilduman. Ezagunak ditugu, ordea, Bedia, Zegama, eta Iu-

rretako aldaerak eta lekukoaren herri ezezaguneko beste batzuk, Mitxelenak aipaturikoez gain; denak ez dira, ordea, Arantzazuko Bildumakoak.

Nik nerez seroretxo bat jarriko nioke “debotatxo bat” horri. Baina ez da beharrezkoa; debotatxo bat eta beatatxo bat hor nonbait doaz eta.

Hona, bada: ermitatxoak ditugu antzinako sinesmenaren oroitarrri; poematxoan, berriz, hainbeste on egindako euskal seroreari gure herriak gizaldiz gizaldi izan dion gomuta bakarra.

24-XI-1944

D = 3

*Andantino*

1

Joke A-gos-tu-aren Ama-bost-garren, Je-sus  
 Ma-ri-a goi-re-an, Birgi-na Al-ma-ren de-to-  
 ta-txo-bat A-ran-tra-zu-ra zi-jo-an.

D = 4

1

A-gos-tu-a-ren A-ma-bost-garren Je-sus  
 Ma-ri-a - gai - zian Birgi-na Al-ma-ren de-to-  
 ta-txo-bat A-ran-tra-zu-ra zi-jo-an.

*Agustubaren amabostgarren*

REA/JK, 21 or.

*[Bigarren kapituluko azken aurreko orriaren atzealdean  
Mitxelenak idatzitako ohar modukoak dira hemengo hauek, testuaren  
haritik kanpo-edo daudenak]*

DETRAS DE UNA DE LAS HOJAS HAY ALGUNAS NOTAS,  
QUE PARECE QUE DESPUÉS NO USÓ EN LA REDACCIÓN:

“No es fácil reducir a suma el número de hombres y mujeres de todas las edades, que de Castilla, Navarra, Alaba, Guipuzcoa, Vizcaya y Francia, van en peregrinación y romería a el Monte Santo de Aránzazu”.  
(Paraninfo celeste. Libro 2. Cap. IX)

El P. Luzuriaga, Par. Cel. Libro 2, Cap. X refiere que en la peregrinación de la villa de Oñate subían las cruces de todas las ermitas que eran llevadas por su respectiva beata, vestida con el hábito de 3<sup>a</sup> Or.

D. Juan López de Lazarraga Contador en la Corte...

“Historia del Convento de la Purísima Concepción de Azpeitia”.

### **Doinuak:**

Ez ahaztu Kortaingoa [*sic*]: mi sol sol fa mi fa mi fa la sol re mi fa  
mi do si do do

Bide-ertzetako ermitetan sarritan ohi zanez, elizak ondoan gaixotegirik bazuen, haien ardura ere seroren egitekoa zen: elbarriak sendatu, legenardunak garbitu eta ukendu, errukarri guziei lagundu, danei on egin...

### III

## ARANTZAZURA BIDEAN <sup>[97]</sup>

### ERROMERIA <sup>[98]</sup>

1/Arantzazura egin dut promes  
edo gau edo egunez,  
edo gau edo egunez eta  
oinutsik eta oinazez...<sup>[99]</sup>

<sup>[97]</sup> Hirugarren erromantze “txukundu” hau “Arantzazura” titulu soila emanez hasi zuen: oharrei (ABA, 1. or.) eta kanta “txukunduari (ABA, 0-3 or.); honi “Erromeria” azpтитulua eman zion. Ondoren, oharren gaineko titulua ezabatu, eta kantako tituluari ‘bidean’ erantsi zion –“Arantzazura-bidean”: nabaria da hitz konposatuaren bigarren partea geroago gaineratua dela-. Nondik nora eta zergatik? Gero ikusiko dugunez, eta Manuel Lekuonak jaso eta argitaraturiko –eta ondoren Arantzazuko REA/JK-n kopiaturiko– “Ama Birjiña eguna da ta” kantari garrantzi berezia ematen dio Mitxelenak bere erromantze txukundu honen interpretazioan. Lekuonak, ordea, “Arantzazuko bidia” titulua eman zion berak bildutako erromantzeari, 1932an lehenbizikoz *Anuario de Eusko-Folklore* urtekarian argitaratu zuenean. Horrek iradoki ziola uste dut Mitxelenari

erromantze txukundu--osatuaren titulua. Beherago ikusiko dugunez, Lekuonaren erromantzean oinarrituz edo, Arantzazura bidea Kalbariora bidearekin berdinduko du.

Hasieran “Izar eder bat ateratzen da” hasten zen erromantze “txukundua” (ABA, 03-04), eta “Zerua eta gozoa” amaitu. Geroago, ordea, beste orri bat gaineratu zuen (ABA, 01-02), “Pauso santuak konstatzen” titulua duena, alde bietatik idatzia: kantaren osagarria, itxuraz; horren lehen ahapaldia, “Arantzazura egin det promes”; azkena: “Eguna zala eta eguna zala”. –Bi orriak orrialde markarik gabe zeuden; neronek markatu ditut–.

ABB-ren editoreek, 01-02 orria 03-04 orriaren ondoren zetorrela ulertu zuten, eta horrela ordenatu erromantze txukundua. Baina alderantziz ordenatzekoak dira, nire ustez. “Arantzazura-

2/ Arantzazuko Andre Maria<sup>[100]</sup>  
gure Amatxo maitea:  
poz du haretzek seme-alabak  
erromerian joatea.

3/ Arantzazura abiatzean  
Ez nun (ez dut) besterik goguan:  
nola joan ta nola etorri  
kristau zintzoen moduan.

bidean” erromantze txukundu osotuari kapituluaren azken aldera Mitxelenak erantsi zizkion oharrei begiratu. Izan ere, ahapaldiz ahapaldi zenbakitu eta ordenatuta daude horiek; ordenari begiratzen badiogu, berriz, garbi dago erromantze txukundua aipaturiko 01-02 paperean hasten dela eta 02-03an jarraitu; horrela “Arantzazura egin det promes” ahapaldiarekin hasiko litzateke erromantze txukundua, horko azken “Eguna zala ta eguna zala” ahapaldiraino; eta “Izar eder bat ateratzen da” ahapaldiarekin jarraituko luke, “Ama danetan xamurrena” ahapaldiarekin amaitzeko. Ordena horretan zenbakituta doaz, beraz, erromantze txukunduaren ahapaldiak edo atalxoak, geroko bakoitzeko oharrak hobeto ulertzeko.

Epigrafeak tartekatu zituen Mitxelenak, kantaren zati ezberdinak adierazteko. Adierazgarriak gertatzen dira, gertatu ere, horren harian.

<sup>[98]</sup> Hasierako erromantze txukunduaren tituluaren azpiko ‘Erromeria’ hitza erromantze osoaren azpigitulua zela dirudi; ABB-ren editoreek, ordea, lehen zatiaren epigrafetzat hartu zuten. Ordena berrian, “Arantzazura egin det promes” (01-02) hasten den honek hasierakoak “Pauso santuak kontatzen” du lehen epigrafea. Horregatik ‘Erromeria’ hitza erroman-

tze txukundu osaren azpigitulu bihurtu da, alde batetik –gera zitekeen erromantzearen hasierako ahapaldien epigrafetzat ere–; baina aldi berean, eta autorearen baimenarekin, “Pauso santuak kontatzen” epigrafea 4/5 ahapaldien atalaren aurrean ipini dut, eta ez erromantzearen hasieran, lehen ahapaldiaren aurretik, zuzenean 4-5 atalari hobeki dagokiolakoan.

<sup>[99]</sup> Ahapaldi hau “Arantzazura egin det promes” hasten den hainbat kanta aldaeratan lehena da; horietako bigarren oina “oinutsean ta dolorez”, edo antzeratsu izan ahal da; ‘oinaze’ hitza ez da erromantzeetan ageri, ‘dolore’ baizik: 10 aldaeretan edo ageri da azken hitz hau. Mitxelenak berak ohartarazten gaitu, ordea, honetaz, kapitulu honen azkeneko oharretan (ik. 1. ahapaldiari oharra).

<sup>[100]</sup> Bigarren eta hirugarren ahapaldi hauek “Adios orain dama gaztia” erromantzeko (REA/JK, 36. or.) 2. eta azken ahapaldi moldatuak dira; –Mitxelenak berak aipatzen du hori, kapitulu honetako ahapaldiz ahapaldiko oharretan (2. oharra)–. Hona hemen han iradokitako formak, REA/JK, 36. orrialdekoak:

.....

Ama Birgíña Arantzazuko  
askoren debota maitia  
arretzek estimatzen dau  
erromerian joatia.

### **Pauso santuak kontatzen**

4-5/ Pauso santuak kontatutzeko<sup>[101]</sup>

erromerian barrena,<sup>[102]</sup>

Birjinak berak ematen digu

ejenplua ta kemena.

Birjinak berak kontatu zitun

mundu honetan aurrena

Jesu Kristoren pauso santuak

hil orduko Seme ona.

Dudarik dunak ikasiko du

gau-bijilian egia:

Ama Maria Agredakoak

emango digu argia.

### **Bidean gaua**

6/ Arantzazura bidea luze

hara orduko iluna...

.....

Arantzazura nijuanian  
ez neban besterik goguan,  
nola juan da nola etorri  
kristau fidelen moduan.

<sup>[101]</sup> Azkueren CPV-en bi aldaera dau-  
de hemengo gaia kantatzen dutenak:  
“Pauso santuak ongi kontatzen” (CPV,  
X, 38/843, 983. or.) eta “Amabost pau-  
suz konponitzen da” (CPV, IX, 14-729,  
848 or.). Hona hemen horietako lehena  
–bigarrenaren barruan berdin dago–:

Pauso santuak ongi kontatzen  
mundu onetan lenena  
Ama Birjiña izan zan,  
ilezkeroztik seme ona.

Dudarik gabe, egia dela  
nai duzu klaridadea:  
Ana [*sic*] Maria Agredakoak  
emanen dizu fedea.

Bi horien nolabaiteko moldaketa egin du hemen Mitxelenak. ‘Ana’ izenak ‘ama’ izan behar du, bestelako aldaeretan ikusten denez: “Ama Agreda” deitu izan zaio Agredako moja ospetsuari. Horren liburua irakurtzen zuten nonbait Arantzazuko gaubeiletan erromesek. (Ik. I. Omaetxebarria, “San Pedro Regalado en Aránzazu. El ejercicio de la Cruz y otras devociones afines en el Santuario”, in: *Arantzazu izena. Evocación Francisca-na y Proyección misionera*, Oñati: Arantzazu E.F., 2001, 187-188 or.).

<sup>[102]</sup> “Erromerian barrena” delako hori ez da erromantzeetan ageri; badirudi Mitxelenak bere kasa sartu zuela, geroko “Arantzazura bidea = Kalbariora bidea” berdinketa prestatzeko asmoz edo. Azkueren kanta, berriz, gehiago ari da erromesaren gaubeilaz eta ez Arantzazura bidez.

Santa Luzian begi ederrak  
argi egin dezaigula.<sup>[103]</sup>  
Birjina Amaren promesadunak.<sup>[104]</sup>  
Gabon Jainkoak deigula!  
7/ Zeru altuan bide-erakusten<sup>[105]</sup>  
izar ederrak ugari:  
galdu ez dadin Ama Birjinak  
piztuak erromesari...

### Goiza. Ama-Semeak kalbariora, bide-lagun

8 Eguna zela ta eguna zela<sup>[106]</sup>  
bart ilargia zenean,  
egunerako iritsi nintzan  
zazpi legua bidean.  
9/ Izar eder bat ateratzen da<sup>[107]</sup>  
urtean egun batean,  
urtean egun batean eta  
hura San Juan goizean...

---

[103] “Arantzazura egin det promes” hasten den erromantze-aldaeretan honako ahapaldi hau ageri da tartean. Zortzi aldaeratan berdintsu aurki dezakegu. Hona hemen adibide bat, REA/JK, 37-38 orrialdeetakotik hartua (2. ahapaldia):

Goazen Arantzazura  
Santa Luziaren begi ederrak  
Argi egiten digula.  
Gau on Jaungoikoak digula.

[104] “Arantzazura promesadunak” dio Mitxelenak (AEP-2, 65. or.), “Arantzazura egin det promes” gogoratuz.

[105] “Izar ederrak argi egiten du” hasten diren kanta-aldaeretan ageri da bereziki gai hau nolabait; adibidez, hemengo honetan (CPV, X, 45-850, 990-991 or.) –Bere gisako moldaketa egin du hemen Mitxelenak–:

Izar ederrak argi egiten dau  
zeru altuan bakarrik.  
Ezta bakarrik, lagunak ditu,  
Jaun zerukoak emanik.

[106] Hamarren bat kanta-aldaera dago AKDB-n, ahapaldi honekin hasten dena: guztiak berdinak, hitzen baten grafia gorabehera: gauzez bidea egiten duen erro-mesa da, ilargiaren argitan. Dena dela, Mitxelenaren erromantze txukundu hau lehen ahapaldi horretan geratzen da, ondorengoan ideia berdintsua, baina beste tradizio batekoa ekartzeko: San Joan eguneko izarrarena.

[107] 9-15 ahapaldi edo atal hauetako hari tematikoa Azkueren artxiboko aldaera honetan aurki dezakegu laburrago (ik. EERV, 682-683 or.):

10/ Haren argitan abia nintzan (... nekez nindoan)<sup>[108]</sup>  
Arantzazura bidean (... ustean),  
Arantzazura bidean ala  
Kalbariora bidean?

11/ Birjina Ama ta bere Semea  
topa nituen parean.  
Ama kupidaz, Semea minez,

Izar eder bat ateratzen du  
urtean egun batean,  
urtean egun batean eta  
ura San Juan goizean.

Aren argitan joan ginaden  
Arantzazura bidean,  
Birjina Ama ta bere Semea  
topatu ditut bidean.

Konseju onak eman zizkidan  
Ama-Semeen artean:  
ona ta umila izan nadila  
munduan naizen artean,  
gero berak jakinen duela  
zer egin azken finean.

Aldaera hau ez zuen seguruenik Mitxe-  
lenak ezagutu, argitaratu gabe zegoelako.  
Bai, ordea, Arantzazuko Bildumako an-  
tzeko hau (REA/JK, 37-38 or.):

Izar eder bat ateratzen da  
urtian egun batean,  
urtean egun batean eta  
gure San Joan goizean.

Arren argitan ni joan nintzan  
Arantzazuko bidean,  
Birgiña Ama ta  
bere Jesus nituan bidean.

Konseju on bat emon zidaden  
Ama-Semeon artean,  
ona ta umilla izan nendilla  
munduan nintzan artean,  
Berak jakinen zuala gero  
zer egin al zezakean.

<sup>[108]</sup> Gaeuz ibili eta goizean Arantzazu-  
ra iritsi ondoren, badirudi berriro abia-  
tzen dela, egunez, oraingoan San Joan  
goizeko izarrak lagunduta. Erromes-  
bidegintzaren beste tradizio-aldaerari  
heldu dio Mitxelenak horretarako.

10-11-12 ahapaldi hauetan M. Lekuona-  
nak bildu eta argitaraturiko “Ama Bir-  
jiña eguna da ta” erromantze-aldaera-  
ren 8-12 ahapaldiak ditu oinarri, bere  
erara moldatuz. Honela dira Lekuona-  
renak:

Ama Andria ta bere Semia  
topau nituzan bidian,  
kontseju onak eman zizkiden  
Ama-Semien artian.

On da umilde izan nedilla  
munduan naizen artian,  
gero ez nebala damu izango  
emendik niJuanian.

Odola pranko ixuri zuen  
oiñutsetan da lurrian.  
–Ene Semia, eutsi zapatak  
jantzi eidazuz soñian.

–Ama Andria largatu bedi  
onela noian artian,  
nik eriotza artu biar det  
Kalbarioko mendian.

Kalbarioko mendian eta  
kurutze gogor batian,  
nik eriotza artu biar det  
kurutze gogor batian.



oinutsik, gurutze-lorreen:<sup>[109]</sup>  
 odola franko bazerieten  
 gure ongarriz lurreean (bekatarien onean).

12/ –Ene Semea, eutsi zapatak,  
 jantzi izkidazu soinean.

–Ez, Amandrea, largatu bedi,  
 honela noan artean.

Nik heriotza hartu behar dut  
 gurutze gogor batean.

Gurutze gogor batean eta  
 Kalbarioko gainean.

Nik heriotza artu behar dut  
 Gurutze gogor batean.

13/ Nere albotik zihoazela (Nere aurretik...)

Arantzazura bidean,

Kontseju on bat eman zidaten (kontseju hauxe...)

Ama-Semeen artean:

14/ –On ta umila izan nendila

munduan naizen artean;

penitentzia maite nezala,

Ama-Semeen antzean,

Lekuonak 1933an Oiartzunen jasotako aldaera da hemengo hau, *Anuario de Eusko-Folklore*-n argitaratua (1932); ondoren 1933an “Erriko jaiak nolakoak bear-ko luketen izan” tituluko artikulua barruan argitaratu zuen (aurrenik *Argiaren Egutegia*-n eta gero *El Día* egunkarian). Azkenik (1935) bere *Literatura oral vasca* liburuan jaso zuen bi lekutan (Ik. Lekuona'tar Manuel, *Idazlan guztiak. 1. Aozko Literatura* (Kardaberaz Bilduma, 22), Tolosa: Librería Técnica de Difusión, 1978, 289-290 eta 474-476 or.). Hamabi ahapaldikoa da aldaera Lekuonak argitaratuetan. (Ik. REA/JK-ko 124. or.)

Kontua da, beste gai bat sartu duela tartean Mitxelenak, berak oso bihotzeko duena, beste lekutatik hartuta: Jesus eta Mariaren gurutze-bidearena (11-13 ahapaldietan), erromesarekin erromes bihurtuta biak.

<sup>[109]</sup> “oñutsetan ta lurreean” zegoen idatzita eskuizkribuan hasieran –AEP-2, 143. or.an bezala, eta gorago aipaturiko Lekuonaren kantaren 10. ahapalditik hartuta–; gero lerro hori ezabatu eta alboan idatzi zuen “oinutsik, gurutze-lorreen: / odola pranko bazerieten”. ABB-ren editoreek ezabaturiko lerroa aukeratu zuten. Jatorrizko ‘lurreean’ hitza ‘lorreean’ bihurtu da, beraz. Adierazgarria!

Ama-Semeen antzean eta  
Gurutze-bide berean.<sup>[110]</sup>

15/ Gero ez nula damu izango  
mundutik nindoanean,  
mundutik nindoanean eta  
zerua irabaztean.

### **Arantzazu, erromesaren Zerua**

16/ Mundu honetan nahi dituenak<sup>[111]</sup>  
zeruko lorak ikusi  
Arantzazuko mendian gora  
behar du bidea ikasi.

17/ Arantzazura bidea luze,<sup>[112]</sup>  
gainera aldapa-goria;  
aldaparen gain Haurtxoarekin  
zeru bera den Maria.

---

<sup>[110]</sup> Ahapaldi honetako azken lau le-  
rrook ez dira Arantzazuko erroman-  
tzeetan inon ageri, ez hemengo for-  
man eta ez hemengo hitzetan ere:  
‘penitentzia’ (penitenzia) hitza ez da  
Arantzazuko erromantzeetakoa –ez da  
inoiz ageri. Eta gurutze-bidean –edo  
Arantzazura bidean gurutzea bizkarre-  
an– Jesu Kristo ikusten du erromant-  
zeak; ez erromesa, zuzenean behintzat.  
“Ama-Semeen antzean”: ‘antzean’ hitza  
ere ez da inon ageri erromantzeetan, eta  
‘Kalbario’ hitza birritan bakarrik ageri  
zaigu horietan, M. Lekuonak argitara-  
turikoan eta beste behin. Honetaz argi-  
bide gehiago Epilogoan, 167-168 or.

<sup>[111]</sup> Ahapaldi hau “Errodrigotxo Baltza-  
tegiko”-ren buruan, sarrera gisa edo,  
dago jarrita REA/JK-ko bi aldaeretan (26.  
eta 27. or.) eta Joan Karlos Gerrak argi-

taraturikoan (*Los cantares antiguos del  
euskerá*, San Sebastián, 1924, 182. or.).

Gerraren aldaeran, adibidez, honetara  
daude lehen bi ahapaldiak:

Mundu onetan gura dabenak  
zeruko lorak ikusi  
Arantzazuko mendixa gora  
bear dau bidea ikasi.

Errodrigotxo Baltzategiko  
Birjiña billatzallea  
auntzaren billa jua zifnian  
Arantzazuko mendira.

Mitxelenak atera egin du hortik, lekuz  
kanpo-edo zegoelakoan; eta hona eka-  
rri du.

<sup>[112]</sup> Arantzazuko erromesaren erro-  
mantzearen aldaeretako askotxo “Ama  
Birjiña(ren) eguna da ta” edo “Birjiña  
Amaren bezpera da ta” hasten dira; ho-

Zilar labraduz atea eta<sup>[113]</sup>  
 diamantezko giltzia.  
 Urre-siloian jarririk dago  
 Birjina (i) Andre Maria.

18/ Harrimailatan altuan dago<sup>[114]</sup>  
 Birjina Begoñakoa,

rien barnean ageri da batez ere ahapaldi hau; modu edo testuinguru ezberdinetan, ordea; hiru forma hauek behintzat ageri dira, hirugarrena gehien:

Arantzazura bidea luze,  
 gaiñera aldatz goría,  
 arri labrauaz eginda dago  
 paradisura bidia.

Arantzazura bidea luze  
 ara orduko illuna,  
 Santa Luziren begi ederrak  
 argi eginen digula.

Arantzazura bidea luze  
 ara orduko kansatu.  
 Birjiña Ama ta bere semia  
 bidean ditut topatu.

Horko ‘aldatz goría’ ‘aldapa-goría’ itzuli du Mitxelenak –AEP-2. 38. or.an “aldapa-gora, gañera” dauka idatzita–.

Ahapaldiaren azken bi lerroak aldatu egin ditu, Andre Maria zeruan irudikatuz edo, Kalbario-bidea egin ondoren.

<sup>[113]</sup> Aurreko oharreko ahapaldiaren aurreneko formak bide eman dio nonbait Mitxelenari beste ahapaldi hau sartzeko erromantzea osatu eta txukuntzean. Ideia bera zabalduz-edo, honetara dago horren hurrengo ahapaldia REA/JK-ko 124. orrialdeko aldaeran:

Arri labraua ona da baiña  
 galtzairu piña obia,  
 urre gorriaz eginda dago  
 paradisuan sillia.

Bi ahapaldiok baliatuz era zezakeen agian Mitxelenak bere ahapaldi “txukundu” hau, ondorengoari bide emateko. Baina eskurago aurkitu zituen Arantzazuko Bilduman “Virgina Amaren eguna da ta” hasten den eta Oñatiko Uribarriko Azkarraga baserriko Matiosa Inzak kantaturiko erromantzearen beste bi ahapaldi hauek (REA/JK, 123. or.):

Arri ebagiz bidia eta  
 zillar labratuz atia,  
 zillar labratuz atia eta  
 urre gorritz du giltzia.

Urre silloian jarririk dago  
 Birgina gure Amandria  
 ark alaxe du merezitutzen  
 nork du alako semea.

Bere aldetik Arantzazuko Josefa Ollakindearen ahotatik jaso zuen kanta luzea “Gau-bijiliako kalbario-puxkak = Via Crucis” deitu zuena (REA/JK, 80-81 or.), eta horren barruan integratua zuen Matiosaren kanta osoa. Azken bi ahapaldiok bateratuz edo, osatu zuen, beraz, 17. ahapaldi hau.

<sup>[114]</sup> Ahapaldi honetako kanta hau leku askotan daukagu Arantzazuko Bilduman, aldaera txikiakin: J. K. Gerrak,

Hala ta ere altuagoan  
 Birjina Arratekoa;  
 Birjina horietan ederrena zu,  
 Ama Arantzazukoa.<sup>[115]</sup>

19/ Arantzazuko Andre Mariak<sup>[116]</sup>  
 zilar zuriz du koroa  
 zilar zurizko koroa eta  
 urre dindilaz lepoa,

J. A. Lizarraldek, I. Omaetxebarriak bilduta eta argitaratuta. Honetara dago Lizarraldek bildu eta *Andra Mari de Vizcaya* liburuan argitaratu zuena –handik jaso zuen Omaetxebarriak eta REA/JK-n eskuz kopia (51. or.)–:

Armallatan altuan dago  
 Birjiña Begoiñakoa,  
 ala beretan altuagoan  
 Birjiña (y) Arratekoa:  
 Birjiña orreitan ederrena  
 Birjiña Arantzazukoa.  
 Zazpi donzellak josten diote  
 bere buruko belua,  
 donzellak ere ederrak ziran,  
 belua ederragua.

Mitxelenak erdibitu egin zuen kanta hau, tartean 19. atala –“Arantzazuko Andre Mariak (...) India-sedaz beloa”– sartzeko.

Bestalde, lehen lerroa horrelaxe dago aldaera gehienetan: “Armalletan altu(b)an dago”... I. Omaetxebarria konturatu zen bertsoa motz gelditzen zela neurrian, eta ‘armallaetan’ zuzendu zuen, horretarako arrazoi filologikoak ere erabiliz. Seguruenik Mitxelenak ez zuen zuzenketa hori ezagutzen, eta beste soluzio hau eman zion bertsoaren neurriari, ‘arrimallatan’ idatziz.

<sup>[115]</sup> Ditugun aldaera guztietan ‘Birjina Arantzazukoa’ dago idatzita; Mitxelenak bere aldetik aldatu du hemen eta ‘Ama Arantzazukoa’ idatzi.

<sup>[116]</sup> REA/JK-ko “Arantzazura egin det promes” kantan (37-38 or) ahapaldi hau ageri da:

Birjiña Ama Arantzazukoa  
 Urre gorriaz koroa,  
 Urre gorriaz koroa eta  
 Zillar zuriaz lepoa.  
 Zillar zuriz lepoa eta  
 Seda dindillaz beloa.

I. Omaetxebarriak “zuzendutakoaren” (!?) arabera jaso du hemen testua Mitxelenak. Omaetxebarriak berak bere artxi-boko eskuizkribuen artean “Armaillaetan altuan dago” kanta Lizarralderen *Andra Mari de Guipuzkoa* liburutik kopia zuen eskuz. Eta horren azpian honako hau idatzi zuen, atalok “Armaillaetan altuan dago” kantaren aldaeratzat hartzen zituela adieraziz, alegia.

“Variantes:

a) Josefa Auzmendi, Etxarri-Aranaz (adapt.)

Birjiña (i)Ama Arantzazuko  
 urre gorriaz koroa,  
 zillar zuriaz lepoa eta  
 seda dindillaz beloa,  
 [berak iruiña, berak eioa]  
 berak soiñean [daroa].

zilar zuriar lepoa eta  
 India-zetaz beloa.<sup>[117]</sup>  
 Zazpi dontzeilak josten diote  
 bere buruko beloa.  
 Dontzeilak ere ederrak dira;  
 Birjina ederragoa.<sup>[118]</sup>

20/ Arantzazuko Ama Birjinak<sup>[119]</sup>  
 egutera du leioa;  
 lurretik itzal darioneko (batetik...)  
 zerurantz aldatzekoa. (bestera...)

b) Maria Lizarraga, 73 urte, 1956'an, Etxarri-Larraun

Iturri artan jabonutzen da  
 Birjiña Amaren belua,  
 berak iruiña, berak eioa,  
 Birjiña Amaren beloa.

[117] Nondik dator 'India-zetaz' lerro honetan, Josefa Auzmendiren 'seda dindillaz'-en orde? Arbizuko Maria Aldasorearen ahotatik R. M. Azkuek jasotako "Arantzazura egin det promes" kantaren barruan bestelako ahapaldi hau ageri da, 14.a (ik. CPV, X, 15-820, 948. or.).

Ama Birjiña Arantzazukoak  
 urregorritz du koroa,  
 urregorritz du koroa eta  
 india-sedaz bueloa.

Azkueren hori kopiatua zuen Mitxelenak bere erromantze sorta daktilografiatuan (M4S, 13-14 or.). "Seda-indiaz bueloa" abestu zion nonbait lekukoak; eta Azkuek "India-sedaz" transkribatu, oharrean dioenez: "Seda-indiaz (que no hace sentido) dice el original. El «buelo» será «beloa»". Badirudi, egokiagoa iruditu zitzaioala Mitxelenari hemengo honen amaiera, eta goikoa eta hau nola-

bait bateratuz eratu zuen bere erromantze txukunduaren atal hori. Dena dela, Mitxelenak berak 'bueloa' idatzi bazuen ere bere MSJ sorta daktilografiatuan, erromantze txukunduan 'beloa' idatzi zuen, Azkueren iradokizuna jarraituz.

[118] "Harmailaetan (harrimailetan) altuan dago" kantaren amaiera denetan azken lerroa "(baña) beloa ederragoa" dago idatzita, salbu J. K. Gerrak *Euskalerraren alde* aldizkarian (1923) argitaraturikotan: "Baña Bera ederragoa". 'Bera' horrek badirudi Andre Maria adierazten duela; Gerraren aldaerak iradoki zion nonbait Mitxelenari bukaera, eta "Birjina ederragoa" idatzi zuen azken lerroa.

[119] Goragoko oharrean aipatua dagoen "Arantzazura egin dut promes" erromantzeko "Ama Birjina Arantzazukoak" ahapaldiaren aurrekoa da hemengo hau (CPV, X, 15-820, 948 or.). Azkuek honetara jaso zuen Arbizuko Maria Aldasorengandik: *ttu laioak, darionako*.

Ama Birjina Arantzazukoak  
 egutera ttu laioak,  
 batetik itzal darionako  
 bestera aldatzekoak.

21/ Ama denetan xamurrena zu,<sup>[120]</sup>

Birjina Arantzazukoa:  
erromerian datorrenaren  
zerua eta gozoa.

### Zer dela eta

Arantzazura!... Arantzazura!... Kantak nonahitik bezala, limosnak nonahitik bezala, han zihoazen Arantzazura nonahitik erromesak<sup>[121]</sup>. Zer zuen Arantzazuk, lau probintzietako erromesak elkarren lehian era hartaz bere baitara ekartzeko? Zer gaur ez duenik ikusten zuten gure aurrekoek Arantzazun, zihoazen bezala joateko?

### III. kanta zaharra erakusle

Kanta zaharragatik ez bazen, ezin zehatz atzeman izango genuen euskal “ostatu”aren zeintasuna, zaharren sinesmenak ageri zion nolakotasun berezia. Kondaira zaharrek esaten digutenagatik, erdal herrietako Eliza nagusien taju-modukoa irudituko zitzaigun gure Arantzazu, atzerrikoetatik berezitasunik (berezitasun ageririk) gabea, haie-tako bat. Europako kristau herri bakoitzak berea izaten duen bezala, gureak hau duela Eliza nagusi doi-doi jakingo genuen. Nondanik eta nola erromesak etortzen ziren, norainoko laztasunak egiten zituzten, harakoan eta hango egon-orduetan... guzi hori maiteki-maiteki jaso (kuxtatu) digute kondaira zaharrek; baina ez gure jakinmina asetzeko lain.

Kondaira zaharrak gehienetan, gurean areago, gorenegi doaz eta axaletik; ez dute herriaren beheko mailara, barrunbera, jaitsi nahi iza-

---

Azkuek berak oharrean dioenez, ‘laioak’ ez, baina ‘leioak’ izan behar du. Mitxelena singularrera ekarri du hitza; eta bere erara moldatu ahapaldi osoa.

<sup>[120]</sup> Erromantze txukunduko 18. ahapaldiaren oihartzuntzat jo zuen Mitxelena azken hau, atzeko oharrean idatzi zuenez. Erromantzeari bukaera egokia, “koroa”, emateko moldatu zuen nonbait. Zeren moldaketa da, ordea?

<sup>[121]</sup> Bere eskuizkribuko paperetako batean, 2. kapituluko 4.aren atzealdean, honako aipua zuen, J. Luzuriagaren liburutik jaso: “No es fácil reducir a suma el número de hombres y mujeres de todas las edades que de Castilla, Navarra, Alaba, Guipúzcoa, Vizcaya y Francia, va en peregrinación y romería a el Monte Santo de Aránzazu” (*Paraninpho celeste*, a. l., libro 2, cap. IX).

ten. Horregatik, ez dute egiten gure gaurko herriarekiko jakin-axkurea hazka-berritu baizik. Penitentzia haien zergatia falta da edestietan: Gure herriak, penitentzia haiek zamatzean, Arantzazurekiko izan duen “pentsamendua”, ustea, sinestea.

Hitz bat falta, kanta zaharrak bakarrik dakiena: esan dezagun, gure Arantzazuren *kalbariotasuna*, zaharren sinesmenak ageri izan dion kalbariotasun gorputz-betekoa.

Hitz bakar horrek, aipatu orduko, berehalaxe argitzen du gure Arantzazuren tankera eta izakera berezkoa; hitz bakar horrek argitzen gure kristautasunaren handitasun paregabea eta gure oinaze-zalearen erosletasun ukazina.

### **Gurutze-bidea, Arantzazura doana**

Arantzazu euskaldunen Kalbario-mendi dugu, “euskal minen opal-mahaia”. Eta harako bidea, Kalbariorakoa denez, gurutze-bidea dugu, aldiz: Ama-Semeen neke-minak eramateko, Ama-Semeen “kalbarioak” berrekiteko euskal probintzien bene-benetako “*Via-Crucis*” aukerakoa.

Horregatik, gure erromesa, neke-erromesa da kanta zahar guzietan. Horregatik, gure herria, Arantzazurako gurutze-bidean gora penitentziaz doanean, Ama-Semeen neke-laguna da, eta hala sentitzen du bere burua.<sup>51</sup> Ama-Semeekin eta Ama-Semeengatik eta Ama-Semeentzat gurutzea bizkartzen [*sic*] du, laztasunak jasaten (sufritzen) ditu. Ama-Semeen oinaze-pausoak bereak egin nahi ditu; eta bere nekeekin Ama-Semeenak osatu.

Hala egiten da Euskal Herri bere buruaren eta munduaren erosle; nekaldiz eta penitentziaz Ama-Semeekin bat-batean (parean) doala, bere

---

<sup>51</sup> Aren (izar-)argitan ninjoanean  
Arantzazura ustean,  
Birjina Ama ta bere Semea  
Topa nituen parean...

[Autorearen testuaren oin-oharrean datorren ahapaldi hau oso ezaguna da Arantzazuko Erromantzetan, aldaera ezberdinetan. Kalbariora bidean doazen Ama-Semeekin topo egitea, berriz, behin bakarrik ageri da, agian; honetaz, hala ere, Epilogoan jardungo naiz].

buruaren eta munduaren alde haiiek biekin opalgai bat gehiago egiten doala. Eta hala, nekaldiz eta penitentziaz, iritsi ere zuen gure herriak, Aita San Ignaziorekin, berebiziko kutizi barru-barrukoa: Jesusen anaia izatea eta Ama Birjinaren seme!

Ama-Semeekin parez-pare<sup>[122]</sup>

“Arantzazura-ustean eta<sup>[123]</sup>  
Kalbariora-bidean”

[122] Lerro hau ez dago ABB-n. Ondoren datozen erromantzeko bi lerroen eta jarraiko testuaren arteko harian egoki jarrita dagoela ematen du.

[123] “Arantzazura ustean” eta “Arantzazura bidean” espresioak behin baino gehiagotan ageri dira erromantzeetan, aldaera txikitxoekin, honako testuinguruan:

Aren argitan ni joan nintzan  
Arantzazura ustean,  
Birjiña Ama ta bere Semea  
topatu nitun bidean.

Aren argitan joan ginaden  
Arantzazura bidean,  
Birjina Ama ta bere Semea  
topatu ditut bidean.

“Kalbarioko bidean” esamoldea itxuraz Arantzazuko erromesen gaubeiletako Gurutze-bidearen ariketen testuinguruan ageri da –ez erromesaren Arantzazura bidearen deskripziotzat hartuz– Azkuek Oskozko Justa Goldazarenaren ahotatik jasotako honako erromantze-aldaera honetan (CPV, IX, 14-729 (8489 or.).

Amabost pausuz konponitzen da  
Galbarioko bidea  
aren neurriak artu dituen  
da Jesus gure maitea.

‘Kalbario-bidea’ eta ‘Gurutze-bidea’ (gurutzepidea) gauza bera dira hemen: Erromesek egiten zuten gogoeta-ariketa, Jesusen pasioaldia gogoratuz. “Arantzazura ustean / eta kalbariora bidean” esapidea ez da Arantzazuko Erromantze edo “Kanta Zaharretan” inon ageri, nahiz eta Mitxelenak kaxoekin artean dakarren. Kanta Zaharrei buruzko obra hau idatzi baino lehenago zuen asmatua gainera. 1942an idatzitako “Kurtzipizio gañean. Lenak orañari” idazlantxoan ageri da (ik. Salvatore Mitxelena, *Idazlan guztiak-I*, a.l., 41. or.). 1943ko maiatzaren 22an idatzitako “Gurutzeak” izeneko beste idazlan batean, berriz, honako ohar hau idatzi zuen: “Arantzazu, euskaldunen Kalbario-Mendi! Nere asmaketa bat dela usteko dezu, ausaz, irakurle. Ez olakorik. Ori nolerebait egi-egia dala, erriak berak esango dizu oraindik aiton-amonak dakizkiten «Arantzazuko kanta zarretan», antziñako erromesak «Arantzazura ustean Kalbariora bidean» egin oi zituzten «kalbarioetan», gurutze eramateetan, bijili jardunetan, bijili jardunetako abestietan...” (ibid., 57. or.). Mitxelenak erromantze txukunduko 9-10 ahapaldietan lotu du beste era batera esamolde hori; eta horien ondoko 11-12 ataletan dator Kalbarioren gaia bere testuinguruan kokatuta.



zihola zekien gurea bezalako herri bihoztunak, pentsa orain, norainoko (laztasunak eta) “kalbarioak” ez zituen sufritu nahi izango, Ama-Semeenak berritzeagatik, Haietxek esantzat sinesten zuenean kristau oinazea maite izateko gero ez zuela damu izango eta... (cfr. Kanta-zarra).<sup>[124]</sup>

“Uste” hau jakinda, sinesten erraza bezain santutasunez miragarria da Aloñan gora euskal fedearen gurutze-bideko neke-zale nahikorik eza...

Hil-zaharren “uste” honetaz konturatu gabe, ezin sinistuko luke gure gaurko hoxkilak honenbestearainoko oinaze-zalea Euskal Herriak izan zezakeenik. Ezin ulertuko genuke zer dela eta (diren) euskal folklorea hainbeste eta hainbeste kalbario-kanta apur. Asiako zenbat sasi-erlijiotan bai, baina Euskal Herrian halako buru-hausterik, norbera ukatzerik? Galdetuko luke gaur eguneko sinesgogorak, gaurtik ordunera dagoen aldea ezin garaituz.

<sup>[124]</sup> Ama-Semeekin topo egitean erromesak Haiengandik entzuten duen kontsejua mundu honetan “on eta umila” izatea da bereziki, ez zuzenean oinazeak jasatea. Leku askotan ageri da Ama-Semeen kontsejuarena eta erromesaren damuarena, baina umiltasunarekin eta ona izatearik du zerikusirik Haien aholkuak beti: “ona ta umilla” edo “on ta umilde”, hemengo adibidean bezala (ik., adibidez, “Ama Birjiña eguna da ta” hasten den erromantzea (REA/JK, 124. or.):

Ama Andria ta bere Semia  
topau nituzan bidian,  
kontseju onak eman zizkiden  
Ama-Semien artian.

On da umilde izan nedilla  
munduan naizen artian,  
gero ez nebala damu izango  
emendik nijuanian.

“Ona ta garbi” ere bai (Azkueren artxi-boko orduan argitaragabeko honako honetan):

Izan nendila ona ta garbi  
munduan nintzan artean,  
enebala, ez, damu izango  
mundurik ninoanean.

Mitxelenak berak Arantzazun jasotako kantan umildadeak irekitzen du zeruko atea (ik. REA/JK, 80. or.):

Aberats orrek diruak ditu  
pobriak umildadia,  
umildadiak irikitzen du  
Zeru altuan atia.

Baita Josefá Auzmendiren “Arantzazura egin det promes” erromantze-aldaeraren bukaeran ere –eta, alderantziz “superbo” harroak infernurako bidean doaz–:

Superbo gaiztoz beterik dago  
Inpernuko sulezea,  
umildadeak idikitzen du  
Zeruetako atea.

AEP-ko erromantzeen hitzez hitzezko aipurik luzeenekoa da ahapaldi hori –“Kristiñau on bat ilten danien” hasten den kantakoa– (REA/JK, 126. or.).

### Antzinakoen oinaze-zalea

Baina alde hori garaitu beharra dago, antzinako gauzak bere ginoan<sup>52</sup> xedarrizteko. Gaurko giroa bestelakoa da joandako gizaldien antzinakoa aihendu zenetik (!!). Gaurko Euskal Herriak jakin gehiago daki beharbada erlijio-kontu. Baina antzina, zekiten hura hobeto sinesten zuten, ba-oterik gabe, itsu-itsuan sinesten, eta batez ere sinesten zutena ahalegin guzian zertzen, kunplitzen.

Gaur, bekatuen barkamena iristeko, bihotz-damuan tinkatzen eta saiatzen gara gehienbat; atzerrian Erdi Arokoek bekatuak aitortzeari, esateari, ematen omen zioten garrantzia eta ardura, beste ezertxori baino; aurreragokoek, berriz, kristau lehen arokoek penitentziari begiratzeko omen zioten gehiena, damu-negarrean jartzen omen zuten ahalegin guzia, aitortu ondoko damu-oinazea...

Berandu xamar erritu eta mamitu zelako edo, gure kristautasuna lehen arokoa izan da horretan azkeneko mendera arte. Horregatik zion gure orainena arteko fedea, beste inon ez adina joera kristau nekaldia-ri, “kalbarioari”... Gure aldean hil-zarrek ondo zekiten sufritzen zuenak Ama-Semeen “pausu santuak kontatzen” zituena, Ama-Semeak bide-lagun zituena, eta lagun ez ezik kontsejatzailerik, aurreko eredu, gidari.<sup>[125]</sup>

Nekalkide bat gehiago, zirineo bat gehiago, sufritzen anairik anaiena izan nahi zuen orainena arteko euskal herriak Jesusekin, semerik semeena Ama Doloretakoarekin. Joran hori, bihotz-bihotzean zinki tinkatua zeukalako, uste hori barne-muinetan mami-mamitua zeukalako kristau oinazea maite izan zuen gure herriak gaur sinistu ezin adina. Ahaztuta bezala daukagula dirudi gaur Jesusekin bat-bat egiteko biderik ziurrena sufrimendua, gogozko nekaldia dena. Baina, ez gure aurrekoek: Jesusek atzo eta biharko jarraitzaile guzietan egindako deitura huraxe zeukaten gure asabek beti eta beti begi-bihotzen aurrean<sup>53</sup>: *Qui vult venire post me abneget semetipsum et tollat crucem suam et sequatur me...*<sup>[126]</sup>

---

<sup>52</sup> [A.t.a.: ginoan - neurrian].

<sup>53</sup> [A.t.a. begi-bihotzen - bihotz-begininien].

---

[125] ABB edizioaren arduradunek “kontsejatzailerik aurreko, eredu, gidari” irakurri zuten testua; uste dudanez, lehen koma lekuz kanpo ipinita.

[126] Ebanjelioko esaldia: “Nirekin etorri nahi duenak, uko egin diezai bere buruari, har beza bere gurutzera, eta jarrai diezat. Izan ere, bizia salbatu nahi due-

## “Kalbarioen” jatorria

Horra hor, Maisuak emana, “kalbariotarako” deia, guruzpidea berritzeko eskaria. Helburu horren atzetik erakusten digu Historiak Europa guzia, mendeak zehar. Aurrena, Jerusalem bertara, “Pauso santuak” berritzera. Ezagunak dira Espainiako Eteriaren ibiliak Igarren gizaldian (?).<sup>[127]</sup>

Gerora, Palestina inguruak turkoen menpean zeudelako hara joaterik ez eta, Europan bertan, Sorterrietan, hasi ziren kristau herriak Aita Santuak barkamen ugarienez aberastutako “kalbarioak” egiten. Pretoriotik Golgotara zegoen adinako luzea behar zuen izan kalbarioak, eta Jesusek eramandako nekaldi-pausoak berberak behar ziren jasan, izpirik barkatu gabe: hemen zigorkatu, hemen arantzeko koroia jantzi, hemen gurutzea lortu, hemen erori..., azkenik gurutzea zutik tinkatuta, haren parean besoak zabalik, lerrenak agortzera arte.

Beraz, ez ziren hil-zaharren kalbarioak gaurko “*Via-crucis*” bezala. Gaur, egonaldiz egonaldi, ez dugu, Jesusen atsekabeak gogartuz batera bihotz-damua harrotu besterik egiten. Hil-zaharrek gogartuz gainera sufritu egiten zituzten Jesusen minak, berenganatu. Gure “*Via-Crucis*”ko hamalau egonaldiak XVIIgarren gizalditik datoz. Orduan erabaki zen gaurko era. Halere, (tokirik) gehienetan, hamabost osatzen ziren azkeneko Pizkundearekin.

“Amabost pausuz konponitzen da  
Galbarioko bidea;  
aren neurriak artu dituen  
da Jesus gure maitea”

(Azkue. *Canciones religiosas*. Pg. 848)<sup>[128]</sup>

## Erdaraz: “Escala santa”

Idazten ari naizeko [*sic*, naizeneko?] La Aguilera (Burgos) honetan ere aurrez aurre dakust Gurutze bat mendi-muino baten gain, “La Cruz

nak, galdu egingo du; baina bere bizia Nigatik eta Berri Onagatik galtzen duenak, salbatu egingo du” (Lk, 6, 49).

<sup>[127]</sup> Galdera zeinua autorearena da. Heteria galziarraren erromesaldia ez zen izan II. mendean, IV.ean baino.

<sup>[128]</sup> Azkueren CPV-az ari da, horko “*Canciones religiosas*” sailari buruz. Hemen iradoki duen kanta zaharra “Amabost pausuz” izenekoa, Nafarroako Oskozko Justa Goldarazeneri jaso zion Azkuek (CPV, IX, 14-729, 849 or.). Hona

del Santo” jendeak deritzana. Nere komentu honetan bizi izan zen San Pedro Regaladok, gauero-gauero hutsegin gabe haraxe egin ohi zuen bere joanaldia, bere kalbarioa, gurutzez lortuta, hemen zigorkatu, hemen lurra jo, ... odol eta zauri, indarrak ahitzeraino... Espainia guzian dituzu “Escala Santa”ren aztarrenak. Bai atzerrian ere.

### “Kalbario”en aztarnak Euskal Herrin

Horixe bera egiten zuten, bada, gure aurrekoek. Ondotxo aspalditik, gero: XIII eta XIVgarren gizaldietan holakoak Euskal Herrian sarri-sarri egiten zirena badakigu, orduko gauzetan bestelakorik ezer gutxi gaur jakinagatik.

Gure lurraldetan nonahi dira ermitatxoak uri (herri) eta ondotako mendien gain, gaur harrizkoak diren arren Erdi Aroan olezkoak, egurrezkoak izanak. Bakar bat ez da izango, ez erromesen bat edo beste asko baizik, gurutzea bizkarrean, aldapan gora, bereganatzen ikusi ez duenik (dituenik), oinutsik eta oinazez...

Ohitura bedeinkagarri aspaldiko haien oroigarriko txamar batzuk baditugu oraindik ere gure lurretan. Albo-herrietan ahaztuak zirelarik, usario haiek gure artean azkeneko gizaldira arte, iraun baitzuten, gerora eta urriago bederen. Frantzitarrekin sinesgabekeriak sartu nahi izan zueneko ehunki hartan, orduan, galdu ziren gurean oroigarri ia denak. Ez denak.

Bermion bada Pilatos-enea, Pilatoren etxea esaten dioten bat. Pretorio hartatik zuen hasiera antzinako kalbario batek.

Aralarren ere bada oraindik ariketa haien aztarna. Han bada oraindik gurutze bat, nahi duenak zamat. Ezkongai on bat etxeratu nahi duenak hiru jirabira eman behar dizkio harekin elizari, barrutik. Eta hala egiten da gazteen artean.

---

osorik, iturrian dagoen bezalaxe:

Amabost pausuz konponitzen da  
Galbarioko bidea  
aren neurriak artu dituen  
da Jesus gure maitea.

Pausu sailduak ongi kontatzen  
mundu gonetan lenena  
Ama Birjina asi izan zen,  
ilez geroztik seme ona.

Dudarik gabe, egia dela,  
nai duzu klaridatea?  
Ama Birjiña Agredakoak  
emanen dizu fedea.

Alabatue izan dadiela  
Kristoren eriotzea,  
bedeinkatua izan dadiela  
aren Amaren sortzea.

Nik jakin ez arren, beste toki askotan ere behar dute izan, nolana-  
hi, holako jakin-liperrak<sup>54</sup>. Dakidana: badirala oraindik Euskal Herriko  
fraide eta moja-etxe batzuetan oroigailuak, Pasio-tresnak eta abar...

Orduko nekaldi-jaiaren emaitza-agiriak<sup>55</sup> ditugu, lehen adierazitako  
hainbeste eta hainbeste kalbario-kanta. Baita Azkuek *Euskalerrriaren  
Jakintza*-n dakarren hauxe ere: “(Hildakoen) jantzien izen euskerazkoa  
*meztidura* zan, eta diotenez ostegun ta ostirale gurenez bedeinkatuak  
izaten ziran, Kristoren erioaz norberaren erioa oroitarazteko”.<sup>56</sup>

Hemen aipatzekoa da: andre ezkondu ez gutxik zinitza (votoa) izan  
ohi zuten, antzina Ama Doloretakoaren janzkera beren bizitzan erama-  
tekoa; eta hildakoan, are gehiagok...<sup>57</sup>

Baina, oroigarrikerik ederrenak bi kofradia ditugu: bata, San Vicente Fe-  
rrer-ek irazia: *La cofradía de la Vera Cruz*; bestea, frantziskotarrak sor-  
tua: Kristoren eskola (erdaraz: *La cofradía de la Escuela de Cristo*). Bi-  
ak, Euskal Herri guzira (?) txit zabaldu izan ziren. Biek asmo berea [*sic*,  
bera] zuten: Jesusen Nekaldirako jaiera herrietan gehitu. Hartarako, Jain-  
ko-Nekaldia, antzerkian bezala, antzezten zuten, Aste Santuko egunetan  
batez ere, gainontzean urteko beste elizkizun jendetsuetan ere bai.<sup>[129]</sup>

Gaur eguntxe ere ikus dezakezu, irakurle, nolatsu egin ohi ziren an-  
tzezketa hoiak. Zarautz eta Tolosako frantziskotarren bi elizetan hilero-  
hilero berritzen baitituzte hirugarrengoez, oraindik ere. Errosario santua  
asitzen [*sic*, hasten] denean, 7 gizon itzaleko irteten dira habitu beltzez

<sup>54</sup> [A.t.a.: *jakin-liperrak* – *gorantzi-liperrak*].

<sup>55</sup> [A.t.a.: *emaitza-agiriak* - *oinordekoak*].

[ABB-k honetara transkribatu zuen: “emaitzak (oinordekoak, agiriak)”; ‘emaitza-agi-  
riak’ nahiz ‘oinordekoak’ soilik dela uste dut irakurketa zuzena].

<sup>56</sup> *Euskalerrriaren Yakintza*. Lenengo liburua: oitura eta sineskeriak. Hileta hitzean. Pg.  
234, 11garren zenbakian.

[Espasa-Calpe, 1935; Azkuek, bere aldetik, Henaoren *Averiguaciones de las Antigüedades de Cantabria*, 1. ed., 343. or.-tik hartua du informazioa, oin-oharrean aitortzen duenez].

<sup>57</sup> Lizarralde. *Andra-Mari de Vizcaya*. Pg. 119).

[Ik. Prologoaren ondorengo Bibliografia-n liburuaren datu bibliografiko guztiak].

[<sup>129</sup>] Lizarralderen *Andra Mari de Guipúzcoa* liburua baliatu zuen hemen Mi- | txelenak (ik. “La Virgen en la Pasión del Señor” (199-219 or.; bereziki 206. or.).

jantzita eliza erdira, bakoitzak beren Pasio-tresnak dituztela. Beren tokira joanda, batek “Ecce homo”rena egingo dizu kainabera eskuan eta buruan arantzazko koroia duela. Bestea, apal eta buru-makur, pilareari eskuak sokaz lotuta dagozu, Jesusen zigorkadak gogorazten. Hirugarrena, besoak gurutze zuti batean jarrita, Gurutziltzatuarena egiten. Bitartean, beste bi gurutze bana bizkarrean hartuta, parez pare joanetorri bat egiten dabiltz, hiru horien ondotik, geldi eta itun, elizaren luzeeran...

Joan-etorria bukatutakoan, txanda uzten die beste biri. Aldare nagusi aurrean belauniko, gurutzea eta arantza-koroia, txandakoei uztean, munkatu egiten dituzte, eta azkenik lurra... Eta han diraute ahuspez, Errosarioa esaten, hurrengo aldira arte, bi gurutzedunak bira eginda datozen arte. Hunkigarria, benetan, gure aitona gurgarrien antzezketak, begira dagoen jendeak Errosario zaharra ari bitarte osoan!

Horixe bera izaten zen Arantzazuko gau-bijilia. Horixe bera, mamiz, gutxi gorabehera, Arantzazura bideko “kalbarioa”.

### **Frantziskotarren kalbariotasuna, herriari itsatsi...**

1514garren urtean egin zen Arantzazu frantziskotar, fraide-etxe. Frantziskotar dioenak, Albernia-ko “bigarren Kristo” zaurituaren jarraitzaile dio.<sup>[130]</sup> San Frantziskori jarraitu eta Jesu Kristori jarraitu, helburu biak bat dira; San Frantziskok ez baitzuen beste asmorik izan Seme nekaldua bere baitan antzeztu baino. Horixe da, beste ezer baino, frantziskotarren gogaikizun berezia: Jesusen Pasioa.

Benetako frantziskotarren gogaia, gure herriak haiek irakatsita nahi izan zuena bera da: gure Aita San Ignazioarekin esango dut: hots, “oinazea Kristo oinazetuarekin, nekea (*quebranto?*) Kristo nekaldua-ekin, malkoak eta bihotz-mina Kristo nigatik hainbat minduarekin”.<sup>58</sup>

---

<sup>58</sup> “... dolor con Xto doloroso, quebranto con Xto quebrantado, lágrimas y pena interna de tanta pena que Christo pasó por mí” (*Ejercicios de San Ignacio*. 3ª semana: La Pasión de Cristo. Pg 203).

---

<sup>[130]</sup> Italiako La Verna (Alverna) mendian hartu bide zituen San Frantzisko | Asiskoak Jesu Kristoren bost zauriak bere gorputzean.

## Arantzazu euskal Kalbario!

Frantziskotarrek, Arantzazun sartu orduko, Jesu Kristoren “qui vult venire...” Euskal Herriari aldarrikatzean, Arantzazura hotsegiten zuten: Jesusganatu nahi duenak uka dezala bere burua, hartu dezala bere gurutzea eta datorrela Arantzazura...

Eta Arantzazura jo zuten, haien esanera, Euskal Herriko penitentzi-bideek. Arantzazun elkartu ziren, eta gurendu! Ordura arte beren herrietako mendi-ermitatxotara kalbarioa egiten zuten lau probintziek, Alohñako Kalbario nagusira zuzendu zuten gurutze-bidea, oinazez eta fedez, Eroskunde bila... Ordura arte sorterrietako Kalbariotan bakarrik kantatu izan ziren Pasio-kantak Arantzazura bidean abestuko dira gerora.<sup>[131]</sup>

## Euskal Herri osoaren opalmahaia

Nafar eta Frantzia aldekoentzat han zegoen Urbiaren gain Burdinkruz, hara ezkerreko begiz jotzen zen Arantzazurako mugarri: handik barrena ekarriko zuten Arantzazura, beren nekaldia, gizaldietan, nafarrek eta frantsesek. Han zegoen, hegoaldean, Elgea mendiaren gailen, Zurkruz, arabarrentzat. Sartaldean, aldiz, Oñati aldetik Arrikruz, Gezaltzan, Giputz eta bizkaitarrentzat. Urrexola, San Adrian, Artia-gaina, Katabera!: lau aldetatik lau bide ditu Arantzazuk, erromes neke-zaleen odol-urratsak irekita, lau probintzien kristau nekaldia bereganatzeko.<sup>[132]</sup>

## Erromesak nola joaten ziren. Kondairak lekuko

Gurutze astuna bizkarrean dutela [*sic*, zutela] igotzen ziren gehienetan erromesak. Gurutzea ez bazen, burdin kateak (izaten ziren) oinetatik

<sup>[131]</sup> Horrelakoen bilduma modukoa dirudi Mitxelenak berak Arantzazu auzoko Josefa Ollakindearengandik jaso zuena, “Lagunak lagun kanta dezagun” hasten dena eta Mitxelenak “Gau-bijilitako kalbario-puxkak = Via Crucis” izendatu zuena (ik. REA/JK, 80. or.).

<sup>[132]</sup> L. Villasantek, Mitxelenaren *Ama-Semeak Arantzazuko kondairan* liburu-

az ari delarik, zera dio: “Zurkruz eta Burdinkruz nun dauden kokatuak ez du zuzen jartzen (52. or.)” (“Ama-Semeak”, in: Zenbait, *Salbatore Mitxelena* (Jakin sorta, 2), Editorial Franciscana Arantzazu, 1970, 74. or.). Seguru asko Salbatoreri ez zitzaion asko axola arazo topografikoa; ideiak zuen kontua, hiru gurutzeen istorioa zerabilenean.

narras, edo soka bat bular lotuari arnasa larritzeko, edo haltzairu-uztaiak galtzarpean eta belaunetan pausoa baldartu eta nekarazteko. Konpostelara zihoazenak bezala egun luzeetan ibili baino nahiago zuen gure erromesak bat edo bi eguneko “Eskala Santa” easangarrían [sic, erasangarrían?] laztasun hartu-ahalak hartu.<sup>59</sup>

“Kurtzipizio-gaina”, Arantzazu-gaineko “humilladero” ari, apalategi-ari esaten zaio. Hango “Aita Gurutzekoari” *ni bekataria* ahuspez erre-zatu ondoren, belaungorritan, belauniko, jaitsi eta bukatzen zen elizarakoa, ordura arteko nekaldia are gehigotuz... Ez dizut aipatu gabe utzi nahi, 1686garren urtean Luzuriaga edeslariak idatzia: “Erromes-oste hau, ordea, ez uste nahasian eta zabarkiro doala, kristaukiro eta erabe baizik, zeinek baino zeinek laztasun handiagoak eramanez. Sar-goripean kiskaltzen legoa askotako bidean batzuk. Oinutsik bestek, harkaitz eta larretan zehar... Baraurik bestetzuk, jaunartzeko. Asko, ber-ritz, bidaldiko tarte bat eta bestean soina zigorkatuz...”<sup>60</sup>

### San Ignazio, eredu

Aita San Ignazio dugu Arantzazuko erromes gurena. “Soina zigorka-tuz...” hori Luzuriagak idatzi baino ehunki oso bat lehenago, euskal-dunetan euskaldunenak, Iñigo santu-minduak, Loiolatik irtenda Aran-tzazura erromes ekin zioneko egunean (1521) hasi zuen, gero huts egin gabe jarraituko zuen ohitura hori, soina zigorkatze hori. Iñigo zaldu-nak, Loiolan santu egiten hasi-berriko hartan, Frantzisko eta Domingo dohatsuak jarrai-minez begiratzean, ez omen zituen lehiatzen haien

---

<sup>59</sup> “Para él [erromesarentzat] la subida a Arantzazu equivale a una escala santa donde practicar el ejercicio de la Cruz”. P. Lizarralde, *Historia de Arantzazu*, cap. VIII, pg. 167).

[Aipu hau osatu gabe utzi zuen autoreak eskuizkribuan; ABB-ren editoreek osatu zuten; bertatik hartu dut].

<sup>60</sup> [“(La cita y el texto castellano)” dago idatzita puntu honetan, eskuizkribuan. ABB-ren editoreek osatu zuten aipu hau, eta bertatik hartu dut: “Esta multitud devota, no va a su peregrinación en confuso tropel, y desorden de costumbres, sino tan modesta y religiosamente edificativa, que todos en emulación santa, hazen estudio de mortificaciones diversas. Unos a pie por espacio de muchas leguas, sufren el peso de los bochornos y calores. Otros descalzos por pedregales y breñas... Otros ayunos, para llegar dispuestos a recibir la Sagrada Comunión. Muchos por largos trechos, caminan disciplinándose”. P. Luzuriaga, *Paraninfo celeste*, lib. 2, cap. XIV].



otxantasuna, xamurtasuna edo dinamismoa; baizik haien penitentzia, txirotasuna, haien “disziplinak” eta barauak.<sup>[133]</sup> 61

Aita San Ignazio buru dugula, gure Erdi Aro neketsutik jaiotako herria ere, orduan, hala zen: bekatari beharbada, baina penitentzi zalea batez ere, kristau kalbarioaren balioa zekiena.<sup>62</sup>

Herri batek lezakeen santu-mailarik gorengoena iritsi zuen gureak, Arantzazura erromes, oinaze-maitasunaren errotasunez [?], bere buruaren ukapenez, Loiolako lehen semearekin. “Norbere burua ukatzeak meritu gehiago du –esango zuen gerora San Ignaziok–, hilak pizteak baino”.

Loiolako jauregian hasi eta bildu zituen Iñigok bere geroko “Ejertziziotarako” lehen apurñoak. Loiolan batez ere bizi eta senti izan zituen, Jainkoagana igotzeko gero liburu hartan azalduko zituenak (Leturia). Bada, “Ariketa” horietako helburua eta eginkizuna ez omen da besterik: Kristo begiratu eta maite izan, Hura sufritzen ikusi eta Berarekin eta Beragatik sufritu nahi izan.<sup>63</sup>

<sup>61</sup> (Cfr. Leturia. Pg. 150).

[Pedro Leturiaren *Apuntes ignacianos, a propósito de una amigable polémica con Don José María Salaverría* ari ote da aipatzen hemen? Ik. BIBLIOGRAFIA, 38. or.].

<sup>62</sup> (Cfr. *Andra Mari de Guipúzcoa. La Virgen de Aránzazu: el bagaje ideológico del euskera medieval: el problema del mal, el misterio del pecado, valor expiatorio de la penitencia*”, pg. ).

[ABB-ren editoreek osatu eta zerbait zuzendu egin zuten aipua hori, testu barruan bertan: “La Virgen de Aránzazu: *el bagaje ideológico que entraña nuestra lengua milenaria*, el problema del mal, el misterio del pecado, el valor expiatorio de la penitencia, pg. 93”. Honetara dago, egon ere, jatorrizkoan. Hemen oharrera ekarri dut aipua].

<sup>63</sup> “Ver a Cristo y amarle; verle sufrir y querer sufrir con El y por El es lo mismo, y tal es el objeto que se propone la práctica perfecta de los Ejercicios” (Papini, *Los operarios de la viña*. San Ignacio de Loyola, pg. 73).

<sup>[133]</sup> Honetara irudikatu zituen Mitxelenak Arantzazuko erromesak 1943an:

“Zeuk, Birjin orrek autu zenigun  
gure Kalbario leku,  
euskal gizaldi etengabeak,  
Iñigo degula buru,  
burni lazgarriz, gurutzez, nekez...

Igo ta igo gatozkizu.  
Euskal nekaldi onen Amatzat  
zaude, bai, or *Arantzan zu!*

(“Guruzbidea”, in: *Idazlan guztiak-I*, 92. or); ibid., *Euskal samiñaren guruzbidea* idatzian, 104. or., “zirgilu latzez, gurutzez, katez” doaz erromes horiek).

### **Ama Doloretakoak erakutsi Semearen minak erruki izaten**

Horixe bera zela frogatzen digu III. kanta zahar honek, Euskal Herri erromesaren asmoa eta lehia Arantzazurakoan: Ama-Semeen minak bereganatu, Ama-Semeen nekaldiari berea eratziki; Ama-Semeekin oinazez bat eginda elkarren bidelagun kalbarioan jarrai...

Ez Jesusekin bakarrik; Ama-Semeekin, biekin... –dio beti kanta zaharrak—. Hala nahi du Ama Agredakoak, Arantzazuko gau-bijilian irakurri ohi ziren liburuetan. Honek esan gabe ere, bi gizaldiz aurretik ikusten dugu euskal sinesmena Semearenaz batera Amaren nekaldia errukitzen. Gaizki diot: batera; Semearenari baino lehen errukia izan zion gure fedea Ama “Piel”aren (Piedadekoaren) atsekabeari. Ama Doloretakoak besotan edo magalean erakutsi zigunean, orduan kupida hasi genion Seme Doloretakoari: hau da, Arantzazun Ama Birjina, eta Ama Birjinarekin frantziskotarrak agertu zirenean, ikasi genuen Jesus saminduari jarraitzen.<sup>64</sup>

### **Eta Andre Maria “Ama Birjina” egiten da**

Hona hemen, bada, euskaldunak bere duen oinaze-zalea kristautua, kalbario-opari bihurtua<sup>65</sup>. Arantzazu dugu, beraz, Euskal Kalbario. He-

---

[Bibl. erref. osatuz: Giovanni Papini, *Los operarios de la viña* (Trad. Balbino Santos Oliveira), Madrid: Edit. Fax, 1942 (Gaztelaniazko I. edizioa, Madrid, Edit. Voluntad, 1930). (“San Ignacio de Loyola” liburuko kapituluetakoa bat da)].

<sup>64</sup> “(A Cristo paciente se le lloró en nuestro pueblo cuando la Mater Dolorosa nos lo mostró, esto es (?), un siglo más tarde: último tercio del siglo XV, (Len esana gezurra) *Andra Mari de Guipuzkoa*. La Pasion (?).”

[Ohar hori horrelaxe dago eskuizkribuan, galdera-zeinu eta guzti. Baina aipatzen duen liburu horretako kapituluaren ez dut aurkitu esaldiaren lehen parte; hitzez hitz behintzat ez; horko ideia, bai, aurki daiteke liburuko “La Virgen en la Pasión del Señor” kapituluaren (199-219 or.), batez ere 210.etik aurrera. Mitxelena konturatu egin zen nonbait hemengo ideia hau lehenago esandakoaren kontra edo zegoela, eta horregatik hemengo galdera: “len esana gezurra”. ABB-ren editoreek esaldi osoa kanpoan utzi zuten.

<sup>65</sup> “(nota de los ritos funerarios)”...

[Parentesi arteko hau eskuizkribuan ageri da, lerroan tartekatuta. Jakin ez, beste zein oharretara bidali nahi duen irakurlea. Agian horrexegatik ABB-ren editoreek kendu egin zuten parentesi artekoa osorik. Dena dela, eskuizkribuko aparteko oharren artean honako testu hau dago, hemengo gaiari oso lotua, zalantzarik gabe: “Odol-isurtzeak ez zituen kokiltzen gure arbasoak, gu bezala. Irakurri besterik ez dugu Garibay “Compendio...”-an hamaseigarrenko gizaldian bertan, hiletak zirela

men merezi izan zuen Euskal Herriak, Ama-Semeen Nekaldiarekin bat eginez, Andre Mariaren Seme izatea, Erdi Aroko Andre Maria bere “Ama Birjina” bihurtzea, bilakatzea. Ama Birjinaren Seme eta Jesusen anaia egin zen Euskal Herri fedetsua Arantzazuko Kalbario Mendian.<sup>[134]</sup>

### Arantzazuko Amaren eskaria lortua

“Ermitatxo bat eidazu eta – nerea izango zara zu” hamabosgarren gizalditik kanta izan du gure Herriak, Arantzazuko gau-bijilietan, Amaren eskari-eskainia.<sup>[135]</sup> Bai ederki zertu ere Kristo oinazetuaren Gorpuzgintza, Kristoren elizagintza, euskal kalbarioaren bitartez!

### Ama Birjinaren seme, Jesusen anaia

Santo Kristo dago Aizkorri gaineko ermitan. “Horra hor zure semea” –esaten dio Euskal Herriagatik bere hegaleko Arantzazuko Amari. “Horra hor zure Ama” –esaten digu Arantzazukoagatik.

---

eta, erostariak (“plañiderak”) egin ohi zituzten bular-urratze, txima-ateratze ikaragarriak...

Behatz txikerreko “pupua” nahikoa da guretzat, ikarak hartuta mediku eske joateko. Ez haientzat.”

“Oñetako lurra yabilt ikara...”; ikaratu zedila nahi bazuen lurra, haiek ez ziren ez izutuko ez harrituko odol beroa borbor jaurtiagatik... Jentil-arogan hala baziren, erlijioak kristau saminaren balioa erakutsitakoan areago...”

[Garibairen *Compendio historial...* aipaturiko liburuaz ari da, jakina. Ez dut aurkitu zein lekutan diharduen Garibaik gai horri buruz].

---

<sup>[134]</sup> “Kristori guruzkide natzaio” itzultzen du Mitxelenak San Pauloren “Christo confixus sum cruci”. Esaldi horixe (Gal 2, 19) ipini zuen bere *Confixus* idazlanaren buruan (ik. *Idazlan guztiak*-I, a.l., 255. or.). ‘Andre Maria’ – ‘Ama Birjina’ – ‘Birjina’... Mariaren izendapenen eboluzioaz ik. I. Omaetxebarria, “Aránzazu, Santuario mariano del siglo XV, lugar de gracia”, in: *Arantzazu izena*, a.l., 147-151. or.

<sup>[135]</sup> Horrela, hitzez hitz, esapide hori ez dago Arantzazuko Erromantzeetan; horren bigarren partea Mitxelenak berak erantsia da nonbait, eta oso gogokoa izango du. Dena dela, horko ideia aurki daiteke agian nolabait erromantzeetan, honetara adierazita edo:

Ama onaren semerik asko(k)  
han izango du ostatu,  
han izango du ostatu eta  
bai sarri kaliza altxatu.

Bai, Arantzazuko Andre Mariak seme gaitu. Irudi beltzeranaren sekulako irribarrean irakurtzen dugu bere Amatasunaren baietza:

Ene Euskalerra, ene Erri maite:  
Nere-nerea zera zu!  
Miñak maitatzen dakizulako  
Miña poz biurtu zaizu.  
Ermitatxoa ein didazunez,  
seme zaitut, Ama nazu!<sup>[136]</sup>

### Gurutze-bide ondoko Pizkunde-poza

Mina poz bihurtu... Hain zuzen ere. Kristau oinazea ez da azken muga. Kristau oinazeak zerua nahi du ondore eta sari. Guruzpideak “hamabosgarren pausua” eskatzen du: Berpizkundera! Horregatik, Arantzazura bideko kanta zaharrak, gurutze-bide ondoren Ama “urre-siloian” begiratzean, zeru-atseginetan liluratuta uzten digu euskal erro-mesa. Jainko-graziaren poza eta zerua eskaintzen dio kanta zaharrak Euskal Herri gurutzedunari, bukaeran:

Jo, bai, jo Gurutze-bide ondorengo Pazko-kanpaiak, Lekarozko neskatxok: zabaldu, Aste Santua kalbariotan eman duten euskal bihotzetara Berpizkundearen poza! Alleluya!<sup>66</sup>

---

<sup>66</sup> “Muy de mañana, a las dos o tres de la madrugada, según la antigua costumbre, las jóvenes salían a hacer el Vía-Crucis por las calles del pueblo (Lekarotz). Arrojan flores sobre las cruces con la particularidad de que en la XIª estación solo eran así honradas la de Cristo y la del Buen Ladrón: la que representaba al malo era apedreada. Terminado el Vía-Crucis, se cantaban los versos pascuales que acabáis de oír (“Nere kristau maitiak!!...”) y subían las jóvenes a la torre de la iglesia a repicar las campanas, anunciando la festividad”. (Crónica del IV Congreso nacional de Música Sagrada. Conferencia del P. Donosti. Pg. 252).

[Badirudi orrialdea gaizki dagoela. Mitxelenak bere eskuz kopiatu zuen REA/ JK koadernoan (82-83 or.) A. Donostiak Kongresuko hitzaldian tartekaturiko elkarrizketa adierazgarria, honako sarrera honekin: “Incluye el P. Donosti en la misma conferencia una poesía –¿popular con todas sus estrofas?– en que dialogan Santa Magdalena y un personaje que parece ser el diablo, sobre la Pasión y Resurrección de Cristo. Es como sigue:” –*Zeren billa zabiltza / Andre Madalena?*. etab.]

---

<sup>[136]</sup> Olerki zati hau Mitxelenak berak | Zaharretakoa. Bere *Poema*-n ageri da, sortua da; ez da Arantzazuko Kanta | zerbait osatua (AEP-2, 180. or.).

Eta zuk, Ama, Arantzazurako Nekaldian bidelagun izan gaituzun bezala, har gaitzazu zure altzoan euskaldun denak Jesusen anaia.

Negar-erbestea amaitu ondoren  
Zure magalean Jesusekin atsedent!:  
Beste pozik, Ama! ez degu eskatzen.

La Aguilera  
14-XII-1944

### III. KANTAREN ALDAKUNTZAK<sup>[137]</sup>

Hona hemen poema ederra Arantzazuko erromeriari buruz. Euskal kristautasunaren sakona eta egia barrundu nahi duenak, herri-poema honen barne-muinetara jo zuzen. Itsaspean txirlarria bezala, ahapaldi xotil hauen kolko ondorik gabean taupaka dago, sumatzen da, gure herriaren santutasun distiratsua.

Luzatu ez nadin, gorazarrez ez dizut hitzik ere esango. Bere ederra zerorrek txuka ezazu. Herri-literatura irakurtzen dakienak, berehala atzemango du “poesia” honen goitasuna.

Ez uste, osorik harildu izan duela kanta hau herriak, hasi eta bukatzeraino. Herriaren kantatzeari gaudela, hemen bi “erromantze” daude eta zenbait estrofa bakarrezko. 9garren ahapalditik 16 garrenerakoa da erromantze bat. Bestea: 18garrenetik 21garrenerakoa. Gainontzeko

---

<sup>[137]</sup> III. kapituluaren bigarren zati hau askoz beranduago landu zuen; 1954an Ameriketara joan ondoren? (ik. Prologoa, 22. or.). Horren adierazgarri izan daiteke 19. ataltxoari buruzko oharra,

J. A. Lizarralderen *Historia de la Virgen y del Santuario de Aránzazu*, 1950ean argitaratua, aipatzen baitu bertan. Dena dela, horren jatorrizko testua ezaguna zuen Mitxelenak, argitaratu aurretik ere.

puxkak, hor dauden baino luzeago koplatzen dira batzuetan, bestetan bakarka, gehienetan beste kantekin nahasian.<sup>67</sup>

Denak edo ia denak batasunera ekartzean, egindako aldakuntzak, eskubidezkoak direnez, txintxo-txintxo aitortuko dizkizut, ahapaldiz-ahapaldi azalgarriak argitaratzen nindoala.<sup>[138]</sup>

### 1: Oinutsik eta oinazez: oñutsik eta dolorez.

Arantzazura joan bear dogu  
Gabaz edo egunez.  
Etxekoandreari eskatu deustat;  
Etxeko andriak agindu ez.  
Birjiña Ama onen borondatea bada  
Bitartekorik bear ez.<sup>[139]</sup>

<sup>67</sup> Begira: Azkue-ren “Cancionero popular vasco”. Tomo VIII, pg. 747. Tomo X, pgs: 924, 948, 989, 991... Artxiboko bilduman: pgs.: 25, 26, 37, 39; 45, 55, 123, 124... Lekuona-tar Imanol-en “Literatura oral euskérica” pg...??? 1933-ko Argiaren egutegian, pg... ??? Lizarralderen Andra-Mari de Guipúzcoa”, pg... ??? Anuario Euzko-folklore. 1921, pg. 69. Ta abar...

[Horrela utzi zuen osatu gabe oin-oharra autoreak. ABB-k kendu egin zuen erabat. Hemen osatu nahi izan dut, iturrien edizio berriagoak ere ekarriz:

1) *Cancionero popular vasco* (CPV, 1968ko edizioa, II. tomoa):

— VIII, 25-260 (747. or.): “Birjiña Amaren bezpera da ta”.

— X, 1-806: “Agostuaren amaboskarren” (924. or.); X, 15-820: “Arantzazura egin dut promes” (946-949 or.); X, 44-849: “Izar ederrak argi egiten dau” (988-990 or.); X, 46-851: “Izar ederrak argi egiten dau” (991-992 or.).

2) *Arantzazuko Bilduma* (REA/JK): “Egune zala ta egune zala” (25. or.); “Mundu yonetan gura dauenak” (26. or.); “Arantzazura egin det promes” (37-38 or.); “Arantzazura egin dut promes” (39. or.); “Izar ederrak argi eiten dau” (45. or.); “Izar eder bat argitu zala” (55. or.); “Virginia Amaren eguna da ta” (123. or.); “Ama Birjiña eguna da ta” (124. or.).

3) M. Lekuona, *Literatura oral euskérica*, Donostia: Euskalzaleak, 1935. 3. ed. 1968an: *Literatura oral vasca*, in: *Idaz-lan guztiak. 1. Aozko literatura* [Kardaberaz bilduma, 22], Tolosa: Librería Técnica de Difusión, 1978, 289-290 or. “Ama Birjiña eguna da ta”, in: *Argiaren Egutegia*-n (1933).

4) J. A. Lizarralde, *Andra Mari de Guipúzcoa*, o.c., 207. or.: “Pausu santuak ongi kontatzen”. (Beste erromantzerik ez dakar liburu horretan)].

<sup>[138]</sup> “(han bezala)” dio puntu honetan. Jakin ez nola ulertu... Erromantze txukunduko ahapaldi-zenbakiei jarraituz?

<sup>[139]</sup> Ahapaldi hau REA/JK-tik hartuta dago (39. or.). Autoreak ez du esaten eta ez dakigu zertara datorren koplak hau

**2: Arantzazuko Andre Maria...:**

Ama-Birjiña Arantzazuko <sup>[140]</sup>  
askoren debota maitea  
aretxek estimatzen dau  
erromeriyen joaitia.

**3: Arantzazura abiatzean...:**

Arantzazura ninjoanean  
e'nun besterik goguan:  
nola juan ta nola etorri  
kristau fidelen moduan.

**4 eta 5: Pauso santuak kontatutzean...:**

Pauso santuak (ongi) kontatzen  
mundu onetan lenena (aurrena)  
Ama-Birjiña (bera) izan zen  
il-ezkeroztik Seme ona.

Dudarik gabe egia dela  
nai duzu klaridadea?  
Ama Maria Agredakoak  
emanen dizu fedea.

Hau, berez, kalbario-kanta da, baina Arantzazura bidean ere kantatua. Askok, berez Arantzazukoa bailitzan kantatzen dute. Ez, noski, Teresa de Jesús de Agredak han koadro bat bazuelako bakarrik. Ezta ere Arantzazuko gau-bijilitan haren liburuak irakurtzen zirelako bakarrik. Baizik, Arantzazura “oinutsik eta dolorez” joatea “Escala Santa”tzat zeukatelako.<sup>[141]</sup>

---

hona ekartzea, kontraposizioz ez baldin bada; izan ere, ez dirudi zer ikusirik duenik horrek “oinutsik eta dolorez” igotzen den Arantzazuko erromesarekin. J. A. Lizarralderen interpretazioaren arabera, herriko taldean Arantzazura joateko irrikaz dagoen neskamearen kanta da; pozik, azkenean etxeakoandreaken baimena lortu duelako.

<sup>[140]</sup> Ondorengo 2-5 atalen iturriak: 2 REA/JK, 36. or.; 3. REA/JK, 36 or.; 4-5. REA/JK, 41. or. (CPV, X, 38-843, 983. or.).

<sup>[141]</sup> “Escala Santa”-ri buruz geroago zer-bait. Oraingoz ohartxo hauxe: Arantzazura bidean erromesek kantatzen zuten seinalerik ez da ageri erromantzeetan behintzat; bai Arantzazuko gaubeila edo

## 6: Birjiña Amaren bezpera da ta

Birjiña Amaren bezpera da-ta  
goazen Arantzazura,  
Santa Luziren begi ederrak  
argi egiten digula.  
Arantzazura bidea luze,  
ara orduko nekatu;  
Birjiña Ama ta bere Semea  
bidean ditut topatu...<sup>[142]</sup>

(Lekeitio. Krisostoma Bengoetxea  
(Azk. Tomo VIII. Pg. 747)

Arantzazura bidea luze;<sup>[143]</sup>  
ara orduko illuna.  
Santa Luzian begi ederrak  
argi egiten digula  
goazen Arantzazura eta  
gabon Jainkoak deigula.  
Izar eder bat... etc.

(Josepa Auzmendi.  
Echarri. *Bilduma*: pg. 37)

---

“gau-bijilietan” kantatzen zutela. Dena dela, guztiz bidezkoa da erromesak kantuan irudikatzea, beren bide luzean.

<sup>[142]</sup> Aldaera honetan trukatuta bezala dago “bide luzearen” eta “begi ederren” ideien ordena. Honetara da erromantze-aldara osorik, Azkuek berak egindako hitzen batzuen aldaketa eta guzti (CPV, VIII, 25-620, 747-748 or.):

Birjiña Amaren bezpera da-ta  
goazen Arantzazura,  
Santa Luziren begi ederrak  
argi egiten digula.

Arantzazura bidea luze,  
ara orduko nekatu;  
Birjiña Ama ta bere Semea  
bidean ditut topatu.

Burubideon bat eman zidaten  
Ama-semeen artean,  
ona ta apala izan nendilla  
munduan nintzan artean.

Ai artzaintxoa, ai artzaintxoa,  
nere esan bat egizu:  
Ait'ori ere zurgina da ta  
onera bidal ezazu.

<sup>[143]</sup> Hemengo informatzailearen izena gaizki irakurri zuten ABB-ren editoreek: Auzemendi, Auzmendi-ren orde. Bestalde, Mitxelenak dakarren aipu hau ez dago berdin-berdin iturri horretan; jatorrizkoaren bigarren ahapaldiaren lehen lerroaren orde edo, beste bi lerro sartu ditu, agian lehenengo ahapaldiaren eta bigarrena-



Beste era:

Arantzazura bidea luze  
gainera aldatz-goria

17garren ahapaldian sartzen dut.

Santa Luziak begi ederrez  
argi egiten digula

kanta zidan Etxarri-Aranazko amona batek.<sup>[144]</sup>

Altsasu ondoan, “Gaizto-larre” esaten dioten zelai batean bazen, antzina, ermita bat Santa Luziarena. Martiri honek, atera zizkieten bi begiak izlau (bandeja) batean erakutsi ohi ditu, irudi gehienetan. Ederrak ez ezik distiratsuak behar zuten izan begi haiek, gauean bidaztiari argi egin ahal izateko. Jatorriz, puxketa hau amorio-kantaren bat ez ote? Hemen hasten da “erromantze” bat, bikaina gero, euskal literaturaren ederrenetakoa.<sup>[145]</sup>

ren arteko lotura egitearren –Omae-  
txebarriak ere hutsuneren bat nabaritu  
zuen nonbait horretan, eta REA/JK-  
ko eskuizkribuan (37. or.) puntuzko  
lerroak idatzi zituen tartean, lerroen  
bat falta zela adierazi nahian edo, eta  
ahapaldiko azken lerroa parentesi ar-  
tean sartu zuen, lekuz kanpokotzat joz  
nonbait–. Honetara lirareke, beraz,  
erromantzearen lehen hiru ahapaldiak,  
bi lerroak tartekatu ondoren:

Arantzazura egin det promes  
Ero gau ero egunez,  
Ero gau ero egunez  
Oñutsetan ta dolorez.

Goazen Arantzazura  
[Arantzazura bidea luze;  
Ara orduko illuna]  
Santa Luziaren begi ederrak  
Argi egiten digula.  
(Gau on Jaungoikoak digula.)

Izar eder bat ateratzen da  
Urtian egun batean,

Urtean egun batean eta  
Gure San Joan goizean.

<sup>[144]</sup> Forma horixe da, hain zuzen ere,  
goraxeago berak ekarri duena, Etxarri-  
Aranazko Josefa Auzmendirena.

<sup>[145]</sup> Santa Luziaren begi ederrena Aran-  
tzazuko Balada eta Kanta Zaharren Bil-  
dumako zazpi bat erromantze-aldaeratan  
ageri da, testuinguru ezberdin samarre-  
tan, edo atzetik eta aurretik gai ezber-  
dinetako ahapaldiak dituela. Hona he-  
men egindako bilketa osoa:

a) REA/JK, 37-38. or. (A-B zut.)

Arantzazura egin det promes  
Ero gau ero egunez,  
Ero gau ero egunez  
Oñutsetan ta dolorez.

Goazen Arantzazura  
Santa Luziaren begi ederrak  
Argi egiten digula.  
Gau on Jaungoikoak digula.

## 7: Zeru altuan bide erakusten...:

a) Izar ederrak argi eiten dau  
zeru altuan bakarrik;  
eta eztaikit [bertan] jayo dan bertan<sup>[146]</sup>  
ala datorren zerutik.

(Azkue, p. 991)<sup>[147]</sup>

*b) JK-REA, 43. or. (2)*

Birjina Amaren bezpera da ta  
goazen Arantzazura.  
Arantzazura bidea luze  
ara orduko illuna,  
Santa Luziren begi ederrak  
argi egiten digula.

*c) Aitzolen Biduma (EERV, 680. or.)*

Birjina Amaren bezpera da-ta  
goazen Arantzazura,  
Santa Luzian begi ederrak  
argi egiten digula.

Izar eder bat ateratzen du  
urtean egun batean,  
urtean egun batean eta  
hura San Juan goizean.

*d) REA/JK, 40. or.*

Birjina Amaren bezpera da-ta  
goazen Arantzazura  
Santa Luziren begi ederrak  
argi egiten digula.

*e) CPV, X, 24-829, 961-962 or.)*

Birjina Amaren bezpera da-ta  
goazen Arantzazura,  
Santa Luziren begi ederrak  
argi egiten digula.

Arantzazura bidea luze  
ara orduko kantsatu,  
Birjina Ama ta bere Semea  
bidean ditut opatu.

*f) CPV, VIII, 25-620 (747-748 or.)*

Birjiña Amaren bezpera da-ta  
goazen Arantzazura,  
Santa Luziren begi ederrak  
argi egiten digula.

Arantzazura bidea luze,  
ara orduko nekatu;  
Birjiña Ama ta bere Semea  
bidean ditut topatu.

*g) OEA (17. dok.)*

Birjiña Amaren bezpera da-ta  
goazen Arantzazura...  
(Arantzazura bidea luze,  
ara orduko illuna,  
Santa Luziren begi ederrak  
argi egiten digula)

Arantzazura egin det promes  
edo gau edo egunez,  
edo gau edo egunez eta  
oiñutzean ta dolarez.

<sup>[146]</sup> Lerro honetako aurreneko ‘bertan’ hitza kortxeteen artean idatzi dut, oker dagoelako; jatorrizkoan ez da ageri; REA/JK koadernoko eskuizkribuaren transkripzio-okerra da seguruenik; horregatik ABB-ren editoreek ere kendu egin zuten.

<sup>[147]</sup> Honetara litzateke erreferentzia bibliografikoa osorik: CPV, X, 46-851, 991. or.).

b) Izar eder bat argi egiten  
zeru altuan bakarrik;  
eta ez dakit bertan jayo den... etc.<sup>[148]</sup>

c) Izar ederrak argi egiten dau  
zeru altuan bakarrik.  
Ezta bakarrik, lagunak ditu  
Jaun zerukoak emanik.<sup>[149]</sup>

(Azkue. Pgs. 989, 990)<sup>[150]</sup>

### 8: Eguna zala...:

Egune zala, egune zala,  
bart idargie zanian,  
(bart gaberdie zanian)  
egunerako allegau nitzan  
zazpi legue bidian.

<sup>[148]</sup> R. M. Azkueren *Cancionero popular vasco* (CPV) obran hiru erroman-tze-aldaera daude, “Izar ederrak argi egiten dau” hasten direnak bata bestearen ondoren, CPV, X, 988-991 or.: 44/849, 45/850 eta 46/851. Lehen bien hasierako ahapaldiak berdin-berdinak dira; hirugarrena zerbait ezberdina. Mitxelenak kopia duen bigarrena ez dago guztiz zehatz aipatua. Hona hemen CPV-ko horien lehen ahapaldiak, urrenez urren:

1.- (989. or.)  
Izar ederrak argi egiten dau  
zeru altuan bakarrik;  
ezta bakarrik, lagunak ditu  
Jaun zerukoak emanik.

(*Gabikako Bibiana Gerrika-Etxebarria*,  
6 ahapaldi)

2.- (990. or.)  
Izar ederrak argi egiten dau  
zeru altuan bakarrik.

Ezta bakarrik, lagunak ditu,  
Jaun zerukoak emanik.

(*Amorebietako Luzia Esankona?*,  
8 ahapaldi)

3.- (991. or.)  
Izar ederrak argi eiten dau  
zeru altuan bakarrik  
eta eztakit jaio dan bertan  
ala datorren zerutik.

(*Aramaioiko Bizenta Pujana*,  
3 ahapaldi)

<sup>[149]</sup> Mitxelenak bere *Poema*-n beste honetara moldatu zuen “Izar eder...” kanta hau (AEP-2, 57-58 or.).

Mendi-gañean izar eder bat  
argi egiten, bakarrik;  
eta eztakit bertan jaio den  
ala datorren zerutik.

<sup>[150]</sup> Honetara lirateke erreferentzia bibliografikoak osorik: CPV, X, 44/849 (988-989 or.); CPV, X, 45/850 (990. or.).

Zazpi legue eginda bere  
Arantzazura niñoian.

(*Anuario Eusko-Folklore*. 1921. Pg. 69)<sup>[151]</sup>

**9: ... hura San Joan goizean ...:**

urtian egun batean eta  
Andra-Mari egunian.<sup>[152]</sup>

**10: haren argitan ninjoazula: ... ni joan nintzan.**<sup>[153]</sup>

Arantzazura-ustean = ... bidean

**11: Herriak honela dio:**

Birjiña ama ta bere Semea  
topa nituan parean; (...bidean, batean, bat-batean)  
odola pranko ixuri zuten  
oiñutsetan da lurrean.<sup>[154]</sup>

**13: “topa nituan parean”**

esanda berehala sartzen dute askok hurrengo: “kontseju on bat eman zidaten...”. Hobeto derizkiot nik sartu dudan bezala, aurretik

---

<sup>[151]</sup> Zornotzan jaso zuen Eujenio Larrañagak 4 ahapaldiko aldaera hau eta “Canciones y romances” artikuluan argitaratu (*Anuario de Eusko Folklore*, 1921, 69. or.). [106] oharrean esanda dagoenez, hamar bat kanta-aldaera dago AKDB datu-basean, ahapaldi honekin hasten dena: guztiak berdinak, hitzen baten grafia gorabehera: gauez bidea egiten duen erro-mesa da, ilargiaren argitan. Dena dela, Mitxelenaren erromantze txukundu hau lehen ahapaldi horretan geratzen da 8. ahapaldian, 9.enean ideia berdintsuari baina beste tradizio batekoari heltzeko: San Joan eguneko izarrarenari.

<sup>[152]</sup> San Joan goizekoa hainbat aldaeratan dago; baina “Andre Maria egunean” esamoldea ez dago testu inguru horre-

tan erromantzeetan, izar ederraren agertzearenean, alegia.

<sup>[153]</sup> Zortzi bat aldaeratan ageri da antzeko esamoldea: Gehienetan “(ni) joan nintzan” edo “joan nintzan ni”; baina pluralean ere badago bi aldiz behintzat: “Aren argitan joan ginaden”.

<sup>[154]</sup> “topa(tu) nitun parean (parian)” ez da inolako erromantze-aldaeratan ageri; “topa(u) nituan bidean” sei aldiz behintzat ageri da; “topa(tu) nituan batean”, berriz, ez da inoiz ageri, ezta “bat-batean” ere. Odola isurtzearena erromantze-aldaera bakarrean dator, M. Lekuonak jaso eta argitaraturikoan; honela:

Odola pranko ixuri zuen  
oiñutsetan da lurrian.

betegarri tarteko nere honekin; “nere albotik zijoaztela – Arantzazura bidean”.<sup>[155]</sup>

**14: Kristau nekea maite nezala...:**

Hori ez da herriarena. Zilegi bekit, nerea baino erromes guziena gehiago den ideia hori.<sup>[156]</sup>

**15: ... Zerua irabaztean:**

zeruko tribunalean,  
zeruko tribunalean eta  
Jaungoikoaren aurrean.<sup>[157]</sup>

**16: Beti bakarrik ikusten da, beti umezurtz, bizkaitar estrofa polita.**<sup>[158]</sup> Honela:

Mundu onetan gura dabenak  
Zeruko lorak ikusi,  
Arantzazuko mendixok-gora  
Biar dau bidia ikasi.

<sup>[155]</sup> AKDB datu-basean ikus daitekeenez, “topa(u) nituen bidean” leerroaren ondoren beti dator berehala “kontseju on bat eman zidaten”. Mitxelenak beste bi lerroak erantsi behar izan ditu nonbait, Ama-Semeen arteko elkarrizketa sartu duelako tartean.

<sup>[156]</sup> ABB ediziokoek “berea [herriarena] baño” irakurri zuten; eskuizkribuan argi eta garbi jartzen du “nerea baño”. Hala ere, ez da argi ulertzen zer adierazi nahi duen esaldi horrekin. Izatez, 14. ahapaldiko lehen bi lerroetakoa sarritan ageri da erromantze-aldaeretan; baina ondorengo lau lerrootakorik ez: ez “kristau nekea”, ez “penitentzia”. –Honetaz eztatanda gehiago Epilogoan–.

<sup>[157]</sup> I. Omaetxebarriaren OEA sortako (21. dok.) “Eguna zala ta eguna zala”

aldaeran dago hori (AKDB, 213. erg.). Bestelako formulak ere ageri dira erromantzeen aldaeretan: “eriotzako trantzean”, “emendik nijuanian” “zeruko aingeru artian”, etab.

<sup>[158]</sup> Zer adierazi du Mitxelenak, beti bakarrik ikusten dela esatean? Egia da, “Errodrigotxo Baltzategiko” erromantzearen sarrera gisa edo ageri dela lehen ahapaldi moduan eta lekuz kanpo edo. AKDB-n hiru aldiz ageri da, beti berdina, eta beti “Errodrigotxo Baltzategiko / Birjina bilatzailea / ahuntzaren bila joan zinian / Arantzazuko mendira” ahapaldiaren eta horri darrakion erromantzearen buruan (ik. Juan Carlos Guerra, *Los cantares antiguos del euskera*, San Sebastián, 1924, 182. or.; REA/JK, 26. eta 27. or.).

**17: Zilar labraduz:** zidar ebagiz...

Arantzazura bideko beste kanta baten semea edo senidea da bi puntuko hau. (Cfr... ).<sup>[159]</sup>

**18: Birjina horietan ederrena Zu...**

Birjiñ danetan ederrena da  
Birjiña Arantzazukoa.<sup>[160]</sup>

<sup>[159]</sup> Bigarren kapituluan serora erromesari egokitu dio ahapaldi hau. Mitxelenak hori txukuntzeko zuzenean erabili duen aldaeran bidea da “harri ebakizkoa”, atea “zilar labratuzkoa” den bitartean – Arantzazuko Erromantzeetan ‘zillar’ dago idatzita, ez ‘zidar’-. Dena dela, ‘labradu’ hitza zerura edo paradisura bideko harriari buruz dago bereziki erabiltuta Arantzazuko Erromantzeetan.

Arantzazura bidia luze,  
ganera aldatz gorria,  
arri labraduz egiña dago  
paradisura bidia.

(I. Omaetxebarriaren sorta, OEA, 20.  
dok.; AKDB, 209. erg.)

Giltza, berriz, urre gorrizkoa da; ‘diamantezko’ giltzarenik ez dut inon aurkitu.

Arri ebagiz bidia eta  
zillar labratuz atia,  
zillar labratuz atia eta  
urre gorriz du giltzia

‘Cfr.’ erreferentzia osatu gabe utzi zuen Mitxelenak. Beste zein aldaeraren haur edo senide da, bada, testu hau? Zegokion lekuan (ik. [13] oin-oharra) esana dut, Matiosa Inzari entzundako “Virginia Amaren eguna da ta” erromantzeko bi ahapaldien fusio modukoa dela Mitxelenak eratua. REA/JK, 123. or-

rialdean dago hori. Horren hurbileko senidetzat jo daiteke gorago ere behin baino gehiagotan aipatuta dagoen M. Lekuonak jaso eta argitaraturikoa, batez ere lehenengo partean: “Ama Birjina eguna da ta” (REA/JK, 124. or.). Hona hemen horren lehen lau ahapaldiak:

Ama Birjiña eguna da ta  
kanta dezagun kantia,  
nik kantauko det kantia, baiña  
ondo erantzun, jentia.

Arantzazura bidea luze,  
gaiñera aldatz gorria,  
arri labrauaz eginda dago  
paradisura bidia.

Arri labraua ona da baiña  
galtzairu piña obia,  
urre gorriaz eginda dago  
paradisuan sillia.

Silla artantxe jarrita dago  
Birjiña Ama Andria  
bera bezela gura leukiden  
Birjiñak bere Semia.

<sup>[160]</sup> J. K. Gerrak bildu eta argitaraturiko aldaeran dago “Birjina orreitan ederrena” (*Euskalerrriaren alde* aldizkaria, XIII, 1923, 254. zenb., 211. or.); beste bi aldaeratan behintzat berdin dago (Lizarralde, Omaetxebarria); beste aldaera batzuetan “birjina danetan” edo “danen

**19: “Maite-maitea delako da ederra gure Ama” –dio Lizarralde (Cfr....).<sup>68</sup>**

Horratik, honako honetan irudia bera adina gorai patzen dira Ama Birjinaren edergailuak. Izan ere, antzina gure zaindariak bazuen erruz zilarra eta urrea, Amerikatik, Frantziatik, Espainia<sup>[161]</sup> bertatik etorria. Loiolako basilikak zorionez gorde ahal izan zituen bere aberastasunak, Napoleonen gudozteen atzamarretatik. Baina ez Arantzazuk. Hara eta hona Arantzazuko ondasunak zeharo sakanbanatu ziren, zorigaitzoko aldi hartan. Frantsesak sostenitzeko (elikatzeke), 491 libra zilarretan askatu<sup>[162]</sup> behar izan zitzaizkion Oñatiko Aiumentuari 1809ko urtean. Gainontzeko urre-zilar ia dena Bidasoz gora joan zen, zen tokitik harrapatuta. Lizarralde kapitulu oso bat dizu bere Arantzazuko Kondairan (Historia de Aránzazu), Ama Birjinaren “alhajei” buruz.

**20: Estrofa hau nafarrek honela dariote [sic]:**

Arantzazuko Ama-Birjiñak  
 Egutera tu leyoak;  
 Batetik itzal darioneko  
 Bestera aldatzekoak.<sup>[163]</sup>

<sup>68</sup> Cfr.....

[Erreferentzia zehaztu gabe utzi zuen Mitxelenak. Hona hemen testua gaztelaniaz eta erreferentzia zehaztuta: *Historia de la Virgen y del Santuario de Aránzazu*, Ed. Aránzazu, 1950, 3. or.: “Es bella porque ha sido amada, la efigie de la Madre de Dios de Aránzazu”. Horrelaxe hasi zuen Lizarralde bere obraren lehen kapitulu, Andre Mariaren irudiari buruzkoa; eta horren buruan 18. ahapaldiko kanta horixe jarri zuen, jarri ere: “Armallatan altuan dago”].

artean” ageri da, baina orduan beti ‘altua’ hitzarekin batera, eta ez ‘ederra’ hitzarekin:

- ... Danen artean altuena da Birjiña Arantzazukua... (Omaetxebarria, OEA, 20. dok.)
- ... danen artean altuenean Birjiña Arantzazukua... (Omaetxebarria, OEA, 15. dok.)

<sup>[161]</sup> ‘Espainia’ izena janda dago ABB edizioan.

<sup>[162]</sup> ABB-k ‘eskatu’ irakurri zuen hitz hau; zalantzarik gabe ‘askatu’ da eskuizkribuan.

<sup>[163]</sup> Arbizuko Maria Aldasororengandik R. M. Azkuek jasotako erromantze-aldaerakoa da ahapaldi hau (13.a) (CPV, X, 15-820, 946-948 or.); “Ama

Zer esan nahi duen asmatu ez dudalako, aldatu diot azken puntua.

**21: 21garrena, berriz**, 18garrenaren iruzkina, poema gorengoaren bukaera koroatzeko moldatua.<sup>[164]</sup>

Birjina Arantzazukoak” dio, ordea, jatorrizkoak. Hasieran bere horretan idatzi zuen Mitxelenak bere erromantze txukunduan: ‘batetik’, ‘bestera’; baina, gero, hitz horien gainean ‘lurretik’ eta ‘zerurantz’ idatzi zituen, hemen ematen duen arrazoiarengatik. Horregatik azken bi horiek hobetsi ditut (besteak parentesi artean utziz), ABB-ren editoreek egin zutenaren bestaldera.

<sup>[164]</sup> “Ama denetan xamurrena” dioen 21. ahapaldi hau Mitxelenak berak eratua da. Modu horretan ez da ageri Arantzazuko Balada edo Erromantzeetan.

R. M. Azkuek Frantziska Bengoetxearen ahotatik entzundako doinuari bere aldetik kanta-testu hau gaineratu zion (CPV, IX, 17-732 zenb., 851-852 or.):

Arantzazu-aldean izar bat da ageri  
izar orrek izentzat darakusku Mari;  
izen *gozoagorik*, ez titsu *samurragorik*  
entzun ote dakioko Aingeru-eliari.

Ez dirudi horrek iradokita moldatu zuenik Mitxelenak bere III. erromantze txukunduaren 21. ahapaldi hau.

Bada I. Omaetxebarriak Maria Angeles Martitegirengandik jasotako erromantze-aldaera bat, “Birjiñiaren gaba da gaur de” hasten dena (REA/JK, 125. or.), eta honako ahapaldiarekin amaitzen dena:

Zein larrosa ta zein krabeliñe  
dago zeruen salie,  
larros orreik samurrek die,  
kontuz ibilli jentie.

Baina ez dirudi honetan ere oinarritu zenik zuzenean Mitxelena.

Bada, azkenik, otoitz moduko kopl txiki bat, nonbait Mitxelenak berak Ipar EHan bildua, eta berak REA/JK-n (46. or.) eskuz transkribatua:

Arantzazuko Birjiña,  
Ainhua zaintzen duzuna,  
Ametan zu samurrena,  
Zure aurren zoriona.  
Zaituguno maitatuko  
Ez zauku deus faltatuko.

Azken honen moldaketa dirudi Mitxelenak III. erromantzea “koroatzeko” eratu zuen 21. ahapaldiak.



**DOINUAK: III. KANTA ZAHARRARENAK**<sup>[165]</sup>

[*Beltxean eman ditut Mitxelenaren testuak; eta kortxeeteen artean eta hizki zuritan, horiei neure aldetik gaineraturikoak*].

[A] R. M. AZKUE, CPV]

**Tomo VIII, pg. 748: (Pero no es de Aránzazu)**

[CPV II, VIII, 26-621, 748-749 or. (Ziburun jaso): “Bordeletik joan ginen”; Mitxelenak bere “Zazpi aizpatxo dira” kantarako baliatu zuen horren doinua].

**Pg. 924: N° 5 de “Agostubaren...”**<sup>[166]</sup>

[CPV II, X, 1-806, 924-925 or. (Gabikako Dominga Aboitiz) “Agustuaren amaboskarren / Andra Maria goizean”].

**Pg. 948: N° 4 del “Errodrigotxo Baltzategiko”**

**Pg. 948: N° 5 del “Errodrigotxo Baltzategiko”. 3-6**

[CPV-n ez dago “Errodrigotxo Baltzategiko” erromantzearen inolako aldaerarik; hemengo 948. orrialdean, berriz, Arbizuko Maria Aldasorengandik jasotako “Arantzazura egin dut promes” erromantzea dago, baina testua bakarrik, doinua 947. orrialdean baitago; beraz, jakin ez zer adierazi nahi duen Mitxelenak erreferentzia honetan. Horren atzetik nahiz aurretik –letra zuriz– dauden zenba-

---

<sup>[165]</sup> Titulu horrekin dago paper solte bat ABA eskuizkribuan, nahikoa zaila interpretatzen; ABB-ren editoreek baztertu egin zuten, eta argitaratu gabe utzi. Hemen saiatu naiz nolabait argitzen eta osatzen. Bi ataletan banatu ditut doinuok, bi iturrien arabera: 1) R. M. Azkueren *Cancionero popular vasco* (CPV); 2) Arantzazuko Bildumako REA/JK koadernoak.

CPV-ko aurrena VIII. faszikulukoa da, baina beste guztiak X.ekoak dira, orrialdeei begiratzen badiegu.

<sup>[166]</sup> Erreferentzia bakoitzeko puntubikoaren (:) ondorengo zenbakiak ez dakit zeri begiratzen dion. Badirudi Mitxelenak ordenatuta eta zenbakituta zeuzkalla erromantze nagusien aldaerak.

kiak, Mitxelenak txukundutako erromantzearen ahapaldi edo atalak adierazten dituztela uste dut].

**Pg. 961: Nueva y 962, otra nueva, y bonita.**

[CPV II, X, 24/829, 961-962 or. eta CPV II, X, 25/830, 962-963 or. “Birjina Amaren bezpera da ta” erromantzearen aldaera bana dago orrialde horietan: aurrena Etxarri-Larrauneko Juliana Etxarrirena, eta Baraibarko Joana Argiñarenarena, bigarrena].

**Pg. 988: Nueva: es de Aránzazu? 7-**

[CPV II, X, 44/849, 988-989 or. “Izar ederrak argi egiten dau” erromantzearen aldaeretako bat dago –CPV-ko lehena–, Gabikako Bibiana Gerrika-Etxebarriarengandik jasoa].

**Pg. 989: Variante insignificante de la anterior. (?)**

[Aurreko kantaren azken hiru lerroak kantatzeko aldaeratxo bat eskaintzen du CPV-k 989. orrialdean].

**Pg. 990 = Nueva, de Aránzazu? 8**

[CPV II, X, 45/850, 990. or. “Izar ederrak argi egiten dau” erromantzearen bigarren aldaera dakar hemen CPV-k, Amorebietako Luzia Estankonaren (?) ahotatik jasoa].

**Pg. 991 = Nueva y de Aránzazu (Aramayo) 9**

[“Izar ederrak argi egiten dau” erromantzearen hirugarren aldaera dakar hemen CPV-k, Aramaioko Bizenta Pujanaren ahotatik jasoa].

[B) ARANTZAZUKO BILDUMA (REA/JK]

*[Ondoren datozen erreferentziak Arantzazuko “Bildumakoak” dira, REA/JK koadernokoak, hain zuzen. Erreferentzia bakoitzaren atzeko zenbakiak, Mitxelenak txukundutako erromantzearen ahapaldi edo atalak adierazteko direla uste dut].*

**Bilduma. Pg. 26: Nueva de “Mundu onetan gura dabenak”**

[REA/JKko 26. orrialdean dago erromantzearen aldaeretako bat, doinu eta guzti (REA/JKko V. doinua) –“Mundu (y)onetan gura dauenak”, Eskoriatzako Koruetako Maria Azkoitiaren ahotatik jasoa

–27. orrialdeko beste bat, doinurik gabe eta lekukoaren berririk gabe dago–].

**Bilduma. Pg. 38: Nueva de “...egin det promes”. 4**

[Hemen aipatzen duen “Arantzazura egin det promes” erromantzea ahapaldi bakarrekoa da, REA/JKko XII. doinua; ez dugu lekukoaren izenik].

**Bilduma. Pg. 50: Nueva (recuerda a “Mundu onetan”). 10**

[Hemen ez digu erromantzearen hasiera eman, eta orrialdea oker dagoela uste dut, REA/JK-ko 50. orrialdean Begoñako Andre Maria Arantzazukoaren gainetik jartzen duen erromantze bat baitago, horrelako bakana Koadernoan: “Birjiñetatik ederrena da / Birjiñe Arantzazukue; / alan bere ta ederragoa da / Birjiñe Begoñakua”. Jakin ez, beraz, zein den “Mundu honetan gura dabenak” erromantzea gogoratzen duen hori].

**Bilduma. Pg. 55: Nueva y conocida. Son 2. 1-2**

[Halaxe da, REA/JKn (55. or.) “Izar eder bat ergitu zala” erromantzearen bi aldaera daude, doinu banarekin (XXII eta XXIIIbis). Uste izatekoa da ahapaldi gehiagoko erromantzeak zirela, baina lehena bakarrik dago jasota, eta seguruenik J. A. Lizarralde bere eskuz Koadernoan transkribatuta].

*[Hemendik beherakoa orriaren azkenean dator; agian orriaren buruan jartzekoa da. Izan ere, doinuen erreferentzien sarrera gisakoa ematen du. Baina doinuen erreferentzia goian emandakoetako batzuk besterik ez dira; horregatik testigutza jasotzearen bakarrik dakart hona eranskintxo hau].*

10 NUEVAS

**Doinuak:** Maizenean honako estrofa asko beste kantuetakoekin nahasian kantatzen direlako, berriz hemen ezarri behar nituzke aurreko 3 doinu. Hirurok izendatuz hemengo “propioak” bakarrik jarriko dizkizut (12 doinu).

“Agostubaren...” 5garrena. Azkue. Pg. 924.

“Errodrigotxo Baltzategiko”ren 4garrena. Azkue. Pg. 948

“Errodrigotxo Baltzategiko”ren 5garrena. Azkue. Pg. 948

Tomo VIIIgarrenean (pg. 748) Arantzazuko letrakin datorrena, isildu egiten dut, berez ez baita Arantzazukoa.

## DOINUEN HAMABI PARTITURA

Arantzauko Artxiboko REA/JK liburu-koadernotik eta R. M. Azkueren CPV liburutik jasotako hainbat partitura doaz jarraian, Mitxelenak aurreko oharretan iradokitakoak.

### 621.-BORDELETIK YOAN GINEN

*Allegretto*

26.

Bor-del - e - tik yoan gin-en ur - a - ren gain -  
e - an Saint Paul i - zen.a zu-en on-tzi e - der -  
e - an. Er-ten ka - pi-tain-a zen gu-re-kin bat -  
e - an Cal-cu-tan ar-i-ba-tu o - sa-sun on - e - an.

CPV, VIII, 26/621 (748-749 or.): "Bordeletik yoan ginen"

### 806.-AGOSTUAREN (I)

*Andante mosso*

1.

A - gos - tu - a - ren a - ma-bos-ka' - en  
andra Ma - ri - a goiz-e - an, Bir - ji - ne - a - ren  
de - bo - ta - txu bat si - joi - an e' - o - me - ri - an.

CPV, X, 1/ 806 (924 or.): "Agostuaren amaboskarren"

829.-BIRJINA AMAREN BEZPERA DA TA (I)

*Andante mosso*

24.

Bir-ji - na A.ma-ren bez-pe - ra da ta go - az -  
 en A - ran.tza - zu - ra, San - ta Lu - zi - ren be - gi  
 e - der - ak ar - gi e - gi - ten di - gu - la.

CPV, X, 24/829 (961. or.): “Birjina Amaren bezpera da ta”

849.-IZAR EDERAK (I)

*Andante mosso*

44.

I - zar e - der - ak ar - gie - gi - ten dau ze -  
 Zaz - pi ain - ge - ru al - de - an di - tu, zar -  
 ru al - tu - an ba - kar - ik; ez - ta ba - kaf - ik,  
 tzi - gaf - en - a gai - xo - rik, zaz - pi me - di - ku  
 la - gun - ak dit - u, Jaun ze - ru ko - ak e - mon - ik.  
 e - kaf - i deu - tses In - di - a Ma - dril - e - ta - tik.

CPV, X, 44/849 (988-989 or.): “Izar ederrak argi gitzen dau”

3.- Arantzazura bidean: "Arantzazura egin dut promes"

Ge - ro guz - ti - ok go - sa - du  
dai - gun ze ru al - tu - an glo - ri -  
a. A - men A - be Ma - ri - a.

The image shows a musical score for three staves. The first staff begins with a treble clef, a key signature of one sharp (F#), and a 2/4 time signature. The melody consists of quarter and eighth notes. The lyrics are written below the notes. The second staff continues the melody with similar note values. The third staff concludes the piece with a double bar line and repeat dots. The lyrics 'a. A - men A - be Ma - ri - a.' are written below the notes.

CPV, X, 44/849 (989 or): "Gero guztiok gogadu"

### 850.-IZAR EDERAK (II)

*Andante mosso*

45. I - zar e - der - ak ar - gi e - gi - ten dau ze - ru al -  
tu - an ba - kaf - ik. Ez - ta ba - kaf - ik, la - gun - ak  
dit - u, Jaun ze - ru - ko - ak e - mon - ik.

The image shows a musical score for three staves. The first staff begins with a treble clef, a key signature of two flats (Bb, Eb), and a 3/8 time signature. The tempo marking 'Andante mosso' is written above the staff. The number '45.' is written to the left of the first staff. The melody consists of quarter and eighth notes. The lyrics are written below the notes. The second staff continues the melody. The third staff concludes the piece with a double bar line and repeat dots. The lyrics 'dit - u, Jaun ze - ru - ko - ak e - mon - ik.' are written below the notes.

CPV, X, 45/850 (990. or.): "Izar ederrak argi egiten dau"

### 851.-IZAR EDERAK (III)

*Andante*

46. *I - zar e - der - ak ar - gi ei - ten dau*

*ze - ru al - tu - an ba - ka - rik; e - ta ez - ta - kit jai -*

*o dan ber - tan a - la da - to - er - en ze - ru - tik.*

CPV, X, 46/851 (991. or.): “Izar ederrak argi egiten dau”

▽

*Mundu onetan gura duenak ze-ruko lorakiku*

*si Arantzazuko mendixok go-ra Biar du biria ika*

*si*

REA/JK, 26. or.: “Mundu onetan gura duenak”

3.- Arantzazura bidean: "Arantzazura egin dut promes"

Handwritten musical score for "Arantzazura egin dut promes". The score is written on two staves. The first staff begins with a treble clef and a 2/4 time signature. The melody consists of eighth and quarter notes. Below the first staff, the lyrics are written in a cursive hand: "Arantzazura egin dut promes e-dogau e-dogau e-dogau e-dogau e-dogau e-dogau". The second staff continues the melody, ending with a double bar line. Below the second staff, the lyrics continue: "e-dogau e-dogau e-dogau e-dogau e-dogau e-dogau e-dogau e-dogau e-dogau e-dogau e-dogau e-dogau". At the bottom right of the page, there is a handwritten note: "n. p. 37, m. 1".

REA/JK, 38. or.: "Arantzazura egin dut promes"

Handwritten musical score for "Birjiñetatik ederrena". The score is written on four staves. The first staff is a title line with the text "Birjiñetatik ederrena" written in a cursive hand. The second staff begins with a treble clef and a 2/4 time signature. The melody consists of eighth and quarter notes. Below the second staff, the lyrics are written in a cursive hand: "Birji-ñe-tatik e-de-re-na da Birjiñe-et-". The third staff continues the melody, ending with a double bar line. Below the third staff, the lyrics continue: "ranta-gu-ku-e: a-lan be-re-ta e-de-ri-a-". The fourth staff continues the melody, ending with a double bar line. Below the fourth staff, the lyrics continue: "go da Birji-ñe Be-goi-na-ku-e."

REA/JK, 50. or.: "Birjiñetatik ederrena"



XXIII

*Andante*

*I zar e derlat argitu zala sauta j- uatxo goizi au Be-re ar-  
gitau juanuita zala satpi leque bi-di- au.*

REA/JK, 55. or.: "Izar eder bat argitu zala"

XXIII<sup>bis</sup>

*I zar e derlat argitu zala sauta j- uatxo goi-si- au. Be-re ar-  
gitau juanuita sa-la satpi le- que bi-di- au.*

REA/JK, 55. or.: "Izar eder bat argitu zala"

[GEHIGARRIAK]

*[Eranskin moduan sartu ditut hemen Salvatore Mitxelenaren eskuizkribuko hitzaurre eta hiru kapituluekin batera aurkituriko orrialde solteren batzuk; libururako hainbat ideia, aipu eta bestelako apunte aurki daiteke horietan. Horietako batzuk liburuaren erredakzioan jasoak eta erabiliak ditu. Batzuetan testuen gainetik arrasto gurutzatuak ere ageri dira, jakin ez baztertzeko asmoz eginak diren, ala erredakzioan erabili ondoren. Dauden horretan, modu nahasi samarrean, transkribatu ditut hemen, neure aldetik oharren batzuk gaineratuz, argibidetzat].*

[“Itz-aurrea” - Hitzaurrea-0]<sup>[159]</sup>

- 1) Barandiaranen hitzak.
- 2) Azkueren *metempsychosis*, eta oztopoak.
- 3) “Un pueblo que carece de literatura (isla) (Salaberria, pg. 229).
- 4) “Los mismos romances, comunes a todas las comarcas de la península, no han penetrado en el País” (pueblo mudo, pg. 229).
- 5) Evolución de los fragmentos épicos al ser recitados por generaciones... (Menéndez Pidal) pg. 209.
- 6) 208: un asunto común del romance español y vasco.
- 7) 210: el fragmentarismo es un procedimiento estético (M. Pidal) Cualidades literarias del romance.

---

<sup>[159]</sup> Tolestaturiko orrietako baten titulua da “Itz-aurrea” eskuizkribuan; benetako hitzaurrearen aurkibide-modukoa zirriboratu zuen bertan, –gero zehazki ja-

rraitu ez zuena–; eta ondoren hitzaurrean baliatzeko autoreen hainbat aipu bildu zuen, eta bestelako ideia solteak iradoki. Dena jarraian doa hemen.

8) 230: Con el Renacimiento; estimación profunda de la poesía popular. Cfr. Ozanam.

9) (Si por épico entendemos lo narrativo, épicos son los de Aránzazu; si lo heroico o guerrero, no).

10) 210: “La totalidad de r.ro [romancero?] tiende a olvidarse en la 2ª mitad del s. XVII.” “Con el pseudoclasicismo del siglo XVIII... se refugia en los pueblos retirados”.

*Procedimiento* de “flor nueva”. Se funden a veces dos versiones consagradas. (212) Es el procedimiento tradicional... “La tradición, como todo lo que vive, se transforma de continuo; vivir es variar”. – Hoy la tradición está decaída porque solo vive entre los rústicos, pero acaso se podrá revivir también en un ambiente de cultura?

Ozanam. “La poesía reside en el pueblo, como el pan en el surco”. Hay que hacerle surgir en fuerza de arte y de trabajo. Cuando una voluntad laboriosa se apodera de estos perecederos elementos..., cuando un poeta o una serie de poetas... (Osorik aldagarria). Pg. 75.

S. Francisco, apasionado por los pobres, no quiere cantar en otro idioma que el idioma del pueblo... (pg. 75).

55. Manuel de Lekuona. “La incoherencia aparente, característica de nuestra poesía popular”.

– Arantzadi: entrarán el viento y la lluvia, pero no el rey. (Lo mismo en el canto popular).

Itxasoan urak andi,  
ezta ondorik agiri.  
Pozik igaro nezazke  
maitea ikusteagaiti.

Astoak on dik oloa  
idiak arto-lastoa.  
Guk gere kantua.

Mertxikaren loriaren ederra;  
barnean dun exurraren gogorra!...

Altza eder ur airian (???)  
Iru arrano mayatzian  
Amoriorik ez duenak...

Erriak eta olerkariak bat:

Mendi altuan aurten ez ei-da  
Erromerurik loratu.

Nik imiñita igertu izen zan  
zuk imiñita berdatu.

Ama gure alde jarri ba-daigu  
alkarregaz biar dogu.

“Va a desaparecer la tradición oral sin habernos apoderado de su sentido...”  
(Andra-Mari. Aparición de Aránzau. Pg.?).

“En él –pueblo– la exaltación de la sensibilidad es tan privilegiada como en los mayores místicos”. Andra-Mari de Guip. La Misión.

—La cita de Lizarralde en Andr. M. de Vizcaya: nuestra alma se escurre a las inquisiciones del novelista...

“que no está en la madurez técnica, ni la belleza de la obra de arte, ni su poder sobre nuestra sensibilidad; nada nos subyuga tanto como la victoria del espíritu sobre la materia”. (de las imágenes de Andra-Mari).

Barandiaran: defecto endémico de los vascos: no publicar las cosas hasta hacerlas perfectas y acabadas.

La antigüedad de las encuestas de los bersolaris, de las koplazarras a lo Santa Agueda (pg. 55 del discurso de M. Pidal) y de las kanta-paperak (pg. 80, ibid.). Las koplas se propagan en el s. XVII (pg. 82, ibid.). En el siglo XV, de las refundiciones del Mío Cid, se derivaron diversos romances populares. (p. 51 de Poema del Mío Cid).

### Plan de “Itz-aurrea”

Erri-jakintzaren balioa, historia erakusteko.

Arantzazuren alde kanta-zarrak. Galtzen...

Kanta zarrak. Noizkoak? Bi gizon: Azkue eta Lizarralde. Artxiboko Bilduma.

“Esan diteke: mintzozko literaturak egi geyago eskeintzen digu historirako, eta obeto adierazten (sentierazten) digu erri baten bizitza, kronika eta jakin-paperetatik ateratako monografi askok baño”. (J. M. Barandiaranen hitzak).

### [MENENDEZ PIDAL]

*[Menéndez Pidal askotxo erabili zuen Mitxelenak batez ere sarrreran; haren Poema del Mío Cid-en edizioa eta Flor Nueva de Romances Viejos liburua irakurtzean hainbat ideia jaso zuen].*

*Poema de Mío Cid*

Edición y notas de Ramón Menéndez Pidal, de la R. Ac. Esp.

(El cantar de Mío Cid), según todos los indicios, fue escrito hacia el año 1140 y copiado en 1307 por un tal Pedro Abad. Es obra de un autor ¿benedictino de Cardeña (p. 29), de Medinaceli?, de San Esteban de Gormaz, de Medina? (31).

Localismo. Fondo histórico. Ficción poética. Influencia francesa. Compuesto sobre tradiciones locales de hacia Medinaceli (p. 48). Pronta difusión (p. 49). En el s. XV, de las refundiciones entonces en uso (de Mío Cid) se derivaron diversos romances populares (p. 51).

---

*[Badirudi liburua irakurtzean, orrialdez orrialde, ateratako ideiak direla hemengo hauek]*

Pg. 20: asunto del romancero vasco

Pg. 55: La koplazarra –“villancico”– jénero [*sic*] más antiguo en nuestra tierra que el romance? Le pregunté por la monorrima y la forma dialogada a lo Santa Ageda. XVII arte Kastillan.

Pg. 66: de las romerías ¿quién es Jean-roy?

Pg. 24: Encuestas de Bersolaris.

Pg. 74: forma gallega es la de pareados, en continuas repeticiones. Los hay también en euskera! Enséyese (?) en el Poema.

Pg. 80: Kanta-paperak. XVI hasieran beranduenetz.

Pg. 82: las koplaz se propagan en el siglo XVII.

Pg. 83: La monorrima invade  
de épico que era, a la lírica.

Los cantos del pueblo, si son populares no son buenos y si son buenos no son populares (atribuido a M. Pelayo). Lo lírico se desarrolla más tardíamente que lo épico (pg. 12).

---

**[R. M. AZKUEREN AIPU BATZUK,**  
*Congreso nacional de Música Sagrada obratik hartuak]*

“... allí (en Navarra) se oyen varios dulces cánticos de romería a la Virgen de Aránzazu, tradicionales, más en número y más tiernos que en ninguna otra región”. (¿La letrilla intrusa de la melodía “Arantzazu-aldean”? (Crónica del IV Congreso nacional de música sagrada. Pg. 259. Confer. Azkue).

Oillarrak jotzen au (t, du? munduan.  
Aingeru ederrak zeruan.  
Nik neure arimea izten dautzat  
Andra Mariari altzoan (pg. 285).

Metempsícosis en el cancionero vasco: distintas letras de distintos asuntos en una misma música. “Tratándose de pueblos como el nuestro, de vida tan larga y de tan corta historia, difícil es averiguar no sólo el origen, sino hasta la evolución de casi ninguna de sus canciones” (pg. 282).

---

[BESTELAKO ERREFERENTZIA ETA IDEIAREN BATZUK]

*N. D. d'Arantzazu*. La aparición de la Virgen. Nota 15<sup>[160]</sup>

Zugarramurdi. Pg. 25 del mismo capítulo.

Colecciones de cantos populares vascos son: la de Azkue, la de Bordes, la de Hiriart y la de Donosti. No hay más.

---

Bestela, umetako kontuak dirala esango.<sup>[161]</sup>

Odolixurtzeak ez zitun kukiltzen gure arbasoak, gu bezala. Irakurri besterik ez degu Garibay-n “Compendio...”an, amaseigarrengo gizaldian bertan, illetak zirala-ta, erostariak (“plañiderak”) egin oi zituzten bular-urratze, tximak-ateratze ikaragarriak...

Behatz txikerreko “pupua” naikoa da guretzat, ikarak artuta mediku eske joateko. Ez hayentzat.

“Oñetako lurra yabilt ikara”...; ikaratu zedilla nai bazun lurra, ayek etziran ez izutuko ez arrituko odol beroa borbor jaurtiagatik... Jentil-aroan ala baziran, erlijioak kristau-samiñaren balioa erakutsitakoan areago...

---

<sup>[160]</sup> J. A. Lizarralderen *Historia de la Virgen y del Santuario de Aránzazu*, liburuko “La aparición de la Virgen” tituluko II. kapituluko 15. oin-oharraz ari da hemen nonbait (36. or.). Bertan dator liburu honetan Lizarraldek aipatua duen J. Olhagaray-ren liburuaren aipu luzea: Ainhoako “Arantzeko Ama Birjinari” buruzkoa, alegia.

<sup>[161]</sup> Hemendik beherako lerroak dauden paper puskako testua beste nonbaitekoaren jarraipena dela dirudi: oinazearen aurrean antzinako euskal jendeen eta gaurkoen jarrerari buruzko gogoetak. Baliozkoak, Arantzazuko erromesen eta oro har euskaldunen “oinaze-zaletasunari” buruz Mitxelenak eskaintzen digun pentsaera ulertzeko (ik. ondoren EPILOGOA).

## EDITOREAREN EPILOGOA

### “ARANTZAZUREN KALBARIOTASUNA” DELA ETA

Deigarriak gertatu zaizkio seguruenik irakurleari III. erromantzearen txukunketa-osaketan eta batez ere horren ondoren Mitxelenak gaineraturiko iruzkinak, oinazeari –“kristau-oinazeari”– eta Arantzazuko erro-mesen –eta euskaldunen– oinaze-zaletasunari buruzkoak. Guztiaren sintesi-hitza, berriz, Arantzazuren “kalbariotasuna”.

Dakidanez, Mitxelenak asmatua da ‘kalbariotasuna’ hitza; gerora erabili ere beste inork erabili duenik ez dakit, Mitxelenari buruz jardutean ez bada. *Ahoz aho* liburuaren eskuizkribuko lehen zatian erabili zuen, erabili ere, aurrenekoz (1944).

Mitxelenaren *Arantzazu. Euskal poema* (AEP) lehen liburuan ez dator hitz-forma hori, baina bai –eta indartsu gainera– ‘Arantzazu=Kalbario’ ideia. “Kalbario - Alberni - Arantzazu” du titulua liburuaren bigarren ataleko lehen sarrera modukoak,<sup>1</sup> eta “Arantzazu, euskal Kalbario!” aldarrikatuz edo hasi zuen hori (AEP-2, 109. or.). Arantzazuko erro-mesaren bidegitea Gurutze-bidetzat hartzen du, bidean gora Kalbariora (119. or.); eta honetara hasten da bat-batean kantua (121. or.):

Gurutzbidea dago  
Arantzazurako.  
Hantxe baitegu gure  
euskal Kalbario.

---

<sup>1</sup> Alberni (Alvernia, La Verna) Italiako Arezzo probintziako mendia da, non San Frantzisko Asiskoari Jesus gurutziltzatuaren zauriak gorputzean markaturik geratu baitzitzaizkion, otoiitzean zegoela. Beren fundatzaile eta aitatzat daukaten San Frantziskoren espiritualitatea landu bide dute frantziskotarrek Arantzazun, Mitxelenaren iritziz.

“Arantzazura bidean” hirugarren erromantze txukunduaren aurkezpenean, hasieran, aurkitzen dugu ‘kalbariotasuna’ hitza: “Hitz bat falta, kanta zaharrak bakarrik dakiena: esan dezagun, gure Arantzazuren *kalbariotasuna*, zaharren sinesmenak ageri izan dion kalbariotasun gorputz-betekoa” (116. or.). Arantzazu euskal santutegiaren izaera berezia adierazi nahi du horrek, Mitxelenaren arabera, bertako erromes fededunek emandako haren definizioa nolabait: “Gure herriak, penitentzia haiek zamatzean, Arantzazurekiko izan duen ‘pentsamendua’, ustea, sinestea”, dio poeta frantziskotarrak.

Jesu Kristoren nekaldia eta gurutzeko heriotza dakarzkigu gogora Kalbario mendiak... Mitxelenaren ustez, Euskal Herriaren Kalbario mendia da Arantzazu, herri fededunak halakotzat hartu eta bizi izan duena. Arantzazuko erromesek erakutsi izan dute euskal fededunen espiritualitatearen muina, harako bideko eta hango gaubeiletako beren penitentzia eta gorputz-hildurazko jardunei zentzu salbagarria emanez: “gure kristautasunaren handitasun paregabe eta gure oinaze-zalearen erosletasun ukaezina”.

“Arantzazura egin dut promes” hasten den, eta “Arantzazura bidean” izendatu zuen III. erromantze txukunduaren interpretazioa ildo horretatik doa gehienbat, batez ere 11-15 ahapaldietan, horien azpian idatzitako zenbait oin-oharretan ere aditzera eman dudanez. Arantzazuko erromesa ez da bidegile penitentea bakarrik, eta bai bere benetako gurutze-bidea eginez eta Kristoren kalbario-bidea bere ibilian eta gorputzean berrituz igotzen den ‘oinaze-zalea’ ere, Mitxelenaren iritziz.

III. erromantze txukunduak lehen ahapalditik hartzen du penitentiaren tonua: “oinutsik eta oinazez”... “Arantzazura egin dut promes” balada klasikoaren aldaera guztietan (bederatzi bat behintzat) ageri da espresio hori, ‘oinazez’ ez, baina ‘dolorez’ hitza erabiltzen badute ere. Baina esaldi soil ta lau horretan amaitzen dira jatorrizko erromantzearen oinaze-adierazpen guztiak.

Erromantze osatua eraikiz –txukunduz– doala, ordea, bat-batean, eta erromesa bidean abiatu besterik egin ez delarik (3. ahap.), 4/5 ahapaldien atala sartu zuen Mitxelenak, R. M. Azkuek jasotako kantetako bat nolabait birmoldatuz: “Pauso santuak ongi kontatzen” hasten da horren aldaeretakoa bat (CPV, X, 38-843, 983. or.) eta “Amabost pausuz konponitzen da” bestea (CPV, IX, 14-729, 848 or.). Kanta horrek Arantzazuko gaubeiletako



edo “gau-bijilietako” otoitz eta penitentzi giroa kontatzen du, interpretazio guztien arabera, non, besteak beste, Guruze-bidea ere egiten baitzuten. Baina Mitxelenak, igoerari berari gurutze-bidearen –Kalbariorako bidearen– zentzua emateko edo, erromesa bidean gora abiatu orduko ipini zuen txatala, horretarako “erromerian barrena” esamoldea –inolako erromantze-aldaeatan ageri ez dena– sartuz gainera bigarren lerroan.

Gauetz izarren argitan ibilita goizean goiz Arantzazura iritsi ondoren, 10. ahapaldian berriro bidean jartzen du erromesa Mitxelenak, oraingoan San Joanen –San Joan goizeko– izar bereziak argitu eta gidatuta edo.

Baina, hara, berriro hortxe tartekatzen du Mitxelenak galdera bitxi bat, Arantzazuko baladetan inon ageri ez dena: “Arantzazura bidean ala / Kalbariora bidean?” Galdera erretorikoaren itxura du, baina ondo datorkio narrazioan zubiarena egiteko. Izan ere galdera horrexetan oin hartuz, sartuko ditu ondoren 11-12 ahapaldiak non erromesak oinazetan Kalbariora bidean doan Jesusekin eta beraren ama Mariarekin egiten baitu topo, eta horien arteko elkarriketa dramatikoaren testigu gertatzen baita. Horretarako “Ama kupidaz, Semea minez / oinutsik, gurutze-lorreen” irudikatzen ditu Ama-Semeak (11. ahap.); eta odola franko dariela –“zerieten” (Amari ere bai?)–.

Odol-isurtzearen eta elkarriketaren txatal hau M. Lekuonak Oiartzunen jasotako kanta batetik hartu zuen Mitxelenak, oin-oharrean adierazi dudanez (ik. [108] erta [109] oharrak, 109-110 or.) –ez horrelakorik ez antzekorik ez dugu aurkitzen Arantzazuko beste baladetan, ez baita horietan inolako indikaziorik zein itxuratan agertzen zaizkion erromesari Ama-Semeak–. Hiru ahapaldi dira; “Odola pranko ixuri zuen [Jesusek] / oinutsetan ta lurrian” hasten da aurrena; eta horrela jaso zuen Mitxelenak bere *Poema*-n (AEP-2, 143. or.); eta berdin ABA eskuizkribuan ere hasieran, baina gero “oinutsetan ta lurrean” bigarren lerroa honetara ekarri zuen: “oinutsik, gurutze-lorreen”. Zergatik egin zuen aldaketa hori? Egia esan, ‘lurrean’ hitzaren esanahia ez da batere argia leku horretan; baina ausarta da, benetan, aldaketa; eta, zalantzarik gabe, dramatismoa erantsi zion horrela narrazioari, III. erromantzea txukuntzeko –eraikitzeko– ahaleginean.

“Nik heriotza hartu behar dut, gurutze gogor batean”, ixten du Jesusek baladako elkarriketa, Kalbario bideko oinazeak zerbait gozatu nahi dizkion Amari erantzunez. Lekuonaren testuan “Kalbariora bidean” Je-

sus doa, eta Jesusekin batera Maria; ez erromesa. Baina Mitxelenak horien oinazekide eta guruzkide jarri du Arantzazuko erromesa; horretarako, Lekuonaren aldaeran, beste hainbat aldaeratan bezala, Jesus eta Mariak erromesari “on eta umila” izateko aholkua ematen dioten ahapaldian, besterik gabe, zera gaineratu zuen: “penitentzia maite nezala / Ama-Semeen antzean, / Ama-Semeen antzean eta / gurutze-bide berean” (14. ahap.).

Garbi dago, beraz, nolako penitntzi karga erantsi dion Mitxelenak erromantze txukun-osatuari –birmoldatuari? berridatziari?–, Jesus eta Mariarekin batera, eta haien antzera, erromesa ere gurutze-bidean jarritz, Kalbariora (=Arantzazura) bidean, modurik gordinenean.

“Arantzazura bidean” erromantze bateratuan Santutegia Kalbario mendiarekin parekatzearekin batera, *Poeman*-n nabarmendu eta sakonduko zuen ideia: “Antxe [Arantzazun] bai-degu gure / euskal-Kalbario”. Eta bi kapitulutan landuko zuen Santutegiaren “kalbariotasuna” .

*Ahoz aho* liburuaren funtsezko eskuizkribua (1944) *Poema*-ren eta *Ama-Semeak Arantzazuko Kondairan* saiakera historikoaren (1951) artekotzat jo genezake.<sup>2</sup> –Hemendik aurrera *Kondaira* soilik edo ASAK (ASAK-2) izendatuko dut hirugarren hori–.

*Kondaira*-n, hain zuzen, aurrekoetatik haratago doala dirudi Mitxelena bere kalbariotasunaren pentsamenduan, zenbait testuren eboluzioari begiratzen badiogu behintzat. *Ahoz aho*-ko erromantze txukunduan galdera zeinuarekin dago “Arantzazura bidean” = “Kalbariora bidean” ote den (10. ahap.); *Kondaira*-n, berriz, kendu egin zuen galdera-zeinua –Andre Maria eta Jesus Semearekin bidean topo egin aurretik doa gainerra erromesa, Kalbariora igotzen ari den ustetan (ik. MIG-II, 401. or.)–:

Izar-argitan ninjoanean  
kalbariora-ustean,  
Kalbariora-ustean eta  
Arantzazura-bidean,  
Birjiña Ama ta bere Semea  
topa nituan parean.<sup>3</sup>

<sup>2</sup> Edizio honen sarrerakoan esanda geratu da AEP-ren hainbat zati behintzat *Ahoz Aho*-ren eskuizkribua baino lehenagokoa dela.

<sup>3</sup> Lerro hauek honelatsu, galdera-zeinurik gabe, jasoak zituen Mitxelenak berak *Ahoz*

Honetara jarraitzen du hurrengo orrialdean: “Kalbariotasun ori!, ze gauza ederra Arantzazuk. Orixe, gure santutegiaren berezitasunik aundiena eta aintzagarriena. Nik ez dakit nola idazlari zarrak etzioten garrantzi geiago eman, erri xumeak ainbesterañokoa ematen ziolarik bere kanta-zarretan”.

Mitxelenaren hemengo azken lerroko iritzi horri buruz itzuliko naiz berehala. Aurretik hitzen bat “kalbariotasuna” ideia-aren jatorriari buruz.

Mitxelenaren *Ama-semeak Arantzazuko kondairan* liburuaz ari delarik, honetara dio L. Villasantek: “Poema [AEP] eta Kondaira, bi biak, anaiak dira ba. Liburu sutsua, gartsua atera zitzaion. Tesis bat ezartzerara datorkigu liburu hau [*Kondaira*]”. Zera dio tesi horrek, Villasanteren arabera: Euskal Herri osoaren santutegi nagusia izan da Arantzazu, Hegoaldeko lau herrialdeena eta Iparraldearena. Eta tesi horren osagarri edo beharbada Arantzazuri buruzko bigarren tesia hauxe da, Mitxelenak bere liburuan landua eta Villasantek testu honetan berretsia: “Kalbario-kutsua izan da Arantzazuko Santuarioaren berezitasun berarizkoa; kalbariotasun hori garbi ateratzen baita erromantzeetatik, eta bai Ainhoako kaperatik ere (ikus 97 eta urrengo orrialdea)”.<sup>4</sup> Horrela irakurri du Villasantek Mitxelenaren *Ama-Semeak Arantzazuko kondairan* saiakera historikoa. Berak aipaturiko orrialde hori *Kondaira*-ko VI. kapitulukoa da –“Erromeriak”–; VII. kapituluhan “Gau-bijiliez” dihardu (MIG-II, 411-432 or.). Bi kapituluotan azaltzen du, azaldu ere, Mitxelenak Arantzazuren “kalbariotasuna”.

Teologia, filosofia edo ideologiaren ikuspegitik Mitxelena juzgatzeari buruz uzkur da Joxe Azurmendi. Baina badirudi metafora literarioa baino askoz gehiago dagoela Mitxelenaren buruan eta idatzietan Euskal Herriaren Kalbario menditzat hartzean Arantzazu. Ikuspegi literariotik ikusita ere, eduki zabal-sakoneko alegoria luzea landu digu Mitxelenak gai horren inguruan, Arantzazuri buruzko bere bi liburu handietan: *Poema*-n eta *Kondaira*-n. Azken honetako VI-VII kapituluak, goian

---

*aho* liburuaren Hitzaurrean. Horrek adieraziko luke berriro 3. erromantze txukunduaren, eta oro har horren hiru kapituluon ondoren idatzia dela Hitzaurrea, liburu honetako “Editorearen Prologoan” iradokita geratu denez (21. or.).

<sup>4</sup> Luis Villasante, “Ama-Semeak”, in: *Salvatore Mitxelena* [Jakin sorta, 2], Editorial Franciscana Arantzazu, 1970, 70. or.

aipaturikoak, *Poema*-ko bigarren parteko 2. atalaren –“Gurutz-bidea” (AEP-2, 115-134. or.)– eta 3.aren –“Gau-bijilia” (AEP-2, 135-145 or.)– paraleloak dira. *Poema*-ren eta *Kondaira*-ren tartean kokatzen da nolabait *Ahoz aho*-ko beraren “folklore-lana”...

“Arantzazura bidean” erromantzea eraikitzean galdera bezala –hipotesi gisa?– ipini duen Arantzazuren Kalbario-zentzua –kalbariotasuna– erromesarentzat, *Kondaira*-n ‘tesi’ bihurtu ote du, Villasanteren hitza erabiliz? Ala bere tesia landua ote zeukan Mitxelenak *Ahoz aho* eta *Kondaira* idatzi aurretik ere?

Goragoko aipuak adierazten digunez, Arantzazuko “idazlari zaharrek” ez zioten garrantzi handirik eman “Arantzazuren kalbariotasuna” ideiarri. Hitza bera ez da, jakina, Arantzazuko historialari eta idazle zaharrengan ageri; Mitxelenak asmatua da. Baina Kalbario mendiaren ideia edo irudia bera ere ez dugu aurkituko autore horiengan zuzenean Arantzazuri buruz; indarrez behintzat ez. Horeb edo Sinai mendiaren eta bertan Moisesi garretan agertu zitzaion sasiaren –arantzaren?– irudia edo alegoria nagusitu zen Arantzazuren interpretazio teologikoa eskaintzean, Joan Luzuriagaren historiatik hasita. Ez Gamarrak eta ez Luzuriagak alderatu izan dute Arantzazu Kalbario mendiarekin; Sinai mendiaren konparazioa zetorkion egokiago, beharbada Montserrateko espiritualitatearekin bat eginez horrela: “Amb vostre nom comença nostra historia, / i es Montserrat el nostre Sinai”. Baina Sinaiaren ideia kultura jasoarena da Arantzazun: Gamarra eta Luzuriagarena aurrenik, eta ofizio liturgikoarena gero.

Dena dela, erromesen bideko neke eta oinazeek eta gaubeiletako penitentziek eta Gurutze-bideen ariketek hunkitu zituzten, hunkitu, Arantzazuko historialari klasikoak. Eta erromesaren penitentsia espiritua nabaria da horien testuetan. Nolakoa da, ordea, horien kontaketa?

Arantzazuko erromes penitentearen irudiaren marrazkirik ezagunena Luzuriaga Arantzazuko historialari klasikoarena da: “Esta multitud devota no va a su peregrinación en confuso tropel y desorden de costumbres, sino tan modesta y religiosamente edificativa, que todos en emulación santa, hazen estudio de mortificaciones diversas. Unos a pie por espacio de muchas leguas, sufren el peso de los bochornos, y calores. Otros descalzos por pedregales, y breñas (...). Otros de rodillas algunas veces. Otros ayunos para llegar dispuestos a recibir la Sagrada Comunión.

Muchos por largos trechos, caminan disciplinándose...”<sup>5</sup> Ikusten denez, neurritsu samarra da testua: oinutsik, baraurik, tarteka gorputza zigorkatuz doaz erromesak bidean gora; aldika belauniko... Antzinako edonongo erromesaren irudi aski ezaguna. Arantzazukoek gurutzea bizkarrean edo burdinazko uztairik zeramatenik ez du adierazten.

Bestelakoa da Oñatiko urteroko erromesaldi ofizialari buruz esaten duena: “... Los disciplinantes de sangre son ordinariamente quarenta, o cinquenta. Otros caminan armados de pesados hierros, por los de sus culpas [*sic*]. Otros con barras pesadas. Otros con ajustadores de cilicios...”<sup>6</sup> antzekoa zen nonbait Arrasateko herritarren erromesaldi kolektibo ofiziala. Baina badirudi udalak berak antolaturiko erromesaldi hauek nolabaiteko antzezpen penitentzialak zirela, non bakoitzak bere eginkizuna esleituta baitzeukan, gaurko Aste santuko errepresentazioetan bezala. Gero bazkari kolektibo ederrarekin amaitzen zituzten Arantzazun. Ikuskari erdiragarria eskainiko zuen zalantzarik gabe halako prozesioak mendian gora, baina azken batez teatro debotoa, agian fede handiz egina, zen prozesioa, baina ez berez norbere buruaren zigortze-ariketa.

Lizarraldeak berak, jarraian eta sinpatia handiz, zegamarren urteroko erromesaldiaren berri ematen digu (186-189 or.). Guztiz bestelakoa zen, baina beharbada oñatiarrena bezain debotoa eta fede bizikoa, haien jai-giro alaiak; bazkari kolektiboan amaitzen zena zegamarrena ere, oñatiarrena bezala.

Arantzazuko gaubeilak deskribatzean ere mintzatu zitzaigun Luzuriaga erromesen penitentzi eta hildura-tresnei buruz (2. lib., XIV. kap.): “... pasan toda la noche en vigilia de rodillas en el Templo, siéndoles despertador contra el sueño, a unos la disciplina; a otros una Cruz en el hombro; a otros una cadena al pie; a otros grillos, y prisiones, para mayor libertad de espíritus y sujeción de sus culpas. Otros con más encendida devoción se ponen en cruz largo espacio de tiempo, delante de la Purísima Virgen...” Kontaketa honetan ez dago dramatismo berezirik. Gainera, berririo esan beharra dago, gaubeiletako penitentzi giroari ezer kendu gabe, logurearen kontra ere erabiltzen

<sup>5</sup> *Paraninpho Celeste*, a.1., 2. lib., XIV. kap. J. A. Lizarralderen *Historia de la Virgen y del Santuario de Aránzazu* (HVSA) liburutik hartu dut aipua (Oñate: Ed. Aránzazu, 1950, 169. or.); Mitxelenak gehixeago moztuta jaso zuen.

<sup>6</sup> HVSA liburutik hartutako aipua (185. or.).

zituztela halako tresna eta jarrera penitentzialak, Lizarraldek berak esaten digunez, penitentzi giro eta ariketa horien testuingurua emanez: “Por falta de local bastante para hospedar a los peregrinos en días de concurrencia, éstos se albergaban durante la noche dentro del templo, y, para no dejarse dominar por el sueño que tiene actitudes indecorosas, recurrían al despertador de tales ejercicios, distraendo así los ocios de la noche”.<sup>7</sup> Horra tresna penitentzialen erabilera praktikoa. Bestalde, hildura-ariketa pertsonalak ukatu gabe, Jesusen nekaldiaren antzeppen teatralak ere antolatzen zituzten, gau luzeari orduak jateko. Gainera ez zen dena oinaze eta sakrifiziotan lehiatzea erromesen gaualdi haietan, Luzuriagak berak gaineratzen duenez: “Esta severidad, y rigor de penitencias, se temple, y suaviza con dulces músicas, que en Idioma Vascongado, se oyen algunas horas de la noche, componiéndose su armonía de diferentes coros, en número de ocho, u diez personas cada uno, que alternando las voces, y cánticos, entretienen devotamente los espíritus, para que pausen algún rato en tantas austeridades”.<sup>8</sup>

Kapituluaeren azken aldera (180. or.) Gaspar Gamarra Arantzazuko historialariaren testuak ere aipatzen ditu Lizarraldek, Arantzazuko erromesak jasan beharreko nekeak eta zailtasunak nabarmentzeko; baina horietan ageri zaizkigun penitentziak Arantzazura oinez igotze hutsak zekartzanak dira gehienbat; eta inondik ez da ageri katerik, bizkarreko gurutze zamarik, eta horrelakorik.

Luzuriaga eta Gamarragandik edan zuen hainbat berri eta ideia Lizarraldek. Ageri du, ordea, bere aldetik erromesaren irudi penitentea gordin dramatizatu eta orokortu nahia: “Comúnmente carga con una pesada cruz, otras arrastra cadenas de hierro, cuando una sogá no ahoga su respiración, o aros metálicos no entorpecen el uso de sus brazos y pies. No le afana el caminar durante largos días hacia tierras lejanas cuanto intensificar en un solo día las torturas del cuerpo: para él la subida a Aránzazu equivale a una escala santa donde practicar el ejercicio de la Cruz”.<sup>9</sup>

Nondik Arantzazuko erromesaren halako deskripzio erdiragarri eta erabatekoa? Agian auzoko baserritar zaharren ahotatik entzuna omen

<sup>7</sup> Ibid., 200. or. Antzekorik ezagutu izan dut neronek ere Arantzazuko Seminarioan mutikotan: Errosarioa esatean edo, logurea astintzeko orratzez-edo nork bere besoa ziztatzea zen aholkaturiko metodoetako bat; inolako zauririk egin gabe, ordea.

<sup>8</sup> Lizarraldek jasotako testua, ibid., 197. or.

<sup>9</sup> Ibid., 167. or.

zuenak – “...que ellos vieron con alguna frecuencia por el camino a semejantes peregrinos penitenciaros, agobiados bajo el peso de una cruz y la fatiga del camino, o con los pies ensagrentados a fuerza de arrastrar cadenas y argollas...”–, horrelako testigutzak eraginda?<sup>10</sup>

Luzuriagaren eta Lizarralderen aipu bana atera zuen, hain zuzen, Mitxelena gorago aipaturiko AEP liburuko atal bakoitzaren buruan jaritzeko.<sup>11</sup> Arantzazuko erromesen bideko penitentziez ari dira lehenengo bi aipuak, eta haien gaubeiletako penitentzi ariketez beste biak.

Dena dela, Lizarralderen aipaturiko baieztapen gordinok hunkitu zuten nonbait bereziki Mitxelena. Zalantzarik gabe horren *Historia de la Virgen y del Santuario de Aránzazu* du bere hurbileko iturri nagusia –Kanta Zaharren “Bildumarekin” batera, nahi bada–.<sup>12</sup> 1950ean argitaratu zuten liburu hori, autorea hil eta handik hamabost urtera. Baina Mitxelena eskura izan zuen haren jatorrizko testua, bere obrak lantzen eta idazten ari zela. Itzal handikotzat zeukan Arantzazuko historialaria.

Lizarralderen baieztapen erdiragarri horietatik abiatu ote zen Mitxelena Arantzazuren kalbariotasunari eta erromesaren oinaze-zaletasunari buruzko bere tesia lantzeko edo teologia egiteko? Eragin zuzeneko izan zuten behintzat horiek, bertako hitz gordinei heltzen baitie noizbait: “gurutza bizkarrean / kateak narras” (AEP-II, 117. or.).

Hala ere, eta berak aitortzen digunez, Arantzazuko historialariengan baino gehiago Arantzazuko Kanta Zahar herritarretan aurkitu zuen kalbariotasunaren ideia bera, eta ez kalbariotasun-espirtua bakarrik: “erri xumeak ainbesterañokoa [garrantzia] ematen ziolarik bere kanta-

<sup>10</sup> Ibid., 170. or.

<sup>11</sup> Ik. AEP-2, 116. eta 136. or.

<sup>12</sup> 1950ean argitaratu zuten Lizarralderen *Historia*, Mitxelenaren *Poema*-ren (1949) eta *Kondaira*-ren (1951) tartean, beraz. Baina Lizarraldek, 1935ean hil zenean, oso landua utzi zuen bere obra, eta zalantzarik gabe esku artean erabili ahal izan zuen eta ondo ezagutzen zuen Mitxelena horren jatorrizko testua, bere *Poema* eta *Aboz abo* landu zituenean ere. Lizarralderen liburuko VIII. kapituluaren –“El peregrino de Aránzazu”– eta IX.aren –“Las devotas veladas nocturnas de penitencia en el Santuario”– paraleloak dira, bestalde, Mitxelenaren bi liburuetakoak (*Poema* eta *Kondaira*), arestian aipatuak. Hiru liburuetako kapituluaren atarietan irudi grafiko berdintsuak daude errepikatuta: Erromesa –Jesu Kristo?– gurutzea bizkarrean duela eta makur-makur eginda; gaubeilaria, belauniko eta kateak eskuturretatik zintzilik –AEP-n bestelako otoizlariarena da bigarren irudi hori–.

zarretan”.<sup>13</sup> Horixe aurkitu uste du nabarmen berak txukundutako –eraikitako?– “Arantzazura bidean” erromantzean; eta horren harira datoz *Ahoz aho*-ko ondorengo azalpen gehienak, non Arantzazu mendia –santutegiaren– kalbariotasuna bakarrik ez, Arantzazuko erromesen eta euskaldunen –Euskal Herriaren– kalbariotasun-espirtua jarri nahi baitigu agerian. “Euskal Herrian Arantzazu, / gure Kalbario santu” dio bere *Poema*-n ere (AEP-II, 112. or.).

Hain nabaria ote da, ordea, Arantzazuren kalbariotasunaren ideia Arantzazuko Erromantzeetan eta oro har Kanta Zaharretan? Eta Lizarralderen espresio horiek adierazi eta irudikatzen ote dute erromesaren Arantzazura bideko –“Kalbario bideko”– nekaldiaren zentzua?

Hasteko, ‘Kalbario’ (Galbario) hitza –izena– Arantzazuko Erromantzeetako bi aldaeratan ageri da bakarrik: Behin eta berriro aipaturiko “Ama Birjiña eguna da ta” Lekuonak bildutakoan eta “Amabost pausuz konponitzen da” hasten den beste batean, Azkuek CPV-n argitaratuan (CPV, IX, 14-729, 848-849 or.). Azken hau Arantzazuko erromesek gaubeiletan gogoetatzen –eta agian antzezten, “errepresentatzen”– zuten Jesusen nekaldiko urratsei buruz ari da, kritikari guztien ustez; Lekuonaren kanta, berriz, beila haietako otoitz eta Gurutze-bide ariketen oroitzapentzat hartzen du funtsean Lizarralde. Eta, dena dela, bata nahiz bestea Jesusen nekaldiaz ari dira eta ez erromesarenaz.

Baina eta Arantzazuko erromesaren balada-aldaera askoren neke-eta penitentzi giroak eta espresioek ematen ote dute biderik, Mitxelenak atera nahi duen kalbariotasunaren teologia egiteko?

Lizarralde berak, historialarien esanetan bakarrik ez, erromesen beraien baladetan ere –erromes-kantetan– aurkitu uste zuen halako espe-rientzia lazgarriaren adierazpena: “La leyenda versificada de Aránzazu no podía menos de darnos la semblanza del famoso peregrino penitente.”<sup>14</sup>

Baina argigarriztat dakartzan bi erromantzeek –“Abuztuaren hamabosgarren” (HVSA, 168. or.) eta “Arantzazura egin det promes” (170.

<sup>13</sup> Historialariak gertakari historikoen gainetik edo azalean dabiltzala uste du Mitxelenak, eta herri-kantek dakitela hobeto hori interpretatzen: “Penitentzia haien zergatia falta da edestietan: Gure herriak, penitentzia haiek zamatzean, Arantzazurekiko izan duen «pentsamendua», ustea, sinestea” (*Ahoz aho*, 116. or.).

<sup>14</sup> HVSA, 170. or.



or.)–, ez batak eta ez besteak dute aipatzen inolako oinaze-tresnarik. Bigarrenaren hiru ahapaldi hauek dakartza Lizarraldek:

Arantzazura egin det promes  
edo gau edo egunez  
edo gau edo egunez, eta  
oinutsean eta dolorez.

Izar eder bat ateratzen da  
urtean egun batean,  
urtean egun batean, eta  
Santa Ana goizean.

Haren argitan joan nintzan  
Arantzazura ustean,  
Ama Birjina ta bere Semea  
topa nituan bidean.

“Oinutsetan eta dolorez”: horra baladak hitz xume, soil eta lauez adierazita erromesaren jarrera eta ibilbide penitentziala; eta hor bezalatu beste hainbat aldaeratan, bi hitzak batera, lelo moduan: “Oinutsik eta dolorez” doa erromesa oro har, “ortozik eta abitu beltzean” doa serora erromesa. Arantzazura oinutsik edo ortozik igotzen den erromesen irudia gure garai honetan ere ezagutu izan dugu.

Aurreraxeago, Mitxelenak hain maite zuen “Ama Birjina eguna da ta” kanta aipatua –Lekuonaren aldaera, Kalbarioari eta gurutzeko heriotzari buruzko Ama-Semeen arteko elkarrizketa dakarrena– aipatzen du Lizarraldek ere, honako ohar eta guzti: “Recogido en Oyarzun por D. Manuel de Lecuona. Contiene este canto doce estrofas, que refieren la Encarnación, Pasión y Redención de Jesús; una estrella se aparece al peregrino en el camino de Aránzazu; la misma Virgen con el Niño se le manifiesta también, exhortándole a que sea bueno y humilde. Coincide, por lo tanto, con el fondo de otros cantos del peregrino; pero lleva además reminiscencias del canto de las veladas del Santuario, en las cuales, ya diremos pronto, se meditaba, se representaba y se cantaba la Pasión del Señor”.<sup>15</sup> Geroago hobeto argitzen digu Lizarraldek zer adierazi nahi duen ‘reminiscencias’ horrekin; Arantzazuko gaubelak deskribatzean berriro M. Lekuonaren aldaeraren ahapaldi nabarmenenak (5-6 eta 10-

<sup>15</sup> Ibid., 173. or., 8. oin-oharra.

12) jaso ondoren (HVSA, 202. or.), honako hau dio kantari buruz: “A quien extrañe la desaliñada forma en que van versificadas las estrofas, y la vacilación e incorrección de los conceptos en ellas expresados, hay que advertir que no se cantaron esas estrofas en las veladas de Aránzazu; no son cantos de velada sino del peregrino, evocación de los edificantes recuerdos que llevaba del Santuario y comunicaba a los compañeros de romería y a los convecinos cuando regresaba a su casa”. Ez da, beraz, Arantzazura bidean gora doan erromesaren kanta –edo esperientzia–; areago ez da, izatez, benetako balada edo erromantzea ere, aipaturiko ahapaldi horietan behintzat, Arantzazuko gaubeiletako penitentzi ariketen eta kanten oroitzapena baino, gorago ere esandakoa errepikatuz.

Mitxelenak, berriz, ahapaldi horiexek ipini zituen, hain zuzen ere, bere “Arantzazura bidean” erromantze txukundu-osatuaren erdian; eta badirudi kanta horretatik abiatuz edo, landu zuela bere kalbariotasun-tesi antropologiko-teologiko osoa Arantzazuri, Arantzazuko erromesei eta oro har euskaldunei buruzkoa.

Errodrigo artzainaren Aloña mendia edota Luzuriagaren Horeb mendia ez, baina Jesusen Kalbario mendia eta San Frantzisko Asiskoaren La Verna mendia daude Mitxelenaren buruan, Arantzazu irudikatzean: “Kalbario-mendia kristau guzientzat deguna, orixe da Alberni, bere mallan, prantziskotarrentzat, eta orobat izan zan Arantzazu euskaldunontzat. Arantzazu, euskal-Kalbario!” (AEP-II, 110. or.).

Dena dela, Mitxelenak zuen ikuspegi antropologiko-teologiko orokorrean ere badu sustrairik Arantzazuren kalbariotasunaren teologiak. Haren eskuizkribuen artean badugu bat, Urbiako ermitan 1944ko apirilaren 25ean egin zuen homiliarena. Seguruenik ez zuen apaiztu ondoren jendaurrean egindako lehen sermoia, baina bai lehenetarikoa. Jesusen Igokundeko jaia zen.<sup>16</sup> Adierazgarria da oso hemen darabilgun gaiari buruz eta egokia haren pentsaeraren ildotik abiatzeko.

Jesusen bizitzaldiko azken hiru “mugarri”, hiru “bizitza-maila”, hiru “aldi” –nekaldia-heriotza, piztuera eta zeruratzea– kristauari egokitzen dizkio berak, hark bezala bizitzekoak dituelakoan: Jesusi bezala kristauari ere sufritzea dagokio lehenik, eta ondoren etorriko dira poza eta zoriona.

---

<sup>16</sup> Osorik iritsi zaigu homiliaren testua, Mitxelenak berak eskuz idatzia eta arduraz zuzendua.

Dialektika modukoa ipintzen du bizitzako neke eta oinazeen eta geroko poz eta zorionaren artean: “Lenik, sufritu, nekeak eramán, ez-bearrak jasan... Gero, poztu: neke-ondoren poztu. Ala bear ere du: negarraren atzetik pozak (...) Ez orain poz, eta gero poz, eta beti poz: orrela betiko ondamendia ez dator-ba. Sufritu bear diranak sufritu, datozela etorri bear duten gaitz danak..., gizona ez da kukilduko, baldin aurretik, gerora begira, zerbait poza somatzen ba'du” (1. or.).

Giza esperientzia arrunta argibidetzat hartuz –“Negarraren ondorengo poza, uraxe da pozik biziena. Izerdiaren ondoko deskantsua, uraxe atsedetik gozagarriena” (1. or.)–, geroko bizitzako pozaren handia nolabait baldintzatuta legoke bizitza honetako atsekabeari. Hain zuzen ere, bizitza honetako oinazeen saria da geroko bizitzako zoriona: “Entzule biotzekoak: gaurko Ebanjeliotik ikaskizun auxe artu bear degu ondo gogoan: kristau-oñazeak badu, izango dula egunen batean, bere saria, bere premiyua” (3. or.).

Luis Villasantek, Mitxelena oso barrutik ezagutzen zuen adiskideak idatzia da gorago aipatutako artíkulu berean: “[Arantzazuko erromesen] gau bijili haien kalbariotasuna: orra bihotz ondoraiño sartu zitzaion beste idea bat. Jesusi Pasioan lagundu behar, haren semetasuna irabaziko bada”.<sup>17</sup> Liburu honetako “Arantzazura bidean” erromantze txukundu-osatua eta horri egindako iruzkinak ikusita, esan beharra dago Arantzazuko gaubeiletako giro eta ariketekin batera, erromesen Arantzazura ibilera eta igoyeraren “kalbariotasunak” hunkitu zuela aurretik, erromesak Jesus eta Mariarekin batera eginiko benetako gurutze-bidetzat hartzeraino hori. Gurutze-bide erreala eta Gurutze-bide gogozkoa bereizten ditu Mitxelenak; badirudi erromesaren Arantzazura-bidekoak errealetik adina baduela gogozkotik, haren iritzian.

Arantzazu = Kalbario mendiarena ez da kristau bizitzaren alegoria bakarrik. Euskal Herriarentzat, euskaldunentzat oro har, izan daiteke metaforikoa –sinbolikoa–, bere oinazezko historia mingarria irakurri eta interpretatzeko erreferentzia teologikoa: “euskal-miñen opalmaya”. Baina Arantzazura igotzen diren erromesentzat ez da inolako sinbolo idealen bat, esperientzia erreala baino, Mitxelenaren hitzetan. Bere benetako Gurutze-bidea du fededunak Arantzazuko erromesaldia: Erromesarenak dira burdinak, gurutzeak, kateak, nekeak. Bide eta leku jakin

<sup>17</sup> “Ama-Semeak”, in: *Salvatore Mitxelena*, a.a., 67. or.

bat da Arantzazuko Kalbario mendia: norberak oinazeko ariketa eta jardun gogorretan igotzeko bide latza eta norberak bizitzeko gau luzea; gorputzeko nekaldia da, ez gogozkoa bakarrik. Ez da antzeppen teatral edo bizikizun liturgikoa, fisikoa eta benetakoa da.

Garai bateko (XIII-XIV mendeetako) Kalbario-bide errealak –“emen zigorkatu, emen arantzazko koroia jantzi, emen gurutzea lortu, emen erori...”– gaurko gogozko, otoitzezko Gurutze-bideari, Jesusen nekaldia gogoratu eta gogoetatzeko egiten denari, kontrajarriz, lehenengoan haritik ikusten ditu Mitxelenak Arantzazuko erromesak, geroagoko mendeetan.

Honetara deskribatzen du berak Arantzazuko erromesa III. erroman-tze txukunduaren azterketan: “Gurutze astuna bizkarrean dutela igotzen ziren gehienetan erromesak. Gurutzea ez bazen, burni-kateak (izaten ziran) oinetatik narras, edo soka bat bular lotuari arnasa larritzeko, edo haltzairu-uztaiak galtzarpean eta belaunetan pausoa baldartu eta nekarazteko...” (*Ahoz aho*, 124-125 or.).<sup>18</sup>

Arantzazuko erromesei buruz mintzaten zaigunean, hauen kalbarioaz ari zaigu zuzenean Mitxelena, ez Jesusenaz bakarrik. Izan ere, Erromesen Kalbario mendia da Arantzazu. Hortik abiatuta-edo lantzen du berak Arantzazuko erromesen oinaze-espiritualitatea –kalbariotasunaren antropologia eta teologia–, euskaldun guztientzat zabalduz gainera, euskaldun eta Euskal Herriaren iruditzat hartzen baitu Arantzazuko erromesa, sarritan bata bestearekin berdindu eta nahasteraino.

---

<sup>18</sup> Bere idatzietan oro har eta bereziki bere *Poema*-n ematen du Mitxelenak oinazeko erromesaren irudi gordina, norbere burua ankerki zigortuz doanarena: “Gurutzez eta katez / ara bear da igo” (AEP-II, 117. or.); “Bi orduko aldapan / jendea erromes / gurutza bizkarrean / ta kateak narres” (117. or.); “Erromesak erantziz / gerriz-gora guzi, / zigorkatu oi ziran / odol eta zauri” (118. or.); “Arantzazura erromes / guruzpide dan arbidez, / aldapan-gora promesadunak / –sokaz, gurutzez ta katez...– / Ama-Semeen pauso berberak / azkendu beste leirik ez...” (126-127 or.); “Esku-oñetatik kate latzak narres / dabiltz beste zenbait odolez ta nekez” (144. or.). Eta odolezko irudi horren gailurtzat Kurtzipiziotik elizara belauniko jaisten ari den erromesarena: “Damuz bularra joaz, / begitan malkoa, / belaugorritan jeixten / zizuten osoa” [Kurtzipizioko kaperatik elizarako tartea] (119. or.). Erromesaren bide luzeko nekaldi eta Gurutze-bidearen erremate gehigarria: “Hango [Kurtzipizioko] Aita Gurutzeakoari *ni bekataria* ahuspez errezatu ondoren, belaugorritan, belauniko, jaitsi eta bukatzen zen elizarakoa, ordura arteko nekaldia are gehigotuz” (*Ahoz aho*, 125. or.).

Ona Arantzazu, euskal Golgota!  
eusko Kalbario santu!

(*Guruzbidea*, in: MIG-I, 104. or.)

Andre Mariak berak Kalbario menditzat euskaldunentzat aukeratua da Arantzazu; eta horrela ulertu izan dute horiek mendeetan barna:

Zeuk, Birjin orrek autu zenigun  
gure Kalbario leku  
Euskal gizaldi etengabeak,  
Iñigo degula buru,  
burni lazgarriz, gurutzez, nekez...  
igo ta igo gatozkizu.  
Euskal nekaldi onen Amatzat  
zaude, bai, or *Arantzan zu!*

(*Guruzbidea*. Ibid., 92. or.)

“Oinaze-zaletasuntzat” interpretatzen du kalbariotasunaren espiritua-  
litatea: “neke-zalea” zen Arantzazura erromes igotzen zen orduko euskal  
fededuna, “oinaze-zalea” Euskal Herria... (ik. *Ahoz aho*, 119. or.)<sup>19</sup>

Espresio oso gordinak ditu Mitxelenak *Ahoz Aho* liburu honetan Aran-  
tzazuko garai bateko erromesaren eta euskaldunen oinaze-espirituali-  
tateari buruz: batzuetan masokismoaren kutsua dariola irudi luke, non  
oinarri antropologikoak eta teologikoak bateratzen baititu.<sup>20</sup>

Nabarmenen, ordea, arrazoi teologikoak dituzte erromesek eta eus-  
kaldun fededunek beren oinaze-zaletasunean –“kristau-oinazea” da–,  
Mitxelenaren iritziz: “Nekalkide bat gehiago, zirineo bat gehiago, sufri-

<sup>19</sup> Honako hitz hauek ipintzen ditu Mitxelenak Andre Mariaren ahotan, *Poema*-n  
(AEP-II, 180. or.): “Ene Euskalerrri, txit enetxoa: / nere-nerea zera zu!! / Miñak  
maitatzen dakizulako / miña poz biurtu zaizu...”.

<sup>20</sup> Liburuaren eskuizkribuko apunteetako batean minaren eta odolaren aurrean ga-  
rai bateko euskaldunek zuten gogortasuna –kemena– goraiatzen du nolabait  
Mitxelenak, gaur eguneko minberatasun maxkalaren kontra: “Odol-isurtzeak  
ez zituen kokiltzen gure arbasoak, gu bezala...” XVI. mendeko erostarien buru-  
-zigorketak dakartza horren adierazgarri (Garibai); eta Ozaetako Santxaren hitz  
ezagunak aipatuz, ausardia eta gogortasuna aldarrikatzen ditu minari ikararik gabe  
aurre egiteko: “«Oinetako lurra iabilt ikara...»; ikaratu zedila nahi bazuen lurra,  
haiek ez ziren ez izutuko ez harrituko odol beroa borbor jaurtiagatik... Jentil-aroan  
ala baziran, erlijioak kristau-samiñaren balioa erakutsitakoan areago” (*Ahoz aho*,  
155. or.).

tzen anairik anaiena izan nahi zuen orainena-arte euskal herriak Jesusekin, semerik semeena Ama Doloretakoarekin” (*Ahoz aho*, 119. or.). Baina ez da erraza antropologia eta teologia bereiztea Mitxelenaren oinaze-zaletasunari buruzko espiritualitatean; eta ez oinazearen gogorra eta ez oinaze-zaletasunaren gordina biguntzen ditu sublimazio teologiko-espiritualak.<sup>21</sup>

Dena dela, erromesaren eta euskaldunaren oinaze-zaletasuna ez da nork bere burua oinazetu eta torturatzean plazerra hartzen duen masokistarena ere. Nekaldian ezarritako Jesusekin bat egitea da, Mitxelenak herriaren ahotan ipinitako otoiz honen arabera:

Soma ditzagula minki gure baitan  
Zure oñazeak gorputz eta ariman!,  
Zurekin erosle gu ere gaitzezan!

(*Guruzbidea*, in: MIG-I, 96. or.).

Jesu Kristoren nekaldia eta heriotza gizon-emakumeen salbagarri izan ziren bezala, baita erromesaren penitentziak ere: “kristau-oinazea” dira. Jesusen odolarekin identifikatzen du nolabait fededunak bere penitentzietan isurtzen duena:

Jesus aretxek aldapa gora  
atzetikan utzitako  
odol apurño gaituzu, Ama!,  
Aren gorpuzki ta ataltxo.

(*Ibid.*, 106. or.).

Era berean, Arantzazuko erromesa Andre Maria eta Jesusekin batera doa, Kalbario-bidean, bere Gurutze-bidea haienarekin nolabait bateratuz: “Horregatik, gure erromesa, neke-erromesa da kanta zahar guzietan. Horregatik, gure herria, Arantzazurako gurutze-bidean gora penitentziaz doanean, Ama-Semeen neke-laguna da, eta hala sentitzen du bere burua. (...) Ama-Semeen oinaze-pausoak bereak egin nahi ditu; eta bere nekeekin Ama-Semeenak osatu.” (*Ahoz aho*, 116. or.).

---

<sup>21</sup> Mitxelenaren esatez, horrela interpretaturiko “tesi” hori ez du berak asmatua, erromesengandik harturiko ideia baino. Erromantze txukunduaren 14. ahapaldiari egindako oharrean (*Ahoz ahoz*, 138. or.), “Kristau-nekea maite nezala...” epigrafeari iruzkina eginez, badu alde horretatik esaldi argia –beste alde batetik ilun samarra bada ere–: “Hori ez da herriarena. Zilegi bekit, nerea baino erromes guziena gehiago den ideia hori”.

Eta azken batez, eta Mitxelenak dioenez: “Guruzpideak «hamabosgarren pausua» eskatzen du: Berpizkundea!” (Ibid., 129. or.).

Arantzazu = Euskal kalbarioa (“kalbariotasuna”), eta harako erromesaldia = gurutze-bidea... Errealia eta ez gogozkoa bakarrik. Oinaze-zaletasunaren adierazgarri. Benetako oinaze-ariketa, liturgia bihurtuta. Horrela interpretatu ditu Mitxelenak Arantzazuko erromesei buruzko testu historikoak, eta horrela irakurri ditu bertako Kanta Zaharrak ere: “Itz bat falta, kanta zaharrak bakarrik dakiena: esan dezagun, gure Arantzazuren kalbariotasuna, zaharren sinesmenak ageri izan dion kalbariotasun gorputz-betekoa” (Ibid., 116. or.).

Egia ote da hori? Horrelako oinaze-ariketa gogor eta gordinik ba ote dago Arantzazuko Balada (Erromantze) eta Kanta Zaharren azpian)? Eta erromesen –eta euskaldunen– oinaze-zaletasunaren kantatzat hartu behar ote dira Arantzazuko Erromantzeak? Iruditzen zaidanez, horiek ez dute horretarako biderik ematen, zuzenean irakurrita behintzat.

Hasteko L. Villasanteren testu bat aipatu nahi dut, Mitxelenak berak 1954ko maiatzaren 26an Donostiako Foru Aldundiko liburutegian emandako hitzaldiaren laburpena eginez, eta Arantzazuko Erromantzei buruz ari dela: “Gure erriaren Aszetika eta Mistikak jo dun gaillurrik aundiena beste [erromantze] onetan nabari da: «Eguna zala, eguna zala...»”. Kontua da nekez aurki daitekeela hain zabaldua izan zen eta hainbat aldaeratan ezagutzen dugun balada horretan oinaze-zaletasunaren –kalbariotasunaren– espiritualitaterik. Aldaeretako batean (Luziana Estankonarenean, ik. EERV, 686-687 or.) honako ahapaldi hau ageri da, erromesaren irudia emanez:

Oinak ortozik, zapata barik,  
 abitu baltza soinean,  
 San Agustinen liburutxu bat  
 eskutxu bien artean.

Egia esan, Arantzazuko bestelako balada-aldaeratan ere aurki daiteke horrelako ideiarik eta esamolderik. Erromesaren penitentzi espiritua eta praktika adierazten ditu horrek; baina ez dut uste oinaze-zaletasun doloristaren espiritualitatea oinarrizkeko biderik ematen duenik.

Behin eta berrriro agertu zaigunez, Manuel Lekuonak Oiartzunen bildutako kanta – “Ama Birjiña eguna da ta” hasten dena– da erromesaldiaren horrelako interpretazioa egiteko nolabaiteko bide eman deza-

keena, eta Mitxelenari bide eman diona.<sup>22</sup> Baina bakarra da aldaera hori, bestelako 150 erromantze-aldaeren artean. Kalbarioaren erreferentzia zuzenekoa daukagu bertan, Arantzazuko erromesari bidelagun atera omen zitzaizkion Andre Maria eta Jesus Semea elkarrizketan jartzen baititu bertan kantariak. Eta oinutsik edo odoletan omen doan Semeari zapatak jazteko esaten dion Amari gurutzeko heriotza onartu beharra gogoratzen dio Jesusek. Hona Lekuonaren kantako hiru ahapaldiak, hiru azkenak (10-12) –*Ahoz aho* edizio honetako [128] oin-oharrear testuinguru zabalagoan daude jasota–:

Odola franko ixuri zuen  
oinutsetan ta lurrian.  
–Ene Semea, eutsi zapatak  
jantzi eidazuz soinian.

–Ama Andria largatu bedi  
honela noian artian,  
nik heriotza hartu behar det  
Kalbarioko mendian.

Kalbarioko mendian eta  
gurutze gogor batian,  
nik heriotza hartu behar det  
gurutze gogor batian.

Kantaren erreferentzia bibliografikoak emanak baditut ere [108] oin-oharrear), berriro ekarriko ditut hona laburki. 1932an argitaratu zuen lehen aldikoz, *Anuario de Eusko-Folklore* argitalpenean; hurrengo urtean *Argia Egutegia*-n eta *El Día* egunkarian; ondoren bere *Literatura oral euskérica* liburuan jaso zuen bi lekutan (1935).<sup>23</sup>

Hamabi ahapaldikoa da aldaera Lekuonak argitaraturikoetan. Omaetxebarriak bi zatitan kopiatu zuen REA/JK koadernoan (124. or.), *Ar-*

<sup>22</sup> Arantzazuko erromantzeetan ederrenetarikotzat dauka Mitxelenak Lekuonak bildutako erromantzea (ik. AEP-II, 129. or.). I. Omaetxebarriak, berriz, Arantzazutik kanpo beste nonbaiteko tradizioan sortu eta gero Arantzazuri egokituriko kantetako ote zen hipotesia egin zuen (ik. *Arantzazu izena. Evocación franciscana y proyección misionera*, Arantzazu E.F., 2001, 219. or.). Dena dela, berak kopiatu zuen REA/JK koaderno nagusian.

<sup>23</sup> Ikus Lekuonata'ar Manuel, *Idazlan guztiak. I. Aozko Literatura* (Kardaberaz Bilduma, 22), Tolosa: Librería Técnica de Difusión, 1978, 289-290 eta 474-476 or.



*gia Egutegia*-tik eta *El Día*-tik jasota: lehen 6 ahapaldiak, batetik, eta ondorengo beste seiak, “Izar eder bat agertu zan da” ahapalditik hasten direnak.<sup>24</sup> 7-9 ahapaldiek horrelaxe hasten diren beste balada-aldaeren gai eta estilo bera darabilte; baina 10.enean eten erabatekoa dago gai eta estiloan, Jesusen eta Andre Mariaren arteko elkarrizketa dramatiko sartuz.<sup>25</sup> Honelakorik ez dago Arantzazuko Balada eta Kanta Zaharren Bilduma osoan. Oinutsik eta odola dariola doan Jesu Kristoren eta Andre Mariaren arteko elkarrizketa hau beste nonbaiteko kantatik datorrela dirudi, eta ez Arantzazuko Erromantzeen tradiziotik, Omaetxebarriak ondo iradoki zuenez.

Dena dela, Lekuonaren kantan Kalbario bidean joan, Jesus eta Maria doaz, eta ez erromesa. Erromesa ez da haiekin elkarrizketan jartzen, baina haien aholku onak hartzen ditu, bereziki Arantzazuko Erromantzeen beste hainbat aldaeretan ageri den bera: Ona eta umila izan zedila, horrela zerura joan ahal izateko (9. ahap.).

<sup>24</sup> Horrelako hasierakoak (edo antzekoak: “Izar eder bat agertu zan da”, “Izar eder bat argitu zan-da”, “Izar eder bat ateratzen da” hasierakoak, alegia) oso familia zabala dira Arantzazuko Erromantzeetan, beren aldaera ugariatzen: batzuk labur laburrak, besteak luzeagoak, baina gai berberaren inguruan dabiltzanak denak. AKDB-an 12 dira horrelakoak; eta hamairugarrena, “Izar ederrak argi eiten dau” hasten dena –horrelaxe hasten diren beste biek gai ezberdina darabilte–. Hona hamabien iturri nagusiak eta erregistro-zenbakiak: REA/JK, 54-55 or. (048. erg.), REA/JK, 55 (049. erg.), REA/JK, 142 (2) (120. erg.), EERV, 675-676 (248. erg.), OEA, 23. dok. (215. erg.), OEA, 20. dok. (211. erg.), OEA, 22. dok. (214. erg.), EERV, 683 (253. erg.), EERV, 683 (249. erg.), EERV, 684 (267. erg.), ABZ-esk, III, 0(2) / ABZ-84, 653-654 (232. erg.), REA/JK, 45 (037. erg.).

<sup>25</sup> Herri-literaturako piezetan gertatu ohi diren plano-aldaketan –“falta de orden lógico”, “una especie de desvarío– delakoaren adibidetzat dakar Lekuonak kanta hau: “Un ejemplo notabilísimo de tales desvaríos, lo tenemos también en el siguiente romance popular, sabroso fruto de la devoción de nuestro pueblo a la Virgen de Arantzazu, y en el cual, proponiéndose el poeta cantar la ascensión en romería al Santuario de Aloña, luego, sin sentirlo, se le va la imaginación por otras sendas, completamente distintas, pero cuyas ascensiones por lo dificultoso del camino, estrecho y en cuesta, no dejan de tener profunda semejanza con la senda que es el objeto del cantar. En efecto, apenas iniciado el cantar, pasa el poeta, de la senda de Arantzazu a la del cielo, para volver de nuevo al punto de partida, pero para tan poco tiempo, que inmediatamente se desvía de nuevo por la senda del Gólgota, donde termina el cantar con un tierno idilio entre Jesús y su Madre Santísima sin volver a acordarse más del Santuario del Aloña, el cual, sin embargo, de este modo logra el poeta quede en la imaginación del oyente envuelto en un halo de misterio sobrenatural” (*Idaz-lan guztiak*, a.l., I. t, 288-289 or.).

On ta (da) umilde izan nedila  
munduan naizen artian,  
gero ez nebala damu izango  
hemendik niJuanian.

Hor amaitzen zen nonbait jatorrizko kanta; 10. ahapaldirik aurrera eten tematiko-estilistiko erabatekoa gertatzen da, eta Jesus eta Mariaren arteko aipaturiko elkarrizketa hasten da; hor ez da erromesik ageri (al-boko testigu ezkutu moduan ez baldin bada).

Baina Lekuonaren kantaren lehen atalera itzuliz, hor ez dago inondik ere Arantzazu Kalbario mendi bezala irudikatuta, paradisu eder bezala baino: eta hantxe Andre Maria, urre gorritz egindako aulkian. Ikuspegi eder horren ametsetan edo, erromesaren bidea ere, neketsu eta guzti – “Arantzazura bidea luze, / gainera aldatz gorria”–, “harri labraduz” egindako paradisurako bidea begitantzen zaio kantariari.

Gertatzen da Mitxelenak osaturiko “Arantzazura bidean” erroman-tzean jasota daudela atal horren ahapaldi esanguratsuenak “Arantzazu, erromesaren Zerua” epigrafearen pean (16-17 ahapaldiak). Erromesari santutegiak eskaintzen dion ikuspegi zerutiar itzaropenezkoa ez du inola ere ahazten, beraz, Mitxelenak; baina aurretik, bidean eta gaubeilan, oinaze handitan egindako gurutze-bidearen ordaina da Andre Mariak bere Haurtxoarekin eskaintzen duen paradisia –“harri labraduz” egin-dako bidearena alde batera uzten du–.

Arantzazura bidea luze,  
gainera aldapa gorria;  
aldaparen gain Haurtxoarekin  
zeru bera da Maria.

Mitxelenak oso ezaguna zuen Arantzazuko Balada eta Kanta Zahar-  
rren Bildumako beste kanta bat (REA/JK, 80. or.), berak Arantzazu  
auzoko Albitxuri baserriko Maria Josefa Ollakindearen ahotatik jaso  
zelako, eta bere eskuz Koadernoan kopiatua, “Lagunak lagun, kanta de-  
zagun / Kristoren eriotzia” hasten dena. Oso kanta nahasia da gaietan  
eta ahapaldien neurrietan. Jesu Kristoren Kalbarioko heriotza modu  
aski aseptikoz kontatuz hasten da (lehen bi ahapaldiak). Jarraian, neurri  
ezberdinetan, beste kanta bat tartekatzeke adierazten du, seguruenik  
Maria Josefak berak kantatu ziona; baina dena kopiatu beharrean,

REA/JK koadernoko 123. orrialdekora bidaltzen du irakurlea, kantaren lehen lerroak emanez: “Jaiotzen danak eriotzia / gauza eskusa gabia”.<sup>26</sup> Beraz, Maria Josefak kantatu bide zion bigarren parte honetan, gizon-emakumeen heriotzara egiten du jauzia, eta horien zerurako esperantza kantatzen, Arantzazuko bestelako Erromantzeetan ageri diren gairen batzuk ekarriz –geroago itzuliko gara esperantza horri buruz–, azkenik Andre Maria haurdunari, Eguberriari eta Andre Mariari esker jaiotako Salbatzaileari buruz hitz eginez bukatzeko. Hirugarren partean Andre Maria ageri da bere seme martirizatuaren bila batera eta bestera, jendearekin elkarrizketan eta bere oinazean elkertasuna eskatuz.

Maria Josefa Ollakindearen kanta honen ondoren beste bi testu jaso eta kopiatu zituen Mitxelenak REA/JK-ko 81-84 orrialdeetan. Aurrena, Mitxelenak berak dioenez, A. Donostiaren hitzaldi argitaratu batetik jaso zuen: elkarrizketa anonimo moduan, Jesu Kristoren nekaldia aipatu eta haren piztuera iragarri eta kantatzen du. Bigarrena ere Aita Donostiaren hitzaldi beretik atera zuen, berak aitortzen duenez, horren gaia definitzearekin batera: “Incluye el P. Donosti en la misma conferencia una poesía –popular en todas su estrofas?– en que dialogan Santa Magdalena y un personaje que parece ser el diablo, sobre la Pasión y Resurrección de Cristo”.

Maria Josefaren kantari honako titulu hau eman zion Mitxelenak: “Gau-bijiliako kalbario-puxkak = Via crucis”, Arantzazuko erromesen gaubeiletan eta Gurutze-bidea egitean kantatzen zituzten bertsoak direla adieraziz. Badirudi, ordea, ondoren kopiaturiko bi testuentzako ere titulu baliagarritzat jo zuela. Izan ere, hirurak ari dira Jesusen nekaldiheriotzeaz edota piztueraz.

Kanta bere osoan hartuta, Arantzazura bidea ez da hor kalbariora bidea, zerura bidea baino; kalbarioak –Gurutze-bidea eta bestelako penitentzi ariketak– gaubeilan egiten dira, Jesusen nekaldia gogoratu. Ez dago inola ere Arantzazuko erromesaren Kalbario-bidearen arrastorik, Jesus eta Mariarekin bidean gora egindakoarenik.

Arantzazuko Erromantze eta Kanta Zaharretan hiru aurkitu ditut, bada, Mitxelenak testigutzat-edo baliatzen dituenak –edo balia litzakeenak– erromesaldiaren bere interpretazio dolorista emateko: Azkuek

<sup>26</sup> Izatez lerro horiek 123. orrialdeko kantaren bigarren ahapaldikoak dira, hura lehen ahapaldian honetara hasten baita: “Virgina Amaren / eguna da ta”.

jasotako “Amabost pausuz konponitzen da”, Lekuonak bildutako “Ama Birjina eguna da ta” (bigarren partea) eta Mitxelenak berak Maria Josefa Ollakindearengatik jasotako “Lagunak lagun, kanta dezagun” kantaren bigarren partea, “Jaiotzen danak heriotzia” ahapalditik aurrera.

Erromesaldiak badu konnotazio penitentzialik, jakina, Arantzazuko Erromantze eta Kanta Zaharretan, nahiz eta ‘penitentzia’ hitza ez den ageri horietan: bekatuen barkamena eta Jainkoarekin berradiskidetzea bilatzen du erromesak, eta horri begira gogora ekartzen ditu, eta nolabait berritzen, Jesusen nekaldia eta heriotza salbagarriak, Arantzazuko gaubeiletan gurutze-bidea eta bestelako penitentzi ariketak burutuz. Horien gaintik, ordea, konfesioa eta jaunartzea dira erromesaren onbideratzearen urrats nagusiak –sakramentuak–:

Birjina Arantzazuko  
lora ederrari  
graziak eta alabantzak  
emaiten nator ni.  
Asko etortzen gera  
munduaren kabutik  
hasi Frantzian eta  
Espaina guztitik.  
Guztiok bialtzen gaituz  
bai kontsolaturik,  
lehenengo konfesatuta,  
bai komulgaturik. (REA/JK, 33. or.)

Erromantzeen aldaera askotan, halaber, nabaria da Arantzazuko erromesaren bidegintzaren neke- eta oinaze-aldea, baina termino oso soil eta lauetan. Nekea dakar aurrenik bidearen luzeak: “Arantzazura bidea luze / hara orduko kantsatu” hasten da Azkuek Madozen Luisa Goñirengandik jasotako kanta laburra. Beste zenbait aldaeratan aurki daiteke ideia bera. Aldapatsua da gainera bidea, nahiz eta aldatzaren gogorra gozatu egiten duen nolabait Arantzazura igotzea zerura igotzea dela pentsatzeak.

Arantzazura bidea luze,  
gainera aldatz gorria,  
harri labraduz egina dago  
paradisura bidia. (REA/JK, 125. or.)

Bideak berez duen nekeari, ordea, penitentzi zentzua ematen dio Arantzazuko erromesak, fraide habitua eta kordioa jantzita, edota oinutsik eginez bidea: “Oinutsik (oinutsean, ortozik) eta dolorez”... Espresio hau aldaera askotan ageri da, ia ia lelo bihurtuta, Arantzazuko Kanta Zaharretan. Horrelaxe, soil-soilik, ordea; eta inolako dramatismo eta gordintasunik gabe.

Bestelako oinaze-tresnen –kateak zintzilika, burdin-uztaiez trabatuta, gurutzea bizkarrean– eta horrelakoen aztarnarik ez dago batere Arantzazuko Kanta Zaharretan. Mitxelenak Maria Josefa Ollakindea bere informatzaileari jakinminez galdetu zion nonbait horretaz, eta horra emakumeak emandako erantzuna, biltzaileak hitzez hitz jasotakoaren arabera: “Kateiak eta erromesak etortzen nik ez det ikusi izan baño ikusitakoai entzunda nago”. Arantzazuko ahozko tradizioan (eta idatzizkoan ere bai) bada izan erromesen horrelako hilduren aztarnarik, gorago azpimarratuta geratu denez, baina Kanta Zaharretan ez da ageri. Gauza bera esan daiteke, santutegira belauniko hurbiltzearenaz ere.

Azkenik zerbait esan behar, Mitxelenak, Kanta Zaharretan oinarrituta, erromesari bere neke, penitentzia eta oinazearen truke edo, zerurako bidea agintzeari buruz. Neure aldetik ez dut horrelakorik batere aurkitu Arantzazuko Kanta Zaharretan. Alderantziz, horietako aldaera askoren arabera, “on eta apal” edota pobre izateak du irekitzen zerurako bidea.

Ama-Semeekin topo egiten duen erromesak Haiengandik entzuten duen kontsejua mundu honetan “on eta umila” (inoiz “on eta garbi”) izatearekin du zer ikusirik, ez zuzenean oinazearekin edota gorputzeko penitentiarekin:

On ta umilde izan nedila  
munduan naizen artian,  
gero ez nebala damu izango  
hemendik nijuanian. (REA/JK, 124. or.)

Ahapaldi hau hainbat aldiz aipatua dugun M. Lekuonaren “Ama Birjiña eguna da ta” kantakoa da, hain zuzen: lehen partearen bukaera (9. ahap.). Beste dozena bat aldaeratan ere horrelatsu aurkitu ahal dugu.

Apaltasunarekin batera pobretasuna; edo pobrearen apaltasuna. Mitxelenak Arantzazuko Ollakindeagandik bildu zuen kantan, hain zuzen ere, pobrearen apaltasunak irekitzen du zerurako bidea (ik. REA/JK,

126. or., 4. ahap.) –bere *Poema*-n jaso zuen Mitxelenak ahapaldi hau (AEP-II, 70. or.)–:

Aberats horrek diruak ditu  
pobriak umildadia,  
umildadiak irikitzen du  
Zeru altuan atia.

Alderantziz, harrokeriak infernurako bidea irekitzen du, Arantzazuko Erromantzeen arabera; Josefa Auzmendiren “Arantzazura egin det promes” aldaerakoa da hemengo ahapaldi hau (REA/JK, 38. or.):

Superbo gaiztoz beterik dago  
Inpernuko sulezea,  
umildadeak idikitzen du  
Zeruetako atea.

Eta azkenik, apaltasunarekin batera karitateak irekitzen du zerurako bidea. I. Omaetxebarriak Maria Angeles Martitegirengandik bildutako “Kristiñau on bat ilten danien” kanta (REA/JK, 126. or.) izan daiteke horren adierazgarrietako bat;<sup>27</sup> hil berriaren eta zeruko atean zain daukan “Erredentorearen” arteko elkarriketa da hau:

— Kristinau ona, zuk zer dakazu  
mundu hontako gauzarik?  
— Umildadie, karidadie  
ez dakat, Jauna, besterik.  
— Horrexek biok dakarrezanak  
ez dau biherko besterik.  
Ia aingeruak! Erduze hona  
hartu egizue eskurik.

---

<sup>27</sup> Erromantze honek, bere osoan, ez du zuzenean zer ikusirik Arantzazurekin, baina Arantzazuko Balada eta Kanta Zaharren Bilduman dago, I. Omaetxebarriak bertan sartuta.

## SALBATORE MITXELENAREN HERIOTZAKO BERTSO SORTA BI

- I -

**Iñaki Eizmendi “Basarri”**

*Zeruko Argia*, 1966, 149. zenb., urtarrilak 2  
*Laugarren Txinpartak* [Auspoa, 55], Tolosa: Auspoa liburutegia,  
1966, 129-131 or.

- 1 NEGU-SARRERAN BERRI TXAR BATEK  
mindua du Euskal Herri;  
mantu beltzetan jantzi zaitezte  
Urbia eta Aizkorri!
- 2 Zuen maitale sutsua berriz  
ez zaizue hurbilduko,  
zuen altzoan poema-gairik  
ez du berriro bilduko.
- 3 Arantzazuko Ama maitea,  
zeu al zinan haren eske?  
Zure gogoa al zan, bihurtu  
zedila zerutar gazte?
- 4 Lurreko kantu eztiñ danak  
zuri eskeini dizkizu,  
betikotasun osoan orain  
kantuz hor ariko zaizu.
- 5 Euskal baratzak zuen lorerik.  
usaintsuenetakoa,  
negu-sarreran esku on batek  
goruntz eramandakoa.

- 6 Zertan ukatu, Ama maitea,  
utzi digun hutsunea?  
Beharrekoa genduan, ustez,  
oraindik zure semea.
- 7 Euskal Herriak eta euskerak  
habe sendo bat galdua,  
Salbatorentzat goiz iritxi da  
munduko azken ordua.
- 8 Maiteak ihes egin dio ta  
alargun gaur Arantzazu,  
hil-kanpaiaren jardun geldia  
belarritan burrundatsu,
- 9 Kendu txapela, euskaldun maite,  
toki eman otoitzari,  
galdu deguna Goietan dedin  
zerutarren hertsolari!
- 10 Negu-sarreran berri txar batek  
mindua du Euskal Herri;  
mantu beltzetan jantzi zaitezte  
Urbia eta Aizkorri!



**Jesus Lete “Ibai-ertz”**

*Arantzazu, XLV, 1966, 440. zenb., 221. or.*

- 1 Euskal Herriak jantzi beltzez du  
nahigabeturik barrena,  
gizon argi bat hil zaio eta  
nolatan ez hartu pena?  
Olerkari ta idazlari on,  
hizlaritan ederrena,  
neurri hontako gizona gendun  
Xalbatore Mitxelena.
- 2 Euskerari zuk eman zenion  
merezi hainbat balore,  
jaiotzetikan euskalduna ta  
geroztik landu dotore.  
Euskal Herriak maiteko zaitu  
gogoz orain ta gero 're,  
zeru argia bidal zaiguzu,  
arren, Aita Xalbatore.
- 3 Sasoi onena zendun garaian  
Jaunak: “Atoz neregana”,  
aginduari erantzuteko  
hemen utzi dezu dana.  
Ta lan horrekin guk jarraitu nahi  
hau buruhauste ta lana...  
Zure itzala etor dedila  
zeru hortatik gugana.
- 4 Itxasertzeko semea zinan  
geroz kabi Arantzazu,  
horregatikan mendi honentzat  
maitasuna izan dezu.

Zenbat alditan harkaitz tartetik  
gailurrera otoizka zu,  
ta gailur hartan zenduen Ama  
gaur zuk ondoan daukazu.

- 5 Suitza aldera joana zinan  
dotrina erakustera,  
lurralde hartan ziran ardiei  
Jaunagan dei egitera.  
Zere bizia utzi artean  
lan hortan saiatu zera,  
zuri eskerrak zenbat jun diran  
betiko Goi-Artaldera!!
- 6 Zenbat neke ta zenbat lan eder  
zuk egin zendun munduan,  
neurtuko dunik ez dago hemen  
azterketako orduan.  
Zure agurrak mina utzi du  
euskaldun danon barruan,  
eta bestalde poza, han baita  
Euskal Izar bat zeruan!!